

Hezkuntza aldatzea mundua aldatzeko...

Hezkuntzako ekintza askatzaile baten alde!

Garapenerako Hezkuntzako IV. Biltzarreko aktak

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 9, 10 eta 11a.

IV Congreso
Educación
para el Desarrollo



Garapenerako
Hezkuntzaren
IV. Biltzara


Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

 **hegoa**
HEGOKO ERLOKUA: Gasteizko Unibertsitatearen
Eusko Lehen Heziketa Fakultatearen Biltzar Gela

Hezkuntza aldatzea mundua aldatzeko...

Hezkuntzako ekintza askatzaile baten alde!

Garapenerako Hezkuntzako IV. Biltzarreko aktak

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 9, 10 eta 11a.

IV Congreso
Educación
para el D esarrollo



Garapenerako
Hezkuntzaren
IV. Biltzarra



Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentziaren (AECID) finantza-laguntzari esker egin da. Argitalpenaren edukia HEGOArean erantzukizuna da, eta ez du zertan islatu Eusko Jaurlaritzaren eta AECIDen iritzia.

Finantzatzaileak:



Laguntzaileak:



Hezkuntza aldatzea mundua aldatzeko...
Hezkuntzako ekintza askatzaile baten alde!
Garapenerako Hezkuntzako IV. Biltzarreko aktak

Antolatzailea:



www.hegoa.ehu.es

hegoa@ehu.es

UPV/EHU

Zubiria Etxea

Lehendakari Agirre etorbidea 81 • 48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako campuseko liburutegia

Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxe: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64 • Faxe: 94 601 70 40

Inprimaketa: Lankopi, S.A.

Discinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Itzulpena: Hitzek. Irene Hurtado Mendieta

ISBN: 978-84-89916-99-9



Dokumentu hau Creative Commons-en lizentzian dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>



Aurkibidea

Aurkezpena	5
Helburuak	7
Batzorde Antolatzailea	8
Metodologia	9
Generoaren behaketa	11
Programa	12
Hitzaldiak	17
Deskolonizazioa, askapena eta hezkuntza zibilizazio-aldaketarako. Gako sozialak, politikoak, ekonomikoak eta kulturalak Latinoamerikatik. Isabel Rauber	19
Eskola publikoa, mugimendu sozialak eta hezkuntza eraldatzailea: murrizketak eta gainezkatzeak. José Emiliano Ibáñez	59
Laneko taldeen kontalaritzak	77
1. Gai-ildoak. Subjektu politikoaren eraikuntza	79
1. Lantaldea. Itziar Gandariasek dinamizatua	79
2. Lantaldea. Jaume Martínez Bonafék eta Marlucy Alvesek dinamizatua	97
2. Gai-ildoak. Eraldatzeko komunikazioa	115
3. Lantaldea. Pablo Navarrok dinamizatua	115
4. Lantaldea. Ángeles Díezek dinamizatua	127
3. Gai-ildoak. Botere-harremanak zalantzan jartzea	137
5. Lantaldea. Natalia Navarrok dinamizatua	137
6. Lantaldea. Jethro Pettitek dinamizatua	145
4. Gai-ildoak. Prozesuen azterketa	175
7. Lantaldea. Esther Canariasek eta Fernando Altamirak dinamizatua	175
8. Lantaldea. Oscar Jarak dinamizatua	195
1. Monografikoa. Hezkuntza publikoaren alde.	
Albert Sansanok eta M ^a Ángeles Llorentek dinamizatua	211
Laburpen gisa. Hezkuntza emantzipatzaileari buruzko eztabaidari egindako ekarpenak. Gema Celorio	219
Eranskina. Generoaren behaketa	231

Aurkezpena

2006an azkeneko biltzarra egin genuenetik 8 urte igaro dira eta, aldi honetan, areago larritu da alor ugari -ekonomikoa, ekologikoa, zaintzen alorra, elikagaiena...- ukitzen dituen krisia. Horrek guztiak zalantzan jarri ditu krisia eragin duten ereduak -kapitalista eta neoliberal- eta horri lotuta dagoen kontsumo-jendartea.

Aldi berean, orokortutako desadostasunaren eta suminaren ondorioz, herritarren mugimenduak sortu dira. Eskubideak galtzen, eta desberdintasunak eta bazterkeria hazten eta alor publikoa ahultzen ari den honetan beste eredu batzuk eskatzen dituzte mugimendu hauek, eredu erabat demokratikoak eta justizia soziala eta berdintasuna oinarri dituztenak.

Biltzar honetan gai horiek guztiak eztabaidatu nahi ditugu: jendartean duten eragina, eraldatzeko gaitasun handiagoz aritu nahi badugu nahitaez bultzatze beharrezko hezkuntza-estrategiak eta horiek bultzatze beharrezko genituzkeen eragileak (mugimendu sozialek, irakasleek, hezitzaileek, antolatzaileek, elkarteek...) izango genukeen zeregina eztabaidatu nahi ditugu.

Argitalpen honetan, Biltzarrean eskaini ziren txosten batzuk, Biltzarra egituratu zuten 4 gai-ildoan (GI) inguruan eratu ziren 8 kontalaritzak (subjektu politikoaren eraikuntza; eraldaketarako komunikazioa; botere-harremanak zalantzan jartzea; eta prozesuen azterketa), Hezkuntza Publikoaren Aldeko Monografikoaren kontalaritza eta Hezkuntza emantzipatzaileari buruzko eztabaidari egindako ekarpenen laburpen bat dituzue irakurgai.

Dokumentazio hori guztia Biltzarraren web orrian duzue eskuragarri: <www.congresoed.org>. Horrez gain, txostenen bideoak eta gai-ildoetan sakontzeko proposatu ziren erreferentziako beste testu batzuk ere ikus daitezke (saiotako lan-eskemak, artikuluak...). Era berean, Biltzarra egin aurretik ekarpen teoriko gisa aurkeztu ziren idatzizko komunikazioak ere web orrian dituzue.

Eskerrak eman nahi dizkiegu autokudeatutako tailerren eta proiektuen laborategien formatuan lana eskaini zuten lagunei. Gure ustez, oso formula interesgarria izan zen une honetan Estatu osotik erabiltzen ari diren hezkuntza-arloko proposamen asko ezagutzera emateko.

Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu Batzorde Antolatzaileko lagunei, emandako laguntza eta izandako prestasunagatik. Eskerrik asko, zuen egonarri, ardura eta umore onagatik. Hurrengo ekitaldietan eta borroketan elkarrekin egongo garelakoan.

Gema Celorio eta Alicia López de Munain.
Hegoa. Vitoria-Gasteiz, 2014

Helburuak

Batzorde Antolatzaileak helburu hauek zehaztu zituen Biltzarrari begira:

- Ekintza pedagogikoa jendartea eraldatzeko praktika bihurtzeko gakoak taldeka zehaztea.
- Jendarteko ekintzako eta borrokako praktikek sortzen dituzten hezkuntza-prozesuen ardatz komunak zehaztea.
- Hezkuntza eraldatzailea eta kritikoa sostengatzen duen esparru teorikoaren oinarriak eraikitzea, premisa hau izanda: mundu bidezkoago bat eraiki nahi dugu, merezi duen bizitza bizi ahal izateko, ondo ulertuta izakiak besteen eta hartzen gaituen naturaren mende gaudela, eta, beraz, zaintzek gure ekintzen ardatza izan beharko luketela, eta nagusi den merkataritzako kulturari eta patriarkatuari aurre egin beharko geniekeela.
- Elkargune bat egituratzea, testuinguru latzaren aurrean, era askotako eragileek (jendarteko mugimenduek, garapenerako gobernuz kanpoko erakundeek, hezkuntzako instituzioek, hedabideek, hegokoek zein iparrekoek...) elkar ezagutu, onartu eta ahaldundu ahal izateko, nagusi denaren aurkako praktikak berriz hausnartzeko, hezkuntzako estrategiak irudikatzen eta itunak ehuntzeko.

Batzorde Antolatzailea

2013. eta 2014. urteetan, hainbat elkarte sozialetako lagun-talde bat bildu ginen, Biltzarreko eztabaidaren ildoak eta metodologiak finkatzeko. Batzorde Antolatzailea antolatu genuen -estatukoa eta bertakoa-, hainbat sektoretan ibilbide luzea egina zuten lagunekin (komunikazioa, GGKE, unibertsitatea, berrikuntza pedagogikoko mugimenduak, hezkuntza formala eta ez-formala...). Batzorde horrek Biltzarrak izango zituen orientabidea, edukiak eta egitura zehaztu zituen, eta espazio bakoitza dinamizatzeko gonbidatu beharreko lagunaren izenak ere bai.

Hauk eratu zuten Batzorde Antolatzailea:

Koordinazioa: Gema Celorio eta Alicia López de Munain (Hegoa, Vitoria-Gasteiz).

Estatuko Batzordea: José Antonio Antón (Asociación Entrepueblos eta Movimiento de Renovación Pedagógica Escola d'Estiu País Valenciá); Alejandra Boni (Universidad Politécnica de Valencia); Neus Garriga (Asociación Entrepueblos, Bartzelona); Jordi Menéndez (VSF-Justicia Alimentaria Global, Madril); Montse Santolino (Federació Catalana d'ONG per la Pau, els Drets Humans i el Desenvolupament, Bartzelona); Carlos Cuervo eta Gloria Sosa (Colectivo de Aprendizaje Alternativo -CALA, Alburquerque); María del Mar Palacios (Intered, Madril); Juanjo Celorio (Vitoria-Gasteizko Irakasle Eskola. UPV/EHU. Hegoa).

Bertako Batzordea: Joseba Sainz de Murieta (Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa. UPV/EHU. Mugarik gabeko Ingeniaritza, Euskadi); Janire Sáenz de Buruaga (SETEM, Vitoria-Gasteiz); Aurora Hermosilla (Euskadiko GGKEen Koordinakundea- Araba); Itziar Caballero (CEAR-Euskadi); Lorena Fernández (Desazkundea, Vitoria-Gasteiz); Esther Canarias eta Fernando Altamira (Iniciativas de Cooperación y Desarrollo, Bilbo); Lidia Ruiz (Mugarik Gabe, Vitoria-Gasteiz); Federico Abreu (Komunikazio, hezkuntza, lankidetzeta eta giza kapitalaren arloko proiektuen kudeatzailea eta ikertzailea, Bilbo); Amaia del Río (Hegoa, Bilbo).

Metodologia

Biltzar honetarako planteatutako egiturak ahalik eta gehien erraztu nahi zuten bertaratutako pertsona guztien parte-hartzea, egungo egoeraren ikuspegi kritikoa eta ekintza pedagogiko eraldatzaileak bultzatu ahal izateko estrategiak lankidetzaren eta denon ekarpenaren emaitza izan zitezten.

Horretarako, zenbait espazio eta lanerako formula desberdinak ditugu. Jarraian emango dizuegu horien guztien berri.

Osoko bilkurak. Hasiera emateko hitzaldia eta mahai-ingurua osoko bileretan egin genituen. Izan ere, osoko bilerak baterako espazioak dira, parte-hartzailen talde osoak talde-eztabaidari ekiteko erabilia ostegun eta ostiral arratsaldeetan.

Laneko taldeak. Gai-ildoetako buruz (GI) eztabaidatzeko espazioak izan dira:

1. Subjektu politikoaren eraikuntza
2. Jendartea eraldatzeko komunikazioa
3. Botere-harremanak zalantzan jartzea
4. Prozesuen azterketa

Laneko bi talde (LT) ezarri dira gai-ildo (GI) bakoitzean, eta ostiral eta larunbat goizean jardun dute. Laneko talde bakoitzak bideratzaile bat izan du, eta hori, proposatutako edukiak aurkezteaz gain, eztabaida dinamizatzeaz arduratu da.

Ostiral eta larunbat arratsaldeetan, lan egiteko hainbat espazio egon ziren jardunean aldi berean:

Tailerrak. Trebatzeko tailerrak izan dira, eta proposamen metodologikoak eta hezkuntza-tresnak oinarri hartuta egin da lana. Programan proposatutako tailer gehienak autokudeatutakoak izan dira, 2014. urtearen hasieran irekita izan genuen deialdian aurkeztutakoak. Batzorde Antolatzaileak aukeratu zituen programan dauden tailerrak, batez ere Biltzarreko gai-ildoekin bat zetozen ikusita.

Monografikoak. Batzorde Antolatzaileak hautatutako gai bitan sakontzeko espazio tematikoak izan dira:

1. Hezkuntza publikoaren alde.
2. Merkataritza eta Inbertsiorako Itun Transatlantikoa (TTIP ingelesez).
Kultura- eta hezkuntza-arloetako politikan izandako eragina.

Monografiko bakoitzak bi lan-saio izan ditu, eta bitartean taldea egonkor arituda.

Proiektuen laborategia. Proiektuen laborategian espazio bat eskaini nahi izan dugu pertsonen eta erakundeen arteko harremanak lantzeko, hain zuzen, elkar babesteko edo etorkizunean lanean batera aritzeko aukera izan dezaketela uste duten horientzat..

Komunikazioak. Biltzar honek parte-hartzailea eta eztabaida egiteko egokia izan behar zuenez, Biltzarreko egunetan ez dugu espaziorik jarri komunikazioak ahoz aurkezteko. Hala ere, aurkeztu diren komunikazioak formatu elektronikoan argitaratu dira, eta osorik eta eskuragarri daude:

- Biltzarreko webgunean: <www.congresoed.org/wp-content/uploads/2013/09/05Comunicaciones.pdf>.
- Hegoako Liburutegi Digitalean <<http://biblioteca.hegoa.ehu.es>>.

Generoaren behaketa

Gure konpromiso feminista dela eta, ahalegina egin dugu parte-hartzeen eta lanerako edukien ikuspegia androzentrikoa izan ez zedin, eta genero ikuspegia sartzen ere saiatu gara, bai azterketan bai hezkuntza-proposamenetan.

Biltzarrean tresna hauek jarri ditugu abian ikuspegi feminista sartzeko:

- Generoko Azpibatzerdea, Batzorde Antolatzailearen barruan, genero-arloko jardueri buruz berriz hausnartzeko. Txostengileak hautatzeaz, parte-hartzea erraztuko duten metodologiak erabiltzeaz, eta hizkuntzaren erabilera ez-sexistari lotuta dauden alderdi batzuk aztertzeaz arduratu da. Familiako kontziliaziorako lagungarriak diren neurriak hartzeaz ere bai.
- Generoari buruzko oharra. Biltzarreko lan-espazio bakoitzerako izendatutako arduradunak behaketako txantiloian agertzen ziren datuak bildu zituen. Hamar item dira, oso errazak, gizon eta emakumeen parte-hartzeari eta hizkuntzaren erabilerari buruzkoak (1. Eranskina).

Behaketaren emaitzekin, txosten bat prestatu da, eta, bertan, zenbait balioespen eta gomendio jaso dira, hurrengo prozesuetan alderdi honetan hoberantz egiteko. Txostena Biltzarrearen web orrian dago eskuragarri.

Programa

Osteguna, urriaren 9a. Arratsaldez

15:00 - 16:00 Egiatzatzea eta paper-zorroak banatzea

16:00 - 16:45 Hasiera eta instituzioen mahaia

Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID).

Pilar Debén Gómez (Garapenerako Hezkuntzako Zerbitzuko burua)

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia. **Paul Ortega** (zuzendaria)

Arabako Foru Aldundia. **Jagoba Gómez Alonso** (Gizarte Sustapeneko zuzendaria)

Vitoria-Gasteizko Udala. **Patxi Sandín** (Gizarte Gaietako eta Adinekoen Saileko zuzendaria)

Hegoa Institutua. **Luis Guridi** (zuzendaria)

16:45 - 17:30 Aurkezpena eta lan-metodologia

Aurkezleak: **Juanjo Celorio** eta **Alicia López de Munain**. Hegoa

17:30 - 18:00 Atsedena

18:00 - 20:30 Hasiera emateko hitzaldia: Deskolonizazioa, askapena eta hezkuntza zibilizazio-aldaketarako. Gako sozialak, politikoak, ekonomikoak eta kulturalak Latinoamerikatik

Txostengilea: **Isabel Rauber**. Latinoamerikako pentsalaria, Filosofian doktorea

Aurkezlea: **Manuela Carmena**. Magistratu erretiroduna

Ostirala, urriaren 10a. Goizez

09:30 - 11:30 Gai-ildoei (GI) buruzko aldibereko laneko taldeak (LT)

1. GI. Subjektu politikoaren eraikuntza		
	Dinamizazioa	Kontalaritza
1. LT	Itziar Gandarias . Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea. Deustuko Unibertsitatea	Amaia de Río Hegoa
2. LT	Jaume Martínez Bonafé . Didaktika eta Eskola Antolakuntza. UV. MRPko militantea Marlucy Alves Paraiso . Universidad Federal de Minas Gerais (Brasil)	Itziar Caballero . CEAR-Euskadi
2. GI. Eraldaketa lortzeko komunikazioa		
	Dinamizazioa	Kontalaritza
3. LT	Pablo Navarro . ZEMOS 98	Lidia Ucher . Communication for Social Change

4. LT	Ángeles Díez. Soziologia 1 Saila (Aldaketa Soziala) UCM	Federico Abreu. Aholkularia
3. GI. Botere-harremanak zalantzan jartzea		
Dinamizazioa		Kontalaritza
5. LT	Natalia Navarro. Genero eta Garapeneko aholkularia	Sergio Belda. INGENIO Institutuko ikertzailea, CESIC- UPV
6. LT	Jethro Pettit. IDSKo Parte-hartze, botere eta aldaketa soziala taldea. Sussexeko Unibertsitatea	María Viadero. Mugarik Gabe
4. GI. Prozesuen azterketa		
Dinamizazioa		Kontalaritza
7. LT	Esther Canarias y Fernando Altamira. Iniciativas de Cooperación y Desarrollo	Esther Canarias y Fernando Altamira. Iniciativas de Cooperación y Desarrollo
8. LT	Oscar Jara. Red Alforja eta CEEAL	Neus Garriga. Asociación Entrepueblos

11:30 - 12:00 Atsedendia eta kafea

12:00 - 14:00 Gai-ildoei buruzko aldibereko laneko taldeak (jarraipena)

14:00 - 15:30 Bazkaria

Arratsaldez

15:30 - 17:30 Aldibereko lan-espazioak

Lantegiak	Proiektuen laborategiak	Monografikoak
1. "Ahaztutako desirak" lurreratzen. Genero-ikuspegia eta sexu-aniztasuna. Nahia Taldea	1. Baterako hezkuntzako esperientziak Guatemalan eta Euskadin. Carolina del Río eta Zigor Uribetxebarria . ALBOAN	1. Hezkuntza publikoaren alde (I). Albert Sansano . Hezkuntzaren Mundu Foroko Nazioarteko Batzordeko Idazkaritza Exekutiboa. eta M ^a Ángeles Llorente . Berrikuntza Pedagogikoko Mugimenduen Plataforma
2. Taldeko lan ez-patriarkala. Jendartea eraldatzeko apustu feminista egiten duten erakundeak izateko aldakuntzako tresna. María Viadero . Mugarik Gabe		
3. Nazioarteko elkartasunezko harremanetan herritartasuna eraikitzeke ikaskuntza informala. Sergio Belda eta Alejandra Boni . UPV/EHU		
4. Sistematizazioa eta M-15, ikaskuntzarako aliatuak. Esther Canarias . Iniciativas de Cooperación y Desarrollo	2. Euskadi/ Amazonia. Kultura-arteko jendarte eleaniztunak. Hezkuntza inklusiboa. Goreti Orbea , Joseba Arregi eta Juanjo Celorio . UPV/EHU	2. Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmena (TTIP). Kultura- eta hezkuntza-arloetako politikan izandako eragina (I). Concha García Herrero . Ekologistak Martxan
5. PPLAY! Ikus-entzunezkoen kultura digitalerako ikusmenaren pedagogia. Andrea Aisa Vega . Espacio REDO		
6. Desobediencia zibila. Ricardo Sosa eta Gloria Sosa . CALA		

17:30 - 18:00 Atsedernaldia

18:00 - 20:30 Mahai-ingurua

Hezkuntza, mobilizazioa eta aldaketa soziala. Suminduta eta abian: irabazi ahal da

Txostengilea: **Esther Vivas**. Jendarteko mugimenduen eta nekazaritzako elikagaiei buruzko politiken ikertzailea

Eskola publikoa, mugimendu sozialak eta hezkuntza eraldatzailea: murrizketak eta gainezkatzeak

Txostengilea: **José Emiliano Ibáñez**. Bigarren Hezkuntzako irakaslea. MRP. Gaztela eta Leongo Hezkuntza Kontzejua

Moderatzailea: **Gorka Andracka**. Kazetaria. Mar de Fueguitos irratsaioaren koordinatzailea

Larunbata, urriaren 11. Goizez

09:30 - 11:30 Gai-ildoei buruzko aldibereko laneko taldeak (jarraipena)

11:30 - 12:00 Atsedendia eta kafea

12:00 - 14:00 Gai-ildoei buruzko aldibereko laneko taldeak (jarraipena).

14:00 - 15:30 Bazkaria

Arratsaldez

15:30 - 17:30 EAldibereko lan-espazioak

Lantegiak	Proiektuen laborategiak	Monografikoak
1. Urratsez urrats (geure burua) eraikitzen. Nora ezaren pedagogiaranzko bideak. Mar Estrela/Jaume Martínez Bonafé. UV. Eva Marichalar/Jordi Lafon. UVIC-UCC	1. Etorkizuneko maisu-maistrak, jendarte aldatzeko subjektu politikoak: Hezkuntzako jardunbide egokien bankua. Almudena Buciega eta Jordi Giner. Florida Universitaria	1. Hezkuntza publikoaren alde (II). Albert Sansano. Hezkuntzaren Mundu Foroko Nazioarteko Batzordeko Idazkaritza Exekutiboa. M^a Ángeles Llorente. Berrikuntza Pedagogikoko Mugimenduen Plataforma
2. Ahalduntzea. Permakultura soziala, hezkuntza emantzipatzaileko tresna gisa. David González eta Lorena Fernández. Iraun Permakultura		
3. Jendarte eraldatzea adierazpen artistiko-kontrakulturalaren bidez. Arketipa		
4. Antzerki soziala, esku hartzeko, eragina izateko eta hezteko tresna gisa. Ricardo Bámaca eta Jule García. Teatro en Vías de Desarrollo (TEVIDE)	2. Herritartasun globalerako hezkuntzaren aldeko mugimendua. Oxfam, Intermon, Entreculturas, ALBOAN eta Intered	2. Europa eta Amerikako Estatu Batuen arteko Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmena (TTIP). Kultura- eta hezkuntza-arloetako politikan izandako eragina (II). Berta Iglesias. Bigarren Hezkuntzako irakaslea. Ekologistak Martxan
5. Sare sozialetan egindako salaketa-kanpainak eta emaitzak mapan kokatzea. Sonia Ros. Quepo. Komunikazio-estrategiako taldea		

17:30 - 18:00 Atsedendia

18:00 - 20:00 Amaierako osokoa: Laneko taldeek gai-ildoei buruzko ateratako ondorioak. Eztabaida eta ekarpenak

Txostengilea: Gema Celorio. Hegoa

Hitzaldiak



Deskolonizazioa, askapena eta hezkuntza zibilizazio-aldaketarako

Gako sozialak, politikoak, ekonomikoak eta kulturalak Latinoamerikatik Itxaropeneko pedagogiak

Isabel Rauber¹

Aurkibidea

1. Oinarriak

- Zibilizazio-jomuga berrietarako pentsamendu berriak
- "Ongizate" indibidualistatik "biziera on" kolektibora

2. Kultura-artekotasuna eta deskolonizazio askatzailea

- Kultura-arteko ikuspegi kritikoa
- Despatriarkalizazioa, generoa eta identitate sexual desberdinen aitortza

3. Kultura-arteko pedagogia deskolonizatzaile baterantz

- Jakintzak eta jakinduriak berreskuratzea eta taldeka eraikitzea
- Subjektuen zentralitatea

4. Bibliografia

1 Filosofian doktorea. Hezitzaile ezaguna. Lanusgo Unibertsitate Nazionalako irakaslea. Pasado y Presente XXI-en zuzendaria. Alternatiben Munduko Foroa osatzen duenetako bat. India, Afrika eta Latinoamerikako mugimendu sozial eta indigenetako prozesu politikoaren ikertzailea. <www.isabelrauber.blogspot.com>.

1. Oinarriak

Zibilizazio-jomuga berrietarako pentsamendu berriak

Hemen partekatu ditudan gogoetak ez dira abiatzen XX. mendean nagusi izan den ezkerreko pentsamenduaren paradigmetatik, ez eta haietatik abiatuta adierazten ere. Paradigma horietan elikatuta, aurkeztu ditudan proposamenak, kontzeptuak eta begiradak ikuspegi eguneratua bideratzen duen ikusmoldeari dagozkio, kapitalak zuzendutako mundu-sisteman, kapitala nagusi duen globalizazio-garai betean. Eta horrek badu lotura bai orainaldia kritikoki aztertzearekin, bai eta, biziaren alde, gaur egungoa gainditzeari buruzko gogoetekin ere.

Kapitalismoaren oraingo krisia eta gainbehera globala ez da halabeharrez gertatu, ez eta merkatuaren funtzionamenduko eredu neoliberala ezartzerakoan izandako hutsegiteen edo akatsen ondorioz ere: neoliberalismoak bilatu eta erein du; finantza-korporazio handien irentsi nahi hazkor eta asegaizak zuzendutako sistemaren perbertsioa da. Korporazio horiek munduko bankuaren bitartez hitz egiten dute, eta ziklo berri baterako harrapaketa berriari dagozkion markak ezartzen ari dira gaur egun, mundu osoan zehar kapitala metatzeko eta kolonizatzeke. Kapitalismoa naturaren eta gizakion harrapakaria da jatorritik beretik, eta ez du aukerarik sortzen eragiten duen arazoa konpondu ahal izateko; alderantziz, okerragotu baizik ezin du egin.

Kapitalaren oldarrari aurre egiteko eta izan litekeen mundu bakarra honako haxe dela baieztatu (eta inposatu) nahi duen pentsamendu bakar menderatzaileari eusteko indarrak herrietako erresistentzia, sorkuntza eta eraikuntzetan agertzen dira. Alternatibak bilatzen dituzte eguneroko praktketan, eta aurrerantz doaz haiek sortuz, egunen batean zibilizazio berri bat izango denaren elementuak aurreratuz. Zibilizazio hori guztion arteko *biziera eta elkarbizitza onean* ainguratuta egongo da, eta natura aurkitzera itzuliko da berriz ere -merkatutik emantzipatu ondoren- gizateriaren osotasun eta zorion kolektiboa eta indibiduala egia bihurtu ahal izateko.

"Ongizate" indibidualistatik "biziera on" kolektibora

Jatorriz Bolivia, Ekuador, Peru eta inguruetaoak diren herrietatik jaiotako *biziera ona* edo *ondo bizitzea* esapideak, hasiera batean, "Gure artean ondo bizitzea" esan nahi du. Elkarbizitza komunitarioa aldarrikatzen du, kultura-artekotasunean oinarrituta eta botere-asimetriarik gabe. Evo Moralesek adierazi zuen moduan: "Ez dago ondo bizitzerik gainerakoak gaizki bizi baldin badira". Eta esaera horrek biltzen du ikuspuntu solidarioaren muina:

komunitatearen partaide gisa bizitzea da kontua, haren babesarekin eta hura babestuz, naturarekiko harmonian. "Inguruan dugunarekiko orekan bizitzea", bai eta "zurekin eta neure buruarekin ongi" ere; ez da merkatuak sustatutako "ongizate" indibidualista bezalakoa, "gainerakoei" bizkarra emanda edo haien aurka eraikitakoa delako hura, bere "objektu" moduan hartzen duen naturatik berezia.

Biziera onak afektibitatea, aitortza eta ospe soziala ditu bere baitan; garapena eta demokratizazioa gauzatzen dituen jendartearen ikusmolde integralari dagokio, **garapenean eta demokrazian** oinarrituta eta haietatik proiektatuz bizitzeko ahala indartsu taupaka ari zaion zibilizazio aukera da.

Biziera onak abiapuntu giltzarriak laburbiltzen eta proiektatzen ditu zibilizazio berria eraikitzeko. Elkartasunean, orekan eta desberdintasunen arteko osagarritasunean ainguratuta, naturarekiko errespetua giza izaeraren jatorri moduan finkatuta, bizia naturan zein jendartean izate beretik bereizi ezinezko dohain mailara itzularaziz. Ez da jarraitu beharreko dogmen laburbilduma bat; ez da fundamentalismo mota berri bat. Bizitzan ardaztutako zibilizazio-iturria da, ordea. Bizitzari zor zaio, bizitza aldeztu du eta bizitzaren inguruan proiektatzen du bere garapena. Horregatik, giza belaunaldiek duten sortzeko ahalmenera zabalduetako proposamen bat da.

Ikusmolde integrala garapenaz, demokraziaz, eskubideez...

Giza eskubideekiko eta eskubide kolektiboekiko begirunea, kidesun-zentzua, segurtasuna eta jendartea antolatzeke moduekiko eta gutxiengo eta gehiengoaren eskubideekiko errespetuak dira *Biziera onaren* erdiko muina. Arrazoi horiek, beste batzuen artean, **garapenaren eztabaida, politiko, sozial, kultural eta etiko ez ezik, ekonomiko ere** bihurtzen dute; ikusmolde hori zuzenean egituratzen da -gure lurretan- txirotasun eta aberastasunaren eztabaidarekin, energia-baliabideen jabetzarekin, zerbitzuak eskura izatearekin eta eskubideak erabiltzearekin; demokraziarekin, alegia².

Arazo horiei guztiei erantzunez eta horientzako konponbide egonkorra bilatuz, aldi berean, kulturen arteko demokratizazioko garapen-prozesuak zurkaizten dira, eta alderantziz. Garapenak, demokraziak, kultura-artekotasunak eta

2 "Garapenaren gakoa da indarrean dagoen kultura menderatzea eta arraza-bereizkeriaren egitura desagitea, eta elkarriketa, elkarlan, osagarritasun, elkarrekotasun eta ulermenaren praktika ezartzea. Modu horretan, hazkunde ekonomikoa prozesu moduan ulertzen da, identitateak finkatzeko, indartzeko eta haiek elkarri eragin diezaieten, kulturen artean trukerako sarea egituratzea balitz bezala." PND (2006: 16).

deskolonizazioak bana-banako harreman zuzena dute munduaren ikusmolde honetan, eta ezin da bateratu ekonomia eta jendartea, jendartea eta politika, gizatasuna eta natura, publikoa eta pribatua, makroa eta mikroa kontrajartzen dituen *eskizofrenia kapitalistarekin*. Irrazionaltasun osoan agertzen zaizkigu gaur kontsumismoan, zarrastelkerian eta natura gehiegikeriaz erabiltzean oinarritutako zibilizazioa, garapena, ongizatea eta jendarte-aurrerabideari buruzko paradigma zaharrak, orain arte inoiz ez bezala, eta ez dago horiek defendatzerik.

Natura bizitzaren erdigunean

Garapenaren merkatu-ikusmolde kuantitatiboak uste duenez, gizakiak bere "ongizatea" eskuratzeko konkistatu, menderatu eta ustiatu ahal eta behar duen objektua da natura. Kapitalismoak "salgai-objektu" bihurtu zuen natura, hura zatikatuz eta modu pribatuan eskuratuz; ondorioz, natura saldu, erosi, desjabetu, arpilatu, hustu, bonbardatu, besterendu eta abar egin daiteke. Natura erantzuteko gaitasunik ez zeukan *hondorik gabeko upel* moduko zerbait bihurtu zen, harik eta erabat bestelakoak ziren erakusgarriak aurkeztu zituen arte: ozono geruzan zulo gero eta handiagoa, tsunamiak eta lurrikarak, energia-baliabideak agortzea, lehorteak edo uholdeak, kutsadurak...; naturak bere hizkuntzan bidalitako mezuaren zati bat izan dira guztiak.

Gaur egun argi dago -eta halaxe aitortzen da- *biosfera*, bizitza eta energia-baliabideak sortzen dituen iturria ez ezik, sistemaren homeostasi globala arautzen duen iturria ere badela. Eta hori bat dator bete-betean orain dela mende askotatik hona Andeetako herriek *Pachamama* -Ama lurra, ama ura, ama oihana- deitu izan dutenarekin. Ikuspegi horretatik, baliabideak eta lehengaiak ematen dituen iturri bezala ikusteaz gain, etorkizuneko belaunaldientzat bioaniztasunaren ondarea mantentzeko ezinbesteko oreka garrantzitsuen erantzule moduan hartzen da natura.

Errealitatearen dimentsio ekologiko horretan, gizakiok geure burua naturaren berezko atal zatiezin bezala hartzen dugu. Hori da gizakion etorkizunean aurrerabide eta ongizatearen zentzu eta ikusmolde desberdin batez pentsatzeko aukera ematen duen ikuspuntu kosmozentrikoa. Hori guztia *biziera onean* laburbiltzen da; gizakia naturarekin harmonian izatearen defendatzailea eta sustatzailea da bere sustraietatik. Horren harira, bistan da ekologia kontuak edo naturari dagozkionak ezin direla bakarka aztertu, ezta pobrezia, garapen, demokrazia eta beste arlo batzuei dagozkienak ere. Ezinbestekoa da unean uneko errealitate sozialetan kokatutako bizitzaren ikuspuntu integral sistemikoa (ekonomia, politika, kultura, bizimodua...) izatea.

Kosmobisio- eta kultura-aldaketa bidea urratzen

Latinoamerikako herrialdeetan garatzen ari diren demokratizazio eta justizia sozialeko aldaketa politikoaren bihotzaren zati bat beste garai batzuei zegozkien betaurreko kulturalak erantztea eta errealitate, egoera eta arazo berriei aurre egin ahal izateko gaitasunak garatzea ere bada.

Horren harira, arazo nagusia ez dator -Laclairen iritziz (2004)- demokrazia liberalaren *askatasuna, berdintasuna, senidetasuna* balioekin; une bakoitzean birdefinitzen eta mugatzen duen botere sistemaren eskutik gauzatzen dira balio horiek. Horregatik, boterea eskuratzeko borroka-garaietan, gaur egun Bolivia, Ekuador, Venezuela eta beste prozesu batzuetan gertatzen den bezala, herri eta komunitate indigenen gatazkak azaleratzen dira, nekazariak eta jendarteko hainbat sektoreenak, demokrazian osoki parte hartu ahal izateko, demokrazia zabalduz; hau da, *berdintasuna eta askatasuna* harreman sozial, ekonomiko, kultural eta politikoetara hedatzeko borroka eginez. **Demokrazia errotik aldatu** nahi da, eskaintzen dituen tresnak sakonago aztertu edo aldatu ahal izateko. Kapitalaren demokrazia baztertzailak eta elitistak ezarritako botere-harremanak ezabatzea da helburua, behetik hasita beste demokrazia bat, beste botere bat, beste estatu bat, beste estatu-jendarte-herritar harreman bat, beste hegemonia bat eraikitzeke prozesuetan barneratuz: bizitzaren aldeko herrien hegemonia. Erne egon beharra dago demokrazia (eta estatua ere bai) alor abstraktutzat, gatazkarik gabeko lursail bezala, interesen arteko lehiarako *gune neutral* gisa hartzen duen paradigma neoliberalaren tranpa saihestu ahal izateko.

Hegemonia berria, botere berria, *Biziera* eta *Elkarbizitza onerako Estatu berria* behetik hasita eraikitzeak erabat desberdinak diren eratze eta bideratze politikoko motak eskatzen ditu laneko modalitateak eta metodoak antolatu eta kudeatzeko, publikoa denaren esparruan bereziki. Protagonismo eta kontzientzia kolektiboak egituratu eta eraiki nahi dituen logika da. Haren oinarrian daude elkartasuna eta elkar aurkitzea, desberdintasunak "akats" bezala ulertu beharrean aberasten gaituzten eragile bezala -herri-boterearen zutabe moduan- ulertuz aitortzea eta onartzea. Logika horren oinarriak ezin da izan desberdina denaren antagonizazioa -eta bazterketa-, baizik eta aniztasuna gero eta modu naturalagoan txertatuko duten guneak bilatzea, desberdina dena elkarren artean lantzea bideratuz, kulturen artean.

"Ekoizpen-modu" kategoriaren dimentsio analitikoa eta sistemikoa berreskuratzea

Garapen, demokratizazio, herritarren parte-hartze, hezkuntza, jurisprudentzia, ekologia eta abarren inguruko eztabaidak zibilizazio kapitalista gainditzeko

zibilizazio-alternatibak (praktikoak eta epistemologikoak) bilatzeko eta eraikitzeko gaur egungo prozesuen zatia dira erabat. Haietan, natura eta jendartearen arteko harreman hautsezina bizitza bere osoan defendatzeko gakoetako bat da. Mundu-ikuskerari buruzko ainguratze epistemologiko hori funtsezkoa da, hasieratik bertatik laburbiltzen dituelako jendarte *bizitza ekoizteko eta berrekoizteko modu berria* sortzeko oinarri kontzeptualak; hau da, giza bizitza eta naturaren bereizezintasunean ainguratutako *bizimodu bat*. Horri jarraituz, mundua ikusteko proposamen hau zibilizazio-asmo berriaren zati bat da.

Gizakiek topatu eta *erreproduzitu* behar dituzten bizitzeko moduen berezko izaeraren araberakoa da bizitzeko bitartekoak *ekoizteko* modua.

Ekoizteko modu hori ez da soilik aintzat hartu behar norbanako bakoitzaren izate fisikoa birsortzeko zentzuan. Hori baino gehiago, norbanako horiek duten jarduteko modu jakin bat da kontua, euren bizitza adierazteko duten modu jakin bat, *bizitzeko modu* jakin bat. Beraiek direna, horrenbestez, bat dator euren ekoizpenarekin, hala *ekoizten dutenarekin*, nola *ekoizteko moduarekin* ere. Norbanakoak direna, beraz, ekoizten dutenaren baldintza materialen araberakoa da³. [Engels, F. eta Marx, K., 1976 (I):16] (Egileen letra etzana. IRren letra lodiak).

Marxek ekoizpen ekonomikoa eta erreprodukzio soziala artikulatu zituen, eta ikusarazi egin zuen *ekoizpeneko baldintzek osatzen dituztela, aldi berean, erreprodukziokoak*. Erreprodukzio sozialak, erreprodukzio ekonomikoaren baitako partaide den heinean, bermatu egiten du -kapitalismoan- berezkoa duen klase sozialen sistemaren errepikapen zabaldua, ziklo bakoitzean eskulanaren eta naturaren (merkatuak objektu, lehengai eta abar bihurtuta) *salgarritasun* baldintza finkatuz eta sakonduz, eta merkatuko mekanismoen ekintza material-espirituala hedatuz (hegemonia).

Hortaz, uler daiteke kapitalaren zigilua duen zibilizazioa gainditzeko zibilizazio-aldaketak berekin dakarrela -gainditze positiboz- aldatzea jendarte-bizitza eta naturarekin elkarren artean duten harremana ekoizteko eta erreproduzitzeko modua. Hipotesi horrek erronka kultural, ekonomiko, politiko eta sozial handienetako bat agertzen du kapitalismoa ordezkatzeko-

3 Kontuan hartu behar da *ekoizpen* kontzeptua ez dela zehazki ekonomikoa denari buruzkoa, baizik eta gizakiek elkarren artean eta naturarekin dituzten bizitza sozial eta espiritualeko harreman guztiei buruzkoa.

gainditzeko prozesuan: ekoizpen ekonomiko-soziala errotik eraldatzea. Eta horrek berekin dakar gizateriaren sortzeko-ikasteko prozesu historiko-kultural bat, gure arteko eta naturarekiko *biziera eta elkarbizitza onaren* oinarrietan ainguratutako zerumuga historiko berri baterantz zuzendua. Ezin da parekatu, beraz, egoeraren araberako proiektuekin, adibidez, "ekoizpen matrizea" aldatu nahi dutenekin. Nahiz eta asmo onak izan, horrelakoek zurkaiztu egiten dute ekoizpen-modu kapitalistaren modernizazioa.

Erronka historiko eta kultural horren ardura hartzeak berekin dakar herriek ekoizteko eta birsortzeko duten gaitasun ekonomikoa behetik gora oso-osorik garatzeko apustu egitea. Izan ere, herri horiek dira orain ezagutzen dugun jendarte-metabolismoa gaindituko duen beste metabolismo sozial bat bilatu, sortu eta eraikitzeko gai diren bakarrak. Jakina, horrek guztiak *biziera eta elkarbizitza ona* izango ditu oinarri, merkatuaren mekanismoek ezarritako arauen morrontzarik gabe.

Baina Nicolas Maduro presidentek honako hau adierazi zuen orain dela gutxi⁴: "*Proiektu sozialista aurreratuta dago arlo politikoan eta sozialean, baina atzeratuta arlo ekonomikoan*". Hau da, merkatu kapitalistari eta bere funtzionamendu-logika harrapakari, hierarkiko, menderatzaile eta baztertzaileri lotuta dago. Eta horixe da, hain zuzen, alternatiba sozialista berrituak loratu ahal izateko muga eta desafio handienetako bat.

Kapitalismoak inposatutako bizimodua gainditu, eta indartsu egin behar da aurrera beste bizimodu baterako zutabe izango den ekoizteko modu berri baterako alternatibak bilatzeko eta eraikitzeko. Horrenbestez, eginkizun hori da emantzipazioko zibilizazio-proiektu sozialistaren lehenengo eginkizun politiko eta kulturaletako bat. Horrek trantsizio-aldi bat -eta zibilizazio berriaren jaiotza- iragartzen du. Trantsizioa da, hain zuzen, gaur egun India, Afrika eta Latinoamerikako lurraldeetan gertatzen ari diren deskolonizazioko iraultza-prozesuen ezaugarria. Prozesu horietan, historian zehar baztertu eta zokoratutako sektoreek hartu dute protagonismoa. Eskubide guztien jabe diren herritar moduan aldarrikatzen dituzte beren buruak orain, eta, praktiketarik abiatuta, pentsamolde berri bat, mundu berri bat ari da agertzen. Abian da aldaketa kulturala -soziala, ekonomikoa, politikoa-. Ez dago arrakastarako bermerik, baina aldi berria sortzeko eta bilatzeko bideak urratzen ausartzeko erronkaren onarpenean daude arrakastaren taupadak.

4 Tarik Alirekin 2014ko uztailaren 24an izandako elkarrizketa. Hemen ikusgai: <<http://multimedia.telesurvtv.net/web/telesur/#!en/video/special-interview-with-president-nicolas-maduro>>.

2. Kultura-artekotasuna eta deskolonizazio askatzailea

India, Afrika eta Latinoamerikako jendarteetan hainbat kultura bizi dira elkarrekin, "nazio", "estatu", "herrialde" gisa definitutako lurralde bakarrean. Amerika konkistatzean eta kolonizatzean, jatorrizko herri indigenak eta euren kulturak hierarkizatu, menderatu, baztertu, zanpatu eta zokoratzeko prozesuak eraiki eta finkatu ziren. Gainera, okerkeria horiei Afrikatik edo Txinatik erazutako esklaboek bazterketak ere gehitu behar zaizkie. Oinarri horren gainean eraiki zen tokiko botereei lotutako kultura kolonialaren hondarretatik datorren nagusitasun hegemonikoa. Horrek laburbiltzen du lurralde edo herrialde berean elkarrekin bizi diren hainbat kulturaren arteko harremanek duten sustrai konplexua. Zenbat eta handiagoa izan menderatze- eta baztertzekatea, orduan eta konplexuagoak eta gatazkatsuagoak izango dira haien arteko harremanak. Horren harira, demokrazia lortzeko kultura-arteko herri-iraultza prozesuetan, funtsezkoa da kultura bakarreko aginte koloniala desagitea.

Kultura-artekoa -kultura-anitzekoa ez bezala-, askapeneko ikuspuntu askatzaitetik begiratuta, desberdinen artean parekidetasun- eta osagarritasun-baldintzetan osatutako elkarrekiko harremanari dagokio; hau da, kultura-gune hegemoniko bat finkatu gabe. Ikuspuntu politikotik, horrek kultura⁵, identitate eta kosmobisio guztiek elkarren artean pareko aitortza eta harremanak izatea dakar, eta erakunde euskarriztat balioko luketen plataforma juridikoak eraikitzea eskatzen du, desberdintasun sozialak, kulturalak eta bestelakoak dituztenek berdintasuneko euskarri juridiko eraginkor batean elkarrekin harremanak izan ahal ditzaten. Desberdinak berdintasunean bizitzeak erakundeek eskubide zibil, politiko, sozial, sexual, kultural eta erreproduktiboak aitortzea eskatzen du ezinbestean, eskubide horiek egiaz erabiltzea bermatuz. Aldi berean horrek

5 **Kulturari** buruz ari naizenean, lehenik eta behin, klase, sektore eta eragile sozial eta politikoen **bizimodu, pentsamendu eta kosmobisioei** egiten diet erreferentzia, eta elkarren artean izan ditzaketen harreman, eragin eta esanahiei. Hau da, **partekatzen dituzten kultura-arteko zirrikituak** ere hartzen ditut aintzat, komunitate, sektore sozial edo jendarte jakin bat osatzen duten gizakiek -ohartuki ala oharkabean- elkarren arteko harreman konplexuetatik abiatuta eta haiengatik eratu dituztenak. Elkarren artean desberdina eta konplexua den heinean, jendarte bateko kultura ezin da, beraz, zatiak -sektore, etnia, klase edo eragile sozial guztien ekoizpen materialak edo sinbolikoak- elkartzearen emaitza soiltzat hartu. Kulturaren muina ezin da ukitu, ezta ikusi ere; produzitzen, erreproduzitzen eta partekatzen duten gizon-emakumeen barneko munduaren zatia da, eta haren gainean moldatzen, eskuratzen eta gauzatzen dituzte euren arteko giza-harremanen oinarriko ohiturak eta usadioak. Hori dela eta, produzitu eta erreproduzitzeaz batera, kultura bizia produzitzeko eta erreproduzitzeko eguneroko praktikan barneratzen da banan-banan. Eta, elkarren arteko harremanetan eta ekintzetan etengabe partekatzen denez eta esanahi berria ematen zaionez, jendarte-mugimenduetako dinamikan beti ageri den prozesua da.

bestea ulertzeko borondatea eskatzen du, tolerantziak⁶ bidea egin dezan metatutako hainbeste intolerantziaren aurrean, hortik abiatuta elkar onartzera iristeko. Horregatik, **kultura-artekotasun askatzailea ondo bereizi behar da kultura-aniztasunetik eta inklusiotik.**

Kultura-aniztasuna -izaera plurala bezala- oinarrizko aniztasun sozial etnikoaren erregistrora zuzenduta dago, eta -beharbada- aditzera ematen du izaera publikoa beste modu batzuetako kanalak bilatu behar direla (politikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala) elkarren arteko harremanekin pentsatzeko, eraikitzeko eta gauzatzeko⁷. Baina ez kultura-aniztasunak ez eta izaera pluralak ere ez dute berdinen arteko elkarren arteko harremanik aurreikusten. Bada desberdintasuna "argazkirako" bakarrik onartzen duen multi edo plurikulturalismo-mota bat. Horrek harreman hierarkiko menderatzaileak ditu goiko tontorrean kokatuta "jakin, erabaki eta agindu" egiten dutenen eta behean kokatuta "ez jakin, ez erabaki eta obeditzen dutenen" artean. Hori da boteretsuek onartzen duten kultura-aniztasuna: galdetzen ez duena, ezer aldatzen ez duena, eurak agintearen erdigunean eta aginte-makilarekin kokatzen dituen aniztasuna aldarrikatzen duena. Hori dela eta, funtsezkoa da kultura-aniztasuna kultura-artekotasunarekin artikulatuta eratzea, hura aurreikusteko moduan.

Baztertuek ez dute inklusiorik eskatzen, baizik eta aitortza, justizia, tratu bidezko eta horizontala harremanetan. Kultura-artekotasuna ez dagokio baztertuekiko jarrera "solidarioa" izateari⁸. *Bizitzeko eta bizitzaren aldeko hautua* da, guztiok hartzen gaituen eta guztioi deitzen digun balentria. Horregatik, kultura-arteko begiradak ez du jendarteratzeko esaten, baizik eta

6 "Tolerantzia" kontzeptua trantsizioko kontzeptu bezala bakarrik erabiltzen da hemen. Tolerantzia eta intolerantzia botere interesak eta kokapenak biltzen dituzten kontzeptuak dira. Nork onartzen du nor eta zergatik? Desberdina eta askotarikoa *natural onartzea* da helburua, baina borroka kulturalako bidean horretara iristeko, tolerantzia eskatzeak lagun dezake intolerantzia, bereizkeria eta bazterkeriazko harremanak aldatzen.

7 Joera nabarmena dago kultura-aniztasuna aniztasun etnikoarekin, eta, zehatzago esanda, indigenarekin soilik identifikatzeko eta berdintzeko -eta, beraz, nahasteko-. Horrek, alde batetik, kultura-aniztasun eta kultura-artekotasunari buruzko planteamenduak mugatzen ditu, kontu etniko izatera murrizten ditu, eta bestetik, mapa soziopolitikotik kanpo uzten du herri-eremuaren zati bat, kultura bakarreko jarrera hegemoniko tradizionalak -beste bide batzuetatik bada ere- egiten duen bezalaxe.

8 Jendarteratzeak lehen baztertu eta orain jendarteratzen diren lagunei egiten die erreferentzia. Baina, zeinek edo zeintzuk jendarteratzen dute? "Jendarteratzen duen norbait" baldin badago, litekeena da bihar edo etzi berriz ere bazterrean uztea. Horregatik, jendarteratze-kontzeptua erabateko zehaztasunik gabea da: kultura-aniztasuna onartzen du, baina uko egiten dio kultura-artekotasunari.

barren-barrenetik identitate kolektibo berri bat eraikitzeko, estatu berri bat, plurinazionala eta kultura-artekoa.

Kultura-artekotasun askatzaileak deskolonizazioa dakar berekin, bizimoduan, pentsamenduan eta elkarren arteko harreman sozialetan; hots, estatu, jendarte eta herritarren arteko harremanaz ere gogoeta egiten du berriro, elkarren arteko harreman-mota berri bat bilatuz, eraikiz, herritarrengandik eta jendartetik hasita estaturaino, bizia emanaz estatuak, jendarteak eta herritarrek elkarren artean izan dezaketzen beste jokabide mota bati. Eta hori egiteko harreman horizontalak -zuzentasun, justizia eta aitortzakoak- eraiki behar dira ekonomian, politikan, kulturen eta identitatean, herrialde bateko eragile soziopolitiko guztien eta herritar guztien artekoak, erkidego edo giza talde batekoak edo besteak izanik ere. Kultura-artekotasunak deskolonizazioa eskatzen du. Izan ere, ezin da bateratu koloniak ezarritako kultura bakarrek pentsamolde hierarkiko, baztertzaila, iraintzaila eta bereiztailearekin, jakinik, gainera, pentsamolde hori estatu moderno guztien egituraketan, antolakuntzan eta jurisprudentzian eta gizakien arteko harreman guztietan agertzen dela.

Kultura-artekotasunaren eta deskolonizazioaren arteko korapilatze hori lehenengo aldiz eratu eta proiektatu da, sustraietako askapen-prozesu baten berezko atal bezala: kapitalaren kateetatik eta antzutzen duen kultura kolonizatzailetik askatzeko. Barneko eta kanpoko deskolonizazioa (espirituala, kulturala, ekonomikoa, politikoa, juridikoa eta instituzionala) da hori lortzeko gakoa, eta horixe da gero eta gehiago India, Afrika eta Latinoamerikako hainbat herrialdetan mugimendu indigenen eta sozialen eguneroko praktketan agertzen ari dena.

Oro har, gaur egungo askapen-prozesu deskolonizatzaileek bide bat marrazten eta proposatzen dute: herrialde bakoitzean estatu deskolonizatu, kultura-arteko eta plurinazional bat eraikitzea edota osatzea. Herri indigenek eta langileek heroikoki behetik gora sortua eta eraikia izanik, gaur egungo prozesu boliviarra da lehenengo esperientzia. Guztietan aurreratuena da esperientzia hori -egiazkoa izateaz gain-, eta ezinbestekoa da mundu berriak India, Afrika eta Latinoamerikako lurretan bidea urratzen jarrai dezan.

Eginkizun politikoaren eta pedagogikoaren arloan, kultura-artekotasunak eta deskolonizazioak berehala, aurren-aurrenetik, eragile soziopolitikoaren praktika soziopolitiko eta kognitiboaren alorrera garamatzaite. Pentsamendu, jakintza -eta jakintzen betearazpen- eta "izan behar" nagusien arloetan, eragile horiek etengabe egiten diete aurre nagusi izandako paradigmei, orain dela denbora gutxira arte paradigma baliozko eta eraginkor bakartzat hartzen ziren horiei.

Horrekin batera, orain arte egia unibertsal bezala eraiki eta landutako arrazionaltasun guztiak alderik alde zeharkatzen dituen krisi sakona dugu. Alde batetik, kultura-artekotasunak hasieratik identitate, kultura, bizimodu eta antolakuntza sozial desberdin guztiak (ekonomikoak, politikoak eta juridikoak) aitortzea esan nahi duelako; guztiak ere elkarren arteko harremanetan bereizketarik eta hierarkizaziorik egin gabe berriro artikulatu behar diren baliozko arrazionaltasunak direlako. Beste alde batetik, horrek eztabaidan jartzen ditu orain arte nagusi izan den mendebaldeko boterearen arrazionaltasunaren zentzua eta edukia. Horrek guztiak arrazionaltasun desberdinen sortzaileengana bideratzen ditu begiradak; hau da, bizitza -komunitatekoa, landakoa, hirikoa, soziala- ekoizteko eta erreproduzitzeko subjektuak direnengana, jakintzen subjektuengana, eraldaketa sozialak -kulturalak, politikoak, ekonomikoak- eragiten dituzten subjektuengana. Ondoren, osasungarria da aintzakotzat hartzea kultura-artekotasuna aurkeztea bera ere kultura-arteko ekintza dela. Bestela esanda, bere edukiak, definizioak eta esanahiak askotarikoak eta anitzak dira. Ez dago kultura-arteko proposamen bakar bat, interpretazio eta jarrera bakar eta monolitiko -dogmatiko- bat; kultura-artekotasunaren postulatuari berari dagokio kultura-artekoa. Orri hauetan dimentsio horri ekiteak ez du, horrenbestez, kultura-artekotasunaren "interpretazioa" izateko asmorik, ez eta hari buruz "jakin behar den guztia" ere. Horren orde, elementu giltzarriak eskaini nahi ditu kultura-artekotasuna sortzen ari den arrazionaltasun berri, plural, askotariko eta dimentsio anitzekoa eraikitzeko harri kontzeptualetako (eta praktikoetako) bat bezala irudikatzeko.

Eragile eta sektore sozialen eta politikoen artean, izan litezkeen artikulazioez eta lokailuez, euren bizi-modalitateez eta antolatzeko planteamendu politikoez hausnartzeko oinarritzko elementu gisa kultura-artekotasuna txertatzeak berehala nabarmentzen du proposamen desberdinak daudela mota berriko gorputz soziala berriz osatzeko. Hauexek dira, berrartikulazioan oinarri hartuta: ekitatea, horizontaltasuna, eta kultura, kosmobisio, munduarekiko pertzepzio eta bizimodu guztien artean legitimitate eta arrazionaltasunaren bidezko aitortzatik. Alvaro Garcia Linerak honela adierazi du:

"Kulturen eta identitateen artean funtsezko berdintze politikoa egiteak politika egiteko moduak berdintzea eskatzen du gobernu-kudeaketako maila guztietan (orokorra, "nazionala", eskualdekoa eta tokikoa); hau da, praktika politikoak, erakunde politikoak, demokrazia gauzatzeko moduak eta Boliviako lurraldean elkarrekin bizi diren hainbat eratako autoritate politikoko sistemak berdintzea." [Garcia Linera, 2006:79].

Bizi dugun garaia da. Bertan, "berdintzeak" -niretzat ekitate-oinarrien gainean maila guztietan bizitza ekoizteko modu desberdinak artikulatzea den horrek-

agertoki bat osatzen du gatazka kognitibo, kultural, sozial, ekonomiko eta etikoekin eta balioen gatazkekin, eta horixe erabiltzen ari naiz ni honako gogoeta hauek adierazteko.

Kultura-arteko ikuspegi kritikoa

Kultura-artekotasunak ahaleginak egiten ditu eginkizun sozialen plano eta dimentsio guztietan desberdintasunak aitortzeko, horrelako kasuetan tradizioz hegemoniko edo menderatzaile izan diren kulturen alde egingo duten jarrera abstraktuetatik ihes eginez. Horretaz hitz egiteko, egile batzuek *kultura-artekotasun kritikoa* aipatzen dute⁹. Aldarrikatzen duenaren arabera, historian zehar hegemonikoa edo menderatzailea izan denaren nagusitasuna saihesteko edo gutxitzeko, ez da desberdinen artean berdintasunezko harremanik finkatu behar. Izan ere, eskema kaltegarri bera argitaratu eta legitimatuko litzateke berriro, oraingoan hizkuntza berri baten bitartez mozorrotuta eta ikusezin bihurtuta, eragile parte-hartzaileek nahi baino gehiago gainera.

Formala eta abstraktua baino haratago joatea esparru honetan dauden erronketako bat da, eta berez historikoki baztertuta egon diren sektoreei dagokien boterea eraikitzeko prozesuaren zatia ere bada. Hori dela eta, gatazka berriak agertzen dira gunee berrietan. Haietan, tradizioz hegemonikoak izan diren sektoreek -baita ezkerrean ere, edo, batzuetan, ezkerrean batik bat- dibertsitatea izate hutsarekin lortutzat eman nahi dute kultura-artekotasuna, baina bizitza errealean ez da horrelakorik gertatzen. Ibilbide zehatzak zabaldu behar dira dibertsitatea adierazteko, bere desberdintasunen adierazpen guztiekin, haiek bideratuz eta haien ahotsak entzuteko eskubidea aitortuz, elkarbizitza pluraletako modu berriak eraiki ahal izateko. Horrek gutako bakoitzaren baitan dugun botere hegemonikoaren aurkako barne borrokara garamatza. Horregatik, ekin eta aldatu beharreko ertzik zailenetako bat da garai batean euren burua argidun, abangoardia eta abarrekotzat zuten sektore askorentzat. Izan ere, barrura begira jarri, eta euren jakintza, botere eta hegemonia-iturria eztabaidatzea eskatzen du. Hona hemen bere esanahia: *geu eraldatzea besteak eraldatzeko*; esatea egitea baino nabarmen errazagoa den asmoa, inondik ere.

9 Ikusi, adibidez: García Linera, Álvaro; Mignolo, Walter eta Walsh, Catherine (2006). *Interculturalidad, descolonización del estado y del conocimiento*. Buenos Aires, Ediciones del Signo. Eta honakoa: Viaña, Jorge; Tapia, Luis eta Walsh Catherine (2010). *Construyendo Interculturalidad Crítica*. La Paz, Instituto Internacional de Integración del Convenio Andrés Bello.

Jatorrizko herri indigenek zibilizazio-eztabaida honetan egin beharreko ekarpenakerabat nahitaezkoak dira, eta ezinbestekoa da guk guztiok haiengandik elikatzea eta ikastea, gu geu askatzeko giltza diren heinean. Zibilizazio kolonial menderatzailea eztabaidan jarriz, eskatu egiten dituzte -errearazio historikoarekin batera- euren eskubideak, jakintzak, kosmobisioak, identitateak, ekoizpen-modu material eta espiritualak, eta bizitzarako antolakuntzako forma instituzionalak eta ez instituzionalak. Euren proposamenekin, elkarren artean harreman sozialak izateko modu berri bat eraikitze beharraren alde egiten dute. Horixe da, izan ere, komunitate sozialak euren artean, estatuarekin eta haren baitan elkarren artean harremanak antolatze modu berri baterako oinarria, herritartasun- eta demokrazia-mota berri baten premia larriari bide ematen diona: parte-hartzailea errotik, kultura-artekoa eta deskolonizatua.

Laburpen gisa, esan dezakegu kultura-artekotasun kritikoa eta deskolonizazioa zibilizazio-prozesu iraultzailearen ezinbesteko ezaugarriak direla, haiei esker errotik atera eta ezabatu ahal baita koloniatik eta kolonialismo kulturaletik oinordetzan jasotako pentsamendu homogeneoa, monokulturala, patriarkala, kolonizatua, kolonizatzailea eta mendekuzalea, mendez mende merkatuak osatu duena.

Mendetasunetik ateratzeko pentsamendu askatzailea eta alternatiba askatzaileak taldeka eraikitze, esperientzia, jakintza eta kosmobisio ezberdinak egituratu behar dira horizontalki, kultura desberdinen arteko zuzentasunetik eta berdintasunetik abiatuta. Ezinbestekoa da jatorrizko herri indigenen jakinduria blokeatzeko eta ezagutzea saihesteko aginte kolonialak menderik mende jaso eta zabaldu dituen hesiak eraistea, eta herri haien pentsamendua, ezagutzak eta jakintzak berreskuratzea; baita gizon-emakume beltz, mestizo eta abarrena ere.

Horren harira, deskolonizazioak aspaldiko aurreiritzi baztertzaleak eta hierarkikoak gainditzeko dei egiten digu, bai antolakuntza-mailan baita kultura-mailan ere, geure burua eta besteak dibertsitatean aitortu eta onar ditzagun. Dibertsitatea jasan beharreko "zorigaitz" bezala ulertu beharrean, aberasten eta gaitasun kolektibo berriak eratzen dituen iturri bezala ulertu behar dugu, ondo ezagutu eta jakiteko, eta elkarren arteko harreman sozialetan, garapenean eta aurrerabidean jakinduria kolektiboz, justiziaz, ekitatez eta zuhurtasunaz jokatu ahal izateko. Horren ondorioz, jakina, alde batera utzi behar dugu boteretsuen ideologia, kultura eta hegemonia kultura-bakar kolonialistari dagokion pentsamendu eta egia bakarraren pentsamoldea -eta bere praktikak-. Pentsamolde hori ezkerren zati handi baten jarrera eta praktika politiko eta kulturalen alorretan zabaldu zen gehienbat XX. mendean zehar.

Despatriarkalizazioa, generoa eta identitate sexual desberdinen aitortza

Herri eta mugimendu indigenei eta sozialei buruz hitz egiteak barne hartzen ditu identitate sexualen dibertsitatea aitortzearen aldeko mugimenduak, eta emakumeen mugimenduak eta ikusmolde feminista eta generokoetatik ekarpen politikoak eta kulturalak egiten dituzten mugimenduak ere bai. Ikuspegi horiek -hamarkadetan eta mendeetan zehar milioika emakumeren borrokan ainguratuta- modu nabarian lagundu dute batasunaz, arlo kolektiboaz eta oinarri berriez gogoeta egiten, eta desberdintasunak aitortzea -oztopoa izan beharrean- elkar aberasteko zutabe bihurtu dute, artikulazio soziopolitikoetarako harroin. Emakume militanteek berria denaren eraikitze kolektibo, plural eta desberdinari eskainitako hondar-aletxoak da hori.

Nabarmena da genero-kontzeptuaren ekarpena, horren bitartez argi ikusi ahal izan zirelako gizonak emakumea menderatzeko harremanetan dauden lokailu genealogikoak. Lokailu horiekkapitalaren boterea-menderatzailea, baztertzaila, bereiztailea eta autoritarioa- behin eta berriz ekotziz eta erreproduzitzuz osatu dira, klase eta genero jakin baten interesak hedatzeko eta defendatzeko eraiki baita kapitalaren agintea: arpilatzaileen, esplotatzaileen eta espekulatzailen interesak, gainerako gizaki guztien kaltetan, eta emakumeen kaltetan, bereziki. Kapitalaren boterearen klase-izaera esplotatzaile baztertzaila biluzterakoan, mendeetan zehar jendarte, ekonomia, historia eta kultura erabilia eraikitako eduki patriarkal-matxista azaleratzen da -asmo jakinez osatutako identitate eta rolen eraikuntza sozialarekin batera-. Horregatik, genero-kontzeptua sustraietatik antolatuta dago, barren-barreneko mailetatik, despatriarkalizazio eta herri-ahalduntze kolektiboarekin, eraikuntza politiko emantzipatzaileentzat funtsezkoak diren ezaugarriekin.

Kapitalaren "jatorrizko metatzea" izeneko prozesua aztertzerakoan, genero-arloko menderakuntza eta bazterketaren eta klase jakin baten interesen artean zegoen elkar-gurutzatze genealogikoa jorratu zuten Karl Marx eta Friedrich Engelsek. Euren gogoeten artean, honako hau azpimarratu behar dugu:

Lanaren banaketaren baitan, batetik, kontraesan horiek guztiak dituelako, eta, bestetik, familia barruko lanaren banaketa naturalean eta jendartearen elkarren aurkako hainbat familiatan zatitzeko prozesuan oinarritzen delako, aldi berean gertatzen da lanaren eta bere produktuen *banaketa*, eta, hain zuzen, banaketa *bidegabea*, bai kuantitatiboki, baita kualitatiboki ere; hau da, jabetza, bere lehenengo ernamuinaren jatorrizko

forma **familian** duena, emakumea eta seme-alabak senarraren esklaboak diren gunean. Esklabotasuna da **lehenengo jabetza-forma**, familial, ezkutuan eta oso modu landugabeen izanda ere, jadanik egiaz badagoena. Gainerakoan, ekonomialari modernoen definizioei erabat zuzen dagokie jabetza-forma hori, **besteren laneko indarra erabiltzeko eskubidea ematen duena**. Bestalde, **lan-banaketa eta jabetza pribatua hitz berdin-berdinak dira**: horietako batek jarduerari buruz esandako kontu berbera esaten du besteak jardueraren emaitzari buruz [1976:31] (Etzanak jatorrizkoan. Lodiak IRrenak).

Aintzat hartzekoa da, ikuspuntu murriztaile eta mekanikoari jarraiki, marxismo dogmatikoaren joerek ikuspegi horiek alboratu zituztela, edo zuzenean baztertu. Joera horiek esplotazio ekonomikoaren arazoa langile-klase industrialari -"proletarioei"- bakarrik zegokion arazo bihurtu zuten, eta jendartetik eta kulturatik bereizitako esparru bilakatu zuten ekonomia. Era berean, gehienbat pentsamendu horretan hezitako ezkerak familiako bazterkeria eta esplotazioa eta emakumeen esplotazio sozioekonomikoaren arazoa kapitalismoaren kontu bihurtu zuen, "bigarren mailako kontraesan". Ez zuen lotu botere patriarkal-salerosle-kapitalistaren hegemoniarekin, ez zuen aintzat hartu kapitalaren sistema hegemonikoa eta bere boterearen ekoizpen eta erreproduzio ekonomiko, sozial, juridiko eta kulturalaren moduak ezabatzeko (klase) borrokaren (funtsezko) zati bezala.

Generoa eta klasea, elkarren aurka jo edo elkar baztertu beharrean, botere patriarkal matxista autoritarioaren edukia azaleratzen duten kontzeptuak dira, eta beren genealogia eta klase-izaera nabarmentzen dute. Arlo ekonomikoan, politikoan, juridikoan, ideologikoan, erlijiosoan, kulturalan, esparru sozial eta familiariakoan, eta publikoan eta pribatuan gizon-emakumeen esplotazioan, bazterkerian, mendekotasunean, zapalkuntzan eta bereizkerian oinarritutako boterea da. Hori osatu, moldatu eta finkatzeko, lehenengo eta behin, familiaren baitan gizonak emakumea menderatzen duen harreman-mota bat ekoitzi eta erreproduzitu da. Harreman-mota horrek identitateak osatu eta rola finkatu ditu. Hori dela eta, sustraietatik hasita erabat aldatzea eta eraldatzea prozesu sozial korapilatsua da, eraldaketa eta trantsizio asko dituen, hala nola sexu- eta genero-identitateena.

Jendartean mimetizatu eta finkatzeko, kapitalaren botere patriarkal-koloniala bere klase-educia ikusezin bihurtzen ahalegindu izan da, eta bizitza sozialaren "berezko" osagai bezala aurkeztu du, horrenbestean, betiko izateko helburuarekin. Horretarako, bere aparatu politiko, ideologiko, erlijioso

eta kultural osoa erabiltzen du, eta, era horretan, praktika horiek gizon-emakumeen sektore zabalen laguntza (onarpena) jasotzen dute jendarteetan. Kapitalaren botere matxista autoritarioari bermatu egiten dio horrek, alde batetik, bere jatorria, edukia eta klase-izaera ikusezin bihurtzea, eta, beste alde batetik, gizon-emakume gehienen esplotazioa, mendekotasuna, bazterkeria eta bereizkeria.

Gaur egungo kontsumismoarekin, kapitalismoak nabarmen hobetu ditu emakumea gizonaren (eta merkatuaren) menpean izateko mekanismo eta modalitate zaharrak. Bizitza sozial publiko eta pribatuaren funtzionamendua eta gizon-emakumeek haietan dituzten rolak egokitu ditu kapitalak, merkatuaren funtzionamenduaren arabera. Aldi berean, merkatuaren funtzionamendua ere aldatu du kapitalak, gaur egun dauden ekoizpen eta erreprodukzioko beharizanetara, merkatuaren hegemonia ekonomiko, ideologiko, politiko eta kulturalaren ondorioz zabaldutako beharretara. Horren ondorioz, milioika behartsuren bizitzari gizatasuna osten diote gero eta gehiago, kendu egiten dizkietelako euren lanbideak, lurrak, etxeak, herrialdea. Gainera, horrek dakarren gainkarga ekonomikoa, fisikoa eta espirituala globalizazio neoliberalaren garaian susma ezin zitezkeen mailetara iritsi da munduan txirotutako eskualdeetan, emakume eta haurrentzat bereziki. Eta gizateriaren historiak gaingiduta zituen indarkeria-, esklabotasun- eta mendetasun-modalitate berrietan katramilatuta gelditzen dira horiek.

Bizirik irauteko borroken garrantzi estrategikoa ulertzea

Heriotzaren zikloak bizitza defendatzeko dei egiten du berriz. Horretan ari dira (ari gara), lehenengo defendatzaile eta sortzaileen artean, emakumeak, gizonak ere ondoan dituztela, eta helduak, adinduak, gazteak, neska-mutikoak...

Elikagai-biziraupena lehen helburutzat duten tokiko kooperatibak edo erakunde komunitarioak familiako amek eta etxeko buru diren andreek osatu izan dituzte oro har, eta, haiek bezalaxe, hainbat interes lotzen dizkiote elkarri: emakumeenak, familienak eta auzoarenak.

Jangeletan egiten duten lanetik hasita, antolatutako emakumeek ordeko konponbideak eskaintzen dizkiete bizirik irauteko dauden hainbat arazori, gosea gutxitzen da elikagaien kostua jaitsez, eta gaixotasunei aurea hartzen zaie erkidegoan, eta sendatu ere egiten dira gaitzak, jangeletan nutrizio-zaintza eta komunitateko botika-kutxa edukita. Txertatzeko kanpainak bideratzen dituzte, eta ahaleginak egiten dituzte kolerari,

deshidratazioari, beherakoari eta tuberkulosiari aurrea hartzeko.
[Cordova Cayo, 1995:109].

Espazioa-denbora dimentsio eta ikusmoldearen erabilera asko

Lan komunitarioetan parte hartzen duten emakumeek ez dute "denbora eskaintzea" "irabazi gabeko diruarekin" lotzen. Denbora beste modu batean erabiltzen (eta irudikatzen) dute, familia- eta komunitate-esparruetan, eta, nahi baino gehiagotan, baita lan-esparruan ere. Hain zuzen ere, denbora biderkatu behar izaten dute, beren gain dituzten erantzukizunei erantzun ahal izateko. Peruko Concepcion Quispe buruzagi indigenarekin horretaz hitz egitean, honako gogoeta hauek jakinarazi zizkigun:

Peruko Nekazarien Konfederazioak bidaia-txartela ordaintzen dit, baina nire denborarik ez. Hona etortzeko, adibidez, bidaia-txartela eman didate orain, aireportu batetik beste aireportu batera joateko, eta aireportu horretatik hona iristeko neuk konpondu behar izan dut, hori ez dago ordainduta. Eta zuk uste duzu, krisi honekin, gose honekin eta miseria honekin, emakumeek aukeraren bat izango dutela? Ez. Jakina, gizonak esaten du: "Arraioa! Nik joan egin behar dut, eta poltsikoan mila *inti*¹⁰ behintzat izan beharko ditut, hamar mila izan beharko ditut". Nahi eta nahi ez, eman egin behar diozu. Emakumeekin ez da horrelakorik gertatzen. [Rauber, 1992:109].

Erakunde sozialetan egiten duten lan-motagatik, hain zuzen, emakumeek badute joera komunitateko jarduerak egiten ematen duten denbora euren familiari eskaintzen dioten denborarekin lotzeko, komunitatea familia-esparruaren luzapen bihurtuz nolabait. Hala eta guztiz ere, adierazi berri dugunaren aurka, Dominikar Errepublikan eta Argentinan egindako azterketa gehienetan, komunitate-esparruetan aritzen diren emakumeek adierazi dute komunitateari eskaintzen dioten denbora familiari "lapurtzen" dioten denbora bat dela.

Barneratuta izanik euren lekua etxea dela eta euren eginkizuna familia zaintzea, komunitatean eta komunitatearen alde emakumeek egiten duten guztia -familiagatik eta familiaren alde egindakoa ere badena- "dagozkien" etxeko eginkizunak" betetzeaz gain egin dezaketen lan moduan ikusten dute. Hau da, komunitateko lana ama eta emazte bezala duten "betebeharra"

10 Peruko diru-unitatea.

bete ondoren egin dezaketen zerbait dela uste dute. Horrek beharbada azal litzake emakumeen ehuneko garrantzitsu batengan aurkitu izan ditugun erru-sentimenduak. Horrelakoak agertu zaizkigu gaiaren inguruan azterlanak egin izan ditugun lekuetan: Dominikar Errepublika, Kuba, Argentina, Ekuador eta Perun.

Indarkeria erantzun moduan: Emakume askok etxetik kanpo lehenengo urratsak egiten dituztenean euren senarrek egiten dizkieten indarkeriazko erasoak jasan ahal izateko tolerantziaren euskarri kulturalaren zati bat izan liteke aipatutako "errua".

Hori desegin ahal izateko, garrantzitsua da emakumeak ondo barneratzea berak ez duela inolako "errietarik" merezi komunitateko jardueretan parte hartzeagatik edo erakunde sozialetan ibiltzeagatik. Garrantzitsua da ulertzea ez dabilela familiari denbora "lapurtzen", ez dela seme-alabak "gaizki zaintzen" ari, baizik eta izaki sozial gisa garatzen ari dela, bakoitzaren familia ere bere baitan hartzen duten eginkizun eta erantzukizun kolektiboak bere gain hartuz. Bistan denez, beti dago zabalik etxetik alde egiteko edo senarra bertatik bidaltzeko aukera, baina hori ez da inola ere erabaki soil bat. Lehenik, bien bizitzak elkarrengana korapilatzen dituzten lotura ekonomikoengatik, eta, batik bat, emakumeak bera eta seme-alabak mantentzeko gizonaren mende dagoelako. Bigarrenik, emakumeak barruan daraman zama kulturalarengatik: metodoekin ados ez badago ere, senarraren jokabidea justifikatzeko joera izaten du. Ez da beti horrela izaten, baina oraindik ere oso jarrera ohikoa da oinarriko militanteak diren emakumeengan.

Pribatuaren eta publikoaren elkarrekiko lotura komunitatean

Ahalegin handia eginez, bizirik irauteko konponbideak, osasunaren eta alfabetatzearen aldeko borroka, lurrik gabeko kanpamentu finkatuak edo piketeroen bide-mozketetako bizitza erabiliz, emakumeek sareak eraikitzen dituzte pribatuaren eta publikoaren arteko interdependentziako eta loturako modu berriak diseinatzeko. Etxeko espazioa komunitatean txertatzean, Vianellok (2001) etxeko "espazio obulatu" deitzen duena luzatzea lortzen dute emakumeek. Bestalde, horren ondorioz, bizitza obulatuaren barruan txertatzen dute komunitateko bizitza, eta eragin-truke eta interdependentziako harremanak finkatzen dira bata eta bestearen artean. Familia barruko arazoak ere -adibidez, senarrak emaztearekin darabilen indarkeria- modu desberdinean landu daitezke komunitateko mugimendu sozial baten parte direnean. Piketa-taldeetako emakumeei buruzko artikulu batean arrazoi horrexegatik adierazi nuen honako hau:

Bereizkeria sozialeko baldintzetan, *pobrezia* eta *generoa* elkarri lotuta doaz, eta era askotako zentzuz hornitzen dituzte bizirik irauteko gerrak sorrarazitako egoerari aurre egin ahal izateko gizon-emakumeek egiten dituzten ekintzak. Horrekin batera, are konplexuago bihurtzen da izan litezkeen aukeren inguruko eztabaida oro, bereziki gizon-emakumeen arteko harreman sozialetan eta familiartekoetan. Jokabide-ereduak, rolak eta balioak hankaz gora jarri dira, langabeziarekin, estatuak herritarrekin duen erantzukizun sozialari uko egitean, ogi apur batzuegatik egiten den xantaiarekin, eta familiaren eta bakoitzak dituen erantzukizunen desnaturalizazioarekin. [Rauber, 2002:160].

Antolamendu soziala familiarteko bizitza eta bizitza pertsonalaren zati bezala integratzea eta alderantziz

Santo Domingoko auzo txirotuetan egin genituen azterlanetan egiaztatu ahal izan genuenez, antolatutako emakumeek, antolatu gabeko emakumeek, bai eta gizonek ere -oro har- aldeko iritzia dute auzoetako erakundeek emakumeen bizitzan duten garrantziaren inguruan, eta goraipatu egiten dute. Horren arrazoia da, alde batetik, erakundeek auzoko bizitza hobetzen laguntzen dutela eta -era horretan- etxeko eguneroko bizitza hobetzen ere laguntzen dutela. Beste alde batetik, emakumeek berdintasunerako gune eta etxeko eginkizunen errutina grisetik askatzeko gune gisa hartzen dute auzoko antolamendua. Eta, horretaz gain, auzoetako erakundeen eskutik, gizonek gehiago hartzen dute parte etxeko lanetan.

Izan ere, auzoko erakundea etxearen eta auzoaren arteko *zubi-lana* egiten duen gunea da, etxeko klaustro femeninoaren eta emakumea bizitza publikora duen irteeraren artekoa. Emakumeek beraiek baieztatzen duten moduan: gizonen pareko sentitzen dira han.

Horixe da emakumeek auzoetako erakundeetan eta era askotako aldarrikatze-antolamenduetan parte hartzeak duen emaitza on eta nabarienetako bat: euren burua eragile sozial aktibo moduan balioesten ikasten dute han, eta euren kabuz pentsatzeko eta ekiteko gai izaten ere bai.

Parte-hartzea eta ordezkari-tza

Emakumeak dira oinarrizko mailan parte hartzen duten gehienak, baina parte-hartzea txikiagoa da bitarteko ordezkari-tzak karguetan erantzukizunak hartu

behar direnean, eta are txikiagoa zuzendaritza orokorreko erantzukizunak hartu behar direnetan. Hainbat eratako oztopo aipa daitezke horren arrazoiak azaltzeko, tradizioz ordezkartza-espazioak berez gizonaekoei dagozkiela uste izateaz gain. Batzuetan, emakumeek uko egiten diote esparru horiek betetzeari, horretarako behar adina denbora ez dutela iruditzen zaielako edo autoestimu baxua dutelako. Beste batzuetan, ez dute emakumerik proposatu ere egiten erantzukizun eta ordezkartza karguetarako, gizonen haien aurka eragiten duten lehiaren eta oztopoen ondorioz.

Antzina-antzinako garaietatik emakumeok ikasi duguna gure izatearen baitan ezarrita dugulako. Lehenik, guk etxearen barruan egiten dugula lan, gutxien ikusten diren substratuetan, elikadurakoetan, zaintzakoetan. Zerbitzuko leku bat betetzea esleitu digute, baina ez edozein zerbitzu, baizik eta aurrez dagoen botere bati zerbitzaten. Eta ezinbestez kanporatu behar dugu gure izatearen baitan lekua hartu duen hori: beti bigarren lekuan gotea. [Verhooven, Alieda. Hemen: Rauber, 1998:192-193].

Horregatik, ezinbesteko demokratizazioko eginkizun moduan agertu da emakumeen parte-hartze zabaleko antolamendu-prozesu zehatzak zurkaiztea, emakumeen ekintza eta ordezkartzarako gaitasunak indartzea, emakumeen errealitateen eta beharren arabera. Hori gurekin elkarrekintzan ibiltzen diren herri-mugimendu sozialetan agertzen denean, ikaskuntzaren edukiak eta eritmoak lantzen ditugu elkarrekin: generoa eta boterea, ahalduntzea, politika, parte-hartzea, komunikazioa, konputazioa erabiltzea eta abar. Era horretan, gure lanak praktika eta teoria uztartzen ditu esparru sozial zehatz batzuetan. Ez da aski erabakiak hartzen diren lekuetatik emakumeak baztertzeko joera salatzea. Horrez gain, funtsezkoa da ondorio praktikoetara iristea eta haiek betetzeko konpromisoa hartzea, hori egin daitekeen neurrian, eta eragin-trukean kide diren erakunde sozialekin partekatu ahal bada.

Genero-ekitatea erakartzeko erabiltzea erabat demokratizatzailea da, hain zuzen ere, egunerokotasuna eta aldarrikapen sozialak eginkizun politikitik bereizten dituen ezkerren pentsamendu politiko tradizionalak dituen hesiak eraisten dituelako. Ezin da mundu publikoaren benetako demokratizaziorik egin, mundu pribatuan gizon eta emakumeen arteko harremanak ukitu gabe utzita, eta, oro har, arlo pribatua arlo publikoa garatzearen mende jarrita. Izan ere:

- Gizonaekozko baizik ez den demokrazia Greziako demokrazia bezain ankerra eta osatu gabea da, aristokrazia txiki bateko kideen arteko

eskubideen berdintasunean oinarrituta dagoelako, eta herri-masa handiei inolako eskubiderik onartzen ez dielako.

- Ez dago eta ezin izango da demokraziarik izan emakumeek gizonen dituzten eskubide berberak ez badituzte, eta, horren ondorioz, ez dago eta ezingo da demokraziarik izan gizon-emakumeek, bitzta sozialeko alderdi guztiak osatzen eta zuzentzen ez badute, bereizketarik gabe.
- (...) Emakumerik gabe, ez dago demokraziarik. Demokraziarik gabe, herriak ez du aurrerabiderik izango. Demokraziarik gabe, aberriak ez du zentzu sakonik izango. [Lombardo Toledano 1984:11-18].

Horrek hiru elementu garrantzitsu hauek ukitzen ditu:

- Arlo pribatua mundu politikoaren atal bat da (bere izatearen baldintza gisa bakarrik bada ere), eta, horregatik, arlo politiko bihur daiteke.
- Jendarteak demokratizatzeko borroketan -sustraietaraino iritsi ahal izateko-, gizon-emakumeen arteko harremanen demokratizazioa txertatuta behar da arlo publikoan eta pribatuan. Hortaz:
- Emakumeen diskriminazioaren eta bazterketaren aurkako borrokek jendartea errotik demokratizatzeko eginkizunari eragiten diete. Horrenbestez, boterea errotik eraldatu behar da, eta borroka politikoa eta kulturala da.

Botere-harremanak eraldatzeko egindako edozein jarduera, edonon eginda ere, ekintza politikoa bada, identitate sexualen inguruko gaiek, emakumeen aurkako indarkeriak, guraso eta seme-alaben arteko harremanek eta senar-emazteen arteko harremanenek, eta, oro har, eguneroko bitzta antolatzeari heltzen dioten gaiek funtsezko garrantzia dute gaur egungo eta etorkizuneko dimentsio eta ekintza politikoan.

Horren harira, generoen arteko berdintasunaren aldeko borrokek eduki konplexuagoa eransten diete politikari eta ekintza politikoari¹¹, estatuaren boterea lortzeko borrokaren esparrutik atereaz, bitzta sozialaren gainerako esparruekin batera egituratuz, arlo estrategiko politikoa egunerokotasunarekin eta aldarrikapenarekin uztartuz -publiko eta pribatuaz gain-. Ez dira elkarren

11 "(...) helburu estrategikoak eskuratu ahal izateko, nork bere indarrak metatzeko eta arerioarenak suntsitu edo neutralizatzeko espazioa da oinarrian politika." [Gallardo, 1989:102-103] Horrenbestez, praktika politikoa boterearen egitura, menderatzeko baliabideak eta moduak -politikoa dena, alegia- suntsitu, neutralizatu edo finkatu nahi duena da.

artean bereizitako borrokak edo arazoak. Emakumeen, gayen, lesbianen, bisexualen, transexualen eta trabestien eskubideen aldeko borrokak, beste ekintzaile sozial batzuenak bezalaxe, tinko berresten du borroka aldarrikatzailea eta politikoa dela. Bestela esanda, menderatzeko botere baztertzailer eta bereizitzaileak, gero eta gehiago zabalagoak alboratzen dituen botere horrek bere esku dituen egituren, baliabideen, balioen, kulturaren eta ekoizte eta erreproduzio material eta espiritualeko mekanismoen aurkako borroka da, eta -aldi berean- beren botereak eta kulturak eraikitze prozesua ere bada.

Besteak beste, horrek honako hau berresten du:

1. Sektoreko aldarrikapena ez da proiektu politikoak "gainditu" behar duen "akats" edo oztopo hutsa. Proiektu politikoak ez dago sektoreko aldarrikapenaren "gaitetik". Izan ere, bertatik abiatzen da, eta eutsi egiten dio, dimentsio eta proiektzio berri batean antolatuta.

- Hierarkiari dagokionez, izaera politikoak ez da aldarrikapen izaera baino "goragokoa".
- Aldarrikapenak ez du "sabei" edo mugarik, ezpada aldarrikapenak izaera politikoarekin berez duen kontrajartzeak ezarritakoa.

Politikaren eta aldarrikapenaren arteko antolamendu gabeziaren ondorioz, haustura bat dago borroka-moten artean. Alde batetik, jendartearen bere sustraieretatik zuzenean eraldatzeko asmoa duten borrokak daude; bestetik, lanean irauteko nahiak ezarritako eskakizun jakin batzuen alde edo eguneroko bizitzan garatzen diren borrokak ditugu. Eta horrek guztiak zatiketa sortzen du borrokan protagonista diren ekintzaile subjektuen eta euren kontzientzien artean.

2. Beharrezkoa da protestak (oposizioa) proposamen zehatzekin (jarrera propioa) eratzeko, kasu bakoitzean gatazkan dagoen sektoreko herritarrak euren borroketan orientatzeko balioko duten proposamenekin. Hau da, arazo zehatzetarako erantzun zehatzak eraikitzea. Berehalako eskaerei berehalako erantzunak lantzeko gonbidapena da, baina horrek ez du esan nahi bere helburua eta muga "naturala" berehalakotasuna eta behin-behinekotasuna direnik.

Alderantziz, proposamen horiek botere politiko handia dute euren baitan, eta, beren zehaztasun-maila aintzat hartuta, borrokako prozesuan agerraraz daiteke (eta agerrarazi behar da). Kontzientzia politikoak prestatzeko prozesu praktikoa pedagogikoak gune horretan lortzen du bere ahalmenik handiena.

Hori onartuz gero, oraindik ere gehienek uste duten moduan praktika politikoa alderdi politikoei edo espezialistei baizik ez dagokiela dioen ideia¹² hausten da; berriz hausnartu behar da eszena politikotzat hartu ohi den horretaz, tradizioz indar sozialek alderdietako ordezkartzaren bitartez erabiltzen duten *ekintza irekiko eremua* izan denaz. Baina agertoki politikoa une jakin batean ekintza politikoa eremuan jokatzen duten indar sozial guztiak biltzen ditu bere baitan, aintzat hartu gabe egitura politikoetan eta alderdi moduan antolatuta dauden edo ez. Alderdietako aukerak gaur egun diren guztia edo gerora izan daitezkeen guztia errespetatuz, herritarren parte-hartze politikoa ozen eskatzen du aktore guztiak alderdiena baino zabalagoa den eztabaidan eta agertokian sartzeko.

Desberdintasunekin zer egin?

Eragile sozialek euren benetako bizitzan desberdintasunak eraiki dituzten heinean, ezinbestekoa da desberdintasun horiek aitortzea eta nabarmentzea. Alabaina, desberdintasunak gainditzeko alternatibak eraiki ahal izateko, funtsezkoa da aitortza horretan oinarritzea, desberdinak direnak antolatzeko urrats zehatzak egin daitezen, haien identitateak, arazoak, helburuak, iruditeriak eta beharrak errespetatuz, eta, bide horretatik, jendartearen muin demokratikoan sakontzen ere lagunduz.

Berez elkarren artean konektatuta, baldintzatuta eta definituta dauden ondoz ondoko errealitateak eta identitateak biltzen dituen errealitatea zatikatuta dago, eta, orain artekoa gainditzeko, aurrera egin behar da errealitate hori bezain konplexuak eta askotarikoak diren pentsamenduan eta praktika integratzaileetan. Fergusonek aipatzen duen moduan:

Sistema anizkunetan oinarritutako mendekotasun soziala aztertu gabe, emakumeak ahaldundu ahal izango dira zenbait gizonen mendekotasunekiko, baina botererik gabe geldituko dira

12 Gaur egun ez dago interpretazio hori defendatzerik; horri eustekaren artean hainbat mailak daudela uste izatea dakar berekin: a) kopurua soilik eskaintzen dutenak, ez direlako gai berehalako aldarrikapenaren zerumugatik haratago iristeko: mugimendu sozialak, auzokoak, sindikalak, ikasleenak, emakumeenak, kristauenak, eta abar, b) arazo guztiak eta haiek konpontzeko bideak biltzeko gai izateaz gain, gainerakoak gidatzeko ere ahalmena dutenak: ezkerreko alderdiak (langile klasekoak), tradizioz euren burua abangoardiatzat dutenak. Dagoeneko mugimendu sindikalak, auzoetakoak, emakumezkoenak eta beste batzuk ezin dira irudikatu euren baitatik kanpora alderdi horietan landutako politiken "euskarri" bezala. Jarduera politikoa eta politika gauzatzen duten eragileak ezin dira orain garatzen ari diren alorretik kanpo definitu, ez eta bertako protagonistarik gabe ere [Ikus: Rauber, 1997:7, 8, 23, 30-32].

arrazakeria, inperialismo eta kapitalismoaren aurrean. [Ferguson, 2005].

Egia esan, emakumeen ahalduntze-esperientziei buruz gogoeta eginez, ikasgai garrantzitsuak eskura daitezke ikuspegi sektoriala eta zatikatua izateak, soilik aktore sozial "ezberdin" baten beharrak asebate nahi dituen ikuspegia izateak duen esanahi txarrari buruz -praktikak eta haien irismena txirotzen duten heinean-.

Desberdintasunak eta desberdinak diren pertsonak nabarmentzea lagungarria da Latinoamerikako ezkerren zati handi baten pentsamendu politikoan "desberdina" denak oraindik duen karga politiko negatiboa desmitifikatzeko. Ezker horretan, ikuspegi tradizionalak dira nagusi, erakunde sozial eta politiko guztiak batzeko guztien adostasuna eta homogeneizazioa eskatzen dituzten ikuspegiak: alderdi, mugimendu, herri eta -ahal baldin bada- jendarte osoarena.

Horren harira, generoaren edo generoen ikuspuntua lagungarria da batasuna eta kolektibotasuna oinarri berrien gainean eratzeko, eta desberdintasunen onarpena -oztopo izan beharrea- aberasgarria izateko, izan litezkeen antolamenduetarako zutabe. Ezinbesteko abiapuntua da berritasunaren eraikuntza kolektiboa, plurala, askotarikoa eta deskolonizatua lortzeko. Horixe da oraindik ere -alternatibak eraikitzen dituzten mugimendu sozialen ikuspegitik- bere garrantzi analitikoa eta oinarrizko praktika. Hala eta guztiz ere, ideologia- eta botere-erlako liskar eta eztabaida handien eremuan kokatzen da, baina aurkezpen honetan ez naiz alderdi horiek zuzenean aztertzen ari.

3. Kultura-arteko pedagogia deskolonizatzaile baterantz

Bizitzarako erresistentziak, borrokak eta hautabideak eraikitzerakoan, gizon-emakumeek ezagutzak eta jakintzak ekoizten eta erreproduzitzen dituzte. Euren kultura eta bizimoduetatik abiatuta, horien inguruan gogoeta kritikoa eginez, klase, arraza, genero eta beste arlo batzuetako bidegabekeriaren kontzientzia hartzen doaz. Horrek elkarren artean eratutako prozesu praktiko-pedagogikoa sortzen du, eta prozesu eraldatzaile-askatzaileak bultzatzen dituen erdigune nagusiaren zati bat da zalantzarik gabe.

Hain zuzen ere, pedagogiaren (pedagogia praktiko eta praktika pedagogikoaren) dimentsio berezi horren baitan daude gaur egun *norberaren* (autonomia) eta *norberarentzako* (eraldatzailea) kontzientzia politiko-sozialaren prestakuntza eta garapenari buruzko erronkarik handienak, Latinoamerikan beren burua

herri-subjektu (kolektibo) bihurtzeko bidean aldaketa sozialetako egungo prozesuen protagonista diren eragile soziopolitikoaren erronkak.

Marxen iritziz, klase borroka —beretzako zentzu zehatza emanez— eratzen eta proiektatzen duen erdiguneko muina langile klasea —eta zapalduetako sektore guztiak— *besterezentzaren gaitzitze positiboa* lortzea da. Horrenbestez, gaitzitze horri dagokion *askapena* ezin liteke modu zatikatuan ulertu, askapen ekonomiko, politiko, sozial edo kultural gisa banan-banan, modu integralean baizik. Hori dela eta, *klasea berez nor izatetik norberarentzako klase izatera* iristeko heltze-prozesua gerta dadin, langile-klaseak jendartearen duen egoeraz, harreman sozial guztiez eta jendarteaz osotasun bezala hartuta duen *kontzientzia (eta praktika) zatikatuak gaitzitu behar dira*. Orduan, osotasun soziala errotik eraldatzen da, kontzientzia, espiritualetasuna, subjektibotasuna eta aktore sektorialak subjektu politiko gisa (auto)eraikitze prozesuak eraldatzeaz batera.

Horren harira, proposamen pedagogikoa, eraldatzaile-askatzaileak izateaz gain, integratzaile teoriko-praktikoa ere bada, alde batetik, errealitate sozialarentzat, osotasun bezala hartuta, eta bestetik, kontzientzia eta subjektibotasun zatikatuak dituzten gizakiak berriz eratutako subjektu oso bihurtzeko.

Hortaz, arreta bereziki aztertu behar ditugu, nazio, eskualde, kontinente eta mundu-mailan, langileen, jatorrizko herri indigenen, herriko sektoreen eta komunitateen banakako subjektibotasuna eta kontzientzia politikoa —sektoriala eta kolektiboa— eraikitze eta prestatzeko prozesu zehatzak. Etengabeko aldaketa-prozesuak dira, garatzen diren errealitateen eta haietan sortzen diren praktiken arabera subjektibotasunak —aldakorrak horiek ere— une oro berreratze behar diren aldaketak baitituzte.

Eraldatu eta sortu beharreko munduaren kontzientzia politikoa ez dator "kanpotik"

Chiapaseko indigenen matxinada pentsaezina izango zen herritarrek euren errealitateaz kontzientzia hartzeko prozesurik gabe. Prozesu hori erresistentziarekin, borrokekin eta egoera gaitzitzeko proposamenak lantzeko jarduerekin lotuta eraiki zuten. Antzeko prozesuak aipa daitezke Brasilgo Lurrik Gabekoen Mugimenduari edo Boliviako "Bartolina Sisa" emakume nekazari indigenen mugimenduari buruz. Protagonistek adierazitakoaren arabera, Herri Hezkuntzaren ikusmolde eta praktikekin eratuta egoteak areago indartu zuen (auto)kontzientziarioko prozesu hori.

Eta horrek postulatu epistemologiko-politiko askatzaile hau azpimarratzen du: Kontzientzia ezin da subjektuen errealtate eta praktiken "kanpotik" eragin. Izan ere, borroka- eta eraldatze-prozesuetan parte hartzean eraikitzen eta garatzen dute euren kontzientzia, euren bizi-baldintzez gogoeta kritikoa eginez eta baldintza horiek eraldatzeko hautabideak bilatuz. Horrek, hiru elementu azpimarratzen ditu gutxien-gutxienik:

1. *Praktikak* bitartekaritzako erdiguneko lekuan kokatuta daude

Bizitzako esperientzietatik (bizimodutik) eta herrien borrokatik (langile-klasetik eta klase hori osatzen duten eta esplotatuta, baztertuta, alboratuta eta zapalduta dauden sektore guztietatik) abiatuta osatzen eta garatzen da banakako kontzientzia soziala eta politikoa. Horregatik, funtsezkoa da horien inguruan modu sistematikoan eta kritikoa gogoeta egitea.

Ez dago espaziorik "kontzientzia garbiak" *in vitro*, errealtate zehatzetatik bereizita hazteko, eta, beraz, ez dago gizakien historia eta ekintzen ibilbideko gertakizunetatik haratago "egia absolutuen" jabe izan litekeen kontzientziarik. Sistema kapitalistan elkarrekin bizi garen heinean, bertako logika salerosle, indibidualista, objektibatzaile eta besterentzailearen eragina jasotzen dugu, neurri handian edo txikian, baita egoera horrekiko erabat kontziente eta kritiko izanda ere. Hezitzaile orok (militante, buruzagi politiko-sozial, erreferente ideologiko, etab.) bere burua hezteko beharra ere baduela duela dioen tesia berresten du horrek:

"Teoria materialistak dio gizakiak inguruabarren eta hezkuntzaren emaitza direla, eta, beraz, aldatutako gizakiak inguruabar desberdinen eta aldatutako hezkuntzaren emaitza direla. Teoria horrek ez du kontuan hartzen gizakiak direla, hain zuzen, inguruabarrak aldarazten dituztenak eta hezitzaileak berak ere baduela hezteko beharra. Horrenbestez, jendartea bi zatitan zatitu behar da nahitaez, eta zati horietako bat jendartearen gainetik dago [...]. Inguruabarrak eta giza jarduera batera aldatzea praktika iraultzaile gisa baizik ezin da irudikatu eta ulertu arrazoiaren arabera. [Marx, 1976:8].

Latinoamerikan, tesi hori modu sortzailean berreskuratu zuen Paulo Freirek, bere Herri Hezkuntzaren zutabeetako korapilo teoriko-praktiko moduan. Herri Hezkuntza gauzatzeak eta garatzeak hamarkadaz hamarkada aberastu zituen hala hertsiki pedagogikoak ziren ikusmoldeak, nola kulturalak eta politikoak. Nolanahi ere, esparru horretan atzeratuta dago kontua, eta hainbat urrats egin behar dira oraindik pentsamenduko eta antolakuntzako eraikuntza kolektiboetan organikoki gorpuzteko eta onartzeko, beharbada, aldakuntzaren

edukiak eta izaerak sakon eztabaidatzen dituztelako zuzenean eta praktikan beren burua espazio "politikoaren" jabetzat dutenen artean bizirik dirauten pentsamendu eta praktika elitista eta abangoardistak.

2. Intersubjektibazioa etengabea da

Eragile-subjektuen kontzientzia borroka- eta eraldatze-prozesuetan duten parte-hartzean ainguratuta eratzen eta garatzen da, eta subjektibotasuna ere bai.

Eragile sozial eta politikoen kontzientzia eta subjektibotasun politikoa beti ari da osatzen, etengabe ari da eratzen eta deseratzen, ekintza bakoitza harilkatuz, urrats bakoitza eginez, gogoeta kritikoak euren buruengana itzularaziz, protagonistek sortu eta eragile politiko moduan garatzen duten errealitatea eskuratzeko modalitate eta bideekiko harremanean.

Errealitate (objektibo-subjektibo) bat aurkaritza- eta borroka-garaietan izaten dena da. Beste errealitatea, berriz, atzo borroka zuzendu zituzten eragile sozialek gaur gobernu, estatu eta jendarteko erantzukizunak euren bizkar hartzen dituztenean egituratzen hasten dena da. Egoera berriak interrelazio eta ekintza berriak osatzen ditu, eta, horretan guztian, subjektibotasun eta identitate berriak erretzen dira; esate baterako, lehen gobernuaren aurka zegoena gaur egun gobernukoa edo gobernuaren aldekoa da. Eta horrek konponbide zaileko gatazka kulturala eta politikoa erakusten digu alde zaurretik.

Kontinentean zehar herri-gobernuen prozesuetan izaten diren barne-gatazkek eta norgehiagokak ikusita, nabaria da borrokan ibili ziren eta gobernuak osatu zituzten eragile soziopolitikoek, helburu hori lortu ondoren, euren eginkizun soziala eta sektoriala berrikusten dutela. Ez daude interes partikularrak gaintzera eraman zituen borroka garaian bezala; euren subjektibotasuna eta kontzientzia dinamika sozialen zati bat dira, eta haiekin batera aldatzen dira. Garai honen muineko erronka politikoa hau da: korapilo berreratzaileak aurkitzea/eraikitzea, eragile sektorialekin aukera izan dezaten euren buruak errealitate berriko -eta errealitate berri- subjektu kolektibo gisa ezagutzeko eta berrosatzeko.

Eta hori ez da akats edo muga partikularra. Subjektibotasunak intersubjektibotasunak izaten dira beti, eta -beste subjektibotasun batzuekin eta errealitatearen dinamikekin eragin-trukea edukiz- elkar definitzen aritzen dira etengabe. Zavaletak ohartarazi zuenez, dinamika sozial zehatzek honako hau eragiten dute:

...orokor bihurtu denak ere, lehentxeago edo beranduxeago, partikularraren ikur kontserbadore bihurtzera jotzen du. Intersubjektibazioa, beraz, etengabe birsortu behar da. [Zavaleta Mercado, 1986:27].

Hori zaintzea da jendartearen prozesu eraldatzaileak duen funtsezko eginkizun politikoetako bat. Izan ere, iraultza demokratiko kulturalaren prozesua etenik gabeko bultzada sozial, politiko eta kultural kolektiboa denez, hegemonia indigena herrikoa osatzen eta eraikitzen ari den neurri berean ari da finkatzeko borroka egiten ere.

3. Errealitatea objektibo-subjektiboa da

Marx eta Kanten tradizio zaharrak objektiboa eta subjektiboa bereizten ditu, eta, beraz, hari jarraiki, gatazkan dauden subjektuen ekintza gorabehera, "baldintza objektiboak" daude -hau da, errealitate soziala-, eta "baldintza objektibo" horiekin loturarik izan gabe osatutako edo osa daitezkeen subjektibotasunak ere bai. Prozesu sozial biziak geldiarazi eta atzera eragiten dituenetako bat da Marx eta Kanten tradizioa, eta proiektu horien dinamika intersubjektibo-objektiboek ez dute erakartzea, proiektatzea edo indartzea lortzen.

Jakintzak eta jakinduriak berreskuratzea eta taldeka eraikitzea

Egitura sozialean, jarrera kolonialistak eta kolonizatzaileak desberdintasunak gaintzen ditu, desberdinak baztertu eta zibilizazio bakar bat ezarri eta finkatzen duelako "egiazko" bezala. Horren arabera da estatuen eta haien oinarri diren legeria eta erakundeen diseinua, boteretsuen eta haien ordezkarien interes ekonomiko-politikoekin egoki elkarri lotuta.

India, Afrika eta Latinoamerikan, bide horietan atzera egin ahal izateko, funtsezkoak dira deskolonizaziorako hezkuntza eta hezkuntzaren deskolonizazioa. Aipatutako kontzeptuez gain, Herri Hezkuntzaren proposamenek, Ikerkuntza Ekintza Parte-hartzaileak (IEP), bizitzako istorioek (ahozko historiaren bitartez) eta ezagutza kolektiboaren eraikuntzak (ezagutzaren kultura-arteko kudeaketaren bitartez) laguntza ematen dute horiek eraikitzeko.

Behetik hasita deskolonizatzeko kultura-arteko Herri Hezkuntza

Herri Hezkuntza boterea-jakintza-kontzientziaren arteko harreman hegemonikoaren ikusmolde kritikoa da. Hori biluzteko, atalka antolatzen ditu bi-zi-baldintzak, eragile sozial guztiek bertan garatzen duten praktika, eta euren

eginkizunaz eta errealitateaz (berriz) jabetzen direnean horretaz -gogoeta kritikoa-ren bitartez- duten kontzientzia edo izan dezaketena, euren subjektibotasun, kosmobisio eta identitateen arabera.

Kosmobisio- eta kognizio-arloko askapeneko proposamen askatzailea da, ezarritako egoera gainditzeko proposamenak eraikitzeke asmoa duena -subjektuen zuzeneko parte-hartze aktiboarekin-. Ezagutza eta eraldaketa soziala horren baitan korapilatutako dimentsioak dira, oinarrian duen prozesu hezitzaile-pedagogikoa, funtsean, subjektuen praktika zehatzetan -komunitario, kolektiboetan- gauzatzen delako: haietatik elikatzen dira eta haietan ikasten dute, haietaz egiten dute gogoeta kritikoa, eta haietara itzultzen dira proposamen berri edo hobetuekin. Proposamen horiek pedagogikoak eta eraldatzaileak dira, aldi berean. Hori dela eta, Freireren iritziz, hezkuntza-prozesu iraultzailearen funtsezko dimentsioetako bat da, prozesu iraultzailea bera hezkuntzaren gakoetako bat den neurri berean.

Praktika politikoa, eskuratze kritikoa, pentsamendua, ekintza, eraldatzea... Freireren pedagogia laburbilduko lukeen dinamika da hori. Herrien borroka eta sorkuntzetan behetik hasi eta erneaz -zerumuga estrategiko bateratuaz hornituta-, mundua aldatuz, mundu berria sorraraziz ari diren iraultza sozialen ikusmoldeari pedagogia horrek egiten dion ekarpen nagusia da, hain zuzen. Berria ezezaguna den neurrian, berria sortzeko eta ekoizteko prozesuen zati bat da herri-hezkuntzaren ikusmoldea eta praktika pedagogikoa.

Herri Hezkuntzak hautsi egiten du botereak jakintzarekiko duen jarrera eskusiboa, baztertzaila eta hierarkikoa, eta, horrenbestez, jakintza botere bezala erabiltzea ere bai. Harreman horizontala eraikitzea proposatzen du, jakinduria, ezagutza eta jakintza guztien artean, eragile-subjektu askotarikoen artean, eta horren alde egiten du. Beraz, kultura-arteke proposamena da sustraitik bere abiapuntuetan eta ondorioetan. Eta, oro har, subjektuen praktiketatik abiatuta, begirada eta prozesu deskolonizatzaileak sendotzen ditu. Horri dagokionez, aldaketa metodologiko edo morfologikoetara mugatu nahi izan da sarritan, baina haiek guztiak baino haratago doa.

Latinoamerikan, *herri-hezkuntza* erakunde sozialetan, prestakuntza prozesuetan eta bizitzeko eta antolatzeke praktiketan txertatuta dago, parte hartzeke praktika horizontaletan oinarrituta. Bizimodu jakin batzuetatik abiatuta jakintzak eraikiz, hezkuntza-praktika horrek oinarritzko zubiak eraikitzen ditu mundu pribatuaren izateke eta erreproduzitzeko modu jakin baten eta mundu publikoaren izateke eta erreproduzitzeko modu jakin baten artean dauden lokarriak eta elkarren arteke baldintzak erakusteko. Horrez gain, lagundu egiten du hezkuntza-prozesuan parte hartzen dutenek lotuneak

aurkitu ahal izan ditzaten ustez pribatua eta indibiduala eta itxura batean kasuistikoa den errealitate baten eta bizi den jendartearen izateko modu ekonomiko, politiko eta kultural jakin baten errealitatearen artean. Horregatik guztiagatik, herri-hezkuntza lanabes garrantzitsua da herri-erakunde sozialetako militanteentzat: haien parte-hartzea legezatzan du, zentzu soziala ematen dio ustez egunerokotasunak mugatutakoa eta "garrantzirik gabea" den euren jakintzari, euren herritar izaera aurkitzen dute militanteek eta, euren jakintzaren bitartez –prestakuntzari esker–, lagungarria da parte hartzen duten ahalduntzeko prozesu zehatzetan sakontzeko, "euren buruengana" itzularaziz, hau da, erabateko eragile sozial eta politiko bezala sendotuz¹³.

Pentsamendu emantzipatzaile berrietarantz

Teoria iraultzailerik gabeko iraultza sozialik ez dagoen neurrian, eta teoria "zeru goietatik jaisten den" manamendu aprioristikoa ez den heinean, iraultza sozial orok prozesu praktiko pedagogiko-hezitzaileak bateratzen ditu aldi berean, bizitza-baldintzen eraldaketarekin eta behetik hasitako jakintzen eraikuntza eta berreraikuntzarekin gauzaturuta. Horretan oinarrituta –guztion askapenerako zerumuga gutxieneko printzipio komunetatik abiatuz– protagonistek pentsamendu iraultzailea berriz ere landu ahal izango dute, euren garai historikoaren, eta errealitate soziokultural eta ekonomikoaren eskakizunen arabera, eta euren bizipen, kontzientzia eta subjektibotasunei jarraituta. Oro har, epistemologia askatzaileak eraikitzearekin batera, horrek osatzen ditu mundua sortu eta eraldatzeko iraultza egin dezakeen herri-subjektua (auto) eraikitzeko kultura-arteko deskolonizazio-prozesu politiko-pedagogikoak.

Herri-hezkuntzaren lekua eta eginkizuna

Aipatutako prozesuetan mugimendu indigenetako eta herrikoietako borroka, antolamenduak eta proposamenak kritikoki berreskuratzeko eta sistematizatzeko lanak, eta herrien eta erakunde sozialen memoria historikoa berreskuratzeko eta egituratzeko eginkizunak onartzen badira, prozesu horiek herri-hezkuntzaren arabera dira alderik alde. Proposamen politiko-metodologikoa da, eta, aldi berean, kultura-arteko tresna deskolonizatzailea ere bada. Elkar eraginean ari da bizipenak, testigantzak eta historiak sistematizatzen dituen ikerkuntza parte-

13 Kontuan hartzen bada erakunde horietan gehiengo indar giltzarria emakumeak direla, ondo uler daiteke ahotsik ez dutenei hitza emateagatik ezagutzen den herri-hezkuntza sistematikoki erabiltzea lagungarria dela emakumeen presentzia jendartea eraldatzeko prozesuetan ikusgarri bihurtzeko –sozial eta politikoki–, eta, era berean, emakumeen hitza, pentsamendua eta ekintza duin bihurtzeko eta balioztatzeko. Eta hori horrela da, bai erakundearen kanpoaldean, bai barrualdean, eta emakume bakoitzaren baitan ere bai, autoestimua eskuratzeko eta herritar osoa eta aktiboa izateko gaitasuna hobetzeko.

hartzailearekin, gehienbat ahozko historiara joz. Horren ondorioz, pentsamendu emantzipatzaile, kolektibo, deskolonizatu eta kultura-artekoa aberastuko edo berrantolatuko da.

Praktika deskolonizatzaileetan, herrien protagonismo kultural eta pedagogikoarekin agertzen da epistemologia kritikoa. Haiek dute sortzeko gaitasun praktikoa, erronka jotzen diote jakintzaren eta boterearen artean finkatutako egitura monokultural hierarkikoari, eta egitura horretatik abiatuta finkatzen diren ondoriozko menderatze eta mendekotasuneko harremanei. Horrexegatik, hain zuzen, hutsegitea litzateke pentsatzea badela deskolonizatze lanak egiteko ardua bere gain hartuko duen jende-talde bat, izan intelektualak edo izan ezkerreko alderdi politikoak. Deskolonizazioa prozesu historiko kolektiboa da; ez dago deskolonizatuko duen deskolonizatzailerik. Mundu berri bat sortzeko zibilizazio-ahalegina da; hau da, ezezaguna da, eta, horrenbestez, inork ezin du baietsi badakiela nolakoa izango den, eta etorkizuna aprioristikoki eskuko hatzez ukitzen saiatu. Pentsamendu emantzipatzaile berriak aldaketa iraultzailearen prozesu biziaren zati dira. Prozesuaren parte diren intelektual organikoek elkarren artean sakondu eta definitutako lana behar da, subjektuekin eta euren borroka eta sorkuntzako esperientziekin egindako elkarriketa praktikokontzeptual iraunkorraren baitan. Haietan eta haiekin guztiekin osatzen da aldaketaren subjektu kolektiboa, pentsamendu iraultzailea eraiki, eguneratu eta sortu ere egiten duena. Pentsamendu iraultzailerik gabeko mugimendu iraultzailerik ez dagoen moduan, ez dago mugimendu iraultzailerik gabeko pentsamendu iraultzailerik ere; dialektika dimentsio anitzekoa da, edo ez da dialektika.

Kultura-artekotasuna eta deskolonizazioa ez dira definizio kontzeptual abstraktuetatik azaleratzen, herri eragile-subjektuek errealitate berriak sortzeko eta eraikitzeko praktika zehatzetatik bereizita. Praktika kolektibo komunitarioak dira, eta beren erara egituratzen dute zatikatutako eragile-subjektu horiek euren burua subjektu kolektibo, plural eta subjektu politiko antolatu bihurtzeko prozesua.

Hala, pentsamendu emantzipatzaile berriak eraikitzeko prozesua korapilatuta dago gaur egun subjektuen lehia eta eraldaketa-sorkuntzako praktikekin; eta praktika horiek, berriz, txirikordatuta daude herri-hezkuntza, kultura-artekotasun eta deskolonizazioarekin. Horiek guztiek bat egiten dute, eta horren emaitza da ezagutza eta eginkizun soziopolitikoaren subjektu berriak eraikiko dituzten prozesuak heltzera iristea.

Herri-hezkuntza ezinbesteko lanabesa eta jarrera politikoa da, zabaldu egiten baititu arrazoiaren eta bihotzaren ateak bestea aitortzeko, bestea balioztatzeko,

guk besteei entzuteko eta besteek guri entzuteko. Kultura-arteko gakoak dira kultura-arteko gaitasunak eraiki ahal izateko pentsamendu emantzipatzaile berria eratu, sortu eta eraikitzeke, eta, horrekin batera, erakunde sozialak eta politikoak eta estatu-gobernuetako erakundeak sustraietatik eraldatzeko. Horrela zabalduko lirateke mugimendu indigenek eta sozialek haietan duten parte-hartze protagonistaren uhateak, eta haien eraginaren kultura-arteko proiektio deskolonizatzailea indartuko litzateke.

Testuinguru horretan aditzera eman daiteke deskolonizazioak, kultura-artekotasunak, herri-hezkuntzak eta lehendik dagoena alderantziz gainera jartzeko praktika sozial iraultzaileek elkar definitzen, baldintzatzen eta indartzen dutela. Horrexegatik, hain zuzen, garatzen dira behetik hasita, eta jendarte eraldatu nahi duen prozesuaren eta bere protagonisten baitatik. Oro har, kapitalak berarentzat zuzentzen duen mundua gaintitu ahal izateko gaur egun dagoen gatazka kulturalaren sustraietako oinarria osatzen dute.

Ikerkuntza Ekintza Parte-hartzailea: ezagutzak behetik hasita eraikitzen

Ikerkuntza Ekintza Parte-hartzailea (IEP) ezagutzak eraikitzearen alde egiten du, eragileengandik eta haien errealitateetatik, eta euren antolatzeke praktiketatik eta borroketatik (behetik hasita) abiatuta. Herri-hezkuntzan bezala, IEPn ez dago tradiziozko "ikertutako objektu" edo "ikertzeke objektuen" akademizistarik, ikerkuntza prozesuko subjektu partaideak baizik, ikertzaile-kideak, beren egoera kritikoki aztertzen duten analistak, hezitzaileekin, intelektualekin eta espezialista akademikoekin batera lan egiten dutenak. Horri dagokionean, esan dezakegu IEPk aitortu eta egituratu egiten dituela subjektuak, eragileak, alorrak, arazoak, gaiak eta bilaketak; eta "kanpoko" eta "barruko" ikertzaileak elkarrekin parte hartuta abiarazten direla. Horrenbestez, nahitasun bateratua eta parte hartzen duten subjektuen arteko harreman horizontala -ekitatekoa- du bere baitan.

Horren harira, IEPk Herri Hezkuntzarekin bat egiten du helburu eta oinarrietan, urte askotan jaso edota garatutako bizipenak, ezagutzak, jakintzak eta jakinduriak -sistematizatuz- elkarrekin konektatzeko asmo garbiarekin. Subjektu horiek jakintza, identitate eta irrika zabalak dituzte jendarte eraldatzeko prozesu praktiko-teorikoari eskaintzeke. Kultura-arteko ikuspegi deskolonizatzailearen esparruan, ezinbestekoa da hori pentsamendu emantzipatzaile berri bat eraiki ahal izateke. Eta erroko ikerkuntzen bitartez bakarrik egin daiteke hori, protagonistengandik abiatuta eta protagonistekin arituz.

Gehienetan komunitate- edota udal-eremuetan garatutako kultura-arteko kudeaketako esperientzia zehatzak sistematizatzen egindako prozesuetan

oinarrituta, IEPk lagundu egiten du kultura-arteko gaitasunetan prestatzeko elementuak taldeka identifikatzen edota eraikitzen.

Horretarako, oso garrantzitsua da jakitea IEPren prozesuan parte hartzen duten guztien arteko *elkarrizketa* eta *itzultzea* IEPren ezinbesteko osagai funtsezkoa dela. Iturri garrantzitsua da nor bere burua ezagutzeko eta nor bere kontzientzia hartzeko. Aldi berean, parte-hartzaileen gaitasun kolektiboen autokontzientziako, prestakuntzako edota indartzeko erdiguneko prozesua da.

Itzultzea jakintzak kolektibizatzea da, bai esperientzia baten baitan jakintza indibidual bezala zeudenak, bai eta beste esperientzia batzuekin lotuta jakintza partikular moduan zeudenak ere. Itzultzerik gabe, sektore edo norbanako talde bakar batek bereganatuko luke izaera kolektiboa, ezagutzako prozesuan zehar aplikatutako metodologiak edozein izanda ere. Hortaz, sistematizatzen eta kontzeptualizatzen duen taldeak landutako ondorioak eta definizioak parte hartzen duen multzoan eztabaidatu behar dira, emaitzak, proposamenak, ondorioak eta jakintzak modu kolektiboan eta horizontalean berresteko, aldatzeko eta zabaltzeko. Horri esker, ikerketa eta prestakuntzako prozesuak hainbat identitate, kosmobisio, kosmopertzepzio, esperientzia eta subjektibotasunetako subjektuen artean jakintza, pentsaketa eta egintzako sareak antolatzeko eta eraikitzeko prozesu praktikoak dira, aldi berean. Eta hori arlo kultura-artekoa eta kolektiboa eraikitzeko gaur egungo eginkizun erraldoian behar den aldaketa kulturalaren gakoetako bat da; giza desberdintasunen artean identitate berriak eta elkarren arteko harreman sozialak eta politikoak prestatzeko oinarria.

Horrek sendotu egiten du bere kultura-arteko dimentsio politiko-pedagogiko deskolonizatzailea, eta *aldaketa kultural* sakona eskatzen du prozesu bakoitzean partaide diren erakunde sozial eta politikoetan, eta, bereziki, "ikertzaileengan". Horretarako, "ofizialak" ez diren jakintzak, jakintza ezkatutak, ukatuak eta gutxietsitakoak aitortu behar dira, beste jakintza batzuei (feministei, generoetakoei, akademikoei) dagokien garrantzia itzuli behar zaie, eta aldaketa sozialen ibilbideak, erritmoak eta proposamenak definitzerakoan subjektu guztien parte-hartze irekia eta horizontala prestatu eta sustatu behar da.

Bizitzako testigantzak eta istorioak

Esperientziak sistematizatzea komunitate landatar eta urbanoetan, auzoetan, familian eta erakunde sozialetan bizitzaren historia berreskuratzeari dagokio nabarmen. Denboran zehar edo interes politiko-kultural bereziko aldi jakinetan garatutako oinarri filosofikoak eta bizitza kolektiboko esperientzia jakinak

berreskuratzea da eginkizuna. Sistematizazioan esperientzia horiek identifikatu eta bereizten dituen nabarmentzen da, bai eta gertatzeko gune izan den ehun historiko soziala eta egungo borroketarako eta etorkizuneko agertokiatarako duten esanahia ere.

Kultura-arteko *herri-hezkuntza* deskolonizatzailearen ikuspuntu politiko-pedagogikotik, garrantzitsua da ikerketak kiderik zaharrenen eta gazteenen *testigantzekin* lotzea, eta ikertzen den prozesuan zehar gizon-emakumeek izandako esperientzia aipagarriak jasotzea.

Testigantzez gain bizitzako istorioak daude. Banakako zein taldekakoak izan daitezke horiek, erakundeei edota mugimenduei buruzkoak. Azken kasu horretan, urratsez urrats identifikatu eta berreraiki behar diren banakako edo taldekako istorioak daude elkarri kateatuta, eta memoria historiko kolektiboa ikertzeko eta berreraikitze prozesua osatzen dute. Horren harira, bizitza-istorioak IEPren prozesu osoarekin elkarri lotzean lortzen da aberastasunik handiena, kontzeptuak multzoan eta modu integratuan eraikiz edo berreraikiz, jakintzen formulazioari eta birformulazioari ekarpenak eginez ezagutzaren eta pentsamenduaren hainbat ertzetatik, eta jakindurietatik eratorritakoak berreskuratuz, eta kultura-artekotasunean baieztatuz edo berrosatuz.

Botere nagusiak zapaldu edo ukatutako herri-jakintzak berreraikitzerakoan -hala testigantzak nola bizitza-istorioak- indargarri dira kontu horretan da-biltzan subjektuen esperientziak berreskuratze prozesuetan. Horretan lagungarria da bizi-esperientziak ahoz berreraikitzea, euren bizitza-modalitateari, identitateari, erresistentziari, xedeei, borroka sozialari, eta arlo kolektiboa administratzeko antzinako praktikei dagokienez.

Aintzat hartu behar da ezagutza eta kultura jaiotzatik bertatik osatzen eta garatzen direla gizaki bakoitzaren baitan, familiaren altzoan, etxean eta bizi den komunitatean. Horrenbestez, eskola-erakundeak baino lehenagokoak eta garrantzitsuagoak dira, eta zinez garrantzizkoa da kultura-arteko jakintzei familiako eta komunitateko kulturaren isuria txertatzea. Horixe da, modu sintetikoan adierazita, kontzeptualki *jakinduria* izenarekin bereizten dena.

Subjektuen zentralitatea

Kontua botere eta jakintza koloniala errotik gainditzea bada, kapitalaren botere eta jakintza kolonial zaharra eta bere erro hegemonikoak suntsituz eta gaindituz lortuko dute sektore herrikoiek *botereaz jabetzea*. Horrekin batera, *botere berria eta herrikoia* eraiki behar da, sustraietatik hasita desberdina, iraultzailea, desko-

lonizatua eta kultura-artekoa. Horrek bidea zabalduko die eragile soziopolitikoan *ahalduntze prozesu kolektibo*ei (eta aldi berean berezi direnei).

Erabakigarria da hor alde zuzenetik zeuden harremanak eraldatzea eta herri-hegemonia iraultzaile berria eraikitzea. Izan ere, koloniaren aurkako gatazkan elkar eragite dialektikoa gertatzen da etengabe lehendik dagoen boterearen, eskuratutako boterearen eta norberaren botere eraiki berriaren artean. Horren inguruan, *eraikitzen dena hartzen dela* baieztatu dut nik; kontua ez baita dagoen "botereaz jabetzea", hura aldi baterako okupatzea baizik, errotik hasita osorik eraldatzeko. Horretan datza, hain zuzen, Latinoamerikako gaur egungo prozesu demokratiko-iraultzaileen erronkarik handienetako bat.

Norberaren boterearen eta eskuratutako boterearen arteko dialektika askatzailea izan daiteke edo askatzeko bidearen alde egin dezake, bera eraikitzen duten eragile sozial eta politikoaren ahalduntze erabatekoa (alderdi anitzekoa) eta protagonikoaren emaitza eta sintesia bada. Horretarako, prozesu kolektibo sozial, kultural, ideologiko eta politiko korapilatsua behar da, kapitalaren sistema koloniala eta bere erakundeak gainditzeko eratu eta bideratutako prozesua, metabolismo sozialaren etikan (berrian) eta logikan (berrian) oinarrituta, eta hainbat eragile behetik eraikitakoa. Eragileek eginkizun eta eskaeren arabera antolatuko dira une oro, deskolonizazioan eta kultura-artekotasunean oinarrituta, eta deskolonizazioa eta kultura-artekotasuna -prozesu iraultzaile eraldatzailea bezala- historikoki garatuko dira.

Hori horrela da aldaketaren ideologia -eta bere definizio estrategikoak- prozesu sozial biziaren zati bat direlako, bere dinamiken eta kontraesanen atal bat. Ez da ezkerreko alderdiren bateko *abangoardiak* herrien borroketatik kanpo finkatutako dogma bat, "gainerakoek" "asimilatu" baizik beharko ez luketena. Kontzientzia politikoaren zatia den ideologia subjektuek egindako erresistentzia, borroka eta alternatibak eraikitze prozesuetan lantzen eta hazten da. Definizioak, norabide eta helburu estrategikoak bezala, subjektuek eraikitzen (eta aldatzen) dituzte arian-arian, euren bizimoduaren eta borroka eta bizi-iraupenen esperientzien arabera, eta desberdinak dira jendarte eta komunitate bakoitzean.

Eztabaida estrategikoa zabalik dago herri-gobernuek irekitako garai politikoan. Eta aldaketaren subjektuak protagonista dituzten borroka politiko-sozialetan adierazten da bereziki. Definizioetan aurrera egiteko eta prozesu bakoitzean lortutako aldaketak txertatzeko, hobetzeko eta errotik sakontzeko asmoarekin antolatzen dira borrokek eta eraikitzen dira alternatibak. Hori guztia gertatzen denean, aldi berean, egungo sistema-mundua osorik zalantzan jartzen duten

bideak eraikitzen dira, eta hura berriz diseinatzen dute, "kapitalaren nagusitasunetik haratago" [Mészáros, 2001].

Horri dagokionez, funtsezkoa da *herri-boterea eraikitzeko behetik hasita* eratutako prozesuetan areago sakontzea, borroka demokratizatzaileek eta deskolonizatzaileek bultzatutako prozesu politiko pedagogikoekin, askapeneko indar sozial eta politikoa prestatzen eta indartzen laguntzeko. Eraldatze soziala ibilbide irekia da -soziala den guztia bezala-, ziurgabetasunez eta oztopoz beterik dago, baina lubaki erabakigarria du bere baitan zibilizazio berriaren alde aurrera egiteko: subjektu politiko iraultzaile kolektiboak bere burua etengabe eraikitzea.

Itxaropenaren pedagogia izenekoek une eta egoera guztietan laguntzen dute prozesu horretan. Haiei esker, egunez egun eraldatzen da zanpatutako subjektuen bazterkeria eta bereizkeriazko errealitatea. Gaur egungo jendartea eraldatzeko funtsezkoak diren kultura-arteko zirrikituak eraikitzeko prozesu kolektiboa indartzen dute, zibilizazio berri baten elementuak sortzen eta aurreratzen praktketan, hainbat eratako etnia, genero eta klaseren artean elkartasun-loturak eta ekitate-harremanak indartzen, erabat unibertsala den izendapen bakarrarekin berdintze aldera: "giza generoa".

Itxaropenaren pedagogiak kontzientzia eta sormen kolektiboak elikatzen eta lantzen dituzten pedagogia guztiak dira. Herrien bizitasun epistemologikoan, politikoa eta kulturalen konfiantza izanda eraikitzen eta indartzen dira, eta justizia, ekitate eta aniztasunean izandako elkarbizitza solidario, osagarritasun, harmonia, bake eta zoriona bezalako balioetara irekitzen dira, mundua aldatzeko borondatea eta fedea izanda.

Nolanahi ere, herriko gizon-emakumeengan dago funtsezkoena, zibilizazio berriaren gordiar korapiloa eta gaur egungo borroka eta sorkuntza kolektiboek eskura ditzaketen bizitasuna eta proiektzio estrategikoa. Haiek eusten diete kapitalaren erasoei, eta mundu berria sortzen dute. Eta, aldaketak errealitate bihurtuz, euren historiaren subjektu bihurtzen dira.

Bibliografia

Córdova Cayo, Patricia (1995). "Madres y líderes: mujeres organizadas en Lima". En: *Mujer, trabajo y ciudadanía*, CLACSO, Buenos Aires.

Ferguson, Ann (2005). *¿Puede el desarrollo propiciar el empoderamiento y la liberación de las mujeres?* Hemen: <www.globaljusticecenter.org>.

- Gallardo, Helio (1989). *Elementos de política en América Latina*. Editorial DEI. San José.
- García Linera, Álvaro (2011). *Las tensiones creativas de la revolución*. La Paz, Vicepresidencia del Estado Plurinacional de Bolivia.
- García Linera, Mignolo y Walsh (2006). *Interculturalidad, descolonización del estado y del conocimiento*. Ediciones del Signo. Buenos Aires.
- Hunacuni Mamani, Fernando (2010). *Vivir Bien/Buen Vivir. Filosofía, políticas, estrategias y experiencias regionales*. III-CAB, La Paz.
- Laclau, Ernesto y Mouffe, Chantal (2004). *Hegemonía y estrategia socialista. Hacia una radicalización de la democracia*. Buenos Aires.
- Lombardo Toledano, Vicente (1984). *Sin mujeres no hay democracia*. Ediciones del Partido Popular Socialista, México.
- Macas, Luis (2005). "La necesidad política de una reconstrucción epistémica de los saberes ancestrales." En: Dávalos, P. (Comp) *Pueblos indígenas, estado y democracia*. CLACSO. Bs. Aires.
- Marx, Karl eta Engels, Friedrich (1976). *Obras Escogidas*. 3 liburukitan, I. lib, Editorial Progreso, Mosku.
- Mészáros, István (2001). *Más allá del capital*. Vadell Hermanos Editores, Caracas.
- Plan Nacional de Desarrollo*. (2006). La Paz. Vicepresidencia del Estado Plurinacional de Bolivia.
- Plog eta Bates (1997). Hemen aipatua: Graciela Malgesini eta Carlos Jiménez: *Guía de Conceptos sobre migraciones, racismo e interculturalidad*. Editorial La cueva del oso, Madril.
- Rauber, Isabel (2010). *Dos pasos adelante, uno atrás. Lógicas de ruptura y superación de la civilización regida por el capital*. Caracas, Vadell. [Beste edizio batzuen izenburua: *Revoluciones desde abajo*, Bolivia (2011) eta Argentinako edizioan (2012)].
- (2009-2010). Artikulua: "Bolivia: una opción civilizatoria con rostro indígena (2010)". "Claves políticas para una nueva civilización (2010)". "Afianzar y profundizar el proceso: claves del triunfo revolucionario de los pueblos de Bolivia (2009)". "Bolivia: Con la terquedad de la esperanza (2009)". Hemen: <www.isabelrauber.blogspot.com>.
- (2004). *Movimientos sociales y representación política. Articulaciones*. Ciencias Sociales, Habana. [Lugarren edizioa: 2007, FDBM, La Paz].

----- (2002). "Argentine: femmes piqueteras". Hemen: Verschuur, Christine eta Reysoo, Fenece, *Genre, mondialitation et pauvreté*. Cahiers "Genre et developpment", 3. zk. L'Harmattan IUED EFI, Geneva.

----- (1998). *Género y poder*. UMA, Buenos Aires.

----- (1997). *Actores sociales, luchas reivindicativas y política popular*, Santo Domingo.

----- (1992). *Hijas del Sol*. Ixoquib, Mexiko.

Zavaleta Mercado, René (1986). *Lo nacional-popular en Bolivia*. Mexiko, Siglo XXI Editores.

Eskola publikoa, gizarte-mugimenduak eta hezkuntza eraldatzailea

Mugak eta gainezkatzeak¹

José Emiliano Ibáñez²

Aurkibidea

1. Hezkuntza formalaren mugak eta kontraesanak: non gabiltzan jakin
2. Hezkuntza eraldatzailea eta gizarte-mugimenduak: planteatu izan duguna
 - Hezkuntza eraldatzailearen ezaugarri zenbait
 - Gizarte-mugimenduak eta hezkuntza eraldatzailea
3. Non gaude: hezkuntza kritikoa, txikizkako esperientzia
4. Markoa gainditzeko pentsatu eta aritu
 - Gizarte-mugimenduak eta hezkuntza: potentzialtasunak (areago) aprobetxatu
 - Eragina zabaldu: jendarte gehiengoa izan, erreferentzia kritikoa izan
 - Etorkizuna ez dago idatzita... eta irabazi beharra dago
5. Bibliografia

1 Ahozko parte-hartzean (hemen duzue <www.congresoed.org/video-ponencia-jose-emiliano-ibanez>) zenbat denbora genuen eta gauza asko jada bagenekiela kontuan izanda, ez zen azaldu oinarrian dagoen hezkuntza eraldatzailearen proposamena (hemen zehatz-mehatz dago). Horren orde, gauden une jakinean oinarritu ginen batez ere hausnarketa egiteko..

2 Bigarren Hezkuntzako irakaslea. Ekintzaile soziala. Concejo Educativo de Castilla y León, Berrikuntza Pedagogikorako Mugimenduko kidea.

1. Hezkuntza formalaren mugak eta kontraesanak: non gabiltzan jakin

Batzuetan ahaztu egiten zaigula dirudien arren, gure zeregin profesionala egitura legezko eta soziopolitiko jakin batean garatzen dugu eta egitura hori *erreproduzio sozialerako* diseinatuagoa dago (*bere kontraesan guztiekin*) eraldaketarako baino, eta testuinguru sozialaren ezaugarriak izaten dira, normalean, talde nagusien hegemonia ideologikoa, bidegabekeriaren erruduntasuna ezkutatzea eta talderik kaltetuenen zatiketa eta ahuldadea³. Horren adibide dira egunero frustrazio legez bizi ditugun muga batzuk (bigarren hezkuntza irakasle -desados- legez apur bat hausnartzea nahikoa dugu):

- Ebaluazioa, sustapena eta desberdintasun soziala: "eskola porrota" eta jendartetik baztertzea, banako sustapena...
- Autonomiaren egitura eta mugak: nahitaezotasuna, denborak eta espazioak zatitu, curriculumean sartu, diziplina zatitu eta curriculumaren hautaketa akademizista, autoritatea eta hierarkizazioa, "eskola kultura" eta kultura ekintzaile kritikoa bereizi.
- Eskola, testuingurua eta baldintzatzaile politikoak: ikusten den aniztasuna, hain nabarmenak ez diren desberdintasun sozialak (klaseak, kultura...), eskola kontraesanaren bidegurutzea, sistema sozialeko koherentzia gabezien estalki eta justifikatzailea, hierarkizatutako sareak (publikoa eta pribatua, eta gero eta pribatizazio handiagoa).
- Kontraesanez betetako jendartean eskolari ofizialki emandako zeregina anbigua da (eta zenbaitetan zinikoa), bere hainbeste printzipio orokorren eta egiazko egituraren artean: demokrazia/elektokrazia, berdintasuna/oligarkia, parte-hartzea/menderatzea...⁴.

3 Pertsona eta talde askorentzat funtsezko errealitatea gogorra eta arazotsua izan arren, ez du errebeldia orokorra sustatzen, baizik eta, orain arte ohikoa izan den legez, biztanleriaren gehiengoarentzat izan duen ondorioa beldurra areagotzea eta bakarkako irtenbidea bilatzen saiatzea izan da (karitatera isilpean jo da, beste aukerarik ez zegoenean).

4 Argiak eta erabatekoak dira 14 urteko txiletar ikasle baten hitzak: "Dirudienez eskolan gobernatuak izaten erakusten zaigu, gobernatzaileak izaten baino; eta helduaroan hauteskundeetan parte hartzen hautesle legez, hautetsi legez baino" (Muñoz, C. (2012). "El desarrollo de habilidades ciudadanas en la escuela. ¿Una educación para participar como gobernado o gobernante?" 388. or. de Alba, N., García Pérez, F.F. eta Santisteban, A. (argitaratzaileak). *Educación para la participación ciudadana en la enseñanza de las Ciencias Sociales*, 1. alea (381-390. or.). Sevilla: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales/Diada.

Zer gertatzen da, beraz, egiazko ikaskuntzarekin? Gordon Wellsek dio "ezagutza ulertzeko modurik egokiena banakoen nahitako jarduera legez egitea da, erkidego bateko kide direnez, euren mundua hobeto ulertzeko eta eraldatzeko taldeko ahaleaginean errepresentazioak erabiltzen eta ekoizten baitituzte"⁵. Testuingurua aberatsa denean eta pertsonak euren borondatez dabiltzanean hor elkarrekintzan, ikaskuntza prozesuaren zati naturala da. Aldiz, ikaskuntza espezializatutako zentroetan (ikastetxeetan) ikus dezakegunez, zerikusi txikia dute ikaskuntza garrantzitsu honekin, egitura legal-instituzional zehatza baitute, baina baita duten eguneroko funtzionamenduagatik ere: akademizismoa eta zatiketa da nagusi, are nabarmenago bigarren hezkuntzako zentroetan. *"Ikaskuntza testuinguru sozial bateko jarduera"* izan ordez *"ikaskuntza instituzional-akademizista"* daukagu, eta horren barruan irakasleak eta ikasleak *kokatuta* eta *estututa* gaude, frustrazio maila desberdinak ditugu eta kalteak jasaten ditugu.

Badakigu hezkuntza formalak, berak bakarrik, ezin duela mundua aldatu, baina badakigu, halaber, eskola ekintza-esparrua dela, ez dela agente uniformea, eta biztanleria osoari ikaskuntza batzuk ziurtatzeaz gain, jendarteko gatazkan zeresan kritikoa izan dezakeela (batzuetan ezkutukoa eta beste batzuetan esplizituagoa): espainiar estatuan, gaur egun ezarritakoa zalantzan jartzen da eta jendartea gori-gori dago, egiten dugun egiturazko azterketa aldatu beharra ote dugu? Ala, beste hau galdetu behar da: zer egin behar da egiturazko errealitate mugatzaile hau eraldatzeko? Lehendik esaten ari garena hartuko dugu oinarri, baina joko-zelaitik irteteko gonbita egiten diguten planteamendu batzuekin amaituko dugu.

2. Hezkuntza eraldatzailea eta gizarte-mugimenduak: planteatu izan duguna

Hezkuntza eraldatzailearen ezaugarri zenbait

Bidegabeko jendarteak sortzen duen erabateko asegabetasuna eta hori eraldatzeko nahia daude hezkuntza kritikoaren oinarrian. Ez dago hezkuntza askatzailerik, ezertatik askatu beharrik ez dugula uste badugu, ez dago hezkuntza eraldatzailerik jendartea aldatzeko aukerarik eta nahirik ez badago. Lerro freirianoan kokatu eta hezkuntza kritiko-eraldatzailea hezkuntza transmisibo edota kontserbadorearen aurka kokatzeaz gain, pedagogia erreformista, "aktibo" edo humanistetatik bereizten dela uste dugu (nahiz eta

5 Wells, G. (2001). *Indagación dialógica. Hacia una teoría y una práctica socioculturales de la educación*. Bartzelona: Paidós. Wells, 2001, 95-96. or.

horietako gauza baliotsuak izan ditzakeen)⁶: oinarrian ikuspegi sozial kritiko-eraldatzailea sartzea da kontua, horren ondorioz hezkuntza-ekintzak eskolaren estutua gainditu dezan nahitaez. Hezkuntza eraldatzailearen ezaugarri eta elementu osagarrietako batzuk hauek dira⁷:

- Ekintza pedagogikoa, elkarrizketarako topaketa legez.
- Ikuspegi kritikoa eskaintzeko beharra, hegemonikoa zalantzan jarriko duena (ez soilik edo nahitaez hezitzaileak).
- Hezkuntzako testuingurua eta testuinguru soziala esku hartzeko toki legez; testuingurua eraldatzeko beharra (mugatzen duen testuingurura "egokitu" ordez).
- Bizitzako esperientziaren eta nahiaren balorazioa. Parte hartzaileen behar subjektiboak kontuan izan behar dira eta ahalik eta gehien sartu behar dira ikuspegi sozialean eta etorkizuneko beharretan.
- Aniztasunarekiko berdintasunaren aldeko borroka: hezkuntza-mailako desberdintasuna eta maila sozioekonomikoa; generokoa; aniztasun pertsonala.
- Kulturaren barnean hezkuntza jokoan jartzea, jendarteko gatazkarako espazio legez (herri kultura eta kritikoa, kultura nagusiaren aurrez aurre, kulturartekotasuna...).
- Hezkuntza-sisteman botere publiko parte hartzailea eta demokratikoa izatearen beharra (zentroen titulartasun publikoa ezinbestekoa da, nahiz eta ez nahikoa).
- Hezkuntza eta jendartearen arteko harremanak kontuan izan: erreprodukzioa, kontraesana eta ekintza sozial eraldatzailea (hezitzailea eta soziala).
- Lortu nahi diren xedeak jendeak eztabaidatzeko jarri. Izaera autokritikoa.
- Ekarpen batzuk bereziki "autokritikoak" ez izan arren horiek ere sartu, garrantzitsuak direlako:

6 Ez ditugu hezkuntza eraldatzailetzat hartzen alternatibatzat aurkeztu arren ("haurrari hazten utzi, bere gaitasuna erne dadila..."), funts zientifikorik ez duen neoplatonismoan oinarritzen direnak: beste gizakiekin harremanetan izaten gara gizaki, gizarte-kulturarik gabe ez dago gizateriarik. Gizateriaren zati batek badu interesa, batez ere nagusi diren eskola sistema zurruneekin kontrastean, baina erantzun globalak ez du ahalmen kritikorik eta koherentzia handirik ere ez (eta are gutxiago, eliteei zuzendutako eskola pribatuak direnean, eskola horiek ordaintzeko gaitasuna dutenei zuzendutakoak, hain zuzen ere).

7 Zabalago azaldu dugu hemen: <<http://jei.pangea.org/edu/index.html>>.

- Hezkuntza: kultur ikaskuntza eta eskolatzea baino zerbait zabalagoa (arreta berezia eskainiko diogu ikuspegi historiko-kulturalari psikopedagogian).
- Subjektuaren garrantzia, pertsona autonomo legez.
- Afektibitateari eta soziabilitateari arreta.
- Esperientzia-hausnarketan oinarritutako ikaskuntza.
- Metodologia integratzaile/globala (proiektuen metodoa eta besterik).

Horrela, bada, hezkuntzak oro har hegemonikoki nagusi dena zalantzan jarri behar du (ezkerreko zutabea) eta jakintza kritiko eraldatzaileara jo behar du (eskuineko zutabea):

Estereotipoak, ideiak eta onartzen diren mitoak	→	"Sen on" legez aurkezten diren mitoak zalantzan jarri
Zergati eta irtenbide moralak, pertsonalak	→	Zergati eta irtenbide egiturazkoak eta politikoak, oinarri etiko-sozialekoak
Ikuspegi bakarra, objektibotzat aurkezten dena	→	Hainbat ikuspegi, bertsio eta interes: kritikagarritasuna
Jendarte-erabakiak interes orokorraren ondorioz edota "berezko" eta ezinbesteko bezala aurkeztuak	→	Soziala gatazkatsua da eta erabakiak interesen, jardueren eta indarren korrelazioen arabera daude
"Gertaerak" eta "esperientziak" datu ukaezin legez	→	"Gertaerak" eta "esperientziak" interpretazioaren mende daude eta aldatu daitezkeen testuinguru batean sartuta
Jendartearen ikuspegia "kanpoko" errealitate legez/ Errealitate pertsonala sozialetik berezita	→	Pertsonalaren eta sozialaren elkarrekintza
"Gutxieneko agintariak" soilik eraikitako edo "emandako" errealitate soziala: pertsona gehienek zeregin pasiboa	→	Soziopolitikoki eta gatazken bidez "eraikitako" errealitate soziala: jendartearen zeregin aktiborako aukera: pertsonak, talde informalak, antolatutako taldea, gizarte-mugimenduak
...	→	...

Ezin diogu errealitate sozialari begiratu monolitikoki eraikita balego eta mugatzailea balitz bezala, ongi bideratutako hezkuntzak argitu eta aldaketa eraldatzaileara eramango bailuke. Errealia ez izateaz gain, errealitateak

kontraesana eta gatazka baititu, sortuko litzatekeen pentsamendua azalekoa litzateke edo, gutxienez, haragiztatu gabe eskolatuta egongo litzatekeelako; ondorioz, ez litzateke oso erabilgarria eraldaketa pertsonal eta sozialerako. Hezkuntza kritikoa eskola instituzioaren testuinguru itxian simulakro bat izan ez dadin, gizarte-mugimendu kritikoen esku-hartzea behar dugu, elkarbizitza kritikorik ezin baita gizarte-ekintzarik gabe.

Gizarte-mugimenduak eta hezkuntza eraldatzailea⁸

Gizarte-mugimenduak eta jarduera hezitzaileak bi mundu desberdin direla dirudi: lehenengoak borondatez aritzen dira errealitate sozialean eta afinitateen arabera; bigarrenak inguru itxi eta instituzionalean izaten dira, populazio osoari zuzendutakoak dira. Zer ekarpen egin diezaiokete, beraz, gizarte-mugimenduek eskola munduari? Gizarte-mugimenduak oinarritzko erreferenteak dira ikaskuntza "sozialaren" planteamendu kritikoa: herritarren protagonismoaren lagina eskaintzen baitute eta ikuspegiak (eduki zehatzenak), errealitateari buruzko ordezko aukerak eta aldatzeko dituzten aukeren inguruko ordezko aukerak eskaintzen baitituzte.

Gizarte-talde kritikoek jendarte imaginario alternatiboa eraikitzen laguntzen dute gutxienez bi zentzutan: batetik, "dagoena" "izan daitekeen bakarra" ez dela ikusarazten dute, proposamenak egiten dituzte, egungo errealitatea nola konfiguratu den erakusten dute, beste errealitate batzuk... edo, beste era batera esanda, "beste mundu bat daitekeena dela"; bestetik, ekintzaren bidez erakusten dituzte errealitatean eragiteko aukerak, ez dagoen gizarte-ekintzaren irudia eraikitzen da horrela nagusi den pentsamendutik (edo bere gutxieneko adierazmoldera murriztua, hauteskundeetako boto emaile legez). Baina, gainera, *gizarte-mugimenduak dira hezkuntza gatazka sozialarekin konektatzeko aukera ematen digutenak*. Gaztela eta Leongo Hezkuntza Kontseiluan esan genuen legez:

"Herritartasun kritikoaren hezkuntzan" gizarte-mugimendu eraldatzaileek biztanleriaren helarazten dizkieten proposamenak sartu behar ditugu nahitaez, euren hedapen, protesta... jarduera guztiekin, hor baitago dagoenari aurka egiteko gai izango den kontzientziaren eta jardueraren ernamuina; oso garrantzitsua da biztanleriak arazo bati buruzko ikuspegi kritikoa jaso izana eta hitza emandako jendearekin loturak izatea ere bai (hemen ikasle

8 Hemen ikus daiteke <<http://jei.pangea.org/soc/index.html>> eta, bereziki, "Movimientos y redes para una cultura transformadora" *Tabanque* aldizkarian argitaratua, 17. zk. (2003) <<http://jei.pangea.org/edu/c/e-movim-redes.htm>>.

formalak sartzen dira: irakasleek bakarrik eskaintzen badute ikuspegi desberdina, zaila da kontzientzia kritikoko aldaketak sortzea).

Azkenik, gizarte-mugimenduetan prozesu bat gertatzen da eta hor elkar eragiten dute (edo egin behar dute) ekintzak eta hausnarketak, nahiak eta errealitateak, utopiak eta aukerak, autonomiak eta erantzukizunak, eta elkarren arteko elkartasun sareari eta giza harremani lotuz gero, marko bat eskaintzen zaigu bizi-errealitate alternatiboa eraikitzeko, ikaskuntza eredu sortzaile eta kritikoarekin batera. (Concejo Educativo de Castilla y León-eko Hezkuntza Kontseiluak, 2002).

Duela denbora bat proposatu genuen *kultura eraldatzailea* sortzea gizarte-mugimenduen eta hezkuntza eraldatzailearen arteko lotura legez, jakintza eta ekintza hartzen baititu noizik eta behingo esku-hartzeaz gain:

"[...] kultura eraldatzailea behar dugu, dagoena kritikatzeko duena, baina proposamenak (pluralean) ere planteatuko dituen, parte-hartze kontziente eta kolektiboaren aukera eraldatzaileak azpimarratuaz. Eta biztanleria osoaren eta osoarentzako kultura izan behar da, salbuespenik gabe, desberdintasunik gabe, nagusitasunik gabe. Kultura eraldatzailea da *bizi garen jendartearen ulertzen eta kritikoki aritzen laguntzen duena*, desberdintasunak eta nagusitasuna gainditzeko, kultura horrek lotzen ditu hausnarketa eta ekintza, hori geratzen da esperientzia eraldatzaile bakoitzaren ondoren eta aldi berean ondorengoentzako baliabideak hazten ditu. Kultura eraldatzailea da, *utopia eta gainditu beharreko errealitate zehatzak lotzen dituen*, parte-hartze kritikoa sustatzen duena. Zentzu honetan, kultura eraldatzaileak *lotu egiten ditu gizarte-mugimendu desberdinak elkarrekin*, baterako giltzarri batzuk eraikitzen ditu (definitu baino gehiago, definitu ere egiten dituen arren) eta elkar aberastea sustatzen du, desberdintasunaren bidez: gai desberdinekin, baina baita aritzeko modu eta ideia desberdinekin ere." (Ibáñez, 2003).

Planteamendu honetatik eta hemen jasotzen ez diren beste askotatik gauza asko egin dira azken urteetan, dela adostasun sozial ia desesperagarriaren garaian dela azken garaian, zeinetan biztanleriaren zati handi batek ikusi duen enperadorearen jantzia iruzurra zela. Baina iritsi al dira gure planteamenduak militanteen zirkuluetatik kanpo eta gainditu da esperientzia eraldatzailearen izaera puntuala?

3. Non gaude: hezkuntza kritikoa, txikizkako esperientzia

Lehenengo ikusten denez, denbora askoan, aktibista sozial legez, gutxiengoa izan gara. Seguru asko, nekez ekidin zitekeen: garaipen neoliberalaren garaian, ez zen erraza albiste txarrak izatea edo taldeko arazoak apelatzea. Azken urteetan, krisi ekonomikoak eta herriaren erantzun desberdinek ekintza soziopolitikoaren ikuspegia aldatu dute, aukera berriak ireki dituzte eta sektore berriak sartu dituzte alde kritikoa, nahiz eta ez diren zegoenera besterik gabe gerturatu, baizik eta freskotasuna eta ekintzarako forma berriak eskaini dituzte, zeuden batzuk zalantzan jarri. 2011 hasieran Espainian desesperatu egiten ginen larrialdi sozial eta iruzur ideologiko-politiko nabarmen baten aurrean erantzun orokorrik ez zegoelako; aldiz, handik gutxira, urte bereko maiatzean, M-15ak gainez egin zuen:

Goazen plazara. Aurrez protesta eta mugimendu askotan parte hartua zen arren hau idazten ari dena, inoiz ez zuen antzeko zer ikusi: batzarrean hitz egiten eta eztabaidatzen ari zen erabateko errespetuz oso jende desberdinarekin eta bere burua nola antolatu duen oso ondo ez zekien zerbait eraikitzen ari zen sententzia zuen, nola eraiki zen oso ondo ez jakin arren funtzionatzeko moduagatik berez herritar izateko aukera adierazten duen zerbait zen. Aniztasun handia, ikuspegi erreformista eta erradikalen arteko kontraesanak, xalotasunaren eta oso landutako azterketen artekoa... berez baliozkoa eta ezustekoa izan da, ohiko baldintzetan ezagutu ere egingo ez ziren talde eta pertsonak harremanetan jarri ditu. Indarkeria ezaren uste osoa, hainbat gaitan adierazitako taldeko inteligentzia, errespetua, zeinuen hizkuntzaren erabilera berritzailea... harrigarriak izan dira hau guztia gertutik bizi izan dutenentzat, mobilizazioen masa izaera bezain harrigarriak. (Ibáñez, 2001).

Espainiar estatuan norabide xenofoboa edo faxista ekiditeko gai izan gara (oro har) eta ez da gutxi (arriskua zegoen... eta badago, epe ertainean). Aldaketarako aukera berriak daude, duela gutxi pentsatu ere ezin zirenak. Dena dela, eztabaida politikotik edo giro gutxi gorabehera antolatuetatik irteten garenean, oraindik ere "arraroak" izaten jarraitzen dugula ikusten dugu; gure zirkuluetatik kanpo gaudenean, harrigarria da ikustea zenbat jende ez den inoiz manifestazio batean izan edo antolatutako ekintza batean parte hartu, eta egiteko asmorik ere ez du. Eta parte hartzen dutenen artean, salbuespen nabarmen batzuetan izan ezik (Stop Deshaucios, PAH) ez dira sektorerik baztertuena egoten, hau da, ez dira sektorerik zigortuena egoten (krisiaren aurretik ere bai, orain are gehiago). Bestalde, gizarte-erakundeetako batzuk oso profesionalizatuta daude,

batzuk sistemak kooptatu ditu gutxi gorabehera; beste batzuk, prekarioak dira, burokrazia dute edo aktibistak dira... edo erakundeen mende daude.

Zorionez, gizarte-mugimendu kritikoa hazi egin da; batzuetan sektore antolatua goei esker; beste batzuetan beste modu batera eta egile berriekin. Krisi kapitalista luze eta sakonaren ondoren (eta erantzun sozialak) 2014 amaieran hobeto kokatuta gaude onartutzat ematen zena birplanteatzeko, mendekotasuna zalantzan jartzeko. Baina ez gara oraindik ere ordezeko diskurtso bat eskaintzeko gai izan, gehienek onartuko dutena eta jendarteko (eta hezkuntzako) eredu sakon zalantzan jarriko duena. Ona da amorrua "goikoen" kontra zuzentzea behekoen arteko gerrak hasi ordez (xenofobia barne), baina ez gaitzen engaina: jenderik gehien elkartzen duten mezuak ustelkeriaren aurkako arbuioa (eta "politikoen", pertsona zehatzen, ustelkeria bezala hartzen da), genero desberdintasuna, planetaren suntsiketa, prekarizazioa, pobrezia... badira eta are gehiago ikuspegi mundialetik begiratzen badiogu, bada, orduan luzaro egon beharko da zain kritikoki eta eraldatzeko moduan heltzeko hemen eta oraingo berehalako hobekuntzaz harantzago ekoizpeneko eta kontsumoko sistema global, desberdin eta jasangaitz horren barruan.

Hezkuntzari dagokionez, espainiar estatuan "marea berde" zenbaitek bulkada pribatizatzailea (eta apur bat segregatzailea) mantsotzea lortu dute. Sare hirukoitzarekin jarraitzen dugu, publikoa/pribatu hitzartua/pribatu ez hitzartua, eta ikasleak beraien jatorri sozialaren eta euren familien lehentasun erlijioso/ideologikoaren arabera banatzen ditu. Zentro publikoen artean ere bereizketarantz goaz eta hauetan ikasleen arteko bereizketarantz ere bai, gero eta arinago bidaltzen baitira ohiko bideetatik edo balio hezitzaile desberdineko bideetan sartzen dira.

Eskola edo talde jakin batzuek baino ez dute ongi koordinatutako ekintza, parte hartzailea eta nolabaiteko iraupenekoa: horrelakoak badira, eta oso garrantzitsuak izan ere, baina ezin dugu ahaztu ez dugula lortu eraldaketa orokorra, ezta planteatzen duguna agenda politiko-sozialean agertzea ere, publikoaren defentsa izan ezik (osasungintza-hezkuntza zorioneko paralelismoan). Zoritxarrez "hezkuntza publikoa, denona eta denontzat" lelo zoragarria ez da barneratu eta ezarri erabat: publikoa, pribatuaren aurkakotzat ulertuta ere, beti ez da ulertzen "herriari dagokiona" bezala, ezta biztanleria osoaren (egiazko) berdintasun bezala ere.

Curriculumeko jardueri dagokienez, esperientzia kritikoak oso gutxi dira, nahiz eta toki desberdinetan oso gauza interesgarriak egin. Baina eskasia dago, lurraldean gutxi sartuta dago, denboran etena dago. Eta gizarte-mugimenduak

eskolarekin lankidetza txikia eta puntuala du; elkarte kritikoak euren sare sozialekoak ez diren zerbait bezala ikusten dituzte ia ikasle guztiek.

Ikaskuntza eraldatzailearen bilaketan aurkitutako muga batzuk proposamena garatzen den ikuspegitik bertatik datoz⁹:

- Ikasteko proposamenaren eta ikasleen ikaskuntzaren artean nahasteko joera: irrealia izateaz gain, hezkuntza emantzipatzailearen elkarrizketa izaera ukatzen du. Ikasleentzako material batzuetan zehazten da proposamena, eta horrek egin behar ditu aurrez diseinatutako proposamenak.
- Ikaslea eduki gatazkatsua izan dezaketen bizipenetan sartuta ez dagoela uste izatea, hau da, eduki soziala beti kanpoko "arazo sozial" bezala aurkezten da, eta horrek "besteekiko -kanpokoekiko- elkartasuna" errazten du, eta ez horrenbeste "ohiko arazoekiko elkartasuna".
- Gizarte-mugimenduak askotan ahaztu egiten zaizkigu erreferente kritiko legez eta ekintza sozializazio kritiko legez, non ezagutza eraldatzaileak zentzua hartzen duen.
- "Esperientzia" eta ekintza ez da behar adina aintzat hartzen "testuinguru aberasgarri eta kritikoetan", ikaskuntza errebelatzaile eta eraldatzailea ikasteko giltzarri gisa. Eskola praktika ez da ulertzen "jardueraren" ikuspegi soziokultural legez.
- Pentsamendu hegemonikoa eta "naturalizat" hartzen den errealitatea zalantzan jartzen duen ukitu kritikoa beharrezkoa den arren, batzuetan uste izaten da hau ikasleak kontzientzia faltsutik ateratzen dituen profesional kritikoak baino ezin duela egin: badira beste erreferente kritiko batzuk, ikasleen testuinguruan bertan ere bai (nahiz eta gure formatuetan ez adierazi), testuinguru sozialean eta gizarte-mugimenduen arloan.

Dena dela, eduki kritikoak sartzten ditugunean hauek eskolatu egiten dira eta ez dira beste eduki bat baino gehiago izaten. Nekez izan daiteke beste

9 Lehen hezkuntza bezalako etapa batean zentratuz gero, "ongikeria" edo "azaleko aktibismoa" ere aipatu beharko genituzke, proposamen batzuen azpian horiek egoten baitira. Bestalde, bigarren hezkuntzan mutilazio diziplinarrerako (arloan zentratua) joera kritikatu dugu beste batzuetan, intelektualismorako joera (hainbeste gauza konplexu ulertu beharra dago, azkenean ikasle asko bidean galtzen dela) edo gelako aniztasun pertsonala, soziala, kulturala, ideologikoa... ez dira artatu.

modu batera, ekintza hezitzaile kritikoa ez bada dinamika sozial eraldatzailean sartzen.

Elkarteek eta talde aktibistek geletan zuzeneko esku hartzea izatea oso positiboa izan daiteke, baina nekez orokortu daiteke instituzionalizatu gabe, eta egiten bada, zalantzakorragoa da bere izaera eraldatzailea mantentzea (jarduera sozialen orde, ikasleek lan bat gehiago egiten ari diren begiraleekin -aktibista boluntarioak izan arren, hau ez dute hautematen ikasleek- harremanak izaten dituzte). Bestalde, materialak gizarte-mugimenduek egindakoak izan arren, hezkuntza-praktikan ez dira haragiztatzen edo, eskolatzen direnean gizarte-mugimendu batek eskain dezakeena galtzen dute: esku-hartze sozialeko zuzeneko eredia izan, herritarrak ahalduzkoa. Egia da, ordea, jarduera eta material hauek direla askotan eskolako bizitzan eduki kritikoa, sozialki gatazkatsua, biziagoa sartzeko bide apurretakoak.

Dena dela, hezkuntzako eragina konplexua eta nahasia izaten da oro har: askotan, irakasleen eragin kritikoa bizitzako adibide bat eskaintzeagatik gertatu daiteke, erlazionatzeko moduagatik, ikusteko, pentsatzeko, lankidetzarako modu jakin batzuk sustatzeagatik... Dena dela, ezin gara konformatu gutxiengoa izatearekin, bazterrean egotearekin edo aurkako indarrek definitutako testuinguruan kontrapisu legez jardutearekin: harantzago joateko modua egin behar dugu, pentsatzen jarraitu behar dugu itotzen gaituen marko hau nola gainditu.

Markoa gainditzeko pentsatu eta aritu

Gizarte-mugimenduak eta hezkuntza: potentzialtasunak (areago) aprobeztatu

Zergatik ez aprobeztatu gizarte-mugimenduen eta eskola instituzionalaren puntu indartsuak eta berezkoak? Gizarte-mugimenduek ekiteko eta adierazteko askatasuna dute, eskola bezalako erakunde formal batek ez bezala (eta gogoan izan eskolaren esku uzten dugula haurren eta gazteen trebakuntza, batez ere adingabeak direnean, eta, ondorioz, bereziki kontuz ibili behar du propagandarekin edo adoktrinamenduarekin). Eskola biztanleria osoari iristen zaio eta aldarrikatzen dituen xedeen artean biztanleria trebatzea dago; egia da curriculum zehatzak, forma diziplinarrak... legean ageri diren helburu orokor hauekiko kontraesanetan daudela, baina han daudenez legezko justifikazioa dugu trebakuntza gizakoiago eta orokorragoko alderdi horiek azpimarratzeko.

Eskola publikoaren aldeko borroka, eta aldi berean, beste eskola publiko baten aldeko borroka (egiaz parte hartzailea eta berdintasunerakoa) da jarduteko

ardatza zalantzarik gabe; ekimen partikularrei balio esperientziala kendu gabe eta gaur egun sistema publikoak duen zurruntasuna ukatu gabe, hortik abiatuta baino (eta erabat eraldatuta) ezin dugu ekidin segregazio soziala eta hezkuntza alternatiboaren salbuespentasuna (nola izango da alternatiboa ideologia edo erlijio bateko familiek euren seme-alabak aniztasun sozialarekin harremanak izatea galaraziko dien eskola batera eramatea, ideologia hori kritikoagoa izan arren? Nola iritsiko da hezkuntza alternatiboa baztertuen dauden sektoreetara, jasotzeko ordaindu beharra badago?).

Zehaztuaz:

- Eskolan aprobetxatu egin behar dugu bertan biztanleria osoa dagoela, ez soilik jendarteko sektore jakin bat edo norabide etiko-ideologiko jakin bat: eskola elkarriketarako espazio berdina goa bihurtu behar da, mundu guztia eroso sentituko dena eta bere ikuspegia adierazteko gai izango dena eta aitortua izango dena, eta hau gozamen eta duintasun pertsonal bezala bizi behar da, berdin pentsatzea beharrezkoa izan gabe; ez da soilik adierazpen askatasuna, isildutako ahotsak ahaldu beharra dago.
- Eskola ireki: ikastetxeak inguruarekin elkarrekintzan dauden kultur-gunetzat hartu, biztanleriari eta hauen jardueri oro har lotuak eta, jakina, lurraldeko gizarte-taldeekin, esku hartze puntuala gaituta, modu presentzian eta telematikoa.
- Curriculumeko esperientzia desberdina eraikitzen laguntzen dute: legedi orokorrean eragiteko borroka ez utzi, baina "askatutako eremuak" garatu, esperimendu ahal izateko eta eredu alternatiboak eskaintzen joan. Gizarte-mugimenduetatik egiazko elkarrekintza espazioak sortu behar ditugu ikasleen eta jarduera sozialen artean (Interneten bertsatilitatea eta elkarrekintza aprobetxatuaz, adibidez, materialak eta jarduerak eskura jartzeaz harantzago). Curriculum alternatiboa ere eraiki beharra daukagu jendarte eta hezkuntzako mugimenduen artean: ohiko edukiak zalantzan jar ditzala, baina baita ikasteko modu transmititzailea ere¹⁰.

10 Adibidez, "Mundu iraunkor eta bidezkorako curriculum alternatiboa" daukagu, eragin behar diren *esperientziak*. Curriculum hori egiten ari dira Ecologistan en Acción eta Berrikuntza Pedagogikoko Mugimenduak (Madrilen printzipioz, une hauetan zabalitzen ari den arren): <<http://experienciasdetransformacion.entrepueblos.org/es/curriculum-alternativo-para-un-mundo-sostenible-y-justo>>.

Eragina zabaldu: jendarteko gehiengoa izan, erreferentzia kritikoa izan

"Esperientzia", "alternatiboa", "kontzientzia kritikoa"... izateari utz diezaiokegu eta "orokorraren" zati legez eragin? Zergatik ez dugu ohikoarekin gehiago konektatzen, ohiko hori "aldezen" badugu, proposatzen duguna "gehiengoarentzat" pentsatzen badugu? Egia da gai batzuetan, hala nola garapenerako hezkuntzan, gure bizimodua birpentsatzeko beharra dugula eta hori beharbada ez duela hain erraz onartzen gehiengoak, nagusi den pentsamendutik gerturatzen baita gehiengo hori. Baina, adibidez, tutore legez familiekin elkarrizketak izaten ditudanean, zergatik elkar ulertzen gara ni eta familiarik gehienak eta jendarte edo hezkuntzako aktibista bezala ari naizenean antolatutako gurasoekin baino ez dut topo egiten eta gainerakoak ez datoz nirekin bat? Egia da hor mundu osoak ados egon beharrik ez duen gauza batzuk planteatzen ditudala, baina horrenbesteko distantzia ezin da azaldu objektiboki: hor zerbait aldezen dugun aktibista bezala ikusten gaituzte, nahiz eta aldezen dugun hori bere semea/alaba dagoen hezkuntza publikoa hobetzea izan eta horrekin denok ados egon.

Hezkuntzan, ikasleak gure kargu ditugula, bereziki eskagarria da modu manikeoan ez sinplifikatzea; beraz, ezin gara hezkuntza kritikorantz joan errealitatea ikuspegi batetik bakarrak aurkeztuaz edo mozorrotuaz, edo errealitateko gatazkatasuna ezkutatuaz. Ez dago bidezidorrik. Gure jarduteko era birplanteatu dezakegu, ordea, itxialdi militantea gainditzeko. Zenbait gai bururatu zaizkit:

- Proposamen batzuk zeharkako lerro bezala ikusiko lirateke, sen oneko bezala, zientifikoagoak balira bezala... justifikazio ideologikotik aurkeztu ordez, oinarritapen orokorragotik aurkeztuko bagenitu. Egia da aukera ideologikoa lankidetzaren edo lehiaren aldekoago bihurtzen dela, baina Kropotkinnek dokumentatu legez, zientifikoki adierazi daiteke elkar babestea gizakiaren eboluzioaren faktoreetako bat dela. Ez dugu antropologia positiboa aurkitu beharrik giza bizitzan zaintzak beharrezkoak direla baieztatzeko, baizik eta egiaztapen enpirikoa da, eta aurkako ideologizazioak (liberal-lehiakor-kapitalista) baino ezin du ukatu hori. Ongi dago elkartasuna defendatzea, baina giza lankidetzaren beharra ere erakutsi dezakegu teknikoki. Zentzu berean, planetaren muga ekologikoak mugimendu ekologistak ez dituela asmatu ere erakusten saiatu gaituzke, ekologismoa arbuatzen dutenei ere erasaten baitiete muga horiek (hori bai, zati baten iritziz nolabaiteko interesa dago gizakiak epe luzean biziraun dezan).

- Burutsuak izan gai gatazkatsuetan, gaiak nola kokatu erabakitzean, "gu" eta "haiek"-en manipulazioa ekiditean¹¹, nola zabaldu begirada, nola ulertu eta sentitu ohikoak ez diren ikuspegiak: unibertsalagora eta sektorerik pobretuenetara begirada eta sentimenduak hedatzen dituen "gu" eraiki.

Gai batez aritzean, tranpak ekidin ditzakegu: adibidez, espazioa txirindularientzat edo oinezkoentzat izan behar den planteatu eta lehia sortzen badugu, interes bera dutenak gatazkan jarriko ditugu: autoentzako tokia murriztea nahi dutenak alegia, hiria bizitzeko toki errazagoa izatea nahi dutenak.

Beste batzuetan *gu zabalagoa sortzen duen aurretiazko markoa sortu* behar izaten da, gero elkartzunezko deiak egin ordez. Hemen adibide bat: eskolan banako materialak badaude eta ikasle batzuei materialak ematen bazaizkie (oro har, baztertuen bezala ikusten denari), hori zalantzan jarri dezaketen familia batzuei azaltzeko, justifikatzeko, azalpenera eta sentimendu moralera jo behar da (batzuetan familia horiek ere behar dezakete material hori, beharbada ez da erreakzio xenofobo edo insolidario hutsa); aldiz, erakundea denontzako baterako materialak egoteaz kezkatzen bada, komunitatearentzako onura bezala ikusiko da hau eta elkarren laguntza nagusitzen den gu bat bezala ikusiko da.

- *Oraina muturrekotu tokian* edo utopia ere bada epe luzera? Utopien historiaren azterketan hau esaten zuen Lewis Mumfordek: "Hemen eta edonon bere aukera idealen mugara eramandako bizitza erreala da nire utopia"¹². Egia da epe luzerako ikuspegia behar dugula, eta Mumford berak esaten duen legez, balizkotasunen erreserba bat ere bai, baina jada ahal daitekeena zabaltzea da kontua, gogoan izanda biztanleriaren zati handi bat jada "ezin dela zain egon", ezin dela gurekin batera bidaia luzea egiten hasi epe luzerako hobekuntzarantz.
- Subjektu politiko "baten" bila gabiltza? Zalantzarik gabeko subjektu politiko, plural kontraesankor asko dago zenbaitetan. Eta egiteko zereginetako bat da *jada badauden subjektuek (pertsonek guztiek), baina subjektu politiko oso bezala aritzen ez direnek, euren arazo pertsonalak, familiakoak edo tokikoak politizatu ditzatela*, horrela subjektu politiko(ago) bihurtuaz. Baina geure egin beharko dugu protagonismo politiko horrek ez duela

11 Ikertu beharra dago dakigunaz harantzago, xenofobiak, identifikazio nazionalista baztertzailak, zergatik duen hain arrakasta erraza, zergatik erabiltzen dugun gure amorrua albokoen edo beherago daudenen aurka, "goikoen" aurka erabili ordez...

12 Hitz hauek Lewis Mumfordek berak idatzi zituen 1962an bere 1922ko lana berrargitaratu zenean. Mumford, L. (2013). *Historia de las Utopías*. Pepitas de calabaza, 2013, 15. or.

zertan igaro inplementatzeko aurrez zehaztutako modu batetik. Hori bai, giza eskubide unibertsalak eta munduko biztanleria osoa eta datozen belaunaldiak kontuan izatea izango dira gutxieneko erreferente etikoak eta horiek ekidingo dute taldean sortutako proposamen oro besterik gabe baliozkotzat jotzea. Eta taldeko eraikuntza horretan hezitzaileek eta gizarte-mugimenduek eztabaida publikoan minimizatutakoen edo ezereztutakoen ahalduntzea sustatu beharra daukagu (horiek baitira baztertuenak eta aldaketa behar handiena dutenak), geure munduko lurralde pobretuetako pertsonak barne.

Etorkizuna ez dago idatzita... eta irabazi beharra dago

Gure inguruan azalean geratu daitezkeen edo zimenduak mugitu ditzakeen aldaketa garaian gaude (denbora gutxian lehengora itzuli gara gutxi gorabehera). Gure ("gu" askoren) jarduteko moduan ere eragina izan dezake, aukera bata edo bestea izatearen arabera. Dena dela, irekiera handiagoa dago, aukera berriak daude. Ez dugu pentsatu behar garapen pilatzaileetan, baizik eta dinamismo ez kontrolagarrietan, "desegonkortasun" unek daude edo balizko aldaketa azkarrak¹³:

Hipotesien eta ez tesien arabera aritu lanean. Laneko ebazpenak eta lineamenduak ekintzarako lerro ahalegin legez hartu eta horien ardatzak, kontsignak eta edukiak edozein unetan aldatu daitezke. Are gehiago, beharrezkoa da alerta egotea, sortu eta definitu ziren egoera aldatutakoan aldatzeko. Izateko beharraren inguruan aurrez bururatutako ideiak oinarri hartuta errealitate aldatu nahi izaten denean, errealitate hori "arazo" bihurtzen da askotan, gehienetan ez baitator bat aurrez ezarritako ideiekin. (Rauber, 2014).

Ezin dugu ibilbide orria egin planifikatuta aritzeko, baina prestatuta egon behar dugu une giltzarrietan eraginkorrak izateko: zentzua eman diezaiokegu gertatzen denari, sortu behar den *sen on berrian* eragina behar dugu, gehiengoaren alde berean egon gaitezke gizateriak behar duen errotikako eraldaketari uko egin gabe? Krisi eta amorrualdiak balizko aldaketaaldiak dira, baina aldaketari gehiengo zentzua ematen diotenek edo hori agintzeko boterearen kontrola bereganatzen dutenek bideratu ditzakete eraldaketak zentzu batean edo bestean. Krisi ekonomikoak eta sozialak bere gordintasun

13 Metafora legez "aldizkako oreka" ekar dezakegu gogora, Niles Eldredge eta Stephen Jay Gould paleontologoek aipatutako hura. Gizarte Zientzien bidez dakigu aldaketetan azelerazio unek daudela, batzuetan ezustean etorri ere.

osoa erakutsi du gure lurraldean. Munduko lurralde batzuetan muturreko pobrezia enkistatuta dago. Etorkizuneko giroko krisiaren aurrean (gaur oraindik hain hautemangarria ez da, ikusi nahi ez bada), lortuko al dugu jendarteko gehiengoak gu norabide zuzenean ari garen legez ikustea ala soilik albiste txarren eramaile legez ikusiko gaituzte?

5. Bibliografía

Concejo Educativo de Castilla y León (2002). "Para una ciudadanía crítica: Educación, movimientos sociales y cultura transformadora". Hemen: <www.concejoeducativo.org/alternat/edu_mmss.htm>.

Ibáñez Herrán, José Emiliano (2003). "Movimientos y redes para una cultura transformadora". Hemen: *Tabanque*, 17. zk. (2003), monografía honetan sartuta: "Los movimientos de renovación pedagógica y la transformación socioeducativa". Hemen: <<http://jei.pangea.org/edu/c/e-movim-redes.htm>>.

----- (2011). "Participación social: Entre la virtud y la realidad. Reflexiones antes y Después del 15M". Hemen: *Concejo Educativo de Castilla y León*, 2011ko irailaren 5a. Hemen:<http://concejoeducativo.org/article.php?id_article=391>.

Munford, Lewis (2013). *Historia de las Utopías*. Pepitas de calabaza, Logroño.

Muñoz, Carlos (2012). "El desarrollo de habilidades ciudadanas en la escuela. ¿Una educación para participar como gobernado o gobernante?". Hemen: de Alba, Nicolás; García Pérez, Francisco F. eta Santisteban, A. (arg.) *Educación para la participación ciudadana en la enseñanza de las Ciencias Sociales*. 1. lib., Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales/ Díada, Sevilla.

Rauber, Isabel (2014). "Gobernar las coyunturas. Elementos teórico-metodológicos para el análisis de las coyunturas políticas". Hemen: <<http://isabelrauber.blogspot.com.es/2014/03/gobernar-las-coyunturas.html>>.

Wells, Gordon (2001). *Indagación dialógica. Hacia una teoría y una práctica socioculturales de la educación*. Paidós, Bartzelona.

Laneko taldeen kontalaritzak



1. Gai ildo. Subjektu politikoaren eraikuntza

1. Taldea

Dinamizazioa: Itziar Gandarias¹

Kontalaritza: Amaia del Río² eta Sandra Dema³

Proposamena

1. Nor dira aldaketaren subjektu politikoak gaur egun?
2. Zelan eraikitzen da subjektu politikoa?
 - Zelan igarotzen da ezer ez egitetik egitera?
 - Zelan igarotzen da banakakotik kolektibora?
3. Emantzipaziorako proposamenak: Subjektu kolektiborantz, behetik abiatuta

1 Psikologia eta Hezkuntza Fakultatea. Deustuko Unibertsitatea.

2 Hegoa Institutuko talde teknikoa.

3 Oviedoko Unibertsitatea.

1. Nor dira aldaketaren subjektu politikoak gaur egun?

Ostiraleko saioa aurkezpen-dinamika batekin hasi da taldekoek elkar ezagutu dezaten: Nor gara? Zer espero dugu?

Dinamika horretatik abiatuta, eduki-proposamena aurkeztu da bi lan-saioetarako.

Dinamizatzaileak bere lehen hitzaldiari (ppt-a) ekin dio berriz ere, bere helburua da Subjektu politikoaren eraikuntzaren osagai batzuk planteatzea. Honako 6 gaiak iradoki ditu (batzuk Jaume Martínez Bonaféri hartu dizkio):

- Subjektu politikoaz hitz egitea botere-harremanez jardutea da. Kontua da subjektu eraldatzaileak bilakatu behar dugula bestelako botere-harremanak sor ditzagun.
- Subjektu politikoaren eraikuntza prozesu bat da. Subjektu politikoa eraikitzea ez da zerbait a priori, ezta bat-bateko zerbait. Paulo Freire: "ibiliaz gara". Egunerokoa berreskuratzea.
- Garrantzitsua da desberdintasunak ezagutzea. Pertsona guztiok ez gaituzte zeharkatzen zapalketa berberak. Zapalketa guztiek ez dituzte eragin berberak.
- Desira militantea/Jakin-mina. Errealitatea irakurri nahi izateko borondatea, ezarritako normaltasuna apurtzen duena edo harekiko harridura sortzen duena abiapuntutzat hartuta.
- Saldoa/taldea. Kontzientzia hartzea banakako eta barruko prozesua dela, baina taldean egiten dela. Taldean egiten da norbera lotzen duten zapalketez jabetzeko prozesua.
- Poza, afektua eta zaintza funtsezkoak dira eraldatzeko.

Dinamizatzaileak berreskuratu egin ditu Isabel Rauber-en ideiak subjektu politikoaren eraikuntzari buruz. Ideiak banan-banan azaldu ditu, 3 bideo erakutsiaz batera.

Subjektu politikoaren eraikitze-prozesuari buruzko 5 ideia (Isabel Rauber):

- Kontzientzia kritikoa, sistemak ezartzen duen funtzioarekiko.
- Aldatzeko borondatea, gure egoeraren, bizitzaren protagonista bihurtzeko gaitzean.

- Errealitate hori berrinterpretatzeko, berriz esanahia eman eta adierazteko gaitasuna.
- Proiektu bat formulatu.
- Errealitate hori eraldatzeko asmoa duen gizarte-ekintza.

Emandako bideoak:

- "Guanyamen" aurkezteko bideoa (Herritarren hautagai-zerrenda Bartzelonako Udaleko hurrengo hauteskundeetarako) <www.youtube.com/watch?v=BpolvIII-eU>.
- Ura izateko eskubidearen aldeko emakume-taldea aurkezteko bideoa (Cajamarca, Peru): <www.youtube.com/watch?v=WL930HxUTEQ>.
- "Pañuelos en rebeldía" taldearen bideoa (Argentina): <www.youtube.com/watch?v=vjIS40e-3bM> (6. minututik aurrera).

Bideoen ostean, ideia eta eztabaidarik nabarmenenak laburbildu ditu taldeak:

- "Emakumeak gara" lehenetsuna izateari buruzko polemika, "Guanyem Barcelam" hautagai-zerrendaren bideoan. Taldeko gizon batek planteatu du, nahiz eta emakumeak ikusaraztea beharrezkoa den, ez litzatekeela lehenetsi behar beste taldeen aurretik, eta argudiatu du beste askoren botoa geldiaraz dezakeela. Hala ere, beste batzuek uste dute jarrera politikoak argia izan behar duela, eta, hala, garrantzitsua dela "emakumeak gara" nabarmentzea. Bideoan argi heldu behar zaiola esan dute, ikuspuntu pedagogikotik, kontzientzia kritikoa sortzeko ikuspuntutik. Ez du balio borrokak urardotzea edo agenda nahastea. (Eztabaida hori hainbatetan errepikatu da ostiraleko goizaren barruan).
- Lehen bideoko gogoetatik beste eztabaida bat sortu da: zalantzan jarri da ea benetan "gu guztiok gara"-n; izan ere, badirudi banakotasunean kateatuta gaudela. Garrantzitsua da "Gu guztiok gara", kolektiboa aintzat hartzea.
- Gutxienezkoa adostu behar dugu subjektu politiko askotarikoaren erakuntzaren barruan.
- Subjektu politiko hori eraikitze beharrezkoa da esplotazioa, zapalketa aztertzea, eta, era berean, aztertzea jakiteko zerk lotzen gaituen aipatutako "nor"-ekin.
- "Zertarako" jakitea funtsezkoa da; garrantzizkoa da eraldatu nahi izateko premia (arlo politikoa).

2. Zelan eraikitzen da subjektu politikoa?

Hortik aurrera, 5 talde txikitan lan egin zen; helburua, 3 galdera hauei erantzutea:

- Zelan sortzen dira subjektu politikoak?
- Zer da beharrezkoa subjektu politikoaren eraikuntzan?
- Zer ezaugarri ditu?

Talde bakoitzean "kontalari" bat zegoen: taldeak sortutako ideiak, eztabaidak eta gogoetak berreskuratzen ahalegindu zen, gero talde handiari azaltzeko. Era berean, "zaintzaile" bat ere bazegoen talde bakoitzean: taldekideen harremanak zelakoak izan ziren eta kideek nola parte hartu zuen kontatu zuen, eta denbora, formak, sentimenduak eta abar aztertu zituen. Papelografoa eman zitzaien lana jaso eta batzarrean azaltzeko.

Taldeek ez diete erantzun zehatz-mehatz hiru galdereri, orokorragoan egin dute. Taldeek aipatu dituzten funtsezko ekarpenak dira hauek:

- "Subjektu" hitzak kirrinka egiten du, baina "eragilea" ere ez da gustukoa.
- Kontzientzia kritikoa hartzea, bakoitzaren bizipenetik abiatuta, bizi-prozesuetatik, norberaren biografiatik abiatuta: Feminismoaren "pertsonea politikoa da".
- Banaka kontzientzia hartzeak era kolektiboan kontzientzia hartzera eramaten du.
- Nor da subjektu politikoa? Benetan "geu gara"? Sistema honek benetan banakotasuna lehenesten badu, subjektu politikoa plurala da? Funtsezkoa da "neu naiz"-etik "geur gara"-ra igarotzea.
- Garrantzitsua da subjektua eraikitze elkarriketak izatea. Besteekin harremanetan jartzea erronka bat da.
- Alarma: adi eta kontuz ibili behar da subjektu politikoaren eraikitze-prozesuak ez daitezen instituzionaliza.
- Neure arazoa ere bada bestearen arazoa. Jatorriko herrietako "neu naiz zeu ere bazarelako"
- Edozein eraikitze-prozesutarako funtsezkoa da afektuaren, zaintzaren eta harremanen gaia bertan sartzea. Garrantzitsua da ez bakarrik formari begira, ezpada zer-nolako talde eraikitzen ari den ezagutza eta jakintza ere baldintzatzen duelako.

- Sistema beti ahaleginduko da subjektu politikoa eraikitze edozein prozesu indargabetzen. Hezkuntza-sistema hegemonikoa sistema horren instituzio nagusia da eta indargabetzen duen eragile nagusienetarikoa.
- Garrantzitsua da subjektu politikoaren eraikitze-prozesuko protagonista sentitzea.
- Botere-harremanek honelako prozesu guztiak (subjektu politikoaren eraikitze-prozesua) zeharkatzen dituzte.
- Beharrezkoa da lokalaren eta globalaren interdependentziaren begirada.
- Oso garrantzitsua da eragile politikoa eta subjektu politikoa desberdintzea. Subjektu politikoa plurala eta askotarikoa da; eragilea, berriz, banakakoa da. Krisi sistematikoaren une honetan, subjektu politikoaren eraikuntzaz pentsatu behar dugu.
- Eztabaida: Zelan kudeatzen dugu "denbora" subjektu politikoaren eraikuntzan? Kudeatzen dugun "denbora" (batez ere, iparrean) ez da batere atsegina honelako prozesuak gauzatzeko. Denboraren dinamikak, dinamika horiexek eraldatu behar ditugu: denbora eraldatzea iraultzailea da.
- Subjektu politikoa ere eraikitzen ari da; beste hezkuntza-orientazio bat behar dugu subjektu politikoa eratzeko. Subjektuak eraikitze ekintza da hezkuntza. Sortzen ari gara.

Zaintzaileek honako hauek nabarmendu zituzten talde txikietan lan egiteko moduei lotuta:

- Bizipen pertsonalek duten garrantzia, dena sortzen da bizipen pertsonaletatik abiatuta.
- Sentimenduaren eta ideologiaren arteko nahasketa perfektua sentitzen dute taldean.
- Errespetua. Iritzi desberdinak daude, baina desberdintasunarekiko errespetutik abiatuta kudeatzen dira.
- Hitz egiteko parte-hartze orekatuak
- Batzuk luzeago hitz egin dute, besteek baino.
- Taldekide guztiek egin dute berba.
- Taldean emozioez hitz egin da.
- Taldean amaiera-katarsia gertatu da, parte hartzeko gogoengatik, sumindura guztiak adierazi ahal izateko.
- Hitz egiteko, adierazteko-eta gogo handia.

- Ariketari, lanari heltzeko moduan autonomia egon da.
- Adierazkortasun ludiko handiko taldea izan da.

Dinamizatzaileak ostiraleko saioa amaitu eta taldeetan landutakoa laburbildu du.

3. Emantzipaziorako proposamenak: Subjektu politiko baterantz, behetik abiatuta

Larunbateko saioari ekin zaio, banakakoa/kolektiboa lantzeko dinamikarekin: taldekideek hainbat erritmotan ekin diote, bere zapata-zenbakia erabiltzen dutenak bilatzeko gelditu dira, solairu berdinean bizi direnak bilatzeko, izozki gogokoena berbera dutenak...

Horren ostean, taldearen bizipenak eta azalpenak jaso ditugu honi lotuta: Gehiengoarekin bat egiten al dut, taldean integratzeko? Zer sentitzen da amore ematean? Gustatzen zaizunari uko egiten al diozu besteekin batera "saldoan" egoteko?:

- Gehiengoaren gustua badaukat, antzeko norbait aurkituko dut.
- Hemen eta beste herrialde batzuetan izozki-zapore berberak dituzte?
- Bakarrik gelditzen zarenean, kanpoan gelditzen zarelako sentazioa duzu.
- Bi taldetan aldi berean egoterik badago?
- Erosoa da aukeratu behar ez duzunean.
- Errazagoa da bakarrik dagoenarengana hurbiltzea, taldera baino.
- Bakarrik egotea erabakitzen duzunean zeure jarrera arrazoitu behar duzu, taldean bazaude ez duzu horrenbeste arrazoitu behar.
- Dinamika egokia ote izan den eztabaidatu dute. Garrantzitsua da bai ezagutza deseraikitzen delako bai funtzionatzeko moduak agerian daudelako. Jolasa da, baina harago joateko bidea ematen du. Taldea eraikitzen du, baina adi egon behar dugu erresistentzia sor dezake-eta.

Bigarren saioan, emantzipaziorako proposamenak zehaztu dira. Subjektu politikorantz, behetik abiatuta, horretarako lan hau eta talde-lan hau egin da: "Hezkuntza-proiektuak garatzeko funtsezko gakoak, hezkuntza-proiektuek subjektu kolektiboak eraikitzen bultzatzen ditzaten". Talde txikietan osagai hauek zehaztea proposatu da; horretarako Davis, Rauber-en hainbat pasarte erabili

dira, eta Guatemalako emakumeen sektorearena, Hourtart, Zibechi, Lopez Gil eta Valdes Gutierrez-ena, eztabaidari bidea ematen diote-eta:

- Hezkuntza-proiektuetako funtsezko gakoak/alderdiak.
- Martxan jartzerakoan dauden zailtasunak/mugak.
- Erronkak, zailtasunetatik abiatuta.

Jarduera amaitzeko, iradoki da giza figura bat taldekide guztien artean eraikitzea, zehaztutako gakoak eta zailtasun nagusiak laburbiltzen dituen (figura-irudia).

Gogoetarako pasarteak

Agertu zirenean, emakume beltzei askotan eskatzen zitzaien aukera zitzaten ea zer zen garrantzitsuagoa mugimendu beltza eta emakumeena. Erantzuna izaten zen galdera okerra zela. Galderarik aproposena zera zen ea zelari ulertu mugimendu bien arteko elkarguneak eta interkonexioak. Oraindik aurre egiten ari gatzazkio arraza, klasea, generoa, sexualitatea, nazioa eta gaitasunak batzen dituzten bide konplexuak ulertzeko erronkari; baita beste erronka bati ere, zelari joan kategoria horietatik harago, euren artean bananduta eta loturarik gabe diruditen ideien eta prozesuen arteko interrelazioak ulertzeko. Alde horretatik prozesu feminista da AEBetako borroken eta arrazismoaren arteko loturak behin eta berriz gogoan izatea, israeldarren errepresioaren aurka palestinarren borroka gogoan izatea (Angela Davis, 2014, *Diagonal* aldizkariko elkarrizketa).

Eraldaketaren subjektua izatea ez da jendarte-klase edo talde baten dohain bat, subjektu politikoa jendarte-egiturari kokatzen delako eta aldaketa helburu duelako. Interes subjektiboa ere behar da, hau da, aktiboa eta kontzientea izatea, klase edo talde horiei dagokienez. Horrek esan nahi du balizko subjektu bakoitzak bere egoera subjektiboa ezagutu, barneratu behar duela eta bere mesederako aldatzea gura izan behar duela. Adibidez, zapalduta dagoenak ez du zertan interesa izan aldatzeko; lehengo eta behin, zapalduta dagoelako kontziente izan behar du, nork zapaltzen duten eta zergatik; eta hori dena ere ez da nahikoa. Beharrezkoa da egoera bere mesederako izatea gura izatea. Hortxe bertan hasten da eztabaida ea zer aldaketa nahi duen, aldaketa horiek posible diren edo ez, eta aldatzeko baliabideak bilatu behar ditu. Hau da, subjektuaz ari garenean ez gara ari ea nor diren, ezpada ze aldatzeko beharrez kontziente izateaz, aldatzeko borondateaz eta aldaketak eraikitzeko gaitasunez (nahi izatearen eta ahal izatearen dialektika). Horregatik daude hain lotuta "kontziente izateko" prozesua eta subjektuak eraikitzeko eta auto-eraikitzeko prozesuak, gizarte-eragileek berez duten zerbaite da subjektua eratzeke egiten duten prozesuan (Isabel Rauber, 2006).

Talde-identitatea sendotu behar da lehenago, gero emakumeak banakako subjektu gisa eratu daitezten. Banakakotasuna eraikitzeke beharrezkoa da "gu geu" eratzea. Beharrezkoa da emakume bakoitza eskubideak dituen subjektua dela sentitzea, eta, aldi berean, testuinguru kolektiboan bakarrik egin daiteke prozesu hori. Lehenago beharrezkoa da emantzipazioa: patriarkatuak emandako identitatetik askatu nahi duen identitate politiko bat, eta gero zapalketan oinarritutako identitate politiko horri uko egin behar zaio eraiki nahi den proiektu politikoan oinarritutako identitatea eraikitzeke (...). Feminismoaren emantzipazio-proiektuak esan nahi du emakumeak kokatu behar direla subjektua eraikitzeke egoera baten, bertan uko egin zaizkien ezaugarriak bildu eta, aldi berean, bere burua ber-egin (Escuela política Feminista, Asociación Feminista La Cuerda, la Asociación de Mujeres de Petén - Ixqik, eta la Alianza Política Sector de Mujeres, 2010).

Kontzientzia kolektibo bat landu eta gero, beharrezko bigarren urratsa da eragile plural, herrikoi, demokratiko eta polo askotarikoak mugitzea. Hori da ekintzaren alderdi subjektiboa. Giza eragileak eragile osoak dira eta ez dute soilik jendarte-logikaren arrazoitasunaren arabera jokutzen. Konpromisoa ekintza soziala da, afektuzko osagai sendoa eta zentrala duena. Horregatik da kultura garrantzizkoa da, errealitatearen irudikapen-multzoa den neurrian, eta, era berean, garrantzizko da zabaltzeko dituen bide ugariak: artea, musika, antzerkia, poesia, literatura, dantza. Kultura helburu bat da, baina, era berean, giza emantzipaziorako bide bat ere bada (François Houtart, 2006).

Nire ustez hezkuntza eta gizarte-mugimendua ulertzeko orduan, aldaketa iraultzailea da gizarte-mugimendua hezkuntza-subjektua bihurtzea, eta, beraz, guneek, ekintzek eta gogoetek *nahitasun pedagogikoa* izatea. "Gizarte-mugimendua hezkuntza-printzipio"-tzat hartzen bada (Salette Caldart, 2000: 204), eskolaren eta irakaslearen zeregin tradizionala gaingitu egiten da: hezkuntzan espezializatutako gune *bat* izateari uzten zaio eta horren arduraduna izateari uzten zaio; gune, ekintza eta pertsona guztiak gune-denbora eta subjektu pedagogiko dira. Horren ondorioz, besteak beste, egoera horretan hezkuntzak ez du helbururik, ez bada lurraren aldeko borrokaren mugimendua ber-sortzea, mundu berri baten alde egitea, hau da, "gizakiak produzitzea". Azken finean, "eraldatuz nor bere burua eraldatu" da mugimendua gidatzen duen pedagogia-printzipioa (Raúl Zibechi, 2006).

Bizitza ez da posible besteekin lotura izan barik. Hala ere, lotura hori apurtzea da, hain zuzen, bortizkeria kapitalistaren oinarria. Horretarako, independentzia-ideal bat ezartzen du, hiru gauza adierazten dituena. Bata, kontzientzia berez nahikoa da kontzientzia izateko eta bere burua ezagutzeko (ni-aren autonomia). Bigarrena, bizitza banakako proiektua da, ez du loturarik bizipen kolektiboarekin (existentziaren pribatizazioa). Azkenik, ez dugu behar inor gu zaintzea (zaintzan inor behar ez izatea). Alderdi horretatik, aldaketarako baliabidea izan daiteke ahultasuna, ideal horren oinarri sakonak zalantzan jartzen dituen neurrian (Silvia López Gil, 2014).

Dibertsitateak sistemari funtzio-atomizazioa ez ekartzeko, ezta elkarren artean loturarik ez duten kontaketen irrika postmodernorik, beharrezkoa da pentsatu eta artikulazioa egitea, hau da: prozesu soziokulturalak sortzea desberdintasunetatik abiatuta. Pentsamendu alternatiboa alternatiboa da, baldin eta dibertsitatea artikulazioarekin lotzen badu, horrek esan nahi du artikulazioa eratzeko baldintzak sortu behar direla, harremani lotutakoa bultzatzea dimentsio guztietan, delegatzeko ideologiaren antidoto gisa, eta, era berean, balio sendoetan (ezagutza, justizia soziala, zuzentasuna, etab.,) oinarrituta elkarteen ehundura indartzea. Artikulazioaren etika eraiki behar dugu, ez zerbait adierazteko, ezpada ze elkarriketarako gaitasuna ikasteko eta garatzeko, besteekiko errespetu sakonetik, metatu eta alderatu diren jakintza eta bizipenetatik abiatuta elkarrekin eraikitzeko gogoia izateko, nortasunak eta subjektibotasunak indartzeko (Gilberto Valdés Gutiérrez, 2001).

Lan egin da 5-6 pertsonako 5 taldetan. Talde guztiek dituzte ideia nagusiak, zailtasunak/mugak eta erronkak. Papelografoan taldeen koloretako paperak itsatsi dira. Gainera, talde bakoitzak eraiki duen figura-irudia jarri da.

Talde bakoitzak besteen aurrean azaldutakoa eta bateratze-lana

1. Taldea

Idea nagusiak: kontzientzia hartu, borondatea, gaitasuna, elkarriketak ea zer nahi dugun (interes subjektiboa), irakasleak prestatu, gizarte-metodologiak eta lankidetzakoak erabili, komunitateari zabalik dagoen hezkuntza-ingurunea, norik bere burua eraldatuz eraldatu, bai enpatiarri/ez lehiari, errudun ez setiarzaztetik ardura izatera.

Zailtasunak: irakasleei komunikabideetan prestigioa kendu, geldituta eta zurrun sailkatuta dago (hezkuntzaren eta komunitatearen artean), hezkuntzaren zeregina ondo zehaztu, instituzio-legeak eta curriculum ilunak dira eta sailkapena zurruna da, beldurraren politika (desiraren kontraesana), inkoherentzia pertsonalak, hegemonikoaren iruzurrean ez erori, identitatearekiko errespetua.

Erronkak: instituzioez eta zer eskatzen diegunaz berriz pentsatu, zerbait egin (alternatiboa), koherentziarantz abiatu, irakasleak duten botereaz kontziente egin, lankidetzak, familia eta hezkuntzaren arteko ituna.

2. Taldea

Idea nagusiak: kontzientzia hartu, eragile nagusiak (hezitzaileak: hezkuntza-prozesuaren protagonistak eta ikasleak), errespetua esparru guztietan, hizkuntza eta kode partekatua, pentsamendu dibergentea, sortzailea, globala, holistikoa, kritikoa, dinamikoa.

Zailtasunak: konpromiso-falta, beldurra, segurtasun-eza, koordinazio falta, zatiketa, botere-harremanak, informazio-iturriak aukeratzeko hezkuntza falta, erabakiak hartu; informaziora heltzeko, lantzeko eta jakintza bihurtzeko denbora falta.

Erronkak: subjektu politikoa aktibatu (gutxieneko etikoak ezarri), elkarrizketarako eta adostasunerako baldintzak sortu, zabaldu, komunikatu, praktikan jarri.

3. Taldea

Idea nagusiak: taldean dibertsitatea identifikatu, geure burua prozesuan ikusi pazientziarekin eta pazientziarik gabe, denona identifikatu, itunak eta artikulazioak sortzeko beharra, ekintzarako kontzientzia hartu.

Zailtasunak: erakundeen despolitizazioa, batzen gaituena ikusgai jarri eta identifikatu, eredu indibidualistaren kontra borrokatu, ez dago dinamikarik bat-batekoari aurre egiteko, eraldatu nahi dugun horretako aurreiritziak errepikatzen ditugu, zelan konektatu jendearekin.

Erronkak: artea baliabidetzat erabiltzen bada, jendea mugitzea susta dezake; haziak erein (ekintza txikietatik gauza handiak sor daitezke), erakundeen konpromiso politikoa, eraldatuz ikastea ("ibiliaz gara"), ahultasuna aldarrikatu, afektua, zaintza, aldatzeko bide eta gune berriak azaldu, egiteko modu berriak, egiteko modu hori hezkuntza-sistema arautuan sartu, sareak.

4. Taldea

Idea nagusiak: sekzio-artekotasuna (dibertsitate guztiak identifikatzen laguntzen duten super-betaurreko multifokalak sortu), guneak artikulatu (formaletik atera), dibertsitatea artikulatu: banakotasunetik kolektibora zabaldu, koherentzia metodologikoa (baliabideak eraiki koherenteagoak izan gaitezten), sormena, ahalduzetik abiatuta erantzukidetasuna lantzerik dago eta landu behar da, desiraren lana (afektiboa den horren bidez), kanpotik eta barrutik (batzarrean ez dago dibertsitate handirik, gazte gehiago falta dira, ijitoak... homogeneoegiak gara).

Zailtasunak: erresistentziak klaustroan, zuzendaritzan, denbora (zerk du garrantzia), arrazionalaren eta emozionalaren hierarkizazioa.

Erronkak: banakotasunak kolektiboarekin batzea lortu, desira landu, nork bere burua eraldatu bestea/kanpokoa eraldatuz, konpromisoa gauzatzea lortu.

5. Taldea

Idea nagusiak: feminismoak (prozesuan ikasitakoaren lubakia), sekzio-artekotasuna (begirada zabaldu: klasea, etnia, lekua), era erradikalean kontzientzia hartu (arrazoiaren sustraietara joan), aktiboa, kontzientea eta interes subjektibotik abiatzen dena (barrutik kanpora), identitate politiko kolektiboa (denon arteko proiektua), nahitasun pedagogikoa (egon dagoena, aldaketaren muinean, eraldatuz subjektu politikoak bere burua eraldatu).

Zailtasunak: indibidualismoaren bortizkeria kapitalista, besteekiko lotura urratu, besteen esku uztearen ideologia.

Erronkak: ahultasuna landu aldaketarako baliabidea den neurrian, etika berreskuratu behar, banakotasuna besteen bidez, harremanak, hezkuntza-prozesua berriro politizatu, ideien eta prozesuen, teoriaren eta praktikaren arteko interrelazioa, eskolaren eta irakasleen zeregin tradizionala gainditu/urratu, desberdintasunetatik abiatuta kultura-arteko prozesuak sortu, kultura helburu gisa (arte), irakasleen zaintza Garapenerako Hezkuntzan.

Informazioaren laburpena taldeka

Taula hauetan informazioa taldeka laburbildu dugu, eta gehien aipatzen direnak begi kolpez ikus daitezke.

Ideia nagusia	1.T	2.T	3.T	4.T	5.T
Ekintzarako kontzientzia hartu, era erradikalean kontzientzia hartu (jatorriaren sustraietara joan), borondatea, gaitasuna, kontziente, interes subjektibotik abiatzen dena (barrutik kanpora)	x	x	x		x
Elkarrizketa, nahi dugunari buruz (interes subjektiboa)	x				x
Irakasleak prestatzea	x				
Gizarte-metodologiak eta lankidetzakoak erabili, Koherentzia metodologian (baliabideak eraiki koherenteagoak izateko)	x			x	
Hezkuntza-ingurunea komunitateari zabalik egotea	x				
Nahitasun pedagogikoa (egon badago, aldaketaren muinean, eraldatuz subjektu politikoak bere burua eraldatzen du)	x				x
Bai enpatiarri/ez lehiari, erruduna sentiaraztetik ardura hartzera	x				
Umeek parte-hartzea					
Eragile nagusiak: Hezitzaileak -euren hezkuntza-prozesuaren protagonistak- eta ikasleak)	x		x		
Errespetua esparru guztietan	x		x		
Hizkuntza eta kode partekatua			x		
Pentsamendu dibergentea, sormena, globala, holistikoa, kritikoa, dinamikoa			x	x	
Denona dena eta dibertsitatea identifikatu kolektibitatearen barruan, sekzio-artekotasuna (begirada zabaldu: klasea, etnia, lekua) (super-betaurreko multifokalak sortu dibertsitate guztiak ikusteko), dibertsitatearen artikulazioa: banakotasunetik kolektibora zabaldu		x		x	x
Geure burua ikusi prozesuetan pazientziarekin eta pazientziarik gabe		x			
Itunak eta artikulazioak sortu behar		x			
Guneak artikulatu (araututik atera)				x	
Ahalduntzetik abiatuta erantzukidetasuna lantzerik dago eta landu behar da, desira landu (afektibo den horren bidez)				x	
Barrukoa eta kanpokoa (batzarrean ez da egon dibertsitate askorik, gazteak falta dira, ijitoak... homogeneousgiak gara)				x	

Feminismoak (prozesuan ikasitakoaren lubakia)					x
Identitate kolektibo politikoa (denon proiektua)					x

Zailtasunak	1.T	2.T	3.T	4.T	5.T
Ondo zehaztu hezkuntzaren zeregina	x				
Instituzio-legeak eta curriculumak oso ilunak eta zurrin sailkatuak	x				
Irakasleek prestigioa galdu komunikabideetan	x				
Geldirik eta zurrin sailkatuak gaudela sentitzea (hezkuntzaren eta komunitatearen artean)	x				
Beldurraren politika (desirarekiko kontraesanean), segurtasun eza, koordinazio falta, zatiketa, botere-harremanak, banakakoaren ereduaren kontra borrokatu, individualismoaren bortizkeria kapitalista	x	x	x		x
Inkoherentzia pertsonalak (ez erori hegemonikoaren iruzurrean, identitatearekiko errespetua), bat-batekoaren kontrako dinamika falta, eraldatu nahi ditugun aurreiritziak errepikatzen ditugu	x		x		
Konpromiso falta, erakundeen despolitizazioa		x	x		
Denborarik ez informaziora heltzeko, lantzeko eta jakintza bihurtzeko		x			
Batzen gaituena identifikatu eta ikusgai egin			x		
Zelan konektatu jendearekin, <i>zelan erakarri izaba Bizen</i> , besteekiko lotura urratuta dago			x		x
Erresistentziak klaustroan, zuzendaritzan				x	
Arrazoitasunaren eta emozionalaren hierarkizazioa				x	
Besteen esku uzteko ideologia					x

Erronkak	1.T	2.T	3.T	4.T	5.T
Birpentsatu instituzioez eta haiei eskatzen diegunaz	x				
Zerbait egin (alternatiboa), aldaketarako bide eta gune berriak zabaldu, egiteko era berriak	x		x		
Koherentziarantz joan, ideien eta prozesuen, teoriaren eta praktikaren arteko interrelazioa	x				x
Irakasleek duten boterearen kontzientzia izatea	x				
Lankidetzaren, familiaren, hezkuntzaren ituna; Sareak	x		x		
Subjektu politikoa aktibatzea (gutxieneko etikoak ezarri)		x			

Elkarrizketa eta adostasunerako egoerak sortu: etika berreskuratu behar		x			x
Zabaldtu, komunikatu eta praktikan jarri		x			
Artea baliabide gisa erabili jendea mugi dadin sustatzeko			x		
Haziak erein (ekintza txikietatik gauza handiak sor daitezke)			x		
Erakundeen konpromiso politikoa, Hezkuntza-prozesua birpolitizatu			x		x
Eraldatuz ikastea ("ibiliaz gara"); eraldatuz nork bere burua eraldatu			x	x	
Ahultasuna aldarrikatu, afektibitatea, zaintza, Ahultasuna landu aldaketarako tresna gisa			x		x
Egiteko era hori sartu hezkuntza-sistema arautuan			x		
Banakotasuna eta kolektiboa batzea lortu, besteen bidez banakotasuna				x	x
Desiraren lana				x	
Konpromisoa burutzea				x	
Erlazio-izaera					x
Eskolaren eta irakasleen zeregin tradizionala gainditu/urratu					x
Desberdintasunetatik abiatuta, kulturarteko prozesuak sortu					x
Kultura helburu gisa (arteak)					x
Irakasleak zaindu Garapenerako Hezkuntzan					x
Tokioa eta globala batu					

Gorputzarekin eraikitako figurak/irudiak

1. Taldea



2. Taldea



3. Taldea



4. Taldea



5. Taldea



Gorputz-irudiak ikusi eta gero, ideia eta gogoetak sortu ziren, subjektu kolektiboa eraikitzeko ideia nagusiak eta zailtasunak irudikatzen dituztenak.

- Mugimendua
- Kolektibotasuna
- Afektibitatea
- Bizipena
- Poza bildu
- Gorputzaren gunea funtsezkoa da
- Gorputz barrukoa irudikatu
- Erronka: zailtasuna gainditu
- Dibertsitatea talde txikian
- Besteen esku uzten jakitea erronka bat da
- Korapiloak askatzeko bidean
- Zaintza
- Parte-hartzearekiko konpromisoa
- (Korapiloak) desikasi eta berriz eraiki
- Entzuten hasten gara eta eskua altxatuz amaitzen dugu (ekintza)

Lan-saioa amaiera-dinamika batekin bukatu da: Zelan joango gara? (emozioak)
Zer eramango dugu? Zer utziko dugu gunen honetan? Taldearen ekarpenak, horri dagokionez:

- Dinamizatzaileak zaindu egin ditu
- Sormen apur bat falta zaigu (erronka bete barik)
- Lantalde txikiari eskerrak eman
- Ez gara perfektu izan behar; besteekiko zabaltzen gara, hala ere
- Gustatuko litzaidake gure esparruetan subjektu politikoa zelan eraiki ikastea

1. Gai ildo. Subjektu politikoaren eraikuntza

2. Taldea

Dinamizazioa: Marlucy Alves Paraiso¹ eta Jaume Martínez Bonafé²

Kontalaritza: Itziar Caballero³

Proposamena

1. Aurkezpena
2. Ez dugu hutsetik hasten: subjektu politikoaren eraikuntzari buruzko ideia eta bizipenekin gatoz
3. Galderak eta iradokizunak aukeratzen/nork bere burua kokatzen laguntzeko
4. Subjektu politikoaren eraikuntzaren inguruko erronkak
5. Testu-artekotasunak eraikitzen
6. Amaiera

1 Minas Gerais Unibertsitate Federala (Brasil).

2 Didaktika eta Eskolako Antolakuntza. Valenziako Unibertsitatea. Berrikuntza Pedagogikorako Mugimenduetako militantea (MRP).

3 CEAR Euskadi.

1. Aurkezpena

Marlucy eta Jaume dinamizatzaileek ikuspuntu hauetatik aurkeztu dute euren burua:

- Zoriontsuago izan gaitezkeen mundu bidezkoago baten aldekoak eta harekin konprometituak.
- Elkar ulertzeko jarrera motibatu, gure arteko komunikazioa erraztu.
- Dinamizatzaileak diren neurrian: eztabaida piztu eta eragin.
- Kontalariaren egitekoa: ikasketak, gogoetak, zalantzak berreskuratu, taldeaz harago partekatu ahal izango direnak.

Parte-hartzaileek euren burua aurkeztu dute lan-dinamiketarako eratutako talde txikietan. Batzarraren hasieran, talde txikiek euren kideak aurkeztu dituzte.

2. Ez gara hutsetik hasten: subjektu politikoaren eraikuntzari buruzko ideia eta bizipenekin gatoz

Testu hau irakurri dute gogoeta eta eztabaida eragiteko abiapuntua izan dadin: "El Anti Edipo. Introducción a la vida no-fascista" (Michel Foucault). Testuak bidea ematen du barruan dugun botereaz hausnartzeko eta zelan botere horrek gure artikulazioari, gure desindibidualizazioari eragiten dion. Boterea urrun dagoela pentsatzeko joera dugu, "bestea" dela; baina, zelan ikusten dugu gure baitan dagoen faxismoa? Zelan desindibidualizatu geure burua, denon artean eraiki dezagun?

Irakurri ondoren, taldea zatitu egin da 4tik 6ra bitarteko 8 taldetan. Talde bakoitzak galdera hauetariko bati erantzun eta testu bat landuko du, taldearen hitzak batu eta laburbilduko dituena.

Nabarmendu zaie garrantzitsua dela hitzak jasotzea, testualizatzea, jakintzak eta gogoetak partekatzeko jarduera den neurrian, gero horiek taldetik kanpo ezagutzera emateko.

Taldeek galdera hauei erantzungo diete:

1. Taldea: Zer da subjektu politikoa? Zelan egiten da

Testuan hainbat ideia azalduko ditugu: gure iritziz subjektu politikoa zer den eta eraikitze-prozesua zelakoa den. Abiapuntua zera da ideia horretara hurbiltzeko ez dagoela modu bat eta bakarra, ezta berau eraikitzeko, bide bat eta bakarra.

Gure iritziz, subjektu politikoa pertsona bat da, kontziente dena jokoan jartzen ari den alderdi pertsonalez (kognitiboa, afektiboa, soziala, besteak beste), denon artean errealtate berdinzaleago, bidezkoago eta solidarioago eraikitzeko. Hala, diskurtso propioa artikulatzeko gai da, bere burua ahalduntzeko, besteekin eta inguruarekin harremanak era horizontalean izateko eta bizitzeko merezi duen bizitzaren alde egiteko eta harekin konprometitzeko. Azken finean, bere pentsaera, hitzak eta ekintzak bat etortzea nahi duen pertsona bat da.

Eraikitze-prozesua, era berean, anitza eta askotarikoa da. Hala, subjektu politikoa pizteko balizko bi "eragile" daude. Batetik, "egilea" emozio positibo bat izan daiteke, enpatia, elkartasuna, justizia, eta, bestetik, emozio negatibo bat izan daiteke "eragilea", sumindura, errabia eta egonezina. Bi "eragileen" eraginez, subjektu politikoak etengabe bere burua zalantzen jartzen, interpelatzen du, eta bere burua ekintza horiekin interpelatzen du, ekintzek eta bere buruak elkarri eragiten diote, ekintzak aztertzen du, haiei buruz hausnartzen du, ekintzak abian jartzen ditu eta ekintzak berraztertzen ditu.

Idea nagusiak:

- Subjektu politikoa: diskurtso propioa dauka; bere pentsamendua artikulatzen du; ahaldundua da; errealtatea eraikitzen du eta ingurua eraldatzen du; era kontzientean inguruarekin harremana du; koherentzia du (esaten-egiten-pentsatzen dut); proiektatzeko gaitasuna du; bere emozioen eta sentimenduen kontziente da; denek kontuan hartzeko eta denen ongizaren aldeko sena du.
- Zelan egiten den: zalantzan jarriz, bestea interpelatuz/nork bere burua interpelatuz; besteekin harremanak edukiz; ekintza/gogoeta; aztertuz; sentimendu positiboak/sentimendu negatiboak abiapuntua izanik; bide bakarra ez; "sinesten" duena; bere baitan ilusioa pizten duena; errealtatea eraldatu, eraiki, aldatu daitekeela, etengabe ekinean, burutugabea izatea; testuinguruaren arabera.

2. Taldea: Hezkuntzak zelan lagundu dezake subjektu politikoa banakakoa, kolektiboa eta komunitarioa eraikitzen?

Gure iritziz, subjektu politikoa eskubideak eta betebeharrak dituela jakitun da, bere burua "gai" ikusten du, hau da, bere burua irudikatzen duen gai da aipatutakoen alde borrokatzen, eta, aldi berean, gizataldearen parte ikusten du bere burua, gizataldeak nahi duen modu berean denon ongizate nahi duelako.

Gure ustez, hezkuntzak subjektu politikoa eraikitzen laguntzerik balu, osagai hauek dituen eta batzen dituen guneetan garatu beharko litzateke hezkuntza hori:

- Praktikari buruz hausnartu eta praktikan bertan ekintzak egin, kolektiboa eta horizontala abiapuntua izanik.
- Banakotik kolektibora eta alderantziz.
- Autonomia, askatasuna, bestereakiko errespetua, alteritatea gisako balioak gogoan izanik bizi.

3. Taldea: Zuen bizipenak gogoan harturik, zelan igarotzen da subjektu pasibotik subjektu aktibora?

Jakin badakigu gaur egungo ereduak subjektu pasiboaren alde egiten duena, eta erronka zera dela subjektu politikora aldatzen laguntzea.

Subjektu pasiboa gune erosoan, esparru erosoan jartzen dugu, kanpoko errealitatearekiko itsu.

Egoera horretatik ateratzeko uste dugu elkar elikatzen ari diren alderdiak bateratu behar direla. Alderdi hauek, zehatz-mehatz:

- Desira eta motibazioa.
- Egonezina eragiten duten egoerak.
- ...-(r)ekiko bizipenak, aldaketa posible egiten dutenak.
- Ongizatea dakarten bizipenak (identitatea indartzea, ahalduntzea...).

4. Taldea: Zelan igaroko gara suminduratik sumindu-ekintzara?

Taldeak nabarmendutako ideiak:

- M-15 adibidetzat hartu da, sumindura, ekintza eta antolakuntza bateratu zituen gunea izan zen neurrian.
- Liderra txandatzeko mekanismoek borondatezkoa izan behar dute, ez goitik behera ezarritakoak.
- Liderrak agertu egiten dira, ahala ematen diegulako. Ahala eman ezean, ezin dute ezer egin.
- Estigmurgia: inurriak antolatzen diren moduan. Kaosa behar dugu eta bat-batekotasuna, gu geu antola gaitzen, eta gero ikusiko dugu zelan auto-antolatzen garen.

5. Taldea: Zelakoa izan behar du hezkuntza-prozesu batek subjektuek euren ekintza zehatzak globalagoekin lotu ditzaten?

Elkar ezagutu dugu, zer galdetzen ari zaigun "jakiten" ahalegindu garen bitartean. Galdetzen ari zaizkigun kontzeptuak geureganatu behar izan ditugu. Hasteko, hezkuntza-prozesuaren zentzua zehaztu dugu: egoera eta errealitate berriak sortzeko moduak, eraldaketari lotuta. Institutuzio-guneak (eskolak, gizarte-mugimenduak, elkarteak...) gainditzin dituen hezkuntza batekin dago lotuta hori, bizitzaren beste gune batzuekin bat egin dezan; eta gertatu, edozein une, leku edo eratan gerta daiteke.

Gure eztabaidatik abiatuta, gogoetarako gaiak proposatzen dizkizuegu, galderak aurkitzen lagundu diezagukete-eta:

- Gune fisikoak ideologiko gisa ikusi.
- (Elkar) ezagutu, (elkar) aurkitu.
- Batera egin dezakegu borrokan, batzen gaituen bidetik.
- Elkarrizketa eta praxia batera egin, osagai proaktiboa duten eraikitze-guneak.
- Geure burua berriz aztertu, huts egiteko beldur barik.
- Gizarte-eragileak edo beste erakunde batzuk bilatu, gure hezkuntza-prozesuetan erabat sartuta ez daudenak.

6. Taldea: Aldaketa globalak eraiki daitezke gaur egun? Zelan?

Ezin dugu pentsatu aldaketa globala, etorkizuna aldatzea, osotasun bat izango dela; izan ere, aldaketa globalak beti ari dira eraikitzen.

Bidea ireki behar zaie bakoitzak bere aldetik eta beste batzuekin batera duen botereaz kontziente izateko prozesuei. Hala ere, ni-a ezin da eraiki gu-a eraiki barik, eta alderantziz.

Kolektibotasuna eta guneak sortu behar dira, benetan horizontalak eta berdintasunezkoak.

Oraindik existitzen ez diren kolektiboak eta guneak.

7. Taldea: Zer egin dezake subjektu politiko emantzipatuak gaur egun?

Taldeak nabarmendutako ideiak:

- Zer esan nahi du subjektu politiko emantzipatuak? Subjektua ez dago inoiz erabat emantzipatuta, emantzipazio-prozesua etengabea da.
- Ondo moldatzen diren esparruetan jarduten dute subjektu politikoeak: egunerokoan, gune kolektiboetan...
- Hausnartu eta aztertu egiten dute, boterearekiko harremanak gogoan hartuta.
- Kolektibotik abiatuta eraikitzen dute.
- Ez dago subjektu politiko izateko era bat eta bakarra.


8. Taldea: Zelan pentsatu antolakuntza politikoaz, jendartea eraldatzea helburu duten mugimenduez, subjektu politikoa eraiki/ ezagutu/indartu behar dela gogoan hartuta?

Subjektu politikoa: etengabeko prozesua.

Denen ongia: denen ongiaz kontziente den subjektu politikoa. Ez gara beste beharrizan edo interesetatik askatzen, baina denen ongia kontuan hartu behar dugu. Horrexek batzen gaitu.

Eraldatu: pentsatu behar dugu gu geu zelan antolatu, eraldatu ahal izateko. Pentsamendu kolektibotik eta borondatezkoetik abiatuta. Geure burua guztiz bertan jarrita amesten dugu antolakuntza hori. Guk geure burua eta kolektiboa eraikitzen ditugu. Dibertsitatea aintzat hartzen dugu, baita sortzen dituen gatazkak ere. Antidogmatismoan oinarritutako dibertsitatea. Justizia, errespetua eta berdintasuna dira balio nagusiak.

Pentsatu behar dugu botere kolektiboa zelan eraikiko dugun.



3. Aukeratzeko/nork bere burua kokatzen laguntzeko galderak eta iradokizunak

Marlucyk eta Jaumek subjektu politikoa eta subjektua zelan ulertzen dituzten azaldu dute.

Xehetasun gehiago: ikusi euren hitzaldietako ppt-ak eta lantalde honi gomendatutako irakurketak.

Abiapuntuak:

- Foucaulten subjektuari, subjektibatzeari eta botereari buruzko kontzeptuak, eta horien garrantzia, hezkuntzan.
- Identitateari eta desberdintasunari buruzko kontzeptuak (kultura-ikasketak, multikulturalismoa), eta horien garrantzia, borroka sozial eta kulturaletan.
- Deleuzeren, eta Deleuze eta Guattariren desirari buruzko kontzeptuak, eta aldaketetarako duten ahalmena.
- Politika feminista, patriarkatuaren eraginaren eta berdintasun ezaren kontra.
- "Queer" jendetza eta "anormalak".

Jaume Martínez Bonaféren hitzaldia

- Kritika esentzialismoari.
- Ibiliak gara. Mugituz, gertaerarantz.
- Jakintzak sortzen dituzten bizipenen bidaia.
- Zentzunez: eraldatzeko borondatea eta matxinatzea. Ezetz esatea.
- Subjektu politiko banakotik kolektibora igarotzea.
- Hezkuntza: batzuek eta besteek menpean hartu nahi dute, curriculum eskolaz gaindikoa da, irakaslea subjektu politikoa den neurrian, gizarte-mugimenduak eta kalean egiten duten pedagogia.

Hitzaldian nabarmendutako ideiak

- Guanyem Valencia! Subjektu politikoak zer abiapuntutatik eraikitzen ditugun: subjektu politikoa ez da bulegokoa, ordenatua, zehatza, "garbia"... Gu geu gara, garen guztiarekin. Hori da eraikitzen hasteko abiapuntua.
- Ez dago letra larriko subjektu bakana. Ez dugu bilatzen "gizon berria", ez dago teoria garbirik... Horrek apurtu egiten du jaso dugun hezibidea, abiapuntua esentzia horiek bilatzea dela.

- Esentzialismoarekiko kritikak jakintza sortzea eta mugimendua eskatzen ditu.
- Mugimendua gara, bidean gara. Subjektua bidean, bidaian... mugitzeko aukeratik abiatuta, sortzea eta bizipenak bilatzen ditugu: gertaerak. Barrua mugitzen digun hori bilatzen dugu, eragiten digun hori...
- Hala, ez da soilik bidaia fisikoa, ezpada ze bizipen-bidaia da, zerbaitekin topo egitea, sortzea. Gertaera horiek, bizipen horiek, bilatu behar ditugu, guri gertatzea bilatu behar dugu.
- Bizipena jakintza da, hizkuntza da. Aukera bat da desira militantea edukitzeko; bizipen berriak sortzeko nor bere burua konprometitzea. Harremanak eraikitzen dira, beste era batera birsortzen dira. Pertsonak bateratuz, beste pentsamendu bat eraikitzen dute.
- Zer zentzu du subjektu politikoaren eraikuntzak? Zer subjektu politiko? Eraldatzea helburu duen subjektua, aldatzeko borondatearekin. Ezetz esateko aukera da, matxintzeko, hau esatea: "ez duzue nire laguntzarik izango, ez nago zuekin".
- Borroka-lurraldea da hezkuntza, hegemonia lortzeko; hiritarrak eraikitzeko arloa da, gatazka-lurraldea; ez da bakarra, ordea.
- Hezkuntzan subjektuari buruzko teoria eraikitzen ari dira. Sistema hegemonikotik abia daiteke subjektu hori: Fakultatea Hegemoniak kontrolatzen du.
- Subjektu politikoaren eraikuntzan aurpegi batzuk ikusgai dira, eta beste batzuk, ikusezina. Ikusgai dira, esaterako, Munduko Foro Soziala, duintasunaren aldeko uholdea, uholde berdea... Ikusezina da, esaterako, publikotasunari buruzko eztabaida (adib., eskola publiko batzuk subjektu politiko kolektiboaren kontra daude). Publikotasunari buruzko eztabaidak hauei buruz hausnartu behar du: Zer lotura dago publikoa den horren eta estatuarena den horren artean? Zer da bata, eta zer, bestea? Jorratzen ari garen jakintzek, curriculumek, metodoek subjektu politiko kolektibo eraldatzaileak sustatzen al dituzte? Zer lotura dago jakintzen eta boterearen artean?
- Curriculumaren abiapuntua guk geuk izan behar dugu, gure bizipenetatik abiatu behar du... Merkatua curriculum da, gure bizitzaren eremu guztietan sartzen ari da.
- Garrantzizkoa da hezkuntzan ere gune horiek gogoan hartzea. Arlo horretan garrantzi handia hartzen dute gizarte-mugimenduek eta kalean egiten duten pedagogiak: Gizarte-mugimenduek zelan antolatzen dute euren didaktika? Zer egiten dute ikusgai izateko? Zer pedagogia du gizarte-mugimendu batek? Zer erakusten digute kalean dauden moduaren bidez?

Marlucy Alvesen hitzaldia

- Zelan eraikitzen garen subjektu politiko gisa.
- Desira berriz dimentsionatu, subjektu politikoaren eraikuntzaren eragile gisa.
- Desira, indar gisa; ez gabezia. Desira, eragile gisa; ez helburu.
- Subjektibatzea, existitzeko aukera gisa: den horretatik abiatuta, izan daitekeen horretara.
- Bizipenak, zer bultzatu eta zer ez erabakitzeko estrategia gisa.
- Deslurralderatzea.
- Zer bultzatzen den eta zer ez.

Hitzaldian nabarmendutako ideiak

- Belaunaldia garrantzizkoa da gurekin batera dakartzagun marketan. Jartzen dizkiguten etiketek eta geure buruari jartzen dizkiogunek zera adierazten dute zer subjektu garen, gure ustez zer subjektu garen. Non nagoen, horrek erabakitzen du zer etiketa jarriko ditudan, besteek ni zelan ikustea nahi ditudan kontuan hartuta. Besteek etiketa batzuk edo besteak jarriko dizkirate, ni zelan ikusten nauten.
- Subjektu politikoaren eraikuntzan garrantzizkoa da gure bizitza, gure bizipenak, gertatzen zaigun hori zelan interpretatzen dugun. Guk geure burua zelan ikusten dugun eta besteak zelan ikusten ditugun.
- Subjektu egiten gara 3 prozesuren bidez: a) zientziak eta ikerketak objektibatzeko duten moduaren bidez; b) guk egiten dugunaren bidez edo beste batzuek gurekin egiten dutenaren bidez; c) gure baitako eraldaketen bidez.
- Subjektua diskurtsoen ondorioa da, diskurtso horiek benetakoak izan zein ez. Botereak diskurtsoak legitimatzen ditu edo legitimitatea kentzen die.
- Subjektibatzeari buruzko kontzeptua ulertzeko garrantzizkoa da jakitea zer tolestura eratu dizkidan bizipen bakoitzak (bizipen bakoitza tolestura bat da...). Tolestura batzuk erraz zabalduko dira; beste batzuk, ez hain erraz. Tolesturak beti daude presente gure bizitzan, dela uzkurto egiten direlako dela zabaldu egiten direlako. Subjektibatzea tolesturak dira, tolestu eta zabaldu egiten direnak.
- Subjektibatze-praktikek bidea ematen digute geure burua eraldatzeko.

- Hezkuntzaren helburua, subjektu politikoaren eraikuntzaren helburua, lotuta dago tolestura horiek deseraikitzearekin. Tolesturek itxura ematen diote pertsona bakoitzari, baina itxura hori ez da behin betikoa. Pertsonak aldatu nahi ditugu, hezkuntza-proiektu bat dugu, eraldatzea nahi dugu (nahita).
- Berriz gogoan hartzen dugu garrantzitsua dela jakitea nori zuzenduko diodan nire diskurtsoa, nire ekintza, nire proiektua... Zer nahi dut? Nori zuzentzen ari natzaie (zer pertsonari zuzentzen ari natzaio)? Haiek nor izatea nahi dut (zer egin behar dut nire diskurtsoarekin hunki daitezen)? Gogoeta hori geure buruari ere egiten diogu: Nor naiz ni? Zer izan nahi dut?
- Politika da, gure ustez, interesak negoziatzeko artea. Erresistentziaren, matxinadaren artea, gauzak aldatu eta eraldatzeko. Eremita publikoaren maila desberdinetan parte hartzeko, berriz hari buruz pentsatzeko eta birsortzeko.
- Objektibitate- eta subjektibitate-praktikek subjektu publikoa eraikitzen dute. Zer lotura sortzen den gai batzuen eta besteen artean, pertsona batzuekin hobeto moldatuko naiz beste batzuekin baino, pertsona horiek eragingo dute zerbait mugitzea edo dagoen bezala geratzea... Hezkuntza-praktika ez da unibertsala: Saiatzea eta sentitzea da.
- Gaur egungo mugimenduak nomadak dira, ez daude lurralde finko bati lotuta. Deslurralderatzeko mugimendu etengabe sortzen dira.
- Inork ez daki alde zuzenik zer ondorio sortzeko gai den. Luze saiatzearen saiatzeaz.
- Nonbait finkatzen garenean, zailagoa da desirari bidea ematea. Desira ahalmena da, aukera bat, zerbaiten eragilea. Desiratzen dugunean, lortu/erakarri/geureganatu egiten dugu. Desirarazi behar dugu, hori da eginkizuna.
- Subjektu politikoak eraikitzeko, borroka estetikoki eta pozez egin behar da.

4. Testu-artekotasunak eraikitzen

Talde bakoitzak berraztertu egin du lantaldeak hasieran landutako testua, eta bi egunotan egindako lanaren ondoren egoki irizitakoa gehitu dute.

Horren ostean, lantaldeak egindako azken testua jaso da.

Zer da subjektu politikoa eta zelan eraikitzen da?

Testuan azalduko dugu gure iritziz subjektua zer den eta zelan eraikitzen den. Ideia horretara hurbiltzeko ez dago bide bat eta bakarra, hori da gure abiapuntua, eta, era berean, eraikitze-prozesuan ez dagoela bide bat eta bakarra. Azken urteotan, ikusmoldea aldatu egin da subjektu politikoa, eraikitze-prozesuei dagokionez, baita jardun-eremuari dagokionez ere. Hala, arian-arian txertatu egin dira mugimendu feministetako, desazkundearen aldeko mugimenduetako, ekologistetako-eta diskurtsoak, moduak, begiradak eta presentziak.

Gure iritziz, subjektu politikoa pertsona bat da, kontziente dena jokoan jartzen dituen alderdi pertsonalez (kognitiboa, afektiboa, soziala, besteak beste), denon artean errealitate berdinazaleago, bidezkoago eta solidarioago eraikitzeko eta bizimoduan era harmonikoan txertatzeko. Hala, hitz berri eta positiboarekin diskurtso propioa artikulatzeko gai da, bere burua ahalduzko, besteekin eta inguruarekin era horizontalean harremanak izateko, eta bizitzeko merezi duen bizitzaren alde egiteko eta harekin konprometitzeko. Azken finean, bere pentsaera, afektuak, hitzak eta ekintzak bat etortzea nahi duen pertsona bat. Egiten eta planteatzen duenarekin disfrutatzen duena.

Era berean, askotarikoa da eraikitze-prozesua. Hala, subjektu politikoa pizteko balizko hainbat "eragile" daude. Batetik, "egilea" emozio positibo bat izan daiteke, esaterako, enpatia, elkartasuna eta justizia, edo bizimodu desberdin bat aukeratzeko edo eraikitzeko behar bati erantzuna ere izan daiteke. Bestetik, sumindurak, errabiak edo egonezinak eraman gaitzake bizitzaren harremanak ulertzeko eta bizitzeko beste modu batera. Bi "eragileen" eraginez, subjektu politikoa etengabe bere burua zalantzen jartzen, interpelatzen du, eta bere burua ekintza horiekin interpelatzen du, ekintzek eta bere buruak elkarri eragiten diote, ekintzak aztertzen du, haiei buruz hausnartzen du, ekintzak abian jartzen ditu eta ekintzak berraztertzen ditu ikuspuntu umil batetik, bere mugak eta barruko kontraesanak onartuz, beste pertsonekin, instituzioekin, mugimenduekin-eta lan egiten du, eta elkarrizketa eta sinergiak bultzatzen ditu.

Testua berriz adierazteko ideia nagusiak:

- Bizitza pribatua eta publikoa harmonizatu.
- Esku-hartze politikorako bide desberdinak.
- Poza/auto-errealizazioa.
- Aktibismo zurrunetik aktibismo likidora.
- Aktibismoaren eredu maskulinoetik aktibismoaren eredu femeninoa.
- Zaintzaren garrantzia (zaintzaren etika).
- Sinergiak/lankidetzak beste kolektibo batzuekin.
- Egiten duzunarekin disfrutatu edo grina izan.
- Kolektiboaren antolaketa eta boterearen antolaketa aldatu.

- Kolektiboaren antolaketa eta boterearen antolaketa aldatu.
- Hitzak aldatu.
- Esparru femininoko alderdiak eta ikuskerak ekarri.
- Superherioa izateaz paso egin.

Hezkuntzak zelan ahalbidetu dezake subjektu politiko banakakoa, kolektiboa eta komunitarioa eraikitzen?

Taldean nahiago izan dugu hezte-prozesuaz hitz egin, "Subjektu politikoa eraikitzen laguntzen duen hezkuntza"-z baino, ez dugulako nahi esparru bakarrera mugatu, eta prozesu hitzaren esanahia egokitu egiten delako subjektu politikoa eraikitzeko moduaz ditugun ideiekin. Hauek dira ideiak:

- Edozein hezkuntza-prozesutan nahitaezkoa da subjektu "zikinak" garela ikustea, hau da, gure bizi-esperientzia osoarekin garen horretatik abiatuta, haren kontziente izanik.
- Prozesu horietan lehentasunezkoa da ezagutza partekatua eraikitzea. Horregatik, oso garrantzitsua da parte-hartzaileen kontaketa edo kontaktetik erantzea. Leku nagusian egon behar du, era berean, jokabide hau: esperientziaz.
- Prozesu horietan grinak izan behar du lagun, edo grinatik lagundu behar dira, desira benetan sortu ahal izateko.

Zelan igaro subjektu pasibotik subjektu politikora?

Jakin badakigu gaur egungo ereduak subjektu pasiboari ematen diona bidea, eta erronka dela subjektu politikora aldatzen laguntzea.

Subjektu politikoa gune erosoan, giro erosoan, kokatu dugu kanpoko errealitatearekiko itsu.

Egoera horretatik ateratzeko uste dugu atzera-elikatze prozesuan hainbat osagai batu behar direla. Honako hauek:

- Desira eta motibazioa.
- Egonezina eragiten duten egoerak.
- "Zerbaitekin lotura duten" bizipenak, aldatzen laguntzen dutenak.
- Ongizatea dakarten bizipenak (identitatea indartzea, ahalduntzea...).
- Sormena erabiltzea eta parte-hartzea lan egiteko modua izatea, gogobetetzen eta zoriona ekartzen dutenak.

Zehatz-mehatz eskolan, horrek esan nahi du hezitzaileek subjektu politiko direla kontziente izan behar dutela nolabait, curriculum zurruna gaitzetzeko aurrera eginez, desira elikatzen eta eragiten duten metodologiak sustatuz.

Ikasgelatik kanpo, eskolak irakasleen, ikastetxearen eta komunitatearen arteko sareak sendotu behar ditu, diren errealitateetatik abiatuta.

Zelan igaroko dugu suminduratik sumindu-ekintzara?

Geure buruari galdetzen diogu: sumindura eragilea da, ala iratzargailua?

Sumintzea ez da nahikoa, begirada kritikoa izan behar du. Suminduta egon daiteke bat, kritikoa izan barik.

Berria den hori eraikitzeke eragilea ez da sumindura, ezpada zer zoriona, poza, disfrutatzea ekartzen dizkiguten harremanak, bizimoduak, antolatzeke moduak. Maitasuna da eragilea, zaintzea.

Sormenak (ez errezetak) du garrantzia, bat-batekoa ateratzen uzteak, intuizioak, ideologizatua ez den horrek.

Ikurrek dute garrantzia, errituek, ospakizunek, adierazpen artistikoeke eta gorputzak.

Sumintzea eta sortzea bateragarriak eta aldiberekoak dira, aldaketa sozialaren garai honetan. M-15 mugimendua horren adibidea da.

Sarean eta Interneten elkarrekin lan egiteak ere garrantzia du.

Deseraikitzeke eta eraikitzeke prozesu bikoitzak du garrantzia.

Geure burua ahalduntzea: boterea gugandik kanpora dagoelako ideiatik askatzea.

Dibertsitateak du garrantzia, nork bere lekua topatzeak, desberdin den horrekin lotzen gaituzten harreman sozioafektiboek. Dibertsitatea azaleratzea, berez etortzea.

Talde desberdinetan askotariko liderrak gailentzeak duen garrantzia (pentsatzen, sentitzen, egiten, amesten dute). Liderrak borondatez txandakatzea (ez goitik behera ezartzea). Lider autoritarioak boterea dauka geuk eman diogulako. Orain banakako boterea bilatzen dutenek ez dute arrakastarik.

Bizitzak guri zerbait erakusteak duen garrantzia. Estigmergia. Auto-antolakuntza.

Zelakoa izan behar du hezkuntza-prozesuak subjektueke euren ekintza zehatzak globalagoekin lotu ditzaten?

Elkar ezagutu dugu zer galdetzen ari zaigun "jakiten" ahalegindu garen bitartean. Eta galdetzen ari zitzaizkigun kontzeptuak gureganatu behar izan dugu. Hasteko, hezkuntza-prozesua zehaztu dugu: egoera eta errealitate berriak sortzeke modua da, aldaketari kateatuta dagoena. Hori lotuta dago instituzio-guneak (eskolak, gizarte-mugimenduak, elkarteak...) gaintitzen dituen hezkuntza batekin, hezkuntza-prozesuak bizitzaren beste gune batzuekin bat egin dezan: gertatu, edozein une, leku edo eratan gerta daiteke-eta.

Gure eztabaidatik abiatuta, gogoetarako gaiak proposatzen dizkizuegu, galderak aurkitzen lagundu diezagukete-eta:

- Gune fisikoak ideologikoak ere badira.
- (Elkar) ezagutu, (elkar) aurkitu.

- Zergatik borrokatu gaitezke batera? Batzen gaituen horren bidez.
- Elkarrizketa eta praxia batera egin, eraikitze-guneak, osagai proaktiboarekin.
- Gure balioekiko leialak izan, gure bizitzaren eremu guztietan, inkoherentzian bizi garen jakitun.
- Geure burua berriz aztertu, huts egiteko beldur barik.
- Kutsatu gure hezkuntza-prozesuetan zuzenean sartuta ez dauden beste gizarte-eragileak edo beste erakunde batzuk.
- Lorpen txikiak balioetsi eta ospatu.
- Desiraren subjektu izan behar dugu. Eraldatzeko eta aldatzeko desira izan.

Ideia nagusiak:

- Diskurtsoa eta praxia ez datoz bat.
- Poza berreskuratzea da estrategia.
- Aldatzeko dugun desira kutsatzea bilatu.
- Zelan poztu egin eta egin ari bagara? (materialak, jarduerak)
- Gure errealitateari buruzko galderak egin behar ditugu; izan ere, gure erakundeetan bertan sistemaren desoreken ereduak eta egoerak errepikatzen ditugu.
- Eman garrantzia txikitasunari.

Aldaketa globalak eraiki daitezke gaur egun? Zelan?

Aldaketa globala prozesu biologikoa da, organismo bizi bat bezala. Ez dago zenbakitan neur daitekeen helbururik.

Aldaketa globala ezin da egon alde zuzeneko diseinuaren menpe. Ikasketa bizia da, aldakorra eta eraikitzen ari dena.

Gure ustez, aldaketaranzko bidean aurrera egiteko beharrezkoa da bakoitzaren boterearen eta botere kolektiboaren kontziente izatea; botere hori "sortzeko" ahalmen gisa ulertuta, ez norbaiten edo zerbaiten gaineko boterea. Horretarako, "sortzea" posible izateko guneak eraiki behar ditugu. Askatasuna eman behar dugu botere hori libre nahasi eta hazi dadin.

Hau da, gure iritziz, hazkunde pertsonala etengabea da, gero beste batzuekin botere hori parteka dezagun, kutsa dezagun.

Gure ustez, behar dugu pertsonen sentimendu kolektiboarekin bat egitea; ez "marka" zehatz batekin pertsonen nahitaz bat egin behar izatea. Antolaketaren beste kultura bat sortzea da kontua, eskatzea barik, poza eta kolektibotasuna sentitzea.

Subjektu politiko emantzipatuak egin dezakeena?

Emantzipazio-bidean diren subjektu politikoek ingurua ikusi, gogoeta egin, era kritikoan aztertzen dute, baita euren burua ere, botere-harremanen eta konfrontaziotik abiatutako aldaketaren ikuspegitik. Gainera, eguneroko esparruan eta esparru kolektiboan erabakiak hartzen eta ekintzak egiten dituzte, desiratik eta desira partekatuetatik abiatuta.

Subjektu politikoek, emantzipazio-bidean direnak, kaleetatik eta etxetik abiatuta eraikitzen dute beste batzuekin batera (erakundeak, pertsonak, kolektiboak...), eta onartu egiten dute denon onerako ez dagoela subjektu politiko bat eta bakarra, eta, hala, emantzipazio-bide alaiak zabaltzen dira.

Zelan pentsatu antolakuntza politikoaz, jendartea eraldatzea helburu duten mugimenduez, kontuan hartuta subjektu politikoa eraiki/ezagutu/indartu behar dela?

Subjektu politiko kolektibo eta antolatua eraikitzeko, zabaltzen ari den berdintasun ezaren, pobrezia-aren eta justizia ezaren testuinguruan, tokikoa eta globala den mundu batean, hainbat arrisku zehaztu ditugu:

- Ikuspegia, begiradak, sakabanatzea, bakartzea (partikularkeria, korporatibismoa).
- Bazterkeria eta sektarismoa.
- Horizontaltasun-eza, hierarkizazioa eta liderrek bere gain hartzea dena.
- Hezkuntza-sistema kortse gisa, burokratizatzea, pribatizazioa, klasismoa.

Horren aurrean, subjektu kolektiboak erronka hauek ditu aurrean:

- Sustatu hezkuntzako eta komunitateko eragile desberdinak hezkuntza arautuan, ez-arautuan eta informalean sartu daitezen. Hala, horrek (haiek sartzea) balio izango du parte hartzeko topaguneak ahalbidetzen dituen pentsamendu kolektiboa eraikitzeko.
- Koordinazio handiagoa eta hobe, justizia, errespetua eta berdintasuna:
 - Denen ongirako den zerbait identifikatu, dibertsitatea biltzen laguntzen duena, nork bere burua eraiki denon artekoa eraikitzeko, desikasi ikasteko...
 - Botere kolektiboa eraiki, modu demokratiko eta parte hartuzkoetatik abiatuta.
 - Eraldatzeko borondatea akuilatu, desira, poza erein, dimentsio sozioafektiboa garatu, militantzia zorionsua sustatu.

Hezkuntza arautuaren barruan, pentsatu ikasgelak "bizitzarako eskola" direla eta lotu eskola hori gizarte-mugimenduekin eta bere testuinguruarekin.

5. Amaiera

Badugu gure jakintza eta gogoetak batzen dituen testu-bilduma. Dinamika kolektiboetan eta kolektiboetatik abiatuta ere eraikitzen da testu-artekotasuna. Testu hau baliabide bat da gure guneetara itzultzen garenean, subjektu politikoa eraikitzen eta berreraikitzen jarrai dezagun.

2. Gai ildo. Eraldatzeko komunikazioa

3. Taldea

Dinamizatzailea: Pablo Navarro¹

Kontalaritza: Lidia Ucher²

Proposamena

1. Garapeneko kartografiak
2. Gure bidaiaren balioak
3. Bidaiaren antolakuntza
4. Ikasketak eta amaiera

1 Zemos 98.

2 Kazetaria eta komunikatzaile soziala.

"Konplexutasun, arrisku eta ziurgabetasunez beteriko jendarte globalean, erakundeak guztiz desuztartua daude (Giddens). Hala GGKEak, nola hedabideak eta kazetaritza. Ez alferrik, Gabilondok ahaleginak egiteko dei egiten du, kazetaritza osorik ahokaturako lanbidea izan dadin (2011). Hortaz, erakundeak egoera berria finkatu ahal izateko, subjektuaren irudia berraurkitu behar da (duintasuna, eta hautatzeko eta berrinterpretatzeko gaitasuna duen izaki moduan). Gaur egun, jendarteko erakunde guztiak daude susmopean, eta metamorfosia egin beharko dute, batzuek besteek baino lehenago (Morin, 2011). Sakoneko (berr) asmakuntza egin behar da; ez da aski asmakuntza teknologikoa, subjektuen zerbitzura jarri behar da, beren buruaren sortzaile direlako. Orduan, subjektua izango da mehatxatzen gaituzten kontsumoko eta kudeaketako gailu eta logika instrumentalen aurka egiteko izango dugun erresistentziarik tinkoena.

Erro Sala, J. (2011).

Comunicación y Desarrollo: nuevos escenarios. UIMP.

"Justizia soziala eskatu behar dugu berriz. Aurpegian kolpatuko gaituzten galderak egin. Diziplina kendu gizarte-zientziei".

Víctor M. Marí Sáez.

Hausnarketa horiek eginez abiarazi genuen urriaren 10ean, ostiralarekin, Gasteizen egin zen Garapenerako Hezkuntzako IV. Biltzarrean, "Jendartea eraldatzeko komunikazioa" lantaldea. Zemos98-ko Pablo Navarrok dinamizatu zuen, eta Lidia Ucher kazetaria eta komunikatzaile soziala arduratu zen kontalaritza.

Aurkezpena egiteko, gutako bakoitzak komunikazio sozialari buruz egiten eta pentsatzen duguna adierazi genuen, eta, era berean, lantaldearekiko genituen itzaropenak aipatu genituen:

"Komunikazioa funtsezkoa da mundua aldatzeko". "Komunikazio oso lagungarria izan daiteke hezkuntza-arloan". "Komunikazio ezinbestekoa da gurasoak eta irakasleak atzemateko". "Garapenerako hezkuntzaren, remix kulturaren eta kontaera berrien zale amorratua naiz". "Behar-beharrezkoa da teknologia berrien bidez komunikatzea". "Kezkatuta gaude. Zergatik ez da hitz egiten giza eskubideak lantzeko hezkuntzaz, zergatik dute erresistentzia

hori erakundeek beste garai batzuetako hizkuntza gainditzeko eta teknologia berriak eguneroko lanean txertatzeko?". "Dena interesatzen zait, erronka handia dugu aurrean, hezkuntza kapsulan sartuta bezala dagoelako". "Hedabideek jendea ahalduntzeko duten rola interesatzen zait". "Ez dakit ezer Garapenerako Hezkuntzaz, baina komunikazioaz zerbait badakit, eta ikasi nahi dut bi diziplinak lotzen".

1. Garapenerako kartografiak

Nola irudikatzen dira migratzaileak hedabideetan? Non sentitzen zara etxean bezala?

Kartografian oinarritutako metodologia erabiliz, *Remapping Europe* proiektuan, mapa batean irudikatu ziren galdera horiei emandako erantzunak.



Pablo Navarrok ikasgelan azaldutako metodologia hori oinarri hartuta, lantaldean egingo gudenaren kronika marraztu guden mapa batean.

Kontua da "usoak askatzea": ditugun ideiak botatzea, gero eraikitzeko erabiliko baititugu.

Gure mapak

1. mapa: Espiralak

"Bakartuta aritu orde, kontinente baten gisa aritzea. Garrantzia du planeta batean egoteak; aukerak ditu baina mugak ere bai. Barruan ibaiak daude, itsasoa... eta pertsonak ere bai, espiral gisa marraztuta: pertsonak kolektibo modura, elkarren arteko harremanetan eta inguruneekin elkarrizketan. Zoriontasunaren ideia, pertsona zoriontsuaren ikuspegiaz. Basamortu batek irudikatzen du izaki librea, bakana eta kulturako baldintzapenik gabea. Aukera ematen digu berriz idazteko; haizeak dena ezabatzen du eta aukera ematen digu lerro berri batean geure burua berriz marrazteko. Zubi bat marraztu genuen, isolatutako lurraldeetan bizi diren pertsonak batzeko. Kontzeptuekin osatu genuen, zirkulu nagusitik kanpo: espirala, kulturak, ingurunea, herritarrak, bizitza".

2. mapa: Sareak

Saretan irudikatu genituen banku etikoa, hezkuntza, jolasa, elikadura, beste ekonomia bat, kultura-aniztasunean txertatzea, forma desberdina duten hiru giza irudiren bidez: triangelua, zirkulua, erronboa...

Teknologia berriak, arteak, antzerkia, generoko betaurrekoak behatzen, fruituz beteriko saki bat, espiritualtasuna irudikatzen duen argizari bat, instituzio berrien isla den eraikin bat.

Erdiko armiarma-sareak prozesu osoa bateratzen du: iragana, oraina, etorkizuna. Ziklo batean irudikatu nahi izan zen ezertarako balio ez diguna, ikasitakoa ahazteko eta berreraikitze prozesua.

3. mapa: Elkarren aurkako bi sistema

Ekosistema batean, ibai garbi bat, eskolekin, denak parte hartzen, Estatuak esku hartzen eta "ez soilik ordenagailuak oparitzeko", eskua zabaltzen parte hartzen uzteko ere bai, haurrei hezkuntza eta ezagutza ematen ordenagailua erabiltzen ikasteko, eta teknologia berriak mundu osora zabaltzeko. Hori lortzeko, Estatuak esku hartu behar du. Taldean egindako eztabaida ere garrantzizkoa da: nola ekin gure munduan ikusten ditugun arazoaren konponbideei.

4. mapa: Plaza erdigune gisa

Plaza erdian eta kaleek bertan bat egiten: hezkuntza, merkatu iraunkorra, lankidetzak, artea eta sorkuntza, zaintza erantzunkideak, osasuna, aisia (kirola, baina ezer ez egiteko eskubidea ere bai, hizketan aritzea aisialdiko espazio gisa).

Inguratzeko bidegorriak batzen ditu espazio guztiak: komunitate osoko biribilgune guztiak lotzen dituen komunikazioa, genero-ikuspegiak (morez). Ibai bat eta eguzkia irudikatzen dira, zorionaren, ilusioaren eta sentimenduaren sinbolo gisa.

Zuhaitzak marraztu genituen plazan, naturarekin bat egiteak duen garrantzia nabarmentzeko, eta parte hartzeko espazio desberdin bat dela azaltzeko.

Auzoak sistema biderkatzailea eduki, eta iraunkorra izan behar du.

Pablo Navarrok mapa hauek marrazteko prozesua nabarmentzen du: haiei esker, hobeto ikusiko dugu zeri eman behar diogun garrantzi gehiago, eta berriz aztertuko dugu nola neurtu eta irudikatu pertsonak (espiraletan independentzia nabarmentzeko, koloreak generoa edo kutsadura -ibai marroia-azpimarratzeko, etab.).

Ondorio orokorrak

1. Bistan da munduaz dugun ikuspegia mapan jartzeko prozesuak zalantzen jartzen dizkigula buruko kodeak, hau da, nola erreproduzitu taldeka lortu nahi dugun mundua.
2. Prozesu horrek erantzuna ematen dio galdera honi: zure ustez beharrezkoa al da garapenerako hezkuntza edo herritartasun globalerako hezkuntza deitzen den horretatik hezkuntza kritiko eta askatzaile baterantz hedatzea? Ikusten dugunez, gako hauek daude prozesuan: sinbolo eta eredu berriak sortzen dira, elkarrekin bizitzeko kodeak eta lortu nahi dugun munduaren ereduak: espiralak, kontinenteen tamainak, koloreak -generoa, ibai-, sarea osagai nagusi gisa.

Talde bakoitzaren bi ondorio

1. mapa: Eztatanda, zalantzak, galderak sortzea. Prozesuen konplexutasuna agerian jartzea, ez baitira arin konpontzeko modukoak.
2. mapa: Sortzeko prozesua.
3. mapa: Mapa guztietan agertzen diren idealak agerian jartzea.

4. mapa: Ibaia, parte-hartze, ezagutza kritiko, sorkuntza, adostasun... gisa; eta eguzkia, berriz, itxaropen, bizi-iturri, foku eta indarren bilgune moduan..

2. Gure bidaiaren balioak

Bost minutuz hausnartu genuen zein behar pertsonal dugun geure bidaiari ekiteko. Beste 5 minutu ematen genituen geure banakako beharrak taldean azaltzen eta negoziatzen.

3. Bidaiaren antolakuntza

Zein ekarpen egin bidaia honi? Zer dakigu egiten? Zein baliabide dugu? Bidaia eratzea: helmuga, logistika, zereginen banaketa.

30 minutuz, talde bakoitzak bidaia taldeka antolatzeko dituen beharrak eta kezak azaldu zituen.

Talde bakoitzak bere bidaia-plana azaldu zuen:

1. Taldea

Helburuak: Kultura berriak aurkitzea, partekatzea, motibazioa izatea, nor bere burua birziklatzea.

Balioak: Begirunea, erantzunkidetasuna, balioak talde barruan aplikatzea, ez soilik bisitatuko ditugun pertsonen aurrean. Maitemintzea bizipenez, pertsonen, kulturaz, geure buruaz, izan litezkeen utopiez...

Helmuga: India, 15 egunez edo hilabetez. Gure ekarpenak: GKEak, han ezagutzen ditugun lagunak, taldeko gidaria, ikus-entzunezkoak. Gure baliabideak: ostua dugu bertan geratzeko, eta ikus-entzunezko materiala...

Zereginak banatu ziren: txertoak, ibilbideak, interpretatzaileak, dirua eman dezakeen aisialdia...

Galderak eta gogoetak

- Bidaian joango zinatekete, benetan? Bai, egutegi-kontua azaldu zen arte: "bidean harri hori izanda, geure utopiarekin geratuko gara". Denboraren kontua oztopo handia da bidaia batera planifikatu ahal izateko.
- Diru askorik gastatu nahi ez, eta zer dela-eta joango zarete Indiara? Lan-kidetzako bidaia antolatu zen, baina pertsona batzuek nahiago zuten bidaia

bat egin ezer ez egiteko. Hortaz, askatasuna garrantzitsua da, bakoitzak bidaia-espirituala egin dezan.

Tirabirak sortu ziren, banakakoaren eta taldekoaren artean; izan ere, taldearen alde amore emanez gero, frustrazioak sortuko dira, eta gero eztanda egingo dute.

2. Taldea

Galdera ez da izan nora, baizik eta zer behar dudan nik bidaia hori egiteko: askatasuna, erlaxazioa..., trukea bezalako balioak, geure buruaz jabetzea, biziera onaren helburuak, ikastea eta ikasitakoa ahaztea, zorientasuna, sinergia berriak...

Antolakuntzan kaosa azaldu zen. Bidaia hipotetikoagoa zen benetakoa baino gehiago. Bidaiaren orde, kooperatiba bat sortzea erabaki zen, toki bat elkarrekin biltzeko eta denok zerbait -kapitala, ezagutzak, sareak, komunikatzeko estrategia- partekatu ahal izateko. Azkenean, enpresa-plan bat egin behar zela ikusi zen.

Ondorioak: Lantaldeek baterako helburuak eduki behar dituzte aurrez, eta helburu horiek oinarritzat hartuta eraiki behar dute "bidaia".

Gauzak konpontzen ez dakigunean, hozkailuan sartzen ditugu. Ezin da erabakirik hartu hain azkar.

Helburu txikiagoak bilatu behar dira, egiteko modukoak.

3. Taldea

Itxaropen handirik gabeko bidaia bat, plangintza gehiegirik gabekoa, sortzen den horretara geure burua egokituz ikasteko xedez egina gehienbat, ez hainbeste ekarpenak egiteko. Esperientzia eta tartean sartzeko gogoak, horiek dira gure ekarpena; bakoitzak bere kontuen ardura har dezan bere gain.

Ondorioak: Azkenean, baliabideen kontua garrantzitsua da. Bidaia batzuk ez ditugu gure kabuz bakarrik egingo, baina taldeka bai. Garrantzi gehiago baitu taldearekiko konfiantzak eta zerbait elkarrekin egiteko ilusioak, zer gertatuko den jakin gabe zerbait egin daitekeela uste duten horiekin aritzeak. Indartsu, gai eta baikor sentitzen zara. Gozamina hartu eta bizi nahi genuen, lerratuz.

4. Taldea

"Bidaiaren plangintza egin bitartean egin dugu bidaia". Plangintza bera bidaia bat da berez: beharrak, balioak eta helburuak taldeka bilatzea eta antolakuntza.

Gehienbat, begirunea, elkartasuna ("herrien samurtasuna"), elkar ezagutza, jakin-min enpatikoa. Kultura nola sentitzen den sentitzen saiatzea. Zaintzak, amodioa, gozamina.

Helburuak: deskonektatzea, gozatzea, ikasitakoa ahaztea, kontakizunak eta sentimenduak partekatzea: sentimenduak eramatea eta ekartzea. Konfort-esparrutik ateratzea, konektatzea eta aldi berean deskonektatzea, ikastea eta aldi berean ikasitakoa ahaztea.

Azkenean ez genuen bidaia zehatz azaldu. Karabana batean inguratu nahi genuen mundua, toki galduetaraino iristeko. Bakoitzak bere modura ulertu zuen karabana. Marrazten saiatu ziren, baina gero alde batera utzi, eta bakoitzak egindako ekarpenak aipatu zituzten: dirua, sorkuntza... Logistika-kontuak zaildu ziren: ura, esku-argia, eramangarriak... Zereginen banaketa: egiteko jakin bat nahiago duenak eska dezala, eta inori gustatzen ez zaion hori txandaka egingo da. Lehen gatazka izan zen bat etortzea gatazka egongo ote zen erabakitzen: batzuek baietz, beste batzuek ezetz. Batzarrak dira antolakuntzaren oinarria. Eta barne-bidaia bat dela ere bai.

Galderak eta gogoetak

- Bidaia egingo zenukete? Baldintzapen pertsonalak behin eta berriz agertzen den gaia da. Bakoitzaren inguruabarren arabera bidaiari sartzeko aukera aipatu zen.

Ondorioak

- Komunikazioa ondo ibili da talde barruan, baina ez kanporantz.
- Zein ondorio atera komunikazioari dagokionez? Eztabaida errepikatzen da.
- Gure emozioetatik abiatzea, baina helburuak zehazten jakitea.
- Frustrazioak: talde osoa honda dezakeen zakua betetzen ari da.

Komunikazio-kanpainak

Lantaldearen bigarren egunean, Pablo Navarrok komunikazio-kanpaina batzuk aurkeztu zituen.

- La Asociación de los ex-Hombres Lobo.
- Alcosa y más allá.
- Kikiriwikis. Zemos98.

- RemappingEurope.eu.
- #3de10
- Raid Aid: Afrikatik Norvegiara bidalitako laguntza, hain zuzen, berogailuak eta beroa.

Komunikazioari buruzko ondorioak

- Narratiba berriak landu behar ditu, parte-hartzea bultzatu behar du haietan, umorea ere sartu, remix-a.
- Sortzailea eta berritzailea izan, eta nori zuzendu eta zertarako aztertu behar du.
- Irudia tresna komunikatzaile gisa hartu behar da, ekintza sustatzeko mezu modura.
- Mezuak argia izan behar du, trabarik gabea, irakurlea harrapatu behar du.
- Umorea gero eta garrantzitsuagoa da. Komunikazioan, gerta liteke gure kanpainak ikusleengan eraginik ez izatea.
- Kanalak aldatzen ez baditugu, betiko ikusleengana iritsiko gara. Oxfamen kanpainan ikus dezakegu: azkenean, hizkuntza berean hitz egiten du, eta, beraz, kanpainak ez du koderik ez kanalik hausten, bestelako ikusleengana hurbildu ahal izateko.
- Kanpainarik onenak aurrekontu gutxirekin egiten dira. Kontua ez da komunikazioa bazkideak/emaileak/funtsak lortzeko erabiltzea. Kontua da gure lanaren berri ez duen jendeari mezu errazak eta argiak ematea, horretaz jakin dezaten eta tartean sar daitezen.
- Enpresa/erakunde batzuek aurkako mezuak beregana ditzakete beren kanpainak egiteko: Accionak hizkuntza ekologista erabiltzen du, ekologismoari dagozkion balioekin enpresa sustatzeko, Koordinakundea kapitalaren hizkuntzaz jabetu zen "gizakian inbertitzeko". Arriskutsua izan daiteke? Ez al da bide ematen konfort-eremuan jarraitzeko?
- Transmedia kontzeptua: kodeez jabetzea eta berriz interpretatzea.
- Kodeez jabetzen bagara ironia edo umorea erabiliz, beste ikusle batzuegana iritsiko gara?
- Hitz gakoa testa egitea da: zer pentsarazten dizun, zer sentitzen duzun... Kanpainak egiten ditugunean, helburuaz hausnartzen dugu, eta gero mezua prestatzen dugu. Gure ibilbidearekin unibertsoa iritsi gaitzeke, baina, betiere, gure ikusleak eta helburuak gogoan izanik.

- Gure bidaiaren helburuaz egin behar dugu gogoeta: zein baliabide dugun, zer behar dugun, zer lortu nahi dugun, zer eskatzen diogun taldeari, etab.
- Eraman dezagun hori GKEen esparrura: komunikazio-arloak beste arlo batzuetan txertatu behar dira.
- Denbora behar dugu gure komunikazioan benetan zer behar dugun pentsatzeko.

Hezkuntza hedatua: Platonic eta Zemos98 proiektua

Ezagutzaren banku komuna sortu zuten. Ezagutzak trukatzeari. Ikastetxeko ikasleak ahalduz, aukera ematea irakasleen maila berean jartzeko, eta irakasleei eta ikasleei egiten dakizkiten gauzak irakastea.

Jardunbide egokiak

- Neska-mutilak berriemaileak izateko ekimenak.
- "Macarena Remedia" proiektuen edukiontzia: Alfabetatze mediatikorako proiektua (macarena.zemos98.org). Auzoko memoria bizia berreskuratzea.

4. Ikaskuntzak eta amaiera

- "Ikastera etorri naiz. Kontu asko ikasi ditut, beste errealitate batzuetakoak diren neska-mutilekin aplikatzeko, beste errealitate horretan gazteek gutxi hartzen baitute parte. Alfabetatze mediatikoa bezalako proiektuak daude, parte-hartzean hezteko lagungarriak, tresna gutxi baina ideia onak dituztenak".
- "Marrastu! Sekula ez zitzaidan bururatu hori eskatuko zidatenik. Baina ikasi dut".
- "Eskertzen dut praktikaren bidez ikastea. Bidaia ideia ona da plangintza egiten modu sortzailean eta praktikoan irakasteko, hedabide handietatik igaro gabe. Eskertzen dut ez eskatzea!"
- "Mundu bat aurkitu dugu. Garrantzizkoa da jakitea nola egiten diegun transmisioa neska-mutilei ingurunerik hurbilenean, batez ere Sevillan. Zinemako gaiak egin nahi izan genituen, zinemaldietara aurkeztu ginen".
- "Inkongruenteak gara berez, baina barkabera izan behar dugu geure buruarekin. Sistemak dituen akatsak zein diren jakin, eta salatu behar ditugu, hori onartu, eta bidegabekieretan dugun erantzukizuna hartu behar dugu

geure gain, baina horri aurre egiten ikasi, eta barkaberago izan behar dugu geure buruarekin. Hainbeste zigorkatu, eta geldiarazten gaituzten dilema moralekin erabaki ezinik egon beharrean, urratsak egin behar ditugu aurrera eta atzera, kontuak aldatzea lortu arte”.

- “Geure kontraesanekin bizitzen ikasi behar dugu. Pertsona arduratsuak izan nahi dugu, ez erru-sentimendu judu-kristauz betetako damudunak”.
- “Geure buruarekin dugun eskakizun-maila jaitsi behar dugu”.
- “Komunikazioa egitea orekarien sokan ibiltzea bezalakoa da; hamaika tranpa daude tartean, eta ohartu gabe eror gaitzke ereduetan”.
- “Egiten duzuna etengabe aztertu behar duzu, zure helburua beti argi edukita”.
- “Ez gara egia absolutuaren jabe, ez dugu irakaspenik eman nahi; desberdinak diren errealitateetara hurbildu nahi dugu”.

2. Gai ildo. Eraldatzeko komunikazioa

4. Taldea

Dinamizazioa: Ángeles Díez¹

Kontalaritza: Federico Abreu²

Proposamena

1. Sarrera: Abiapuntu etiko-teoriko-epistemologikoa
 - Helburu orrokorak
 - Helburu zehatzak
2. Tailerren garapena
 - Komunikazioa ekoizteko baldintzak. Komunikazioaren ekonomia politiko baterako bidean
 - Komunikazioa edo informazioa?
 - Komunikazio-ereduak
 - Nola eman pauso bat gehiago komunikazio eraldatzailerako bidean?
 - Zabaldutako eztabaida batzuk

1 Soziologia Saila. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.

2 Aholkularia.

1. Sarrera: Abiapuntu etiko-teoriko-epistemologikoa

Komunikazioa harreman soziala da. Hala eta guztiz ere, bi kontu nahasi ohi dira sarritan: a) informazioa komunikazioarekin, eta b) mezuek helarazten dituzten tresnak komunikazioa berez denarekin. Nahasketa bikoitz hori dela eta, zailagoa da komunikazioa, dagokion moduan, giza garapenerako eta justizia soziala eta ekitatearen alde borrokatzeko bide ahaltsuenetako bat izatea.

Komunikazioa, harreman soziala den heinean, jendetasunaren oinarria da; hots, komunitatean bizitzea ahalbidetzen diguna da, elkar zaintzeko eta gure giza gaitasun guztiak garatu ahal izateko gai garen izaki sozial bihurtzen gaituena. Horren harira, komunikazioa eta politika txanpon beraren bi aldeak dira. Komunikazioa modu berean izan daiteke gizartea eraldatzeko tresna eta gizartea birsortzeko eta diziplinan sartzeko lanabes.

Aurreko jarreratik abiatuta, honako helburu orokor eta konkretuak proposatu ditugu tailerrerako:

Helburu orokorrak



- Laneko oinarrizko esparrua: Tailerreko partaideok hizkuntza bakar bat erabiltzea, guztiok kontu berbera ulertuz komunikazioa, garapena, eraldatzea eta hezkuntzaz hitz egiten dugunean.
- Une honetan komunikazioak gizartea eraldatzeko tresna izateko zer zailtasun dituen diagnostikatzea eta komunikazio eredu berri baterako aintzat hartzeko parametro batzuk jasotzea.

Helburu zehatzak

- Parte hartzaile guztion artean "Eraldatzeko komunikazioaren" partekatutako esanahi batzuk eraikitzea.
- Gizartea eraldatzeko komunikazio-ekintza eta -produktuak garatu eta ebaluatzeko oinarrizko protokoloa osatzea.

2. Tailerren garapena

Azalpen teorikoa hasi aurretik, taldeak osatu ditugu, bakoitzak eraldatzeko komunikazioaren definizio bana adosteko aginduarekin. Hasierako definizio bat izango da, eta ez dugu orain landuko; erreferentzia bezala balioko digu, tailerren bukaeran ulertzeko gure komunikazioarekiko pertzepzioa zenbateraino aldatu den. Taldeetako lanen emaitza honako irudietan ikus daiteke:



Komunikazioa ekoizteko baldintzak. Komunikazioaren ekonomia politiko baterako bidean

Komunikazioko lana hasteko, beharrezkoa da historikoki kokatzea (denbora eta espazioa) eskatzen duten eta, aldi berean, antzekoak eta desberdinak diren bi kontzeptutatik abiatzea:

- Komunikazio-ekintza
- Komunikazio-produktua

Komunikazio-produktuak aurki ditzakegu (ikusezinak batzuk, salgaiak beste batzuk) eta komunikazio-ekintzak ere bai (esaterako, politika publikoak, gobernuko erregulazioak, baina baita teknologia berriak sartzea eta agertzea ere). Guztiek dute sortzeko unea, orainaldia eta baita etorkizuna ere, baina haiek analizatzerakoan garrantzitsua da euren ekoizpen baldintzak aintzat hartzea.

Adibidez, kapitalismoa da komunikazio produktuak agertzeko gaur egungo testuingurua. Gaur egungo edozein ekintza trukeko harreman horietan txertatuta dago. Dena merkatu bihurtzen du kapitalismoak: harreman sozialak merkatuko harremanak dira. Fenomeno hori ulertzeko, garrantzitsua da kontuan hartzea kapitalismoa garatu zen uneko historikoa, XVI. mendetik aurrerakoa, iraultza handiak gertatu ziren aroa izan zela; horregatik, eraldaketa ekonomikoak beti eraldaketa politikoei lotuta doaz, eta horiek, aldi berean, gizarte eta kultura eraldatzearekin.

Horrela, komunikazio produktuak ekoizteko testuingurua lotuta dago harreman sozial motarekin. Kapitalismoaren testuinguruan, harreman sozialak norbanakoen arteko trukeko harreman moduan osatzen dira. Eskema hori

beharrezkoa da sistemak funtziona dezan; trukea ez dadin kolektiboa izan, banakakoa baizik.

Testuinguru horrek norbanakoen ezaugarriak zehaztu ere egiten ditu:

- Autonomia
- Independentzia
- Isolatzea
- Arrazionaltasuna
- Norberekoikeria

Besteak beste, kapitalismoaren testuinguruan bizi diren norbanakoen oinarritzko ezaugarrietako batzuk horiek direla erabaki dezakegu.

Horrekin agertzen da kapitalismoari eta menderatze ekonomikoari lotutako ideologia. Masa-kontsumoa orokortzen denean agertzen dira "industria kulturalak". Globalizazioarekin, sozializazio eremu pribatuak ere -auzoa, eskola, eta abar- industria kultural horietan txertatzen dira. Kontsumo-ohiturak birsortzeko, beharrezkoa da merkatuak bizitzako esparru guztiak zipiztintzea. Horren bitartez, ideologia naturalizatu egiten da, eta ideologia izatearen itxura galdu egiten du.

Orduan, testuinguru kapitalista horretan, komunikazio-produktu edo -ekintza baten analisia egiteko, honako hauek jakin behar dira ezinbestean:

- Nork sortu du komunikazio-produktu hori?
- Zein da produktu horren helburua (eragina izatea, eranstea, eraldatzea, berrekoiztea)?
- Zein testuinguru zehatzetan ari da sortzen produktu hori?

Definizio horietan sakontzeko, taldekako lanari ekin diogu. Eginkizuna komunikazio-produktuak analizatzea izango da, azalpen teorikoan garatzen diren osagai guztiak identifikatzen saiatuz. Taldeak osatu ditugu, eta baita zazpi taldeetako bakoitzak landuko dituen zazpi gaiak banatu ere. Kide bakoitzak aztergai izango dituen produktuak norberak ezagutu ahal izan ditzan, komunikazio-produktu guztiak ikusi ditugu (bideoak, web-orriak, iragarkiak, eta abar).

Komunikazio-produktuetan erabiltzen diren gaiak honako hauek dira:

1. Gizarte-mugimenduak
2. Palestina

3. Emigrazioa
4. Antimilitarismoa
5. Krisi ekonomikoa (zorra, putre-funtsak, eta abar)
6. Pobrezia
7. Komunikabide alternatiboak

Produktu guztiak aztertu ondoren, hauek dira eztabaidan agertu diren gaietako batzuk:

- Krisi eta pobrezia-ko testuinguruan bizitzeak era askotako komunikazio-produktu ugari agerrarazi du. Produktu horiek ez dira beti eraldatzeko estrategia baten ikuspegitik aurkezten, baizik eta askotan, ustez elkarlana eta solidaritatea sustatzeko helburuaren azpian, eta berdintasun eza eragiten duen sistema bera berrekoiztea eskatzen dute.
- Komunikabide masiboen testuingurua da aintzat hartu beharreko beste elementu bat. Komunikabideak enpresa multzoak dira; hau da, badira ezinbestean komunikazioko enpresa izan gabe ere metaketa horren partaide diren enpresak. Horrenbestean, komunikazio-produktuak sortzeko logikak salgaiak ekoizteko logikari erantzuten dio.
- Horrekin batera, beharrezkoa da kontua botere-logikaren arabera analizatzea ere. Komunikabideek jadanik ez dute osatzen botere politiko edo ekonomikotik desberdindutako botere bat. Medioek boterea dute, oso salgai garrantzitsua ekoizten dutelako: informazioa.
- Analisisirako beharrezko testuinguruaren osagai bat agenda eraikitzeak osatzen du. Nork erabakitzen du agenda? Esate baterako, etxegabetzeak albiste bihurtu ziren unea baino askoz lehenagotik ari ziren gertatzen, eta bazirenaldiruz haieksalatzen ziharduten plataformak ere. Komunikabideek gai horri oihartzuna ematea ez da gizarte-mugimenduetako agendaren arabera emandako erantzuna, baizik eta komunikabideetatik kanpo erabakita dagoen agenda baten arabera emandakoa.
- Bai testuingurua eta bai aurrerago azalduko diren gainerako beste aldagaiak analizatzeko unera iritsita, azken elementu bat diagnostikoa bat egiteko beharra da; besterik gabe produktuak kritikatzeko emozioari eragiten utzi gabe, beharrezkoa da produktu hori nondik datorren eta zergatik egiten den analizatzea. Hori egiten ez badugu, kritikatzeko duguna geuk egiten buka dezakegu, baina beste ideologia batetik abiatuta.

Produktu bat analizatzeko garaian, garrantzitsua da lantzea komunikazio-produktu edo -ekintza horren egile zuzenak edo materialak zein edota zeintzuk diren (banakako egilea, kolektiboa, eta abar). Era berean, produktuen xedeak edo helburuak kokagune etiko edo moral batetik ez ebaluatzeko, beharrezkoa da prozedura bat jarraitzea. Hori dela eta, analizatu beharra dago eraldatzeko produktua edo berrekoizte ideologikorako produktua den.

Komunikazioa edo informazioa?

Etimologikoki, informatzea barne aldetik forma ematearekin lotuta dago; horri dagokio "in-" aurrizkia erabiltzea, hain zuzen. Barrutik forma ematea, alegia. Hari berean, komunikabideek iritzi publikoari ematen diote forma informatzen dutenean. Horrela, bada bi noranzkotasun bat nolabait, jendeak informazio horri erantzun egiten baitio.

Komunikazioaren etimologia, aldiz, guztiontzakoarekin lotuta dago, komunitatearekin. Sustrai horrek prozesu guztien ezaugarriei buruzko argibideak ematen dizkigu. Kasu horretan, informazioko prozesuarekiko desberdina da prozesu hori, erdigunea bi pertsona edo gehiagoren arteko harremanean jartzen duelako. Lotura hori, funtsean, hizkuntzaren bitartez finkatzen da.

Mc Bride txostena egin zen unean, 70.eko hamarkadaren bukaera inguruan, komunikatzeko eskubideari buruz hitz egiten hasi ziren. Herralde aberatsen barruan komunikazioa gehienbat informazioa hedatzea eta informazioa eskuratzeko bidea izatearen paradigmari erantzuteko mugimendu bat agertzen hasi zen.

Hala eta guztiz ere, urte batzuk geroago, eredu liberala nagusitu zen berriz ere, eta aurrerapenaren ideologiari -eta hazkundearenari- lotutako informatzea eta komunikatzearen arteko nahasketari heldu zion atzera. Iritzi orokorra zen garapena handitzeak hazkunde teknologikoa sortzen zuela, eta komunikazioa bitarteko eta garapen teknologikoarekin lotzen hasi zen -sateliteak, mugikorrak, Internet, eta abar-; komunikazio-prozesuak direnekin, hain zuzen.

Komunikazioak beti ditu bitartekoak, baita pertsonen artekoak ere, izan boterea, hizkuntza ala kultura. Teknologiarekiko lotura horrek zinez markatu du komunikazio-eredua, are mugimendu sozialetan ere. Komunikazio arazo baten aurrean gaudela (jendearengana ez iristea) iruditzen zaigunean, erantzun teknologikoaren bila hasten gara (web-orri bat sortzea, esate baterako).

Teknologiak, digitalak nahiz analogikoak, tresna teknologiko jakin batzuk sortzen ditu. Horregatik, komunikazio-prozesuen arazo bat teknologia digital

batekin konpontzen saiatzen baldin bagara, arazoaren esentzia aldatzen ariko gara, berez gizatiarra dena, eta ez digitala. Teknologia konpondu behar duen arazoarentzako egokitua izan behar da, bestela are arazo handiagoa sortzen ariko baikara.

Teknologia digitala zatikatua da, sakabanatua, erraza, aldagarria, mugagabea. Aldiz, giza ezaugarriak erabat bestelakoak dira, hain zuzen: pertsona osoak gara, konplexuak, mugatuak, ordezkaezinak, eta abar.

Geroztik, komunikazio-produktuen inguruan lan egin izan dugu berriro, haietan dauden beste aldagai batzuk ulertzen ahaleginduz:

- Edukiak
- Tresnak eta bitartekoak
- Gatazkari heltzen dioten ala ez
- Publikoa eta pribatua nola agertzen den
- Testuingurua zer modutan islatzen den
- Erabilitako hizkuntzaren ezaugarriak

Komunikazio-ereduak

Hedatzearen aldeko eredu tradizionalen aurrean, beste batzuk badira elkarrekikotasuneko harreman horizontalean oinarrituak, eredu parte hartzaileak deitzen diegunak. Aldi berean, parte hartzea hainbat erataria uler daiteke:

- Autokudeatzailea -Freire-: komunikazioak jarraitzen duen helburua subjektuek definitzen dute. Pertsonen protagonismoak bi norabide ditu.
- UNESCO: komunikazioa bidera dezaketen tresnetara iristeko ahalmena zabaltzea. Norbere -komunitateko- bitarteko masiboetara iristeko edo Internetera iristeko bidea orokortzea. Baina baita prozesuan bertan parte hartzea ere.

Alde batetik, parte hartzea beste helburu bat lortzeko bitartekoa da -osasuna hobetzea, esate baterako-. Baina helburua ere bada; parte hartzea elementu emantzipatzailea da, zapalkuntza eredu bat deseraikitzea eragiten du.

Nola eman pauso bat gehiago komunikazio eraldatzaileako bidean?

Komunikazio eraldatzailea eraiki ahal izateko gako batzuk:

- Gatazkari heldu behar dio -komunikazioari berari buruzko gatazkari edo berak lantzen dituen gaien ingurukoari-. Komunikazioa bere horretan botere harremana denez, beharrezkoa da testuinguru horretan analizatzea.
- Komunikazio tradizionala hegemoniarekin lotuta baldin badago, hegemoniarekiko aurkakotasuna eragiten ez duen komunikazioa ezingo da askatzailea izan.
- Gaur egungo komunikazioak berezkotzat ematen ditu kapitalismoaren balore direnak. Erdigunean beste balore batzuk jartzeko lanean ari den komunikazio eraldatzaileak borrokatu egin behar du kolonialismo ideologiaren aurka.
- Paradigma berri horretara bidean, erabiltzen ditugun tresnak egokitzeko gai eta helburuei dagokienean, mugak eta ahalmenak ikusi beharra dago. Teknologia guztiek baldintza batzuk dituzte, eta horiek erabakigarriak al diren jakin behar da.

Tailerrak bukatzeko garaira iritsita, hasieran sortutako definizioak aztertzen ahalegindu ginen, une hartan bertan kontrastatu ahal izateko. Eginkizun konplexua izan zen, eta ez zuen adiera bakarreko emaitzarik eskaini. Agian, erantzuna izango da komunikazioa bezain kontzeptu konplexu batetik ezin dela definizio bakar bat finkatu. Beharbada, kolektibo jakinek eraiki beharko dute hori, dituzten interes eta premien arabera egitea komeni zaien eran, pertsona guztiak identifikatuta sentitzen diren moduan -partekatutako zentzuan-.

Zabaldutako eztabaida batzuk

Tailerraren bukaera aldera, etorkizunean lantzeko garrantzitsutzat hartu ziren eztabaida batzuk landu genituen guztiok batera:

- Eraldatzeko hezkuntza eta eraldatzeko komunikazioaren arteko lotura -topatzeak, aldentzeak, antzekotasunak, berezitasunak-.
- Parte hartzeko komunikazio-eredua kontzeptualizatzean sakontzea -aldagai desberdinak, irismena, mugak-.
- Sakontzea bai parte hartzailea zer den eztabaidatzean eta baita komunikazioa kokagune honetatik landuko duten praktika garrantzitsuak ezagutzean ere.

3. Gai ildo. Botere-harremanak zalantzan jartzea

5. Taldea

Dinamizazioa: Natalia Navarro¹

Kontalaritza: Sergio Belda²

Proposamena

1. Aurkezpena eta lehenengo hausnarketa.
2. Boterea esperimintatzea
 - "Aulkien jokoa"
 - Botere-harremani buruzko bizipen pertsonalen esperientziak partekatzea
3. Boterea adieraztea
4. Botereari buruzko oinarritzko kontzeptuak
5. Taldeko lana "boterearen kubo" azterketarako eta esku hartzeak planifikatzeko tresna legez hartuta
6. Adostutako oinarritzko ideia batzuk

1 Erakundea aldatzeko genero-arloko berdintasunaren aldeko prozesuetako aholkularia.

2 INGENIO Institutuko ikertzailea. CESIC-Universidad Politécnica de Valencia.

1. Aurkezpena eta lehenengo hausnarketa

Asmoa

Botereari buruz taldean sentitu, ulertu eta hausnartzea.

Metodologia

Botereari buruzko hausnarketa elementuak aztertu, sentitu, ulertu eta erabiltzeko hainbat dinamika proposatu ziren, metodo desberdinekin konbinatuta:

- Partaideentzako esanahi berezia zuten iraganeko egoerak gogoratu eta berriro bizi; egoera guztietan botere-harremanak izango ziren.
- Lantegian zuzeneko esperientziak sortuaz, botere-harremanak esperimentatzeko.
- Botere-harremanak aztertzeko elementu teorikoak eta tresnak proposatuaz.
- Taldeetan eta osoko bilkuran egoera, esperientzia eta kontzeptu horiei buruz hausnartuaz.

Metodologia heterodoxoa erabili zen eta lantegiak aurrera egin ahala egokitu egin zen; partaideen esperientziatik abiatzen saiatu zen, ezagutzeko moduak konbinatu ziren (esperientziazkoak eta intelektualak), ikaskuntza dialogikoa sustatu zen eta azterketarako elementu berrien arazoak aztertu eta modu esanguratsuan sartu ziren.

Prozesua

Lehenengo hausnarketak

Botererako lehenengo gerturatze gisa eta geure buruak aurkezteko, banako boteretsu eta botererik gabeko sentitu ginen gaiak, egoerak eta uneak aipatu genituen.

Boteretsu sentiarazten gaituzten gaiei dagokienez, hauek aipatu ziren: erakunde batean izaten den maila formala, gaztetasuna, motibazioa, esperientzia, antolatuta egotea eta aldaketa prozesuetan parte hartzea, zorionsua izatea, maitasunez betetako familia ingurua, prestakuntza, emakumea izatea, feminista izatea, lagunduta sentitzea, besteak ere partaide egitea, bizitza pertsonal, profesional eta politikoaren arteko koherentzia, etab.

Botererik gabe sentiarazten gaituzten gaiei dagokienez, beste hauek aipatu ziren: lana eta bizimodu pertsonala ezin uztartzea, hizkuntza bat hitz egite-

rakoan mugak izatea, frustrazioak, denborarik eza, esperientziarik eza, adierazteko lotsa, burokraziak, enplegurik gabe egotea, emakumea izatea, nola heldu ez dakigun errealitate baten aurrean mugitu ezinda geratzea, etab.

Botereari buruzko lehenengo ideia esanguratsuak agertu eta partekatu ziren:

- Boterea unearen arabera da (aldakorra eta dinamiko da).
- Egoera/kokapen berak boterea sentiaraz dakiguke edo kendu, unearen arabera.
- Besteekiko harremanak eta erlazioak funtsezkoak dira botereaz hitz egiteko.
- Errealitateak motibatu edo geratu egiten du, bultzatu edo eutsi.
- Boterea pribatuari (generoa, familia, adiskideak, zoriona, porrota) eta publikoari (lana, bizitza publikoa) lotuta dago; ikusten denari (hierarkia) edo ikusten ez denari (beldurra, estereotipoak); banako eta taldeko alderdiei.

2. Boterea esperimentatzea

Boterea esperimentatzeko dinamika txiki bat egin zen, "aulkien jolasa": taldeak egin ziren eta helburu desberdinak lortu behar zituzten aulki batzuen antolaeraren arabera, beste taldeek ez dute horien berri eta itxura batean aurkakoak dira. Jolasean lehia eta lankidetzaren dinamika desberdinak egin ziren.

Dinamika honez gain, partaideak boteretsu edo botererik gabe sentitu ziren egoera bat gogoratu eta partekatzeko eskatu zitzaizen beste ariketa batean.

Boterea esperimentatzeko dinamika hauetako bakoitzaren ondoren, taldeko hausnarketak egin ziren eta gai desberdinak aztertu ahal izan ziren:

Boterea dugunean edo ez dugunean ditugun jarrerak aztertu ziren, eta hauek aipatu ziren, besteak beste: lehiakortasuna, lankidetzaren, pazientzia, oldarkortasuna, frustrazioa, onarpena, jakin-mina, pasibotasuna, erreaktibitatea, etab. Jarrera hauek aldakorrak direla ikusi zen, nahasita sentitu daitezke eta oso modu desberdinean gertatzen dira "kontrolatutako" egoeran -jolasa hala zen- eta bizitza errealean.

"Jokoko arauetako" ditugun jarrerak ere aztertu ziren, oinarrizko jokabide arauak kritikarik gabe onartzen dira normalean, dela jolasean dela errealitatean.

Aipatu zenez, aukien dinamikan pertsona guztiek onartu zituzten arauak eta ez zuten aurka egin, dinamikari boikot ez egiteagatik, jakin-minagatik, "zer gertatzen zen" jakiteko, aurrez gainerakoak ezagutzen ez zituztelako, lankidetzarako kultura zutelako, etab. Baina onarpen jarrera hauek eguneroko bizitzan ere gertatzen dira, nahiz eta arrazoiak beste batzuk izan, hala nola, ezarpena edo beldurra.

Boterea eduki ala ez faktore batzuek baldintzatzen dute eta faktore hauen inguruan bizitakoaz ere eztabaidatu zen, botere-harremanak modelatzen dituzten faktoreak aipatu ziren, besteak beste: aurrez zeuden harremanak, adina, generoa, lotsa, norbaitez dauden espektatibak, norberak hartzen duen jarrera. Faktore horiek guztiek "boterea eman" dezakete une jakin batean, aldiz, beste batzuetan aurkakoa egiten dute.

3. Boterea adieraztea

Dinamika bat egin zen estatua bat edo botere-harremanak ageri ziren sekuentzia txiki bat sortzeko eta antzezteko taldean.

Taldeko antzezpeneen ondorengo eztabaidetan, aztertutako gaietako elementuak hartu ziren berriro (emozioak, jarrerak, boterea baldintzatzen duten faktoreak) eta gai berriak sortu ziren, hala nola:

- Boterea eta jakintza. Antzezpen batzuetan argi geratu zen boterea izateko eta erabiltzeko informazioa eta ezagutza zein garrantzitsuak diren.
- Erakundeen boterea eta kudeaketa. Partaide gehienek adierazi zuten botere-harremanak oso nabarmenak direla euren gizarte-erakundeetan, gizarteko edo ekonomiako beste eremu batzuetan gertatzen dena erreproduzitzen dutela. Maila formalak, "ekoizpen-erlazioetako kokapenak", oso baldintzatzen du bakoitzaren boterea. Hierarkia, mailen gehiegikeria eta erakundeen burokratizazioa oso presente daude botereko harreman desberdinak aipatzen direnean.
- Boterea eta eraldaketa. Antzezpenetako bat dela eta, botereari aurre nola egin aipatu zen, botereko harreman desberdinak eraldatzeko; prozesu horrek eraldaketa pertsonala eta taldekoa berekin du beti.
- Boterea eta irabazi-irabazi/irabazi-galdu. Antzezpen horietako zenbait oinarri hartuta, boterea "zeroak gehitzeko" jolasa izan daitekeela aipatu zen (egileren batek irabazten duen botere oro, besteren baten gain izaten da) edo "irabazi-irabazi" jolasa izan zitekeela, hau da, egile zenbaiten boterea hazi egin daiteke, inor kaltetu gabe.

- Boterea eta autoritate formala. Antzezpentako batek agintaritza formalaren gaia aztertu zuen eta zapalduta sentitzeko sentimendua handia dela erakunde publikoek euren boterea babestu beharreko haien aurka erabiltzen dutenean, boterea bere legezketasunaren oinarrian daudenen aurka erabiltzen dutenean alegia, herritarren aurka.
- Boterea eta sineste sakonak. Antzezpen askotan pertsonengan eta taldeetan oso sustraitutako sineste, balio eta jokaera arauen garrantzia aipatu zen, aldatzeko oso zailak denak ere.

4. Botereari buruzko oinarrizko kontzeptuak

Aurreko ideia horiei guztiei esker, botereari buruzko oinarrizko kontzeptuak sartu ahal izan zituen dinamizatzaileak. Boterea aritzen den forma, dimentsio, adierazpen, maila eta eremuei buruzko kontzeptuak aurkeztu dira. Elementu teorikoak hemen daude: <www.justassociates.org/sites/justassociates.org/files/un_nuevo_tejido_esp.pdf> (páginas 45-52).

5. Boterearen kuboak

Boterearen kuboak aurkeztu zen, botere dinamikak ulertzeko azterketa tresna legez. Boterearen kuboak boterearen adierazpenen arteko elkarguneak atzitu nahi ditu: ikusgarria, ezkutua eta ikusezina; espazio hauetan aritzen da: itxietan, asmatutakoetan eta sortutakoetan; eta maila hauetan: tokikoa, nazionala, globala, etab. (ikus ideia hauek aurreko estekan).

Antzezpenak oinarri hartuta, boterea esfera, modu, eskala... desberdinetan "gurutzatuta" nola aurkezten den aztertu zen eta ondorioz, hori aurrez aurre jartzeko estrategiak nola planteatu daitezkeen ere bai. Adibidez, boterea modu ikusezinean aritu daiteke (emakumea rol jakin batean kokatzen duten aurrekontzeptuen bidez, esaterako) tokian (hiri bateko erakunde baten egoitzan) eta toki itxi batean (erabakiak hartzen diren batzordean).

Idea hauetatik abiatuta, aldaketarako estrategiak ere planteatu daitezke: adibidez, beharrezko mailetan onarpenak eta aurrekontzeptuak ikusgarri bihurtu eta erronka egin behar zaie (botere ikusezinari erronka egiteko) beharrezko maila guztietan, parte hartzeko eztabaida espazioak ireki daitezken... Botere positiboa eraikitzeko moduak ere esfera eta eskala desberdinetan, modu desberdinetan... arizetik igarotzen direla ikusarazi zen. Metodologia, potentzialtasunak eta boterearen kuboaren aplikazioak hemen daude <www.powercube.net>.

6. Adostutako oinarrizko ideia batzuk

Boterearen izaeraz:

- Boterea arlo intimoari lotuta dago (nortasunari, sexualitateari), baita pribatuari (bizitza emozionala, familiakoa, pertsonala) eta publikoari ere (laneko bizitza, militantea...).
- Boterea erlazionala da: une bakoitzean eta bestearekiko erlazioan sentitzen gara boteretsu edo botererik gabe.
- Boterea dinamikoa da: erlazio horiek une eta egoera bakoitzean aldatzen dira.
- Boterea kolektiboari lotuta dago: besteen ondoan eta besteengatik boteretsu edo zapalduta senti gaitzke.
- Botereak mendekotasuna -"norbaiten gaineko" boterea- modu desberdinean eragin dezake: ikusteko moduan, ikusi ezin den moduan, isilean. Oso garrantzitsua da identifikatzea eta aurre egitea (bereziki ikusezina eta isilekoa, askotan nekez identifikatzen baitira).
- Boterea modu positibo eta eraldatzailean aritzen da -"oinarrizko boterea"-, modu desberdinean: "nondikako" boterea (kontzientzia, itxaropena, norbere buruari galdera, irudikatze gaitasuna), "norekin" boterea (empatia, hausnarketa eta taldeko antolakuntza) eta "norentzako" boterea (jarduteko gaitasuna).
- Garrantzitsua da pentsatzea boterearen dimentsio, esfera, espazio eta adierazpen horiek guztiak elkarrekin nola lotzen diren eta elkar nola ebakitzen duten; hala eginez gero, gure kokapenaz, testuinguruaz eta praktikaz hausnartuko dugu, eta aldaketak egiteko estrategiak eraiki.

Jarrez eta emozioez

- Boterea eta honek sortzen dizkigun emozioak eta jarrerak (hasi pozetik, itxaropenetik eta nahitik frustraziora, ezinera, beldurrera edo bakartzera arte) oso lotuta daude. Botere-harremanen elementu nagusienak emozioak direnez, emozioen garrantzia baloratu beharra dago identifikatzeko, ulertzeko eta eraldatzeko.

Boterearen esperientziari forma ematen dioten faktore pertsonalak eta taldekoak

- Gure inguruko hainbat faktorek ematen diete forma gure kokapenari eta hortik ezartzen diren botere-harremani: generoak, adinak, klaseak -ekoizpen harremanen barruko kokapena, enplegua izatea ala ez-, gure

jatorriak, hizkuntzak eta lurraldearekin dugun loturak, gure historiak eta ibilbideak, gure inguruak zentzu zabalean.

Beste inplikazio eta hausnarketa batzuk.

- Boterea oso aldakorra, sotila, konplexua eta dimentsio anitzekoa dela ohartu behar gara, eta horri buruz hausnartu behar dugu etengabe.
- Emozionalaren garrantzia erreibindikatu eta berkokatu behar dugu, arrazionalaren ordez.
- Botereak ikuspegi dikotomikoak jartzen ditu askotan eta banatu egiten ditu gizona/emakumea, publikoa/pribatua, erabakitzailea/zaintzailea, ekoizlea/ugaltzailea... eta horiei erronka egin behar zaie. Gogoan izan behar dugu "garena" edo "nahi duguna" botere-harremanek eraikitzen dutela.
- Boterea zeroak gehitzeko jokoak izan daiteke, baina irabazi-irabazi motako jokoak ere izan daiteke eta ustiatu egin daiteke.
- Botere-harremanak eraiki, mantendu eta eraldatzeko informazioaren, komunikazioaren eta ezagutzaren (nork eta nola ekoizten den) garrantzia.
- Zaila da "jokoko arauak" aitortzea eta eztabaidatzea, berez onartzen baditugu eta hor mugitzen bagara. Eraldatzeko beharrezkoa da azterketa sakona, jokoko arauak jakinaraztea.
- Gure praktikan etengabeko erreflexibitatea egotea oso adierazgarria da, kontzientziatzeko eta botere-harremanak eraldatzeko.

3. Gai ildoak. Botere-harremanak zalantzan jartzea

6. Taldea

Dinamizazioa: Jethro Pettit¹

Kontalaritza: María Viadero²

Proposamena

1. Aurkezpena
2. Boterea arazo bihurtzea
 - Zergatik analizatu behar da boterea?
 - Kontzeptu eta esparru teorikoak
3. Boterearen adierazpenak
4. Boterea esparru publikoan, pribatuan eta intimoan
5. Boterearen hiru aurpegiak
6. Boterearen espazioak
7. Aldatzeko eta ahalduntzeko estrategiak
8. Balorazioa eta amaiera

1 IDSkon parte hartze, Botere eta Aldakuntza Sozialaren inguruko ikerketa-talde, Sussexko Unibertsitatea, Erresuma Batua.

2 Mugarik Gabe erakundeko talde teknikoa.

1. Aurkezpena

Tailerra hasteko, bertaratu garen 30 lagun inguru aurkezteko DINAMIKA bat egin dugu. Lehenengo txandan, honako hauek partekatu ditugu: izena, nondik gatozen, lana/pasioa eta gutaz ez dakiten zerbait (aurkezpen formalak egiteko ohiko logika hautsiz).

Isabel Rauberrek aurreko egunean egin zuen esku-hartzearekin lotuz hasi du Jethrok bere gogoeta: boterea eskuratu daiteke jendartea aldatu gabe, egiturazko aldakuntza emantzipatzaileak eraginez. Jethrok azaldu du bere ibilbidearen zati bat nolatan egin zuen Erdialdeko Amerikan elkartasun eta kooperazioko erakundeekin lotuta, eta nola osatu zuen garapeneko ikasketetako maisutza. Gaur egun akademiara itzuli da, baina ikasiz eta antolakuntzetako eta beste era bateko erakundeetako prozesuetan laguntza emanez.

Boterearen gaia giltzarria da, eta talde honetan gehienak jabetuta daude botere-harremanak aztertzeke eta aldatzeko beharraz. Hala ere, ez da beti horrela izaten, eta gune askotan lehenengo betebeharra botere-harremanak analizatzearen garrantzia justifikatzea izaten da.

Bi egun hauetarako egitaraua eta prozesua aurkeztu zen, taldearen beraren gunea izateko helburuarekin. Boterea arazo bihurtzea izan zen lehenengo saioaren erdigunea, parte-hartzailea izan zen alde batekin, eta kontzeptuak, esparru teorikoak eta praktikak -akademiatik eta praktikatik datozenak- izan zituen beste alde batekin. Horrez gain, intereseko gaien arabera banatutako lantaldeetan ere aritu ginen. 2. saioan gehiago hitz egin genuen aldatzeko estrategiei eta ahalduz buruz, estrategia praktikoekin botere-harremanak nola alda ditzakegun zehazteaz. Talde-lana kontzeptuak eta esparruak aztertzeke guneekin konbinatuz ere egin genuen lan..

2. Boterea arazo bihurtzea

Zergatik analizatu behar da boterea?

Biltzarra antolatzean alde zuzenetik egindako gogoetan identifikatutako galderak aurkeztu dira, bizitzeko boterearen ingurukoak haietako asko, gure jendartean eta eguneroko bizitzan lidergo, hierarkia eta genero kontuak direnei buruzkoak:

- Zer botere irauli nahi dugu?
- Nola saihestu mugimendu eraldatzaileetan botere hori birsortzea?
Botere-harremanak modu hezigarrian landu al daitezke?

- Zer gako eskaintzen dute feminismoak edo botere-egiturak zalantzan jartzen dituzten beste mugimendu batzuek gure egiturak "askatzeko"?
- Nola bidera dezakegu parte-hartzea gure antolakuntzetan?
- Nola arautu daitezke gatazkak, nola egiten zaie aurre?
- Zer ekarpen egiten digute antolatzeko era berriek (gutxi egituratuak, gazteak, dinamikoagoak...) erabakiak hartzeari dagokionean?
- Nola errespetatzen ditugu antolakuntza guztien erritmoak sareetan lanean ari garenean?
- Nola ikusarazi botere-harremanak, gure eraldatzeko ahalmena baldintzatzen eta mugatzen duen botere ikusezina?
- Nola landu daiteke lidergo kolektiboa (boterea partekatzea)? Nola bideratu ahalduntzea (zerbaitetarako boterea, zerbaiten gaineko boterea...)?
- Nola txertatzen eta eratzen da desobediencia aldatzeko estrategia politiko bezala hezkuntza-prozesuetan?
- Lidergo formal eta informalen zer mapa eraiki daiteke?

Gobernuen eta jendarteen dinamikak eta prozesuak aztertzean dituen ikasketan, estrategikoa da estatuaren baitatik kontuak hobeto baliatzeko modua egitea eta mugimenduen baitatik eraginkortasun hobea izatea. Testuinguru horretan, interes ugari aurkitu ditugu, bai eta tresna eta ideia berriak ere: demokrazia parte-hartzailea, herritarren parte-hartzea...

Nahiz eta eragile askok gaur egun ahaleginak egin, proposatzen den parte-hartzeak beti ez dakar berekin erreala den parte-hartzerik; ahulguneak aurkitzen ditugu, eta politikak ez du aldaketa nahiko eta sakonik izan.

Hona hemen botereari buruzko gure gogoetei erantsi beharreko fokuratzeko-gai batzuk:

- Zein dira botereaz guk geuk izan ditugun bizi-esperientzia pertsonalak eta profesionalak?
- Zuzeneko esperientzia horiek zer eratarik eragiten diote boterea kontzeptualizatzeko dugun moduari?
- Zer da boterea? Zer da ahalduntzea? Zein dira boterearen kontzeptua erabiltzen dugunean atzean dauden jarrerak, balioak, arauak eta ikuspuntuak?

- Eskubideetan eta justizian oinarritutako ikuspuntutik, analisirako zer kontzeptu eta esparruk lagun diezagukete lankidetzeta eta aldakuntza sozialeko prozesuetan boterea hobeto ulertu eta analizatzen?
- Zeintzuk dira boterea analizatu ahal izateko aplikatu daitezkeen inplikazioak, praktikak eta metodoak?

Horretarako, dinamika bat proposatu da, hain zuzen, taldeko lagunei botere-dinamika nabarmeneko egoera bat bizi edo ikusi izan duten bizi-esperientzia batean pentsatzeko eskatu zaie, une jakin batez gogoratuta. Bikoteka lantzen da eginkizuna (2-3 min pertsonako). Beste lagunak kazetari sentsazionalistaren papera egiten du, eta, horregatik, izenburu edota marrazki onak lortu behar ditu, istorioa argitaratzeko arduraduna konbentzitzeko.

Bikoteka egindako lana bateratzea. "Erredakzioburua" iritsi da izenburuak eskatuz:


- Neskato espainiarrak jazarri dituzte kanaleko uharteetan.
- Aholkulari batek xakean irabazteko erabili du bere boterea.
- Barne-susmoek, salaketek eta betoek kolektibo sozialen arteko konfiantza oztopatu dute.
- Lisboako Diario de Noticias. Callate Cabrao, zuzendaritza-batzordeak GKEaren plataforma manipulatu du.
- Guillermok aitortu egin du: ezin dut sinetsi gertatzen ari dena. Kontratazio faltsuak administrazioan.
- Mediku bat ebolatzat hartu du bere kideak.
- Landako kazikismoa XXI. gizaldi bete-betean. Foru Aldundiko langileek legez kanpoko kontratazioak salatu dituzte.
- Espainiako belaunaldi berrien ekimenik eza.
- Botere-harremanak eztabaidan jartzeagatik isilarazia.
- 5. boterea agerian: zer esango du jendeak?
- Arazoaren sustraia, sustraian al zegoen?
- Emakume bati ez diote utzi bere proiektua aurkezten jendarte-aldakuntzarako talde batean.
- Bikote egonkorra, oximoron bat? Beldurra, boterea eta maitasuna krisi garaietan.
- Ikastetxeko zuzendaritzak eskuak lotu dizkie irakasleei.

- Diruak negozio izateari utzi dio, emateak saltzeak baino emaitza hobek dakartza.
- Irabazi-asmoak eta erakunde sozialak bateragarriak al dira? Nortasuna bikoiztea.
- Botereak bi aurpegi ditu.
- Ezkutuko botereak ikusaraztea.
- Indarkeria, zapalkuntza, iraultza, emantzipazioa; eraldatzea lor al daiteke herritarren parte-hartzetik abiatuta?
- Ekoizpen-sistematik kanpo egoteak kendu egiten dizu herritar izateko gaitasuna.
- Gizon antisistemak ere matxistak dira, eta emakume antisistemak ere bai.
- Irakasle bat zentsuratu dute ikasi nahi izateagatik.
- Manifa ikasgelan, hezkuntza matxista, autoritarioa, eraitsi... ez naiz ardia.
- Alaba buruargiak aurre egin dio aita autoritarioari.

Izenburu asko ditugu, bizitza oso aberatsa baita, izan ere, botere-harremanak analizatzen hasita. Boterearen adierazpen ugari, era askotakoak, aurki ditzakegu; boterearen adierazpen konplexuak, elkarren artean desberdinak direnak. Beti ez dago boterea denaren definizio finko bat, kontzeptu berbera erabiltzen baldin badugu ere.

Kontzeptu eta esparru teorikoak

Jarraian, gizarte-zientzietan zein erakundeetan erabilitako esparru eta kontzeptu batzuk izango ditugu hizpide, boterea analizatzea eta iraultzea helburu hartuta.



Taldean galdera egin diogu gure buruari: zer da boterea? Alboko txorien irudiko errealitatea analizatu nahiko bagenu, zer galdetu beharko genuke? Nola jokatzen dute? Nork jarri du makila eta nork eusten dio? Zergatik dago horrela jarrita? Nola igotzen da boterearen eskalan? Zer harreman dago mailen artean eta eskala berean? Azpikoek zergatik ez dute hegan alde egiten? Eta itzultzean, leku berera iristen al dira beti? Iristean beste nonbait jartzea nahiko balute, zer egingo lukete besteek? Makila horretara itzuliko lirateke? Zenbat eta beherago izan, orduan eta neke handiagoz egin dezakete hegan, zirin gehiago dutelako gainean. Pixa egiten digute, eta euria ari dela diogu. Behean egoteak ba al du abantailarik?

Baliteke leku berera itzultzea beste aukera batzuk daudela pentsatu gabe; baliteke goian daudenak beste leku batzuk daudela irudikatu gabe itzultzea. Gogoeta hori geureganatutako kontzientzia eta espektatibekin lotuta dago, ez batak bestea indarrez menderatzearekin bakarrik. Horrela ikusten dugu menderatze fisiko eta mehatxu den boterearen eta barneratutako kontzientzia-egoera den boterearen arteko desberdintasuna.

Teoria sozialean, boterea etengabeko eztabaidan eraikitzen ari den kontzeptu bezala ulertzen da, iritzi desberdin ugarirekin, bi lerrotan oinarrituta batik bat:

- Eragiletzaren (agency) adierazpen bezala ikusitako boterea, gehienbat eragileengan kokatzen dena: beren aukerak, boterea gauzatzeko moduak... Steven Lukesen arabera: *"boterea eragile baten edo batzuen gaitasunari dagokio, eta gaitasun hori erabil daiteke ala ez"*.
- Egituraren adierazpen bezala ikusten den boterea. Es trukturalaren ostekoa da ikuspuntu hori, Clarissa Haywardek -eta Foucaultek- *"eragile guztien ekintzak mugatu edo baimentzen dituen muga sozialen sare"* moduan definitua. Egiturak



ikusgarriak ala ikusezinak izan daitezke -adibidez, arraintzat oso zaila da itsasoa objektibo bihurtzea- eta ekintzak ez dira beti kontzienteak edo nahita egindakoak.

- Bourdieu bezalako egile batzuek bi ikuspuntuak batzen dituzte.

Berriz hartuko ditugun analisirako esparruak mugimendu feministek eta beste mugimendu sozial batzuek erabilitakoak dira batik bat, feminismoko eta zientzia politikoetako azterlanen baitako esperientzia eta eztabaidetatik datoz, eta aplikatu ahal izateko, forma herrikoietara egokitu ere egin izan dituzte.

3. Botere-adierazpenak

(Rowlands 1996; VeneKlasen eta Miller, 2002)

Boterea ia beti negatibotzat hartzen da, aldatu beharreko zerbait bezala, asimetrikoa, hierarkikoa; azken batean, zerbaiten gaineko botere bezala -power over-, menderatzeko erabilgai moduan ulertuta, eragiletzan eta egituran islatuta.

Baina badira hori baino positiboagoak diren botere-formak, aldakuntzak sortzen eta aukerak irekitzen dituztenak. Horien artean nabarmenduko ditugu zerbaitetarako boterea, partekatutako boterea eta barne-boterea.

Zerbaitetarako boterea -power to- zure bizitzako baldintzak zehazteko boterea da, erabakiak hartzerakoan parte hartzekoa, eragina izatekoa, beste batzuekin batera aritzekoa. Horrez gain, ikuspuntua gaitasunetan (Sen, Nussbaum), eragiletza sozialean eta egiteko gaitasunean jartzen du.

Partekatutako boterea -power with- elkartutako boterearekin, elkarlana eta solidaritatearekin lotuta dago. Askotan etengabeko eraikitze kolektiboko prozesuei dagokie, aldakuntza positiborako indar eta ekintza kolektiboa sortzeko prozesuei. Elkarrizketa prozesuak sortzea ere badakarte prozesu horiek, askotariko interesak eta itunak lotzeko zubiak eraikitzea.

Barneko boterea -power within- giza balioarekin lotutakoa da, autoestimua, duintasun eta autobalorazioarekin; giltzarria da ahalduzko prozesuetan. Bide ematen dio errealitatea alda daitekeela irudikatze gaitasunari eta itzaropenari. Hemen ere, abiapuntua desberdintasunak errespetatu eta aitortzean kokatzen da.

Botere horiek elkarren artean konektatuta daude, ez dago partekatutako botererik barneko botererik gabe, ez eta alderantziz ere; biak konektatuz lortzen

da zerbaitetarako boterea. Zenbait taldetan beste botere mota edo ñabardura bat sakontzeko lanean ari dira: proposatzeko boterea, zertarako boterea -power for-. Badira beste sailkapen-mota batzuk, psikologiatik, pedagogia kritikotik edo beste arlo batzuetatik abiatuta osatutakoak. Aldakuntzako prozesuek aurrera egin dezaten, giltzarri dira botere horiek.

Aurkeztutakoari buruzko gogoetan aritu gara taldean elkarrekin.
Zein dira botere horien inguruko beste kontzeptuak?

- Autoritatea, baldin eta zilegitasuna eta aitortza badu.
- Horizontaltasuna, beti behar al da partekatutako boterean? Nola sortu horizontaltasuna duen boterea mugimendu alternatiboetan?
- Kontrola.
- Botereak naturalizatzea, esaterako, egungo ekonomia "naturalizat" hartzea; "homo economicus" izenekoaren ideia neoliberalak islatzen da pertsonen eta egituren praktikan, eta oso sartuta dago politikan: gutxieneko aldaketak bakarrik ikusten dira, eta demokrazia aukeratze hutsera mugatuta dago.
- Helburuak lortu ahal izateko, botere ikusezinek emozioekin dituzten konexioak.
- Batzuetan baztertua ez izateko eta nonbaiteko partaide sentitzeko premiak indar handiagoa du desberdinak izateko premiaren kontzientziak baino.
- Barneko boterearen izena aldatu ahal izango genuke, eta botere sortzailea jarri, esparru horretako giltza irudimena delako.
- Gerta liteke barneko boterea zerbaiten gaineko botereak manipulatzeko -ekintzaitza, autoestimua eta ikuspegi liberalarekin lotuago dauden mezuak salduz-; gerta liteke partekatutako boterearekin loturarik ez duen barneko boterea egiturazkoagoa den aldakuntzaren analisirik gabe geratzea.

4. Boterea esparru publikoan, pribatuan eta intimoan

Edozein kultura eta jendartetan, esparru publikoak bere arauak, mugak eta aukerak ditu ekintzarako eta adierazteko. Genero-arloan nabaria da hori sarri askotan. Nork zer egin dezake esparru publikoan? Botereak agerian duen aurpegia da, eta eragina du gizon-emakumeen bizitzan -enplegua, lege-eskubideak, eta abar-.

Esparru pribatua familia, lagun, bikote, senar-emazte eta abarren artean dauden botere-harreman eta roleri buruzkoa da.

Esparru intimoa, aldiz, lotuta dago nork bere buruaz duen zentzuarekin, konfiantza pertsonalarekin, psikologiarekin, gorputzarekiko harremanarekin eta osasunarekin. Horrek ezinbesteko garrantzia du, eta horren arabera garatzen da boterea beste mailetan.

Elkarri lotuta daude hirurak. Gainera, boterea ez da estatikoa, edozein unetan alda daiteke, eta horretan espazioaren arabera dago guztia. Botere horiek balioesteko moduaren garrantzia eta espazioen arabera aldatzeko duten moduarena aurkeztu da.

5. Boterearen hiru aurpegiak

(Stephen Lukes; John Gaventa; Lisa VeneKlasen eta Valerie Miller)

Demokraziaren kalitateaz zientzia politikoen arloan izandako eztabaiden baitan sortu ziren kontzeptu horiek.

Ageriko boterea. Ageriko erabaki formaletan -espazio publikoetan, prozesu politikoetan- erabakiak hartzeko prozesuen baitako botereaz ari ziren, eta mugak zeuzkan baliabidetzat hartu zuten, irabazi edo galdu daitekeen zerbaitez bezala. Boterea ikusi egin daiteke, eta eragiten dituen gatazkak ere bai. Kontzeptu horretaz teorizatu zuena demokrazia liberaleko jendea izan zen. Ikasleek erabili zuten ikuspuntu hori Amerikako Estatu Batuetako jendartean demokrazia analizatzeko, eta adierazi zuten erabakiak hartzerakoan galtzen eta irabazten dutenak zein diren analizatzeak finkatzen duela boterea zeinen "eskuetan" dagoen.

Ezkutuko boterea. Beste batzuek kritikatu egin zuten ikuspuntu hori, izan ohi delako "eszenaren atzean" aritzen denik ere. Zenbait talderen interesak eta pribilegioak defendatzeko boterearen ezkutuko formei dagokio ezkutuko boterea. Hala nola honako hauek: bilera ofizialaren aurretik egindako bilera informala, parte-hartzea oztokatzen duten hesiak edota norke parte hartzen duen kontrolatzen dutenak, esparru publikoko funtsezko gaietatik baztertzea, erabilitako lanabesak, agenda, hizkuntza, baldintzak eta bestelakoak nola zehazten diren, eta abar. Gogoratu behar da, halaber, erabaki bat ez hartzea bera ere erabakia dela beti bere horretan. Latinoamerikan ezkutuko boterearen kontzeptu hori erabiltzen da legez kanpoko eragileez hitz egiteko ere -narkotrafikoa-. Botere horiek lan-esparru, GKE, komunitateko erakunde, eta abarretan ere ageri dira.

Botere ikusezina. Ideologia, arau eta balioei dagokien esparruaren baitan dago. Jendearen espektatibak eta kontzientzia eratzeko moduarekin lotuta dago. "Zapalkuntza barneratzeaz" edo ideologiak eta sozializazioak izandako eraginaz ari da. Prozesu horien bitartez, zapalkuntzak eta botere-harreman asimetrikoak naturalizatu egiten dira, eta aldaezin bihurtu. Horrek zirrara nabarmena eragiten du autoestimuan, duintasunean eta barneko boterearen zentzuan. Botere-mota horrek sozializatu eta barneratutako boterearen hegemoniaz hitz

egiten du, beti ikusi eta detektatu ezin daitekeen botereaz –baina nolana ere badagoenaz-. Eztabaida ugari izan ziren garai batean; Lukesek ikuspuntu intenzionala zuen boterearen inguruan, eta beste zenbaitek estruktural osteko ikuspuntuan sakontzea hobetsi zuen.

Adierazten den eztabaida baten arabera, egituran gora egiteko itxaropenak eta jendarte-mailetan igotzeko asmoak mantentzen du egitura bera, eta hezkuntzak horretan duen eraginak. "Nahi baduzu, lor dezakezu" erako arrakastaren ideiak funtsezko mezuak dira egun, ikuspuntua beste faktore politiko eta sozialetatik bereizita dagoen banakako erantzukizunean jarrita. Gainera, "nahi baduzu, lor dezakezu" ez ezik, orain "igotzeko nahia izan behar duzu".

6. Boterearen espazioak

Boterearen hiru aurpegiekin ari gara lanean –ageriko, ezkutuko eta ikusezi-narekin-, bai eta eragileak elkarrekin aritzen diren espazioen kontzeptuarekin ere. Espazioak fisikoak eta formalak izan daitezke –bilerak, legezko egiturak-, baina eragileek elkarrekin harremanak dituzten uneak, aukerak edo prozesuak ere badira.

Kontua da espazioak ez direla neutralak, euren berezko dinamikak dauzkatela, eta boterearen forma eta harremanak dituztela ezaugarri. Botereak erabakitzen ditu espazioen arteko mugak –nor sar daitekeen, nola portatu behar duen, barruan zer murrizketa eta aukera dauden-, baina irauli ere egin daiteke, forma berriak asmatuz. Botere-harremanak aldatzea muga horiek aldatzea ere bada, espazioen ikuspuntuak eta arauak aldatzea –ez eragileak soilik-, alegia.


Lehen jorratu ditugun espazio publiko, pribatu eta intimoaz gain, John Gaventak beste hiru espazio mota aurkeztu ditu:

- Itxiak. Kargu, erantzukizun edo rolagatik sartzeko eskubidea baimentzen duten espazio formalak. Ordezkaritzaz edota eskuordetzaz aukeratutako pertsonak bakarrik dute espazio horietan eragiteko ahala, eta parte-hartze publikoa urria edo baliogabea da. Arlo publiko-politikoan ez ezik, badira erakunde –zuzendaritza batzordea, nagusiak- eta mugimenduetan ere. Berez ez dira *txarrak*; badirela adierazi beharra dugu, eta euren botere-izaera dutela.
- Gonbidatuak. Gonbidapenez kontsultatu eta parte hartzeko espazioak. Udal gobernuek abiatutako esperientzia da, esaterako, herritarrak kontsultatu nahi dituenean; *bai, baina ez da gure espazioa*. Eraginkorrak edo manipulatuak izan daitezke.

- Autonomoak/Sortuak. Beste bi espazioetatik bereizi dituztela sentitzen duten pertsonak sortu edo eskatutako espazioak dira. Mugimenduenak, komunitateenak, baztertutako taldeei dagozkienak dira, antolakuntza soilak diren batzuk, eta era autonomoan eragileek eurek sortutako plataformak ere bai.

Espazio publiko, pribatu eta intimoetan bezalaxe, boterearekiko esperientzia eta sentitzeko modua oso desberdina da espazio batetik bestera -gure ekintza, konfiantza eta abarrerako aukerak-. Oro har, ez gara eroso sentitzen "geureak" ez ditugun espazioetan, geure lekutzat ez ditugunetan.

John Gaventak Erresuma Batuko Garapeneko ikasketen Institutuan zuzendutako Parte-hartzea, Boterea eta Aldakuntzaren inguruko ikerketa-talde batek Boterearen kubo garatu du.



Lanabes horren bitartez, botere-moten arteko harremanak eta espazioak analizatzen dira, eta maila guztiak erantzen ditu -globala, nazionala eta tokikoa-. Botere agerikoek, ezkutukoek eta ikusezinek espazio eta maila guztietan nola jokatzen duten ikusi beharko genuke.

Laburbilduz, botere-formen bi esparru teoriko ikusi ditugu: boterearen adierazpenak eta boterearen hiru aldeak. Bai eta esparruak -publikoa, pribatua eta intimoa- eta espazioak ere -itxiak, gonbidatuak eta autonomoak-. Gainera, beste ikuspuntu batzuk aurkitu ditugu, eta zehaztasun handiagoa esperientzia guztietan, testuinguru desberdinetara egokituz eta askotariko estrategiak zehaztuz.

Boterea espektro moduan kontzeptualizatzen ahalegindu gara. Alde batetik, eragileak eta prozesuak dauzkagu -euren botere-mota eta inplikazioekin-, eta beste alde batetik, elkarren artean konektatutako arauak eta sinesmenak. Horren harira, askotan boterea analizatzea eragile eta interesetan zentratzen da, botere ikusezinarekin -baita ezkutukoarekin ere- lotuta dauden arauak, sinesmenak eta egiturak aintzakotzat hartu gabe edo haiei nola heldu jakin gabe. Icebergaren metaforarekin konparatuz, botere-harremanak eta euren inplikazioak eragile eta prozesuekin lotuta agerian dagoen erpina osatuko lukete, baina arau eta sinesmenekin lotutako botereek osatuko lukete handiena den ezkutuko zatia, aldakuntza sozialerako giltzarri dena.

Talde txikiagoetan sakontzen jarraitzeko, pertsona guztientzako interesgarriak diren gaiak zehaztu ditugu, interes komunetan oinarrituta talde batzuk sortzeko moduan. Ez da komeni 7 talde baino gehiago izatea, eta talde bakoitza gutxienez 3 lagunekoa. Era kolektiboan, taldeak zehaztu ditugu jarraian, honako gai hauekin:

1. Boterea antolakuntza eta mugimenduetan: ezkutuko boterea eta beste
2. Zerbaitetarako boterea -ikuspunktu hezitzailetik-
3. Komunitateak sortzea
4. Barneko boterea eta partekatutako boterearen arteko harremana
5. Boterea eta generoen arteko harremanak

Taldeka sakon landu dira gai horiek. Bateratzea egiten da gero, hurrengo eguneko taldekako lanarekin batera.

7. Aldatzeko eta ahalduntzeko estrategiak

Botere-harremanak eraldatzeko estrategiak lantzeko proposamena ahalduntzearen kontzeptuan pixka bat gehiago sakontzea zen.

“Okerren erabiltzen diren hitzetako bat da, garapenaren lexiko osoan definizio zehatzik gabekoa, pertsona desberdinentzako esanahi desberdina duena, edo are arriskutsuagoa, pertsona guztientzat gutzia esan nahi duena”. (Batliwala, 1994:1).

Egile horiek erakusten dute ahalduntze liberala nor bere interes propioak asetzeko emaitzak lortzearen baliabideak bilatu eta eskuratzeko prozesua dela. Banakako ahalduntze hori lortzeko, nahikoa izango litzateke aldaketa ekonomikoak, lege-arlokoak eta pertsonalak egitea, eta ez da behar kolektibo politikoak antolatzerik. Liberalak esan nahi du merkataritza askeko eremu mugatu batean aukera eta eskubideen ekitatea izatea, banakako askatasunak erantzukizun kolektiboak baino hobeto bideratuz.

Ahalduntze liberalak ez du ardurarik bere gain hartzen botere- eta genero-harremanak eraldatzeko, baizik eta emakumeak merkaturako prestatzeko eta haiek kontsumitzaile eta ekoizle gisa errekrutatzeko. Esparru horretan boterea entregatu edo eman daitekeen zerbait bihurtzen da, gizonezkoek gehiegi duten zerbait eta emakumeek gutxiegi dutena.

Ikuspuntu hori azkenaldiko autolaguntza-liburuen bolada horrekin guztiarekin lotuta dago, banakako zoriona bilatzearekin, kontsumoarekin, autolaguntza indibidualistaren industriarekin. Enpresa-munduan ere sarritan aurki daiteke.

Ahalduntze askatzaileak, aldiz, mugimendu sozialek helburutzat duten ahalduntze-kontzeptuaren eragin handiagoa du. Status quo-ari -egiturak, arauak eta balio zapaltzaile hegemonikoak- erronka jotzeko jende taldeak antolatzen direnean, hor gertatzen den botere materialaren eta pertsonalaren hazkundera azpimarratzen du.

Ikuspuntua gehiago datza aukeraketa estrategikoan taktikoan baino. Ahalduntzea ez da garapenaren helburuak betetzeko baliabide bat, bere horretan helburu dena baizik; prozesua da, eta "euren bizitzari buruzko erabaki estrategikoak hartzeko ahalmena ukatu zaiela ikusi duten horiek ahalmen hori irabazi egiten dute" (Kabeer 1999).

Naila Kabeer kritikoa da hautatzearen kontuarekin. Egile horrek adierazitakoaren arabera, erabakiak hartzeko edozein unetan, are gehiago botere-egiturekin lotuta dauden une estrategikoetan, kostuak edota galerak izaten dira, eta ondorioak negatiboak izan daitezke -indarkeria emakumeen aurka-. Zenbaitetan kolektiboek ez esku hartzea hautatzen dute botereak aldatzeko ahaldundutako kolektibo bezala, handiago izan daitezkeelako aldakuntzarako arriskua eta kostuak eskuratutako onurak baino. Oraingo egoeran, gutxienez badute zerbait; herri hizkeran esan ohi den legez, hobe txepetxa eskuan, arranoa hegan baino. Bere definizioan azpimarratu zuenez, ekintza, kontzientzia eta iruditeria kolektiboa oso garrantzitsuak dira baldintzak aldatzeko, hautaketak mugatzen eta kostuak erakusten dizkigutelako. Estrategikoa da erabakien ondorioak eta kostuak definitzen dituzten baldintzak aldatzea.

Landutako gai eta kontzeptuei buruzko zalantzak argitu eta gogoetak partekatu ditugu taldean.

Partekatutako boterea eta barneko boterearen arteko harremanen taldean eztabaida sortu zen; batzuetan botere kolektiboaren alde banakako boterea gutxitzeak eragiten dituen kontraesanak ez ikusteaz eta horrelakoetan ikuspuntuak duen garrantziaz hitz egiterakoan, bata zein bestea ez ziren hartzen ez kontraesan bezala, ez eta galera bezala ere, baizik eta aldakuntza kolektibo baterako banakako lorpen bezala. Hori guztia, aldakuntzetan eta norbere autonomian oinarritutako erantzukizun kolektiboa azpimarratuta. Hari berean, garrantzitsua da identitate eta partaidetza kolektiboa gauzatzea ere.

Bestalde, iritzi kritiko moduan aipa daiteke, GGKEetan askotan ahalduntzeaz hitz egiten dugula oso eraldatzaileak ez diren prozesuetan ere, batzuetan prozesu endogenoaz ahaztuz, "halako edo horrelako ahaldunduko dugu" pentsatuz; hori akatsa da berez. Ideia hori baldintzez ari da, eta esku-hartzeek baldintzak aldatzen lagun dezakete, baina ez ahalduntzea lortzen.

Lankidetzako testuinguru horretan, ahalduntze integralaren eta askatzailearen garrantzia nabarmendu behar da, indibidualista eta liberalagoak diren ikuspuntuak agerraraziz. Bai eta aukera bezala irudimena izateko eskubidea ere.

Ahalduntze liberalak dagoeneko badauden eskemei erantzuten die, eta askatzaileak, aldiz, egiturazko eraldatze handiagoa eskatzen du. Egitura eta baldintzei ekiteko ideia ez da, izan ere, oso kontzeptu liberala. Kabeerren iritzi, egiturak aldatzeko prozesuan, zer eginkizun du norbereaz gaindiko prozesu kolektiboak izateak? Ahalduntze kolektiboaren garrantzia erakusten du Kabeerrek; hor dago gakoa, kostuak eta mehatxuak ezabatuta.

Ahalduntze liberala eta askatzailearen artean, herritarren ahalduntzean zer leku emango zenieke estatuko erakundeei? Baldintzak sortu eta mantentzen dituen estatu bat eskatzen du horrek, baina ez guztia berak egingo duen ikuspegitik, baizik eta herritarrak ukitzen dituzten ekintza estrategikoetan eragina izateko ikuspegitik. Gainera, estatuak laguntza ematen du baldintzak ziurtatzeko lanean. Horren harira, adibide bezala jartzen da makro mailakoa ez den estatu bat: mikroa den Estatu zapatista; premia kolektiboetan oinarrituz, Estatu alternatiboa sortuz eratutakoa.

Ahalduntze askatzailea Garapenerako hezkuntzaren kontzeptura nola aplikatu planteatu da. Dinamika globaletan, hezkuntzan eta biltzar honetan bertan, garapenaren kontzeptua bera auzitan nola dagoen aztertzeraz bideratutako gogoeta da. Gogoetan aurrera egitea beharrezkoa da, eta kontzeptu eraldatzaileen alde apustu egin eta dinamika globalak aintzakotzat hartzea.

"Ahalduntzea gertatzen da antolatutako pertsonak eta taldeak gai direnean euren mundua beste era batera irudikatzeke, eta, euren pobrezia [eta bazterketa] mantentzen dituzten botere-harremanak aldatuz, irudikatze hori gauzatu ahal dutenean". (Eyben, Cornwall eta Kabeer 2008:6).

Aldatzeko eta ahalduntzeko estrategiak lantzeko oso analisi esparru interesgarria da Botere matrizea -Power matrix- (VenaKlasen eta Millerrengandik egokitua, *Just Associates*, 2002).

"Zerbaiten gaineko boterearen" formak	Aldatzeko eta ahalduentzeko estrategiak
Ageriko boterea: arauak ikastea eta erabiltzea; irabazleak eta galtzaileak	Helburuak lortzeko modua egitea, eragina, negoziazioa, ordezkaritza; prozesu politiko formalak
Ezkutuko boterea: interesak eta agenda mugiaraztea, eszenaren atzean	Antolakuntza komunitarioa, jendarteko eta antolakuntzako mobilizazioa, ikerketa-ekintza, komunikazioa
Botere ikusezina: arauak, sinesmenak eta arrazoibideak -barneratuak- berrekoiztea	Hezkuntza kritiko-herrikoia, norbere balioa indartzea, duintasuna, irudikatze gaitasuna

Alde batetik, boterearen analisia legoke, eta beste alde batetik, botere-harreman horiek iraultzeko erabil litezkeen estrategiak definitzeko modua. Botere eta estrategiekin ideia-zaparrada adibide bat proposatu da. Aipatutako egileek ere lotura-geziak txertatzen dituzte koadranteen artean.

Joan den eguneko taldeetan bildu gara, honako puntu hauek jorratzen jarraitzeko:

- Noranzko gisa hartu ditugun elementuak: aldakuntza irudikatzea.
- Botere-harremanen aldakuntzako prozesua irudikatze alternatibo horretarantz.
- Aurkezpen laburra osatu, ideiarik nagusienak era dinamiko edota artistikoan.

Taldeetan egindakoa bateratzea

Tailerrak iraun duen bi egunetan zehar elkarrekin lan egin duten bost taldeen gogoetak eta proposamenak partekatu ditugu jarraian; aurrenekoz, lehentasuna eman zieten botere-harremanen ezaugarriak aztertuz, eta gero egiteko moduko irudikatze alternatiboetarantz aldatzeko prozesuak eta estrategiak proposatuz.

1. Taldea: Ezkutuko boterea antolakuntza eta mugimenduetan

Bide bat proposatu digute iruditeria eta ametsetatik abiatuta, ezkutuko botereak aztertze igaroz, eta desio dugun mundurantz bidean jarraituz.

Ezkutuko botereei dagokienean, ezkutuko botereak hartzen dituen formen gaia landu dugu, eta bururatu zaizkigun ezkutuko botereen kopuruaz kontzientzia

hartzen lagundu digu. Ezkutuko boterea detektatzeko forma eta adierazle batzuk proposatu ditugu hemen:

- Zeharkakotasun despolitizatua
- Politikoa alderdikoiarekin nahastea
- Denborak eta lehentasunak finkatzea; "garrantzitsua den arren, orain ez dago horretarako denborarik"
- Argitasungabezia antolakuntzan: zer gara eta gure apustuak
- Nork hartzen du parte eta nola
- Arazo kolektiboak arlo pribatura eramatea edo arlo pertsonala eta emozionala kolektiboarekin lotuta ez dagoela pentsatzea
- Gure kolektiboetan botere hierarkikoa



Aldakuntzan beldurrak, zalantzak eta gatazkarekiko ikara -emozioekin duen harremanagatik hemen ere- ikusi ditugu. Sakontasuna falta zaigu arrazoibidean. Zailtasunen artean daude antolakuntza mito moduan eta pertsona eta emoziorik gabeko izate bezala irudikatzea ere.

Horiez gain, estrategia bezala nabarmendu dira arlo kolektibo eta pertsonalaren arteko oreka, zainketen garrantzia, hausnarketa, eta gogoeta, eztabaida eta aktibismoaren arteko oreka.

Amesten dugun munduan denboren garrantzia nabarmendu dugu -motel goaz, urrutira goazelako-, malgutasuna, geure buruari huts egiten utziz, aurrera eginez, bai eta atzera ere. Paper gutxiago eta harreman gehiago, bideragarritasunerako orekak nolako garrantzia duen jakinaren gainean. Amets egitearen garrantzia, gozatzearena. Egiaztatzea politikoa dela norbere arloan koherentzia izatearen garrantziaren maila. Pertsonak sartzeko eta irteteko prozesuetan laguntzearen garrantzia, gatazkari bere balioa emanaz,

are taldeak hiltzen utziz -naturako zikloekin lotuta- "zertarako" bat ez dagoen unean. Horizontaltasuna ere bai, benetakoa.

Urratsetan, azpimarratu atzera egiteak, gelditzeak duen garrantziak. Ezkutuko botereak hausteko estrategien baitan, ahalduntze kolektiboaz hitz egin dugu, eta horretarako elkartu egin behar da, pertsona eta espazio guztien artean elkarrekin konektatzea baimendu eta elkar trukeko prozesuak bideratu. Bidean datza parte-hartzearen garrantzia, parte hartzeko prozesuena eta aipatutako erabakiak hartzearena. Zainketez ere aritu ginen, nola sentitzen ginen azalduz, adimen emozionala berriro gureganatuz; ezkutuko boterearen egiturak hausten lagun dezaketela iruditzen zaigu. Gure praktiken eta erakundeen arazoibidearen artean koherentzia izatea beharrezkoa dela -gai estrategikoei eskaintzen diegun denbora neurtu, geure buruari funtsezko gai eraldatzaileetarako denbora emanez- ikusarazteaz hitz egin dugu. Elkarrekin arduratsuagoak izateko ikuspegia ematen diguten erakunde, bilera eta abarretan rola aldatzeko aukera geure buruari planteatzea. Adimen emozionala da gairik oinarritzakoa, gatazka geure egitea, ez dadila esparru pribatuan gelditu, tabuei ekin eta pertsonen beharrak azter daitezela. Hutsik dauden espazioak askatasunerako, frogatzeko eta huts egiteko eskubidearen espazioak dira.

Beste talde batean adierazi da ezkutuko boterea era bateko itxura eman eta beste era batekoak diren pertsonena ere izan daitekeela. Min ematen dute. Eskuineko edo ezkerreko liderrak antzekoak izan zitezkeen. Hain nabariak diren manipulazioko rol horiek antolakuntzako prozesuak leherrarazi ditzaketen aztertu. Erakundeetan jakiten da zeintzuk diren, eta, ausartak izanik, gaiari heltzeko mekanismoak zehaztu behar dira. Beste pertsona batzuek joan egiten dira, eta ezkutuko botere horiei ez baldin bazaie era kolektiboan aurre egiten, erakundearentzat arriskutsua izan daiteke.

2. Taldea: Botere-harremanak hezkuntza-munduan

Hezkuntza-esparruak definitu eta aztertuz hasi gara:

- Hezkuntza informala: hau ez dugu deskribatu, kalea eta abar, dena barruan hartuko zuelakoan, guztiak duelako eragina hezkuntzan. Komunikabideen eta pertsonen arteko harremanen boterea nabarmendu da.
- Hezkuntza formala: Taldeko irakasle baten esperientziatik abiatuta hitz egin da. Irakasleak erdian kokatu ditugu, eta zerk eragiten dien aztertu dugu. Irakasleen bitartez, legeak egiten dituen administrazioaren eragina nabarmendu dugu, ministerioa, hezkuntza-curriculum... ikuskariek eta

ikastetxeak berak ere kontrolatzen ditu irakasleak. Hori guztia diziplina gaiarekin lotuta. Eragina izan eta boterea erabiltzen duten beste erakunde batzuk enpresak, Guraso Elkarteak, Eliza eta abar dira. Baita irakasleen eta ikasleen arteko harremanak ere, azterketetan ebaluatzen den informazio trukearen bitartez.

- Hezkuntza ez-formala: "Garrantzi txikiagoko" gai bezala hartu da, baina askoz ere askotariko ezaugarri dituena. Zaila zen egitura itxiagoa adieraztea. Gure bizipenei buruz hitz egin dugu, eta aldatu egiten dira ibiltzen garen esparruaren arabera. Batzuetan, botere eta eragin desberdinak gauzatzen dituzte: nazioarteko konbentzioak, nazioko araudia, finantzaketa... horrek guztiak du eragina koordinakundeetan eta beste espazio globalagoetan, eta hortik erakundeetan beraietan. Erakunde horiek zuzendaritzaren, kontseiluaren, hezkuntza-taldearen eta abarren eragina jasotzen dute, eta horrek guztiak ikasleari eragiten dio. Era kolektiboan eraikitzen ez diren barne arau ugari daude. Txostenak, egunerokoa eta beste lanabes batzuen bitartez koordinatzaileen eta hezitzaileen artean kontrolatzeko formez hitz egin da.

Ikuspegi horren aurrean, ideal bat irudikatzen hasi gara, urrats zehatzak nahi izan ditugu, baina lortzeko helburu gehiago atera zaizkigu:

- Ikasleak erdigunean kokatu eta euren beharrei erantzun, hezkuntza-prozesuaren protagonista izan daitezen.
- Beste metodo mota batzuekin haiek hezi edo prestatu, finkatutakotik haratago eginkizunak osatzeko beste forma batzuk aztertu, zalantzan jartzeko balio duten erremintak berraztertuz.
- Hezkuntza-taldea ahalduntzea, multzoa egiteko, kohesioduna izan dadin eta beste egitura batzuetan eragina izan dezan: zuzendaritzak, erakundeak...
- Elkarbizitzako arauak kolektiboki erakitzea, ikasleen eta hezkuntza-taldearen parte-hartzearekin.
- Erakundeen egiturak aldatzea lankidetzako metodologietarantz eta egitura horizontalagoetarantz.
- Autofinantzaketa balioestea -gaiari buruzko zalantzekin ere bai-, kanpoko presioak ekiditeko modu bezala.



- Ikasleengan daukagun boterea nola erabiltzen dugun pentsatuz, metodologiak aldatzea proposatu dugu, prozesuan txertatuago dauden ebaluazioak eginez.
- Hezkuntza-legea eta ministerioaren gaiarekin, pedagogia alternatiboak aitortzearen garrantzia azpimarratzea.
- Curriculum alternatiboa osatzea, pertsonen ikuspegi integralarekin eta premia emozionalak eta beste hainbat motatakoak aintzat hartuta.

Horretarantz nola jo aztertu ahal izateko, urrats batzuk proposatu ditugu, estrategia zehatzagoak:

- Hezkuntza-komunitate moduan antolatzea -ikasleak, irakasleak, Guraso Elkarrekin-, taldea osatzea, zaila izan arren, ikasleak protagonista izateari lehentasuna emanaz.
- Adostasuna lortzea garrantzitsua da, zaila dela jakinda ere; ibiltzen hasteko gutxieneko batzuk modu kolektiboan definitu behintzat.
- Munduan zehar dauden pedagogia alternatiboen praktika onak mapan kokatu. Ezagutu formak eta esperientziak, lege-araudien muga nola gainditu den, haien ibilbide historikoa eta testuinguruetara egokitzea.
- Tokikora itzulita, gure burua prestatzearen garrantzia: norberak ikastea, emozioak kudeatzea, eduki konkretuen ingurukoak ikastea... Etengabe eztabaidak eginez, gogoeta eginez eta prestatuz jarraitzea.
- Garrantzia ematea, hezkuntza-arloari ez ezik, beste arlo batzuei ere; esate baterako, arau-mailan. Legegintza-arloa eta beste arlo batzuk landuko dituzten taldeak izatea: sortzaileak...

Maila desberdinak aurkitu ditugu: helburuak, bitartekoak eta ekintzarako aukerak.

Honako gogoeta hauek egin dituzte beste taldeek:

Garapenerako Hezkuntzako talde bat sortu dute Gipuzkoan mugimendu sozial, GGKE eta unibertsitatearen artean, hobeto lan egiteko helburuarekin, kalitate eta eragin hobearekin; horretarako, koordinatzen ari dira eta bateratuta jokatzeko asmoa dute. Testuinguru horretan irakasleek, unibertsitateak eta abarrek hainbeste botere-esparru zenbatu dituzte, non administrazioko langileek beraiek ere ez baitzekiten garbi aldatzeko estrategia nola planteatu.

Hori dela eta, hasiera bateko estrategia bezala, funtsezkoak diren pertsonak identifikatzen hasi gara.

Testuinguru horretan oso argi detektatu dugu egiturako botere ageriko bat, baina badago beste ezkutuko botere bat ere, ostenduta dauden beste balio eta botere batzuk, aurre egin ahal izateko detektatu behar ditugunak. Nolanahi ere, horretarako aldatzeko kontzientzia duen hezkuntza-komunitatea izan behar dugu -gogoeta, alternatibak... eragiten dituena-. Unibertsitatean hori ez dela egiten adierazi da, eta beharbada gaur egun ez dela horretarako espazio egokia. Unibertsitatearen eta gaur egun dauden botereen adibide kritiko bezala, jakinarazi da EHUko Gizarte-Kontseiluan kide bakarra dagoela irakasleak ordezkatuz eta beste bat ikasleak ordezkatuz, eta enpresa ordezkatzen duten zenbait daudela..

3. Taldea: Komunitateak sortzea

Taldeak adierazi digu ez dela antolatu guri egindakoa kontatzeko, baizik eta ikusi eta senti dezagun. Horretarako, Bongo Botracoren "Dale a la vida" kantua jarri dute, eta euren proposamenak ikustera animatu gaituzte.

Lehenengo irudi honen inguruan, adierazi dute hor dagoenetik asko beste taldeetan ere agertu dela jadanik. Sentitzea agertzen da asko, eta horrekin batera, pentsatzea, bizia erdigunean kokatzea, komunitatea osatzea, elkarri entzutea, elkarri baimena ematea ere bai. Nabarmentzekoa da, gainera, ahaltsuak garela, jadanik iraultzaile den praktika bezala.

Desio dugun munduan (2. irudian), kanpoan agertzen dira honelakoak dauzkaten botereak: Estatuko Aldizkari Ofiziala (EAO), Legebiltzarra... ikusi dugu nola botere horiek kanpotik presio egiten ari diren -akademia, telebista, ekonomia-. Eta erdigunean pertsonak daude, gorputzen eta gizakien aniztasunetik abiatuta



eraikitzen, naturarekin batera, zainketak, ekonomia soziala eta feminista, naturarekin berriz bat egitea, ospakizuna, indar iraultzailea (beldurragatik edo, beste norbaiten esku uzteko sinesmenaren aurkako estrategia alternatibo moduan "egin daiteke" sinestearen aldaketa-indarra), lurrak eta espazio publikoak berreskuratzea, gure auzoak, dantza egitea, elkarren artean nahastea...

Deigarria gertatu da taldean komunitatea ez dela leku bat, bizitzaren zatitxo bat, baizik eta konplexua dela, dimentsio askorekin, bizi osoaren zatia dela, "etxe-bilduma" moduko bat izatearen ikuspegi instrumental eta murriztuaren aurka. Partekatutako boterearekin, barneko boterearekin eta bien arteko konexioarekin lotuta dago. Barneko botere horretatik abiatzen da, baina partekatutako boterearekin lotzen da ezinbestean komunitatean lan egiteko, eta zerbaitetarako boterearekin, aldaketarako.

Sentimenduen garrantziaz ere hitz egin dugu, partekatzeaz, elkarren artean trukatzearaz, espazio sozialei ekitea beharbada, nola gauden jakinez, nola sentitzen garen, gure abiapuntuak ezagutzeko. Emozioak hortxe daudela aitortuz, eta oso ona dela hori.

4. Taldea: Barneko boterearen eta partekatutako boterearen arteko harremana


Barneko boterea eta partekatutako boterea analizatzean, bi botere horiek konbinatzeko moduari eta euren arteko konexioari buruzko gogoeta bat egin zen. Begirada kritikoarekin nola identifikatu bilatzea da kontua, eta horretarako tradizionalak ez diren beste espazio batzuetan parte hartu behar duzu. Barneko boterean beldurra sortzen diguten eragile asko daude, anestesiatu egiten gaituzte -zenbait eskubideren alde borrokarik egin behar ez izategatik, berdintasunaren ameskeria- eta hezkuntzak eta inguruak arrazoibide hori berrekoizten dute. Hori guztia sistema betikotzeko hezten gaituen hezkuntza tradizionalari lotuta dago, eta hortik dator desberdina izateari diogun beldurra.

Merkatuaren eragina ere nabarmendu dute, norbere errealizazioaren balioak, harremanen bidez sortu beharrean, kontsumoaren bitartez sortuz.

Talde honek Jorge Bucayren "*Recuentos para Demián*" liburuko "El elefante encadenado" ipuina hartu du. Bertan, elefante batek uko egin dio zirkutik ihes egiteari, horretarako indarra izan arren, bizitza osoa harixe lotuta pasa duelako; hori erabili dute botere ikusezina barneratzearen eta hura naturalizatzearen adibide moduan. Hona hemen laburpen bat:

"Emanaldian zehar piztia izugarriak bere pisu, neurri eta indar ikaragarria erakusten zuen... baina bere ekitaldiaren ostean, agertokira itzuli baino tarte bat lehenago arte, elefantea kate soil batez hanka bat lurlean iltzatutako hesola txiki batera lotuta gelditzen zen. Hala ere, lurlean behera zentimetro gutxi batzuk sartutako egur zati txiki bat baino ez zen hesola hura. Eta, katea lodia eta gogorra baldin bazen ere, nabarmena iruditu zitzaidan bere indar hutsez zuhaitz bat sustrai eta guzti atera zezakeen animalia batek erraz atera zezakeela hesola, eta ihes egin. Misterioa agerikoa da: Zerk eusten zion orduan? Zergatik ez du ihes egiten?". (Jorge Bucayren "El elefante encadenado", "Recuentos para Demián" liburuan).

Taldearekin partekatutako boterean, zeure burua ez baliogabetzea nabarmendu da, eta erakundeetan bertan gerta daitezkeen asimetriak. Bestalde, modu kolektiboan elkarri lagunduz elkar ez dugula zaintzen ere aipatu genuen. Nork bere burua zaintzetik hasita. Ezin da kontu bat bestetik bereizi.



Barneko boterea eta partekatutako boterea indartzeko norbere esperientziak nolakoak izan diren zerrendatzerakoan, esperientzia guztietan bi botereak elkarri lotuta zihoazen, eta kontzientziazetik abiatzen ziren guztiak.

Munduaren edo noranzko jakineko prozesuaren marrazkian, bide bat egin dugu, prozesua, bidea, bereziki nabarmenduta. Ahalduntzea gehiago da

bukatu gabe eraikitzen jarraitzen duen prozesua, helburua bera baino. Bizia zaintzea -natura- izango litzateke bukaera. Bidean zehar, hitz-giltzarri guztiak atera ditugu, betiere bi alderdi horiek -norbere boterea eta partekatutako boterea- elikatuz, ahalduz askatzaile bat helburu hartuta. Elementu estrategiko bezala aurkezten ditugu: guztion erantzukizuna, adimen emozionala -banakakoa eta kolektiboa-, horizontaltasuna erakundeetan, gure harremanak berraztertu eta aldatzea, errealitatea interpretatzeko jarrera kritikoa mantentzea, espazioak -emozioei arreta eskaini eta askatzaileak direnak- zaintzea, enpatia sustatzea -eragiten digula jakinik eta beste batzuekin identifikatuz jokatzeari-, espezializazioarekin bakarrik lotu gabeko ebaluazio kolektiboa eta herrikoia ere berriz abiaraztea. Azpimarratu behar da bidea ez dela laua, une desberdinak dituela.

El grupo termina su exposición poniendo la canción "Todo cambia" de Mercedes Sosa, para reflexionar sobre la naturalización de las opresiones y la posibilidad de cambio social.

Mercedes Sosaren "Todo cambia" kantua jarriaz bukatu du taldeak azalpena, zapalkuntzen naturalizazioaz eta aldakuntza sozialerako aukeraz gogoeta egiteko.



Jethrok hartu du hitza, eta adierazi du enpatia banakako prozesuekin eta prozesu kolektiboekin oso lotuta dagoela. Erreflexibitatea aztertzen dutenek diotenez, metodo askoren bitartez -sormenezkoak, gorputzezkoak- nor bere

burua beste norbait bezala ikusten saiatzeko aukera ematen duen prozesua da, nork bere burua hobeto aditu eta ulertu ahal izateko. Hori dela eta, antzerkia, margolaritza eta idaztea bezalako narrazio prozesu sortzaileek lagun diezazukete zuk zeure burua ikusten. Prozesu banakakoak edo kolektiboak izan daitezke, zeure burua beste norbaitengan ikusteko ere bai. Erabat lotuta daude. Praktika erreflexibo horren ideia batzuk partekatu ditu Jethrok (ikus koadroa).

Praktika erreflexiboa

Erreflexibitatea = pentsamendu eta ekintza prozesuetan nork bere burua hautemateko gaitasuna, aldez aurreko jarrera eta baldintza sozialak identifikatuz, bai eta horiek bere esku-hartze eta ekintzetan -banaka nahiz taldean- nolako eragina duten ere. Ikasketa-prozesuak, erreflexio-ekintza eta aldakuntza kulturalekoak erakunde eta mugimenduetan.

Auto-ezagutzako metodo eta diziplinak, identitatea, boterea eta jarrerari, testuinguruarekiko eta pertsona eta taldeen arteko desberdintasunekiko egokitzeari buruzko erreflexiokoak. Ikertzaileek eta kanpoko eragileek analisiko subjektu moduan txertatzen dituzten ikerketa eta ekintzako metodoak.

Sormen praktika irudimenezko, narraziozko, gorputzezko eta espiritualetan oinarritutako erreflexibitateko diziplinak. Ezagutza eta adierazpen artistikoko formak, istorioak kontatzea, antzerkia edo meditazioa bezalako idazketa sortzailea.

5. Taldea. Genero-botereak eta harremanak

Hizkera arrazionaletik ihes eginez, gorputzetik eta bizitaketik gehiago abiatzen den irudikapena, eta guztiok partekatzen ditugun beste hizkuntza batzuk erabiltzea.

Eszenaren lehenengo zatia icebergaren metaforarekin lotuta zegoen; zati bat goian izan arren, azpian beste zati osoa zegoen, taldeko beste hiru kideekin, ezkutuko botereak eta elementu ikusezinak islatuz.

Bigarren zatian, dantza, besarkadak eta abarren bitartez landu dute partekatzea, elkarrekin eraikitzea, lana eginez jarraitzeko ametsarekin lotuta.






Genero-arloko botere-harremanen eta desberdintasunen analisiaren lehen zatian iceberga azaltzen da, agerikoak, ezkutukoak eta ikusezinak diren botere-adierazpenekin.

Iruditeria alternatibo bat eraikitzeko zatian, erdigunean agertzen zen ordurako bitzta birsortzeari balioa itzultzea, honako hauek sartuta:

- Gizonek euren pribilegioak eztabaidan jarri eta haiei uko egitea.
- Emakumeen ahalduntzea botereko eskema/estrategia patriarkalak berrekoitzi gabe.
- Begirunea.
- Giza eskubideen integritasuna eta kolektibitatea.
- Desazkundera.
- Manipulatu gabeko parte-hartzearen garbitasuna.
- Erritmo anitzeko inklusibitatea.



Gure ametsak honetaz hitz egiten du:

- Zu ni naiz = komunitateak.
- Etengabeko sormena, sorkuntza eta eraldatzea.
- Dinamikoa, mugimenduan.
- Ugaria, askotarikoa, elkarren artekoa, anitza.
- Epaiketarik gabe, aurreiritzirik gabe.
- Zerbait egiteko botere gehiago, zerbaitetarantz doana, partekatua, gu haiek gara gehiago -lurra- Boterea iraultzea.
- Txeraz eta samurtasunez.
- Izatea eta bestearekin izatea vs edukitzea eta irrikatzea.
- Partekatzearen zoriona, eta ez edukitzearen zorionik.
- Jostatzea, aberastea.
- Jarioan ari diren identitate eta bizitzak.

8. Balorazioa eta amaiera

Taldeen aurkezpenak bukatu eta gero, eskertu egin dugu lantegietan aritu garen lagun guztion lana, eta taldeen lana bereziki. Konfiantzako gune kolektibo bat sortu dugula balioztatu dugu, eta bertan emozioak nabarmen agertu direla.

Testuinguru horretan, dinamiken bitartez botere-harremanetan sakontzeko ekimenak eta proposamenak agertzen jarraitu dute taldean:

- Ubuntu. Hegoafrikako arau etikoa da, pertsonen arteko leialtasunera eta haien arteko "gu garelako naiz ni" erako harremanetara bideratua. Ideia hori azaltzeko, lurrean eserita biribil bat osatu dugu, partaide guztion hankak erdigunean batuta konektatuz.
- Gure hazteko eta hezteko prozesuetan ezkutuko kontrola eta botere ikusezina, eta nola une batzuetan boterea iraultzeko gai garen agerian jarri ahal izateko, taldeari proposatu zaio neska-mutilek haurtzarotik nerabazarora arte duten hazkundera irudikatuz ekitea. Aldi berean, hiru lagunek kanpoko kontrolatzaile lanak egingo dituzte, mugak markatuz eta mugitzeko askatasuna oztopatuz. Horri esker, forma desberdinetako lagunek erantzun egiten diote kanpoko zerbaiten gaineko botere horri. Baina oraingo honetan, ikusi egin dugu boterea nola iraultzen dugun, baina banakako eran, ez era kolektibo eta antolatuan.

- Proposatu da lagun bakoitzak esan dezala hitz bat tailerra laburbiltzeko edo bertatik berekin eramango duen hitz bat; bakarka lehenengo, eta gero guztiok oihukatuko ditugu. Hitzak: eraldatzea, aldatzea, energia, emozioa, itxaropena, iraultza, borroka... Ondoren, guztiok batera oihuka esan ditugu, "katarsi" eta barren-huste kolektiboko espazio bat sortuz.

Lantegiko bi egun hauetan, lehenengoan botere-harremanak eta desberdintasunak analizatzen eta haien kontzientzia hartzen hasi gara. Bigarren egunean, berriz, aldatzeko estrategietan sakondu dugu, ahalduntzean oinarritzat hartuta, estrategia emantzipatzaile moduan, betiere, zainduz izaera kolektiboa eta aldatzeko aukerak ahazten dituzten ikuspegi liberal eta individualistetan erori gabe eustea.

Taldean eta gogoeta kolektiboaren bitartez, hezkuntza-, elkartasun- eta komunitate-arloetatik abiatuta prozesuetan murgildu gara sakon. Bereziki nabarmendu ditugu botere ezkutukoa eta ikusezinarekiko kezka, alde batetik, eta aldaketa emantzipatzailearentz doan ahalduntzea lortzeko, norberaren ahalduntzetik hasita lan egingo duten ahalduntze integraleko estrategietan aurrera joateko zailtasunak, bestetik.

Bukatzerako, hitza eta arrazoa ez ezik, beste emozio, arte eta gorputzezko adierazpen forma batzuk ere garrantzitsu bihurtzen dituen imaginario alternatiboa izatearen garrantzia azpimarratu nahi genuke. Hortik hasita eraiki ditzakegu, hain zuzen, botere-harreman eraldatzaileak.

Gomendatutako irakurketak

FRIDE (Fundación para las Relaciones Internacionales y el Dialogo Exterior) (2006). "Empoderamiento en el Desarrollo", *El Desarrollo en el Contexto*, 1. zk., Madril: FRIDE.

Gaventa, J, (2006). "Hacia un gobierno local participativo: evaluación de las posibilidades de transformación". *Temas Sociales*, 58. zk., Santiago, Txile: SUR.

Just Associates (2009). *Haciendo que el Cambio sea una Realidad: Conceptualizando el Poder para Avanzar la Justicia, la Igualdad, y la Paz*. MCH nº 3, Washington: Just Associates con Escuela Mar de Cambios, Centro América.

Miller, Valerie; Veneklasen, Lisa eta Clark, Cindy (2008). "Conceptualizando el poder para avanzar la justicia, la igualdad y la paz". *Haciendo que el cambio sea una realidad*, 3. Zb. Justiziak Elkartuak (JASS-Just Associates)/Hivo.

Retolaza Iguren, Iñigo (2010). *Teoría de Cambio: Un enfoque de pensamiento-acción para navegar en la complejidad de los proceso de cambio social*. Hivos/ Diálogo Democrático/PNUD. <www.gobernabilidaddemocratica-pnud.org/archivos/1269991913Guia%20Teoria%20de%20Cambio%20PNUD-Hivos.pdf>.

Baliabide osagarriak

Carnegie Trust UK (Democracy and civil society programme ingelesa) <http://democracy.carnegieuktrust.org.uk/democracy/power_tools>.

IIED's "Power tools" resources - ingelesa <www.policy-powertools.org/index.html>.

JASS Mesoamérica. Baliabide osagarriak espainieraz: <www.justassociates.org/esp/index.htm>.

Powercube (John Gaventa): <www.powercube.net>. Gune horretan "Other forms of power analysis" (Pettit) ere ikusi.

PowerHouse. "Komunitate birtuala" aldakuntza sozialerako boterea analizatzean interesa duten pertsonentzat <<http://powerhousenetwork.ning.com>>.

Veneklasen eta Miller: "*Un nuevo tejido del poder, los pueblos y la política*" <www.justassociates.org/translations.htm>.

4. Gai ildoak. Prozesuen azterketa

7. Taldea

Dinamizazioa eta Kontalaritza: Esther Canarias eta Fernando Altamira¹

Proposamena

1. Ibaiak, ideia eroak eta erronkak
2. Prozesuen azterketari buruz kontuan izan beharreko pistak
3. Testuinguruaren azterketa. Prozesuak lantzea zailtzen eta errazten duten elementuak
 - Prozesua-eraketa oreka
 - Parte-hartzea
 - Horizontaltasuna eta instrumentalizazio eza
 - Emozioak, subjektibotasuna eta zaintzak
 - Tokikoa-globala konexioa
4. Ideia eroak prozesuen azterketa irudikatzeko eta etorkizuneko erronkak prozesuak aztertzeko
5. Amaierako itzultzea

1 Iniciativas de Cooperación y Desarrollo.

1. Ibaiak, ideia eroak eta erronkak

IBAIAK, prozesuetako ikur gisa lantzen ditugu. Lantegia lagungarria izan genuen egindako testuinguru azterketak modu bisualean eta subjektiboan adierazteko.

IDEIA EROAK dira bururik gabeko sorkuntza horiek guztiak, hezkuntza hedatzaileko prozesuen azterketak bizi garen testuinguruan irudikatzen ditugu. Eta hala egin genuen.

ERRONKEI heldu behar diegu hezkuntza hedatzaileko prozesuen azterketan. Lantegian identifikatzen dugu. Bertan elkarrekin jarraitzeko gonbita dira.

Zortzi orduko lantegi honen helburua da hezkuntza emantzipatzaileko prozesuez taldean hausnartzea eta hezkuntza horren markoan ulertu eta bultzatzeko giltzarri orientatzaileak lortzea.

Horretarako, elkar ebakitzen duten lau hausnarketa zirkulu irudikatuko ditugu:

1. Flash moduko aurkezpen bat, prozesuetako azterketan kontuan izan beharreko pistei buruz (2. osoko bilkura).
2. Testuinguruaren azterketa, prozesuetan honako hauekiko lana zailtzen eta errazten duten elementuez: (1) prozesua-emitza oreka, (2) parte-hartzea, (3) horizontaltasuna eta instrumentalizazio eza, (4) emozioak, subjektibotasunak eta zaintzak eta (5) lokala-globala lotura (3. eta 4. osoko bilkurak, 1 eta 2 taldeetan lana).
3. Ideia ero batzuk, prozesuen azterketa irudikatzeko (taldeko lana 3, 5. osoko bilkura).
4. Etorkizunerako erronkak, ideia ero horiek oinarri hartuta prozesuak aztertzeko (taldeko lana 4, 6. eta 7. osoko bilkura).

Lau zirkulu hauek osoko bilkuran eta taldeetan landu genituen, hainbat dinamikaz lagunduta.

1. osoko bilkura. Aurkezpena

Partaide bakoitzaren aurkezpenarako, hari mataza bat hartu eta bildu egin ginen, norberaren zertzelada batzuk eman eta prozesuen azterketari "zeren arrastoa" ematen genion esan genuen. Gerturatzeko eta aukerak ikusteko unea izan zen.

Jarraian aretoan eseri ginen gorputzetik geure burua aitortu eta identifikatu eta partekatzeke, besteak beste, gure ustez gutako zenbat aritzen garen prozesuetan eta gure ustez gutako zenbatek aztertzen dituzten prozesuok. Hori gure abiapuntu berria

2. Prozesuen azterketari buruz kontuan izan beharreko pistak

2. osoko bilkura. Prozesuen azterketari buruzko pistak (flashak)

Hezkuntza emantzipatzaileko prozesuen azterketaz kontuan izan beharreko pista batzuk aurkeztu genituen jarraian. Lantegiko lana elikatzeke flash batzuk dira. Lantegiko partaideek aurkezpen honen gidoi idatzi bat zuten, baita prozesuen azterketan sakontzeke mailak eta galderak ere.

- Garapenerako hezkuntza-prozesuetan eta horien azterketan duela urte batzuetatik ikusi da tentsioa dagoela pertsonalaren, antolakuntza arlokoaren eta sozialaren artean. Eta hiru maila horietako erronkak planteatzen zaizkigu.
- Prozesuen azterketa aipatzen dugunean, eraldaketa prozesuez ari gara, hau da, justizia soziala eta berdintasuna eraikitzeke oztopo diren sinesmenak, nortasunak, harremanak eta egiturak alde batera uzteaz. Aldaketa sokinak eta konplexuak dira, malgutasuna behar dute, pentsamendu ez lineala, jariakorra, begirada sistematikoa berekin duena. Ez da Marko Logikoaren Ikuspegiko logika lineal, zurrun eta berezkoan egindako proiektuen eta ekintza zehatzen bidez lortzen den aldaketa "proiektagarrien" ondorio².
- Aldaketa oro gatazkak zeharkatzen du eta beharrezkoa da gure prozesuen azterketan gatazka horri izena jartzea, azterketa horren zati baita. Erresistentziak eta beldurrak sortzen ditu eta ikusten denaren eta kontziente garenaren zati diren heinean, errazago heldu dakieke, kontuan errazago hartu daitezke, prozesuen azterketak "bilatu" egin behar ditu. Gatazka prozesu hauen eta euren azterketaren oinarritzko zati legez.
- Garapenerako Hezkuntzaren eta Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren dimentsioak prozesuen azterketan lagun diezaguketen markoak dira. Horien artean daude, besteak beste, dimentsio politikoa, pedagogikoa, kulturala, Ipar eta Hego globalak, etengabeko berrikuntza eta generoen

2 Retolaza Eguren, Iñigo (2010). *Teoría de cambio. Un enfoque de pensamiento-acción para navegar en la complejidad de los procesos de cambio social*. PNUD/ Hivos. Guatemala. <www.democraticdialoguenetwork.org/app/documents/view/es/1623>.

dimentsioa³. Kontua ez da prozesuak dimentsioen baturatik aztertzea, baizik eta dimentsio horiek kasu bakoitzean gurutzatzea eta gurutzaketa horretatik aztertu dezakegu prozesua kasu bakoitzean.

- Kognitiboa, emozionala eta korporala prozesuetako eta horien azterketetako elementuak dira. Tradizionalki kognitiboari, kontzeptuari eman zaio garrantzia hezkuntzan, emozioak lantzearekin batera. Zer emozio mota? Historiara begiratu gero, errukia eta laguntzaren markoan aritzen zirela -eta direla- ikusiko dugu. Hezkuntza eraldatzaileko prozesuez, Garapenerako Hezkuntzaz eta Herritartasun Globalaz hitz egiteko ezinbestekoa da justizia sozialaren eta elkarren erantzukizunaren markotik lantzea eta bidegabekeriarekiko sentsibilitate etikoa aktibatzea, horrek inplikazio handiagoa baitu berekin⁴. Marko honetatik gure prozesuak ere aztertu ditzakegu. Eraldaketa prozesuek, eta ondorioz horien azterketak, mugimendu feministen agendan agertzen den bezala afektibitate, nahi eta zaintza osagai oso altuak dituzte.
- Prozesuen denbora dimentsioa: emaitza eta prozesuaren arteko oreka, epe labur-ertain-luze artekoa. Prozesuetan emaitzak identifikatu ahal izateko erronka eta tentsioa bizi dugu, emaitzen ondorioei prozesua gailentzekoa. Prozesuaren eta emaitzaren logikarako behar diren erritmo eta denbora desberdinengatik ere tentsioa egoten da. Oreka horretaz baliatzen diren espazioak badira, hala nola, Hipoteken Aurkako Plataforma, izan ere, ekintza oso zehatzak eta berehalako emaitzak (etxe kaleratzeak geratzea) egiturazko aldaketarekin (araudia, bankuen boterea, sistema nagusia...) konbinatzen baititu.
- Garapenerako Hezkuntza eta Herritartasun Globaleko subjektuak, hezkuntza emantzipatzailekoak, aldaketaren egileak dira. Subjektu politikoak dira. Eurak ahalduntzeko lagungarri den euren egiazko parte-hartzea ezinbestekoa da, subjektu politiko izateko. Prozesuen azterketan elementu hauek izan ditzakegu kontuan (subjektuak zein neurritan dira aldaketaren eragileak?, subjektu politikoak dira?, egiazko parte-hartzea

3 Canarias Fernández-Cavada, Esther eta Altamira Basterretxea, Fernando (2012). *Dimensiones de la Educación para el Desarrollo y la Ciudadanía Global*. Mimeo. <<http://iniciativasdecooperacionydesarrollo.wordpress.com/2012/10/30/dimensiones-que-podemos-tener-en-cuenta-en-los-procesos-educativos>>.

4 Nos Aldás, Eloísa (2014). "Comunicación y educación transformativa: el debate sobre la eficacia cultural y sus indicadores". Gema Celorio eta Alicia López de Munain (bilduma.): *Cambiar la educación para cambiar el mundo... ¡Por una acción educativa emancipadora! Comunicaciones*. Vitoria-Gasteiz, 111-119. or. <www.congresoed.org/wp-content/uploads/2013/09/11comunicaciones.pdf>.

dago eta ahalduntzeko lagungarria da hori?, parte-hartze horretan nolakoa da banakoaren eta taldearen arteko oreka? nork hartzen du parte prozesuen azterketan?).

- Lantegi honetan parte hartzen dugunok prozesuak eskaintzen ditugu. Erraztearen zeregina aztertzea ere interesgarria da, horrek berekin duen erantzukizuna, dauden boterezko harremanak, sedukzioa, instrumentalizazio faktorearen arriskua; zer egiten dugun, nola egiten dugun, nola bizi dugun, etab.
- Zer metodo erabili ditzakegu prozesuen azterketarako? Bat baino gehiago daude: ebaluazioa, diagnostikoa, hausnarketa estrategikoa... Praktika berreskuratzeko taldeko prozesu legez esperientzien sistematizazioa azpimarratu dezakegu, praktikan bertan sartzeko ikaskuntza lortzeko kritikoki aztertu eta interpretatu, besteekin partekatuta eta ezagutza berria sortuta, teoria eta praktikaren arteko elkarrizketan. Beste metodo batzuk ere badira eta iradokitzailea da horiek ere gurutzatzea -elkar ebakitzea- eta azterketarako ibilbide erabilgarriak eta behar dugunari egokitutakoak sortzea. Harreman horizontala erraztu behar dute, jakintza sozialen eta "zientifiko" trukea, taldeko eraikuntza. Begirada sistemikoa izan. Metodoak ez dira politikoak, ikuspegi metodologikoa da politiko bihurtzen duena.
- Biltzar hauetan ez zen gorputza aipatu. Eta hemen bai. Gorputza hezkuntza-prozesuen laneko baliabide gisa eta horien azterketan ikur gisa, informazio gune gisa, elementu politiko gisa. Nahi gisa eta eraikuntzan. Ez da ontzi bat. Gure nortasunen zati da eta prozesuen zati, ondorioz.
- Lantegi osoan kontuan izateko irudi bat proposatzen dizuegu: iceberg bat, ikusten den zatiarekin eta ikusten ez denarekin. Ikusten dena eta begiratu daitekeena, gure kasuan jokaerak dira, gauzak egiteko modua, pertsona protagonistak; eta ezkutukoa eta kanpoan geratzen dena sines-teak, balioak, askotan emozioak, prozesuetan lantzeko jarrerak, pertsonak eta taldeak...⁵ Iceberga azterketako irudi legez erabil dezakegu, prozesuen azterketan kontuan izateko argazki legez. Ikusten dena aldatzeko ahalegin handia egin dezakegu eta aldaketarik ez lortu. Icebergaren muturraren azpian dagoena izaten da eraldatzailea.

5 Op. Cit. Retolaza Eguren; eta Eizaguirre, Almudena eta Longo, Alfonso: *El arte circular. Cómo VIVIR los negocios más allá de los éxitos y las dificultades*. Plataforma argitaletxea. Bartzelona, 2012.

3. Testuinguruaren azterketa. Prozesuak lantzea zailtzen eta errazten duten elementuak

Biltzarreko gai-ildoan inguruan batzorde antolatzaileak egindako lana oinarri hartuta, bost maila handi nabaritu ditugu euren galderekin, prozesuen azterketan sakontzeko.

Prozesua-emaiza oreka

- Nola ezarri oreka prozesuaren eta emaitzaren artean? (pertsonek erritmoak errespetatzen dituen prozesua, helburuen mende ez dagoena. Prozesuan gaitasun, denbora, erritmo... ugari sartzen da).
- Nola aurkitu oreka gutxi gorabehera berehalakoak izan behar duten emaitzen beharrez (egungo kultura emaitzak eta arrakasta zehatz eta egiaztagarriak lortzeko zain izaten da) eta epe luzerako begirada kontzientearen (denbora historikoa) artean?

Parte-hartzea

- Nola lortuko dugu partaideak ahalduntzea? Zenbateraino ditugu erakundeak kudeaketa ko-partehartzailearekin? Pertsonek parte-hartzea errazten duten metodoak erabiltzen ditugu?

Horizontaltasuna eta instrumentalizazio eza

- Zer tresna ditugu mugimenduen barruan egitura bertikalak eragiten dituzten barneko eta kanpoko mekanismoak azaleratzeko?
- Nola identifikatu eta bisibilizatu prozesuak instrumentalizatzen dituzten barneko eta kanpoko mehatxuak?

Emozioak, subjektibotasuna eta zaintzak

- Nola sartzen ditugu emozioak, subjektibotasunak eta zaintzak gure hezkuntza-prozesuetan?

Tokioa-globala konexioa

- Nolako izan behar da hezkuntza-prozesua, subjektuek euren ekintza zehatzak globalagoekin lotu ditzaten? Nola bihurtu ikusgarri elkarrekiko mendekotasuna?
- Nola sortu ipar/hego loturak, aldaketa globala sortzeko?

1. taldeko lanak: Prozesuen azterketei buruzko pistei (flashei) buruzko elkarrizketa

Hiruko eta lauko taldeetan flash hauek aipatuko ditugu eta azterketen prozesua kontuan izanda euren interes fokuarekin nola lotzen diren ere bai.

2. taldeko lanak. Testuinguruaren azterketa

Laneko bost taldetan antolatzen gara lantegiko partaideek maila bakoitzarekiko sentitzen duten "erakarpenaren" arabera eta taldeen neurria orekatzen da. Lanerako galdera hau da:

Kanpoko (makroagoa) eta barneko (maila pertsonal eta antolakuntza mailakoa) testuinguruko zer elementuk errazten edo zailtzen dute prozesuen lana, bost maila hauekiko:

1. Prozesua-emitza oreka.
2. Parte hartzea.
3. Horizontaltasuna eta instrumentalizazio eza.
4. Emozioak, subjektibotasunak eta zaintzak.
5. Tokikoa-globala konexioa?

Talde bakoitzak bere hausnarketa islatu zuen papelografo batean marraztutako ibai batean, prozesuaren ikur gisa, mugimendua, ekosistema.

3. osoko bilkura. Testuinguruaren azterketa taldean adieraztea

Taldean adierazi zenean, papelografo bat egin genuen elkarrekin ideia nagusiak erabiliaz.

Prozesua-emitza oreka

Testuinguruko elementu hauek erraztu egiten dute prozesua-emitza oreka	Testuinguruko elementu hauek zaildu egiten dute prozesua-emitza oreka
<ul style="list-style-type: none"> - Argitasuna, gardentasuna, indarra, motibazioa hasieratik. - Azken xedeak eta jokoko arauak argi izan: zertarako elkartu gara, nora joan, ibilbide orri txiki bat prozesua desbideratu ez dadin. - Emitzak, motibazioa mantentzeko eta kanpoko eragileei erakusteko prozesua fruituak ematen ari dela. - Ibaiaren gaineko zubiak elkarrizketa esan nahi du: elkarrizketa gune legez. - Zerikusia duten eragileen interesak ikusi. Parte-hartze aktiboa (ibaiaren ibilbideak zerikusia du parte hartzen dutenen erritmoarekin). - Malgutasuna eta prozesura iristen den guztira egokitu. - "Liga partidaz partida irabazi da". - Sekzio artekotasuna, konektatuta egon ahal izateko. - Prozesuak aurrera jarraitzen du, ez da amaiera. 	<ul style="list-style-type: none"> - Prozesuaren instrumentalizazioa hasieratik. - Emitzek ez digute epe ertaina edo luzea ikusten uzten (kaia, itsasoa). - Erritmo mantsoak desmotibatu egiten du, aspertu, emitzarik ez lortu. - Gehiegizko erritmoa baina ez epe ertainera edo luzera.

Gatazka, kanpoko (lantegia ibaiaren irudian) edo barnekoa (egileen taldean tentsioak), prozesua-emitza orekaren zati da. Erraztu eta zaildu. Elkarrizketaren bidez erabiltzen da.

Parte-hartzea

Testuinguruko elementu hauek erraztu egiten dute parte-hartzea	Testuinguruko elementu hauek zaildu egiten dute parte-hartzea
<ul style="list-style-type: none"> - Begirada preziatzailea parte-hartzea errazteko. - Nahia, aldatzeko borondatea. Protagonista eta balioetsita sentitzen bagara, errazagoa da parte hartzeko gogoia ernatzea. - Buruzagitza erraztaileak, ez agintariak: jakintza desberdinak irten daitezela eta balioan jarri. - Aldatzeko nahia eta borondatea. - Taldeko pertsonen erritmoak errespetatu. - Metodo inklusiboak erabili: erabiltzen den lengoaia, gai bat lantzeko gerturatze desberdinak (adierazpen plastikoa, gorputzarena, argumentazioa...). Balorazio ekonomikoa bakarrik ez izan kontuan. 	<ul style="list-style-type: none"> - Hierarkizazioa eta botere egiturak. - Burokratizazioa. - Baliabide gabeziak. - Curriculum ezkutua eta diskriminazioa. - Instrumentalizazioa eta interesak.

Horizontaltasuna eta ez instrumentalizazioa

Testuinguruko elementu hauek erraztu egiten dute horizontaltasuna eta instrumentalizazio eza	Testuinguruko elementu hauek zaildu egiten dute horizontaltasuna eta instrumentalizazio eza
<ul style="list-style-type: none"> - Krisi sistemikoaren testuingurua: taldeek oso azkar aurreratu dute testuinguru horretan. - Hausnarketarako espazio eta denbora asko sortu eta izan. - Espazioak eta denborak finkatu emozioak lantzeko, subjektibotasunak, prozesua ekoizlea izan dadin guri lagun eginez. - Prestakuntzarako espazioak taldeen barruan (nola egiten den batzar bat, etab.) egiaz egin nahi ditugun prozesuak garatzeko (koherenteagoak izan). - Ireki eta beste taldeei lotu. - Koherentzia. - Buruzagitza erraztaileak eta ez agintariak. - Gardentasuna. 	<ul style="list-style-type: none"> - Testuingurua integratuta dugu. - Aldaketari beldurra, inoiz egin ez dugunari, beste gauza batzuk egiteari. - Gehiegizko burokratizazioa, gure taldeetan ere sartzen duguna. - Eskola transmititzailea; ez dakigu parte-hartzea sartzen. - Patriarkatua. - Mintzairaren erabilera.

Emozioak, subjektibotasunak eta zaintzak

Testuinguruko elementu hauek erraztu egiten dute emozioak, subjektibotasunak eta zaintzak sartzea	Testuinguruko elementu hauek zaildu egiten dute emozioak, subjektibotasunak eta zaintzak sartzea
<p>Emozioek eta potentzialtasunek potentzial handia dute pentsamendu kritikoa sortzeko eta eraldatzeko.</p> <p>Beharrezkoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Enpatia. - Hausnarketa. - Zintzotasuna. - Komunitatea. - Zaintzak. - Banako eta taldeko ongizatea. - Intersubjektibitateak. 	<p>Makrotik eta mikrotik nagusitu daitezela:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Kapitala (ukitu daitekeena...). - Pentsamendu bakarra. - Kultura hegemonikoa. - Indibidualismoa. - Arrazoia, logikoa. - Patriarkatua (sexu eta genero rola...). - Ezkutuko emozioa. Ikusezintasuna.

Tokikoa-globala konexioa

Testuinguruko elementu hauek erraztu egiten dute tokikoa-globala konexioa	Testuinguruko elementu hauek zaildu egiten dute tokikoa-globala konexioa
<ul style="list-style-type: none"> - Esku hartzeak eta jarduerak, egiten diren inguruan kokatuta. Horretarako diagnostiko ona behar da. Globalera iristeko tokikoa landu behar da, egunerokoa, dauden loturak. - Tokikoaren eta globalaren arteko topaguneak identifikatu: adin taldeen, interesen... arabera antzekotasunak (adibidez, eskolen arteko senidetzeak); errealitateak gerturatu aurreiritziak apurtzeko... eta enpatia sentimenduak landu. - Tokiko sareak eta globalak ezarri. GGKEek gizarte-erakundeekin lan egin dezatela, intereseko tokiko taldeekin... elkar ezagutu eta elkarrekin lana egiteko, gertuko taldeekin eta plataforma globalekin ere bai. Garrantzitsua da interes fokalizatuko taldeak izatea, berariazko publikoa dutenak. - Nortasun pertsonalaren eraikuntza egunero landu: lehenengo, banako begirada aldatu (kontsumo arduratsua, genero gaiak...) eta gero taldekoa gizarteko egile legez, kanpora (jendartea eraldatzea). - "Ezinezkoa da ezerekin konektatzea, ukitzen ez bada". Emozioetatik egin lana. - Erakunde arloko egiturazko aldaketak tokikoa-globala konexioa errazteko. Adibidez, lankidetzak eta garapenerako hezkuntza-arloetatik lana egiteari utzi edo sailen arabera, prozesuen, gaien eta programen arabera lantzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> - Tokiko testuinguru oso indartsua da eta globala eklipsatu eta fagozitu dezake eta harantzago begiratzen ez utzi. - Bizi garen begirada merkantilista hautsi. - Indibidualismoa. - Maila pertsonal eta erakunde mailako erresistentziak, tokiko mailan gauza berean lana egiten dugun erakundeen arteko artikulazioa lortzeko.

Batera jarri ondoren, elkarrizketa egin dugu trukerako eta eztabaidarako. Honakoei buruzko elkarrizketa izan da: pertsonala landu behar dela a) eta emozioen mundua sartu; b) aldaketarako gaitasun handiagoa lortzeko, sentsibilizaziorako baterako estrategiek garrantzia dutela; c) mezuak jendearengan eragina izateko pazientzia behar dela eta aldaketari (aldaketa iritsiko da guk ez ikusi arren) eskaini beharreko erritmoa mantendu egin behar dela aldaketekin pazientziarik eza errebindikatzearen orde, eta botereko egiturekin (udalak, unibertsitateak, MME...) lana egitera gonbidatu aldaketak lortzeko⁶; d) tokikoaren eta globalaren arteko tentsioa eta informazio gabezia; e) lortu nahi dugun aldaketari buruzko akordioa; eta f) eraldaketarik gabe bidegabekeriak eta eskubide urratzeak jarraitu egingo dutela, beraz, aldatzeko edo ez aldatzeko nahi pertsonala inoiz ere ezingo da giza eskubideen errespetuaren gainetik egon.

Eguna amaitzeko, "nola gauden" esan genuen, aurrez ohar bat egin zen eta amets egiteko zeregina eman ere bai:

- Oharra: saio honetan hausnarketa oso ireki da, testuingurua bost mailatatik aztertu denean. Hurrengo urratsean prozesuen azterketara iristea garrantzitsua da:
- Amets egiteko zeregina: gaur iluntze-gauean irudikatu; Amestu testuinguru hori gainditzeko, birsortzeko, berrasmatzeko ideia eroak. Bihar horren ezkutuko erronkez arituko gara. Beste lantegi baten adibidea jarri dugu. GKEko batzuek proposatu zuten ideia eroa izan zen "parlamentua zerriz betetzea". Horren atzean, identifikatu ziren erronkak hauek izan ziren: ekintza berritzea, ikusgarri bihurtzea, baterako ekintza bat egitea, mezu argia izatea, gizarteari jakinaraztea, bezerokeriarekin apurtzea...

4. Ideia eroak prozesuen azterketa irudikatzeko eta etorkizuneko erronkak prozesuak aztertzeko

4. osoko bilkura. Berrito topo egiten eta gogoratzen

Eguna hasteko, elkar agurtu genuen eta "garbiketa tuneletik" igaro ginen esnatzeko, energia onez betetzeko, taldeko zaintzak hartu eta emateko eta berriro topo egiteko.

6 Pazientziari-pazientziarik ezari buruzko elkarrizketa horri Esther Vivas gehitu zitzaion arratsaldean bertan, bere hitzaldian Daniel Bensaïd aipatu zuenean jendarte-borroketako erritmoak eta epeak aipatzean: "Gauzak aldatzeko pazientziarik ez mantsoa behar da".

Aurreko eguneko lana ere gogoratu genuen, ibaiak eta papelografoak agerian genituela.

3. taldeko lanak eta 5. osokoa. Taldean aipatu genituen aztertutako testuingurua gainditzeko, birsortzeko, berriro asmatzeko ideia eroak

Talde bakoitzean partaide bakoitzak "amestutako" ideia eroak partekatu ziren. Osoko bilkuran partekatu genuen maila bakoitzeko ideia ero bat, kontrastatzeko eta zuzentzeko.

4. taldeko lanak. Prozesuen azterketarako erronkak (ideia ero horien atzean zer dagoen)

Idea ero horiek ezkututzen dituzten prozesuen azterketako erronkei buruzko lana egin genuen taldean. Hausnarketa honetan lehenengo saioko pistak/ flashak hartu ziren kontuan, testuinguruaren azterketa eta gainerako mailak.

Koloreetako txarteletan ideia eroak eta horri lotutako erronka edo erronkak idatzi ziren.

6. osoko bilkura. Batera jarri eta elkarrizketa, prozesuen azterketarako erronkei buruz

Batera jartzeko osoko bilkurarekin hasi aurretik, ariketa bat egiteko proposatu genuen.

Aretoaren alde batean taldeetan egindako ibaiak jarri genituen, oraina adierazten digutenak, gure lanaren testuingurua adierazten digutenak. Aretoaren beste aldean taldeen egindako prozesuen azterketarako erronkekiko txartelak jarri genituen.

Partaideak aretoaren erdian zeuden. Lehenengo ibaiei begiratzeko esan genien, sentitzen zutenarekin konektatzeko. Lasai begiratzeko. Gero bira eman eta talde bakoitzak erronkekin egin zituen txartelei begiratzeko esan genien. Talde bakoitzaren ekarpenak ez genituen ezagutzen artean, lasai begiratu genien erronkei, ordurako gure etorkizunaren zati baitziren. Txartelak taldeek egin zituzten arren, osoko bilkuraren zati ziren ordurako, lantaldean parte hartzen genuen guztion zati.

Prozesuen azterketarako prozesua-emaitza orekaren erronkak

Idea eroa: Gizaki orok du bere bizi prozesuan lagun egingo dion pertsona baten eskubidea ("coach pertsonala, bizi osoko eskubidea").

Erronkak:

- Adostutako prozesuko azken xedeak/helburuak izan.
- Prozesu osoaren ikuspegi globala izan, hasieran lortu nahi dugun emaitzaz harantzago begiratu ahal izateko.
- Elkar trukerako eta elkar ezagutzeko espazioak sortu, prozesuan parte hartzen duten eragile guztien artean.
- Epe laburrerako emaitzak lortu eta mantendu, elementu iradokitzaile legez eta azken helbururako aurrerapauso legez.
- Lanerako metodoa malgua izan dadila eta nahi den prozesura egokituia.
- Gatazka balizko berriak sortzeko erabiltzen ikasi.
- Sekzio arteko espazioetan lanerako tresna elkarrizketa bidezko ikaskuntza izan dadila ("orri zuria", "eraikitza goaz").
- Kanpoko ebaluazio objektiboa lortu, kalitatezkoa eta eraikitzailea.
- Ebaluazio jarraitua eta eragile guztiek parte hartuko dutena lortu.

Prozesuen azterketarako parte-hartzearen erronkak

1. ideia eroa: Begirada/azterketa estralurtarra izan distantziatik eta begirada freskoarekin absurdoak azaleratzeko edota ideiak sustatzeko (pertsonek parte-hartzea erraztuko duten metodoekin lotua). Begirada estralurtar honek hainbat begirada bilduko lituzke, ez "bakarra".

Erronkak:

- Prozesuaren kritika egiteko beldurra kendu eta errealitatea irakurtzen jakin; ahaldundu egin gaitezke egiteko eta, era berean, hori egitean geure burua ahaldunduko dugu.
- Inertiak nola apurtu jakin, prozesuaren azterketa kritiko baten bidez: inertziak egiten ditugun bidegabekeriak aurkitu, "egin beharra daukagula" uste dugulako, bere zentzua jakin ez arren.
- Ezkutuko curriculum argitara atera eta prozesuen instrumentalizazioa ekidin, erlazioen arloan gure erakundeetan zer naturalizatu dugun ohartzean.

2. ideia eroa: "Fratizazioa"⁷

Erronkak:

- Sorkuntza demokratikoko ikuspegi berriak izan.
- Aurreiritziak apurtu eta apreziatzeko begirada izan, inklusiozkoa.
- Ahaldundu, boterea uzteko beldurra kendu. Botere guztia galtzeko prest egon eta ekintza kontrolatzailearen gaitasuna galtzekoa ere bai.
- Kritikak eta galderak onartu "ez dakit" erantzunari beldurrik izan gabe.
- Praktikan berritzeko animatu, arriskatu.

3. ideia eroa: Elkartu puntuak! jolasean ibili.

Erronkak:

- Konexio berriak aurkitu.
- Atzera itzultzeko aukera dagoela esan, arrisku horretaz ohartarazi.
- Marrazkia begien bistan izan: ekintzen prozesua.
- Ekintzen arteko elkarrizketa bilatu, egileen arteko lankidetzatza.
- Biluzteko beldurra galdu, parte hartzen ari den mundu osoari zer egiten ari garen erakusteko beldurra galdu, besteek ekarpenak egin baititzakete (hainbat tresna lurtar daude: blogak...).

Oinarrizkoa da gure praktikei begiratzea, egiten ari garena hezkuntza eraldatzailea ote den ikusteko. Errezeta baldin badaukagu akatsa non dagoen ikusteko.

Beharrezkoa da parte hartzen ikastea eta ez parte hartzen desikastea. Eta prozesu horiei lagun egitea. Geure buruetatik parte hartzen eta kontrastatzen dugunean, elkar truke horretan errealitate desberdinen kontzientziazio bat dago eta partekatze horretan ahalduntzea dago.

⁷ "Fratizazioa" Fratotik dator, Francesco Tonucciren goitizena, eta marrazkietako protagonista baten izena. Pentsalari, psikopedagogo eta marrazkilaria italiarra da. Bere lana haurrek hiriko ekosisteman duten zereginaz da.

Horizontaltasuna erronkak, eraikuntza kolektiboa – bertikalismoaren aldeko mehatxuak eta instrumentalizazioa gainditu prozesuen azterketetara

Idea eroa: ikastetxeetan taldeko batzarra sortu aldiro egiteko (astean behin, hilean behin), bertikalitasuna hautsi eta parte-hartzea sustatzeko. Beste eremu batzuetara ere estrapolatu daiteke (hezkuntza-komunitatea, etab.)

Erronkak:

- Nola eman balioa batzar-kulturari: zer egin eta nola egin batzar ona, egitura bertikalak identifikatu.
- Batzarren inguruko formazio praktikoaren bidez landu. Pixkanaka ikasi kontalaritzak egiten, hitz egiteko txanda...
- Beste pertsona aitortzea bultzatu: beharrak, bere erreibindikazioen zergatia, bere sentimenduak, dinamikak, kokapenak...
- Arauak eztabaidatzeko aukera, besteak beste, bertikalitatea galtzeko izan daiteke.
- Bertikalitate eta instrumentalizazio arriskua gainditu. Batzarrak informatiboak izan daitezke, gatazka lantzekoak, erabakiak hartzekoak.
- Nola sartu dezakegu hori ikastetxe bateko denbora eta espazioetan. Estrategiak aurkitu beharko lirateke hainbeste pertsonak batzar batean funtzionatu ahal izateko. Denborak, baliabideak, ikaskuntza eta xedeak batzarrean orekatzen ikasi.

Emozioren erronkak, subjektibotasunak, prozesuen azterketarako zaintzak

Idea eroa: Zaintzen talisman neurgailua, ikusezina ikusgarri egin dezakeena eta inguruko giro emozional eta energetikoa zaintzen du. Pertsona guztiok izango genuke (inguruko giroaren arabera kolorez aldatzen da, jendearen dagoen moduaren arabera; eta kolore hori aldatzeko, beharrezkoa da inguruaz ohartzea, pertsonaz).

Erronkak:

- Adierazteko espazioak sortu, entzuketa aktiboa eta enpatia.
- Egozentrismoak gainditu eta aniztasun emozionalak onartu.
- Hezkuntza emozionalean trebatzeko espazioak sortu. Norbaitek trebatu nahi ez badu zer gertatuko den eztabaidatu behar da. Parte-hartzea nahitaezkoa edo borondatezkoa litzateke?

- Bileretan, prozesuko faseetan, zaintzaile rola txandakatu egingo da; bileren aurretik eta ondoren. Rola bada, baina ikusezina da eta ez da esplizitua. Emakumeek egiten dute. Horregatik da garrantzitsua txandakako rol esplizitua izatea.
- Gure esperientziaren arabera, honen bidez emaitzak hobetu egiten dira. Sortutako espazioekin egindako hobekuntzak ikusgarri bihurtu eta indartu; espazio hauek eta beraien ondorioak ikus daitezela.

Tokikoa–globala konexioaren erronkak, prozesuen azterketarako

1. eta 2. ideia eroak: Boluntarioak sartu Garapenerako Hezkuntza proiektuetako fase guztietan parte hartzeko. Garapenerako Hezkuntza biltzar bat antolatu haurrentzat (parte hartzeari lotua, testuinguruaren azterketa, aldaketarako subjektuak izan daitezela eta ekintzaren protagonista).

Erronkak:

- Nola bermatu gure prozesuak egiaz Herritartasun Globalekoak izan daitezela eta hemengo eta hango tokiko errealitateak elkartzeaz gain, nolabaiteko enpatia sor dezaketela, baina ez baterako erreibindikazioa.
- Denon intereseko gune bat aurkitu eta identifikatzen badugu, konektatu ahal izango gara. Lehen beharbada lankidetzaren lotura giltzarria, baina orain Hegoko ahotsak Iparraldean daude eta aukera garbiagoa, errazagoa eta iraunkorragoa da konektatu ahal izateko. Tokikoak eta globalak hemen elkar ebakitzen dute, zentroetan, elkartean...
- Lankidetzaren eta Garapenerako Hezkuntza arteko dikotomiaren logikarekin hautsi ahal izan behar da eta konexio horretan ibili mugimendu feministako sareekin, hezkuntza publikorako eskubideekin, etab.
- Trabak alde batera utzi tokikoa–globala konexiozko errealitateak identifikatu eta ez atzera uzteko, errealitate horiek diru laguntzaren ohiko ereduaren arabekoak ez badira, erakundearen egiturazko ereduaren arabekoak ez badira...
- Sarean egin lana, tokian eta globalean, Hegoan konplizitateak aurkitzeko, elkarriketarako espazioak irekitzeko.
- Tokiko topaketa presentzialak sortu, haurrek parte hartzeko beste modu bat izan dezaten eta euren hizkuntzak eta kezkek ezagutu ditzagun. Ondoren, beste topaketa modu batzuk bilatu (online bidez).

- Garapenerako Hezkuntza ekintzak nori zuzenduta dauden jakinarazi. Diseinuko esku hartzeen protagonista izan daitezela, praktikan jartzearen protagonista...
- Gu aritzen garen errealitatea ezagutu, hortik erantzunak emateko.

Ondorengo elkarrizketan bost mailetako erronkei buruzko ideia hauek sartu dira:

Prozesuen, biltzarren... denborek eta espazioek parte-hartzea eta ahalduntzea baldintzatzen dute. Parte hartuko dutenengandik gertu dauden espazioak izan behar dira eta arreta jarri behar zaie proposatutako ordutegiei, bestela, etxean erantzukizunik ez dutenak izango baitira partaideak.

Ebaluazioa demokratikoa eta negoziatua izatea inportantea da. Ebaluazioaren helburuak denon artean zehaztea ere beharrezkoa bada.

Hezkuntza-harremana lotura ezartzeak giro atsegina, enpatia sortuko du; konbentzitura egonez gero eta hautemanenez gero, kutsatu egingo da. Lana egiten dugun pertsonekin hezkuntzako eta erlazioetako loturak ahalduntzea funtsezkoa da.

Diziplinartekotasuna aldeztu jarraitu, jatorri desberdineko jendearekin lana egiteko beldurrik ez izan, begirada ahalik eta osoena izan dadin.

Alde emozionala ikusteko moduan eta agintaritzarekin sartu eta aitortu prozesuetan. Kosta egiten da, alderdi pertsonala ukitzen baitu. Oinarrizkoa da emozionala ulergarri bihurtzea, baita ikuspegi zientifikotik ere, ez baitago emoziorik gabeko aldaketarik.

Taldeetan ideia ero gehiago sortu zen, baina ez genuen lantzeko denborarik izan.

5. Amaierako itzultzea

7. osoko bilkura

Osoko bilkuraren eta erronkei buruzko elkarrizketaren ondoren, lantegia ixteko garaia zen. Baina itzultzea egin beharra zegoen "beroan", ordenatzeko eta biltzeko lagungarria izan behar zitzaigun. Jarraian itzultzeko une horretako ideia batzuk daude, taldean hausnartutakoa egituratzen laguntzen dutela uste baitugu.

Bost mailetako erronkak lotzen dituzten hiru gai nabarmendu ditzakegu:

- Prozesuak aztertzeko metodoak: hausnarketa eta planifikazio estrategikoa, ebaluazioa, esperientzien sistematizazioa, errealitatearen diagnostikoa, etab.
- Parte hartzeko behar diren loturak, tokikoa-globala harremanerako, dinamika horizontalen apustuan, batzar itxura handiagokoak, prozesuko eragileen trukerako eta elkar ezagutzeko, emozionala, kognitiboa, korporala, etab.
- Parte hartzeari buruzko trebakuntza, erakundeen hezkuntza emozionalean, batzarretan lana egiteko... hausnarketa kritikorako inertzia apurtzeko.

Hiru gai hauek, hezkuntza emantzipatzaileaz ari garenean, ez dira edonola garatzen, baizik eta marko ideologiko eta ikuspegi metodologiko jakin batetik. Aipatutako beste elementu batzuen artean honakoetan oinarritzen dira: ahaldunaren parte-hartzean, sormen demokratikoan, boterea lagatzean, begirada sistemikoa izatean, hainbat begirada jasotzean, gatazkaz ohartzean, elkarrizketan...

Horrek guztiak bizitza eraldatzen laguntzen du, erakundeak eta prozesuak indartzen. Prozesuen azterketa kritiko eta emozionala giltzarria da. Norberaren errealitatetik ikasten eta desikasten, dogmarik gabe, tokikoa eta globala lotuaz justiziaren logikatik, horrek elkarren arteko erantzunkidetasunera baitarama. Horrelakoak dira eta izango dira prozesu emantzipatzaileak.

Ixteko, bi ordutik erabat kanpo, azkeneko txanda bat egin genuen "nola sentitu ginen, zer generaman, zer uzten genuen" esateko.

4. Gai ildo. Prozesuen azterketa

8. Taldea

Dinamizazioa: Óscar Jara¹

Kontalaritza: Neus Garriga² y Jordi Menéndez³

Proposamena

1. Aurkezpena
2. Lehen unea: Gogoeta gure praktiketarik abiatuta hastea
3. Bigarren unea: Prozesuetako osagaiak, dinamikak eta logikak analizatzea (erronka-desafioetatik abiatuta)
4. Hirugarren unea: Sistematizazioa eta gogoeta kritikoa, guregandik, gutaz eta guretzako, jendartea eraldatzeko prozesu dinamizatzaileen ikaskuntzak eraiki ahal izateko
5. Bosgarren unea: Amaiera

1 CEP Alforja eta CEEAL.

2 Asociación Entrepueblos.

3 VSF-Justicia Alimentaria Global.

1. Aurkezpena

Taldea osatzen duten lagunak aurkeztea, biribilaren dinamikaren bitartez eta Silvio Rodriguezen *Solo el amor* kantarekin (ikus hitzak bukaeran).

Plastilinarekin egindako irudien dinamika: Binaka elkartu gara, eta, isilik, prozesuan doan hezkuntza guretzat zer den pentsatuz, plastilinarekin irudia osatu dugu elkarrekin.

Izenen dinamika: Dinamizatzaileak ausazko ordenan seinالاتu ditu taldeko kideak, eta haiek euren izena esan dute banan-banan, pixkanaka taldekide guztiok elkarren izenak ezagutu ditugun arte.

2. Lehen unea: Gogoeta gure praktikatik abiatuta hastea

Banakako lana. Zeintzuk dira gure prozesuak eraldatzaile izan daitezten haietan zehar aurre egin beharreko gure mugak edota oztopoak? Zeintzuk dira gure ahalmenak?

Mugak	Ahalmenak
<ul style="list-style-type: none">- Ez jakiteak- Denborak- Ekintzen epe laburrak- Immobilismoa: beti horrela egin izan dugu- Geure buruari ezarritako mugak, zentsurak eta alternatibak irudikatze beldurra- Babes edota adostasunik eza ikastetxean	<ul style="list-style-type: none">- Baloreak ikasi eta barnertatzeko gaitasuna- Aldakuntza eraldatzaileak bizitzeko premia- Ikasleak- Sormena- Sumindura- Sarean lan egitea prestakuntzan, ikerketan, esperientziak eta ikaskuntzak partekatuz- Kontzientzia kritikoa

<ul style="list-style-type: none"> - Mezua -komunikazioa- helarazteko tresnak izatea - Komunikazioko denbora - Berehalakotasunaren denbora - Prozesu akademikoak eraikitzean ez parte-hartzea - Maila edota subjektu batzuetan praktikaz ez jabetzea - Eraldatu ahal edo nahi dugun arazo jakina identifikatuta izatea - Erakundeen helburua eraldatzearen aurkakoa da 	<ul style="list-style-type: none"> - Giza baliabideak - Gaiarekin lotutako lagun ugari, zerbait egin nahian, engaiatuta - Laguntzen diegun pertsonak, taldea -inklusioa, gogoia eta parte-hartzea- - Antolamendua - Eginez pentsatu eta pentsatuz egin - Gure prozesuetan parte hartzen duten pertsonak eraldatu egiten dira egiaz, eta gero inplikatu egiten dira eraldatzen jarraitzeko: lortu egiten da! - Badaude aldakuntza gauatzeko baliabideak
<ul style="list-style-type: none"> - Prozesuen iraungarritasuna, iraunkortasuna - Gainbabestea - Premiak ez ezagutzea - Denbora ez errespetatzea - Mugatutako gaitasunak -teknikoak, ekonomikoak eta giza baliabideetakoak- - Komunitatean integratu gabeko eskola - Irakaste-ikaste prozesua indartzeko baliabide didaktiko gutxi izatearen kontzientzia erakustea - Hezkuntza-prozesuaren protagonistek itxura batean subjektibotasun politikorik "ez izatea" - Inertzia/Aldatzeko beldurra 	<ul style="list-style-type: none"> - Gaitasuna - Berrikuntza - Hezkuntza-prozesuaren protagonistek eginkizunak era desberdinean egiterakoan erakutsitako gogoia - Premiak ezagutzea - Ekimenak entzutea - Erabakietan laguntzea - Gaiaren poliedrikotasuna: Elikagai subiranotasuna - Jendarte hobea eraikitzeke egiten dugunarekiko maitasuna - 2.0 lanabesak/Sarea

<ul style="list-style-type: none"> - Aldakuntza handia da - Egiturak - Errealitatera egokitzea - Konformismoa - Betikoa egitea - Hezkuntza formaleko egituraren mugak eta zurruntasunak eta haiak gainditzeko geure buruari jartzen dizkiogun hesi mentalak - Esperientziak izateko, parte-hartze aktibo jarraia izateko gogo gabezia - Distantzia -Iparra/Hegoa- - Konpromisoarekiko harremana - Hegoaldean "gringo" moduan ikusten gaituzte 	<ul style="list-style-type: none"> - Ekinean ari den oinarri sozial handia - Esku hartze zuzena - Parte-hartzea - Sormena - Pedagogia emozionala - Beste bide bat izan daitekeela aurkeztea edota aurkitzea - Gaiak beraiek: norberari interesatzen zaizkion eta norbera ukitzen duten alderdi asko lantzen dira - Errealitateetatik abiatzen dira Hegoaldeko jendearekiko harremanean - Elkarrengandik ikastea - Hegoaldea aurrera doa, geu gara lekuko eta trukea egin dezakegu (Iparraren eta Hegoaren arteko harremana)
<ul style="list-style-type: none"> - Ikasleak nola ahaldundu jakiteko tresna gabezia - Botere-harremanak/Ezagutzen balioa - Erraza dena -hezkuntza tradizionala- - Gobernua - Denbora - Geure buruari ezarritako mugak eta autoestimu falta - Ikasleak sentsibilizatzeko ezinbestekoa da irakasleak prestatu eta sentsibilizatzea - Erakundea bera - Legeak - Eragile sozialen eta gurasoen artean sarean egindako lanik eza - Denbora - Ikasleak eta irakasleak tartean diren eginkizun ugarietan - Garapenerako hezkuntzak lehentasuna izan dezan lortzea. 	<ul style="list-style-type: none"> - Aldakuntzaren aldeko borrokarako gogoia duen prestatutako langileak - Ideia sortzaile eta berritzaileak - Botereko egituretan egindako aldaketa txikiekin emaitzak oso positiboak dira - Ilusioa, autokudeaketa eta autonomia erdigunean ezarri - Jakin-mina - Askatasunetik eta askatasunerako desikasi eta berriro ikasi - Euren hitzetik abiatu - Unibertitate bateko lankidetzaren zentro batetik bultzatu daiteke Garapenerako Hezkuntza - Badira esku hartuko duten baliabide eta pertsona batzuk

Zer da gure prozesuak eraldatzaile bihurtzen dituen?

Taldekako lana gure ustetan eraldatzailea denetik abiatuta, galderentzako erantzunak trukatzeko eta adierazitako faktoreek nolako izaera duten analizatzeko, kanpoko ala barnekoa

1. taldea

Kontzeptuak espiralean ikusgai izateko horma-irudia egin dute. Bukaera eta hasierarik gabeko prozesua da, hainbat une bizitzen dituen eta lineala izan beharrik ez duena; komunitatearekin lan egitea ezinbestekoa da -konpromisoa une jakin batzuetan-. Eraldatzailea denak politikoa eta konprometitua izan behar du, eta horrek tokikoan eragiten du.

Eraldatzeko, lehenengo kontziente izan behar dugu desikasi egin behar dugula -erosotasunetik irten- ikaskuntza berriak gureganatu ahal izateko, eta horrela aldakuntza biderkatuko duten pertsonak bihurtu ahal izateko.

Eraldatzea intentziazko ikasketa bezala.

2. taldea

Mugak eta indarguneak elkarren osagarri dira.

- Pertsonak eta erakundeen arteko hesi mentalak suntsitzea. (pentsamendu kolektiboa).
- Rolak aldatzeko gai izatea -ez du irakasleak bakarrik erakusten-.
- Pertsonen ideia eta ezagutzetatik abiatzea. Ikasi eta erakutsi egiten duten subjektuen hitzetik abiatzea.
- Aldatzeko prozesua zorioneko prozesu bezala -azken helburua-. Zoriona bizitzako helburu bezala jartzea.
- Prozesuetan lagun izatea.
- Arte, sormena eta ilusioa sustatzea.

Eztabaidarako proposamena: Zer da zoriona? Nork eraikitzen du zoriontasuna? Ez da bakarra, pertsonala eta emantzipatzailea da -Isabel Rauberren txostenari erreferentzia eginez-.

Zer zoriontasunez ari gara, eta nola eraikitzen dugu beste era bateko zoriontasuna?

3. Taldea

Eraldatzailea izateko, honakoa behar da:

Tresna eta ekintza-ildoen dimentsioa

- Dinamikak haustea ahalbidetzen duten tresnak.
- Erosotasun-eremutik irtetea.
- Bakarrik ez sentitzeko sarean lan egitea.

Kontzientzia kolektiboko lanaren dimentsioa

- Kontzientzia kolektiboaren partaide izateak jabetzea eta aldakuntza ahalbidetzen du -esaterako, ekologiaren prozesua, Greenpeaceko lau zororen kontua izatetik egunerokoa izatera-.

Bitarteko dimentsioa

- Aldatzeko beldurra galtzea eta proposamenak egitea. *Garapenerako Hezkuntzaren kontzeptuak sortutako erosotasun-eremu honetatik irten beharko genuke, "mugatu" eta itoarazi egiten gaituelako.*

4. Taldea

"Jasaten eta oheratzen ditugun zapalkuntzen kontzientzia politiko handiagoa garatzea eta parte-hartze sozial handiagora bideratutako konfiantza handiagoa autoestimuz garatzea, bai norberaren mailan bai maila kolektiboan, ahalbidetuko diguten prozesu emantzipatzaileak".

- Ondorioari buruzko gogoeta: lehenengo zatia askoz ere konkretuagoa da, eta jauzi bat dago ondorengo lanean. Eraldatzea ez da helburu bat.
- Zer izateko eraldatu? Zentzua emango digun zerbait izateko: emantzipazio kolektibo eta indibiduala -ez hedonista, kolektiboan pentsatuz egindakoa baizik-.
- Kontzientzia politiko handiagoa, parte hartzeko eta subjektu politiko bihurtzeko autoestimu handiagoa eskuratzeko prozesu bezala ulertuta -espiralaren berdina-.

5. Taldea

- Prozesua emaitzatik bereizita bizitzea -ez da emaitza bat helburu hartu eta geure burua "mugatu" behar, emaitza hori prozesuarekin batera aldatzen baita-. Ez dago "azkeneko" emaitzarik, egunez eguneko emaitza txikiak baizik. Lortzen dena prozesua bera da.
- Eraikitze kolektiboa, kolektiboa ahalduntzea eta indibidualismoa haustea -taldea indartzea.
- Kontzientzia kritikoa sortzea/eskuratzea.
- Subjektu politiko aktiboa eta parte hartzailea eraikitzea.
- Elkar hezteko balio duen elkarlana. Elkar hezteko prozesu batetik abiatuta eraldatzea.

- Subjektu ahulenak indartzea. Taldearen beharretara egokitzea eta prozesuari laguntzea, elkarrekin aurrera egiteko.

Eztabaidarako proposamena:

- Prozesua norbere ibilbidearekin sortuaz doa. Laguntzeko gaude hemen edo prozesu bat behartzen ari gara?
- Prozesuak denbora eskatzen du, baina analisisia lasterka goazen bitartean egiten dugu.

6. Taldea

- Prozesua errealitatera eta bertan gertatzen diren aldaketa konkretuetara egokitzea. Aldakuntza bat behar da prozesua hasi ahal izateko.
- Prozesuaren baitako zatien elkarrekiko konpromisoa eta hurbileko laguntza -ez jarraipenarekin nahasi-.

Sakontzeko gaiak

- Haustura, desikastea (erosotasun-eremutik irtetea).
- Lineala ez den prozesua, helbururik gabekoa.
- Prozesu emantzipatzaileak izan behar dute.
- Kontzientzia politiko handiagoa garatzea -ez pentsatu kanpoko elementu zapaltzaileetan bakarrik, baizik eta baita barneko eta pertsonaletan ere-.
- Zoriontasuna: zer zorion mota. Bizitzaren gida izan beharko luke -"ezarritako" paradigma hautsi-.
- Rolez aldatzeko gai izatea -guztiok ikasten dugu guztiongandik-.
- Subjektuak prozesu eraldatzailearen atal bezala ezagutzetik abiatzea.
- Prozesua teknifikatzeko joeraren aurrean, arlo emozionalean inplikatzeta.

Prozesu eraldatzaileak bultzatzeko bidean, gure prozesuak, mugak eta ahalmenak markatzen dituzten hiru gune eta egoera aurkitu ditugu:

1. Bizi dugun une historikoa "Testuingurua": Prozesuetan parte hartzen dugun talde eta pertsonen egoera eta inplikazioak	
<ul style="list-style-type: none"> - Automugatzea eta zentsura - Aldatzeko beldurra - Immobilismoa, konformismoa: "beti horrela egin izan dugu" - Hesi mentalak - Irakasleen sentzibilitate falta - Subjektibotasun politiko gabezia- 	<ul style="list-style-type: none"> - Antolamendua - Konpromisoa, pertsonen inplikazioa, ilusioa - Gogoia eta motibazioa - "Egia eztaba daezinak erortzeko" testuingurua - Sormena, sumindura, kontzientzia kritikoa - Ikasteko gaitasuna
2. Lanean ditugun egiturak eta baldintzak	
<ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntza-egituraren zurruntasuna - Adostasun falta ikastetxean - Komunitatean integratu gabeko eskola - Eraldatzearen aurkako helburuak dituzten erakundeak 	<ul style="list-style-type: none"> - Laneko egitura egonkorra - 2.0 lanabesak - Elikadura gaien poliedrikotasuna - Alderdi pertsonalak ukitzen dituzten gaiak
3. Gure gaitasunak, jarrerak eta egiteko moduak	
<ul style="list-style-type: none"> - Gaitasun mugatuak - Helburu garbirik ez izatea - Eraldatu beharreko arazoa ez identifikatzea - Epe laburrerako ikuspegia - Denborak ez errespetatzea - Jarraipenik gabeko berehalako emaitzak 	<ul style="list-style-type: none"> - Berrikuntza - Sarean egindako lana - Ekimenak aditzea, erabakiak laguntzea, beharrak ezagutzea - Era kolektiboan analizatzea - Eginez pentsatu eta pentsatuz egin - Aldakuntzak bizitzeko eta beste bide batzuk izan litezkeela aurkitzeko beharra

3. Bigarren unea: Prozesuetako osagaiak, dinamikak eta logikak analizatzea (erronka-desafioetatik abiatuta)

Berriaz osatutako taldeetako lana, analitzatzeko gaien arabera zatituta

Gogoeta, eta, horretatik abiatuta, paperografoan grafikoa osatzea. Ahal baldin bada, kantu, poema edo kontsigna batekin batera:

- Berehalakoa eta epe luzekoaren arteko harremana.
- Lidergoa, parte-hartzea eta laguntzearen arteko harremana.
- Tokikoa eta globalaren arteko harremana.

- Iparra eta Hegoaren arteko harremana.
- Arrazoiak, emozioak eta zainketen arteko harremana.


Eztabaida: atzoko lanari berriro ekinez eta parte hartzaileei informazioa itzuliz abiatu, eta eztabaidarako tarte zabaldu da:

- Ahalmenek lagundu egiten digute gure testuinguruan.
- Ur-lasterraren kontra ari gara arraunean, eta zailtasunak egituren barruan aurkitzen ditugu, baina gure ahalmenek aldakuntzarantz aurrera egin ahal izatera garamatzate. Prozesu eraldatzailea egin nahi baldin badugu, baldintzak aldatu behar ditugu aldakuntza (prozesu) hori egin ahal izan dadin.
- Honen moduko biltzarrek egin dezakegunaren potentzialtasuna ikusarazten digute.
- Kanpoko eta barneko desberdintasunak daude, ahalmenak eta indarrak. Barneko mailan aukera asko dauzkagu, eta kanpoko mailan oztopo ugari aurkitzen ditugu.
- Pertsona baten potentzialtasunak beste pertsona baten ahalmena ikusarazten digu. Beste hainbeste gertatzen da erakundeen mailan ere. Ahalmenak izatetik jaiotzen dira. Biltzarra bezalako gune batek lanean jarraitu ahal izateko tresnak ematen dizkigu. Sinergien garrantzia eta gainerakoekiko hitzarmenak.
- Gai horiek eskola esparruan lantzeak ahalegin handia eskatzen du. Egiturak ez du lan hori errazten.
- Hezkuntza-sistema zurrunagoa da bigarren hezkuntzan lehenengo hezkuntzan baino.
- Garrantzitsua da oztopoei aurre egiteko eta, ahalmenetatik abiatuta, aukerak sortzeko aukerak gaitasuna ikustea. Ahalmenak sendotzea.
 - Historiari eraikitzeak aukera bezala heltzea. Hori da gure desafioa.
 - Potentzialtasuna beste eragile eta jendarte-antolakuntza, mugimendu sozial, emakumeen erakunde eta abarrekin, aldatzeko prozesu kolektiboetan lan egiteko.

1. Taldea. Berehalakoa eta epe luzekoaren arteko harremana


- Aldaketa txikiak nola laguntzen dizun beste aldaketa batzuk egiten.
- Zer gertatzen da epe motzeko ikuspegiarekin: prozesuaren jarraipena (gezia).

- Mugarriak aldatzeko une bezala, bai lorpenak badaira edo baita porrotak badaira ere.
- Ikastea ahalbidetuko diguten prozesuak.
- Funtsezkoa da subjektu moduan guk dugun egitekoa: eskuak eta bihotza.
- Hori gerta dadin, eginez joan behar dugu orain: koherentzia eta dikotomiak haustea.



2. Taldea. Lidergoa, partaidetza eta laguntzaren arteko harremana

Irudia: Desikasteko garbigailua (berria den zerbait ir-teteko garbitu nahi ditugun elementuak: superegoak, prozesuan zehar norbera erretzea, adostasun faktikoak, boterea, betirako ezinbestekoak, desmotibazioa, zentralizazioa, ardurak eskuordetzea...).



- Lidergo kontzeptua: lidergo ona denerantz deseraikitzea.
- Izena aldatzea: dinamizatzaileak/bideratzaileak.
- Gaitasunak: aditzeko gaitasuna, egoei uko egitea, eskuzabaltasuna, apaltasuna, autokontzientzia ahalmena.
- Lidergoaren figura txandakatzea.
- Eredu izatearen koherentzia.
- Taldearen jarraipena.
- Parte jartzea -pasioa jartzen duen parte-hartzea-.
- Indartze bateratua.
- Zaintzea, laguntzea.
- Elkarri laguntzea (Ipar-Hego harremana), lagun egiten diogu elkarri.
- Guk geuk egiten dugu prozesua.
- Gure gaitasunak eraikitzea.
- Boterea-Lidergoa: badaira botere kolektiboak handitzen dituzten lidergoak.



3. taldea. Globala eta tokikoaren arteko harremana

Ezaugarriak:

- Espiral grafikoa prozesuari irudia emateko, inoiz ere bukatzen ez den eraikitzean beti.
 - Tokikoa eta globalaren artean elkarren arteko harremana eta dependentzia irudikatzeko geziak; noranzko bakarrek ez (Iparretik Hegora), baizik eta noranzko guztietarantz.
- Zubiak Iparra eta Hegoaren arteko loturak dira -espazioak elkartuz-.
 - Elkarren arteko konexioak irudikatzeko ahalegina da espirala.
 - Herrialdeen eta eragileen arteko elkarriketa da espiralaren oinarria.
 - Marrazkiaren oinarrian dauden pertsonak: munduari eusten dioten pertsona guztiak vs botere faktiko eta ekonomikoen "eskuak".
 - Egutegia: egunerokoa balioztatu, kultura artekotasuna -kontu izanda estereotipoak eta folklorea bakarrik ez lantzeko, sakonekoa baizik-, eta partekatzen duguna nabarmendu.
 - Idatzitako hitzak, harremanetako guztiontzako eremuak gogoan izateko:
 - Pertsonen eta pertsonentzako zainketak.
 - Zaintzearen eta etorkizunaren garrantzitik abiatuta, iraunkortasuna eta ingurumena.
 - Pertsonen mugikortasuna.
 - Globalizazioak, faktore ekonomikoa izateaz gain, baditu beste alderdi, emozio, jarrera eta erantzuteko modu batzuk.
 - Globalizazioaren eta bere potentzialtasunen alde positiboa ikusten ahalegintzea. Hori da aurrean dugun erronka -globalizazioaren ikuspegi negatiboa suntsitzea-.
 - Desberdintasunak aintzat hartuta, bat egiten dugu gauza askotan. Globalizazioa egunerokora eraman behar da, indarguneetatik abiatuta.

4. taldea. Iparra/Hegoa harremana

- Ahaztu dezagun Iparra eta Hegoa kontzeptua: dikotomia hautsi beharra dago, Hegoan badirelako Iparrak, eta baita Hegoak Iparrean ere.

- Dikotomia haustea ahalbidetzen duen hitza: emantzipazioa; ez bakarra, asko baizik.
- Birkodetu: sortutako estigmak eta estereotipoak apurtu. Horretarako hutsetik hasi beharra dago.
- Ahotsa eman: zaugarrirei, ikusezinei.
- Begiradak: zuk besteearekiko duzun begirada eta besteak zurekiko duena aldatzea.
- Globalitatearen ikuspegia deseraikitzea, eta eraikitzea begirada feminista duen zainketatik abiatuta.
- Dikotomiak ezabatzea eta ikuspegi berriak eraikitzea, tokikoa eta globala lotuz, azalekoa baino haratago pentsatuz.
- Elkarren arteko harremanak aurkituz.
- Egiatzko dikotomia honako hau da: baitaratzea-baztertzea, sisteman eta ekonomian bakarrik pentsatuz ez ezik, ikuspegi guztietan.

5. taldea. Emozioak, zainketak eta arrazoia

- Gaur egungo egoeratik abiatu gara -begirada kritiko ekofeminista bate-tik analizatuta-, arrazoia nagusi izanik -buru handia- eta emozioak eta zainketak kanpoan dabilta -hegan-: hori guztia merkatutik abiatuta -dolarren ikurra-
- Esnatzeko unea (panpina lotan). Dena zalantzan jartzetik eta kritikoak izatetik abiatuta hori guztia, arrazoia eta emozioak lotuz.
- Emozioak eta zainketak (bereziagoak naturak eragin handia duen lekuetan, gizonen eta emakumeen artean hartuz zaintzaren erantzukizuna) bizitzaren erdian jarri ditugu.
- Arrazoiak pisua galtzeko eta emozioek eta zainketek irabazteko prozesua, merkatuan oinarritutako mundua albora utzi eta ekofeministotik abiatuta beste bat eraikiz. Elkarren eta ekologiaren mende gauden izakiak gara. Ekonomia feminista.
- Pentsamendu eskemak desikasi eta deseraiki- Dikotomiarik ez.



- Aniztasuna, askotariko izaera, elkarren arteko harremana eta elkarren mendekotasunetik abiatuta, aurkitu eta baieztatu.
- Arrazoa emozioekin, pasioarekin, lotzea.
- Bizitza zaintzearen etika.
- Eraldatze prozesuak bultzatzeko gai diren subjektuak izatea.

4. Hirugarren unea: Sistematizazioa eta gogoeta kritikoa, guregandik, gutaz eta guretzako, jendartearen eraldatzeko prozesu dinamizatzaileen ikaskuntzak eraiki ahal izateko.

- Ikaskuntza esanguratsuak ekoizteko intentzio bat behar da, ez dira automatikoak.
- Bizitako prozesua kritikoki analizatu eta interpretatzea da kontua.
- Ikaskuntza kritikoak: protagonistek egindakoak, praktikatik abiatuta, praktikei buruz eta ikuspegi eraldatzailearekin.
- Esperientziak sistematizatzean, funtsezkoa da ikaskuntza bat ekoiztea, prozesua berreraikitzen eta bizitakoaren bizitasunetik abiatuta, eta horretatik analizatzea zergatik gertatu den horrela, zer ikasi dugun horretatik eta etorkizunean zer egingo dugun. Prozesuaren protagonistekin bizitako prozesuaren berreraiketa egiten da beti.
- Bizitako unez eta bizitako praktikako ikaskuntzetatik abiatuta gogoeta egitearen garrantzia.
- Ahaluntzearen garrantzia sistematizazioko unean: zertarako gai izan garen ikustea. Sistematizazioan, garrantzitsua da, gertatu dena ikusi eta analizatzea ez ezik, baita gertatzea nahi duguna proposatzera iristea ere.
- Gakoa prozesuen barruan gogoetarako uneak txertatzean datza. Prozesuaren beraren barruan prozesuari buruzko gogoeta kritikoa eranstea. Prozesuen beraien baitan esperientziak sistematizatzeko forma desberdin asko daude.
- Esperientziaren inguruan galdetzea da kontua, ondoren esperientziak "hitz egin" diezagun eta galderak egin diezazkigun geuri, zalantzan jar gaitzan, eta horrela bizitakotik ikasi ahal izan dezagun.

Oharra: Prozesuan zehar eta bere baitan elementu edota gogoeta kritikorik sartzen ez baldin badugu, horiek utzi egingo diote eraldatzaile izateari.

5. Laugarren unea. Amaiera

Behin batean, Julieta izeba egoera benetan zail eta korapilatsua bizitzen ari zen. Joan eta etorrian zebilen, galduta, nora jo ez zekiela, burua makur, beherantz begira, dena kolore bakarreko ikusiz. Halako batean, ordea, tximeletatxo bat hurbildu zitzaion. Eta esan zion: "Kaixo, izeba Julieta. Jaso ezazu begirada, eta ikus ezazu gauzak nolakoak diren: politak eta askotarikoak dira, lore hau bezala; kolore asko dauzkate. Desikasten ausartu zaitez, eta egiten duzuna deseraikitzen. Has zaitez errealitate aberats hori ezagutzen, eta zuk zeuk ibilian zeharkatzen..."

Izeba Julieta animatu egin zen, eta, zapatak jantzita, ibiltzen hasi zen, bidea egiten. Saski bat hartu zuen, eta bidezidor berriak ibili zituen, hazteko espiralean osatutako prozesuan. Horrela, esperientziak bizitzen hasi zen, beti inguruan jende asko zuela -nahiz eta hemen ez dauden, bazeuden lehen-. Esperientzia bakoitzeko, gogoeta egiten zuten, eta orduan bizitakoa bolatxo formako ikaskuntza bihurtzen zen. Era horretan, izebaren otarra ikaskuntza guztietako bolatxoekin betetzen hasi zen.

Horri esker, bilatzeko abenturazko bide horri jarraiki, zoriontsu zen, bolatxo batekin jolasean dabilen haur hau bezala. Pauso eta une bakoitzaren garrantzia ikusi ahal izan zuen, hesola hau bezain tinko, baina bere gogoetari esker infinituraino proiektatu eta luzaaaaatu zezakeen. Horrela, azkenean, denborak aurrera egin ahala, esperientzietatik ikasitako bolatxoekin saski gehiago zamatzu jarraitu zuen, beti beste lagun zoriontsu batzuekin. Ontzi batean sartu ziren, eta ur ezezagunetan nabigatzera joan ziren, aurrerantzean errealitate berriei aurre egiten lagundu zieten prozesu ugari bultzatuz, betiere ikaskuntza berriekin aberastuz...

Dinamika: Besarkada espiralean

Elkarri eskuetatik heldu eta espiral bat osatzen hasiko gara guztiok batera, elkarri lotuta gelditu arte, elkar besarkatuz.

SOLO EL AMOR (Silvio Rodríguez)

Eskuetan duzun buztina maite behar duzu
Hondar hori maite behar duzu zoratzeraino
Eta bestela, ez hasi, alferrik izango da
Maitasunak bakarrik erne dezake irauten duena
Maitasunak bakarrik bihur dezake lokatza mirari
Ahaleginen denbora maite behar duzu
Distirarik gabeko ordua maite behar duzu
Eta bestela, ez pentsatu egiazkoa ukitzerik
Maitasunak bakarrik erne dezake miragarria
Maitasunak bakarrik baimen dezake hildakoa piztea

1. Monografikoa. Hezkuntza publikoaren alde

Dinamizazioa: Albert Sansano¹ eta M^a Ángeles Llorente²

Kontalaritza: Sandra Dema³ eta Michel Sabalza⁴

Proposamena

1. Aurkezpena
2. Nahi dugun Hezkuntzaren bueltaka
3. Ondorioak

1 Munduko Hezkuntza Foroko Nazioarteko Kontseiluaren Idazkaritza Betearazlea.

2 Berrikuntza Pedagogikorako Mugimenduen Plataforma.

3 Oviedoko Unibertsitatea.

4 Hegoako talde teknikoa.

1. Aurkezpena

Testuinguru orokorra: XX. mendeko 90eko hamarkadatik aurrera hezkuntza eta gainerako zerbitzu sozialen pribatizazioari lotuta izan diren nazioarteko prozesuek eragina izan dute eskola publikoan (hezkuntza kontsumoko ondasun gisa, negozio gisa, ideologia merkantilistaren igorle gisa hartzea...). Zergatik babesten dugu hezkuntza publikoa? Zein motatako hezkuntza eta eskola nahi dugu?

Berrikuntza Pedagogikorako Mugimenduak azaldu duen eztabaidako elementu nagusiak:

- Hezkuntza askatzaile baten alde: pertsonengan ardaztua, zientifikoa, askotarikoa, inklusiboa, laikoa...
- Eskola publikoetan: doako eskoletan (0 eta 3 urte arteko hezkuntza barne).
- Desberdintasunaren aurka etengabe borrokan: pertsonari aniztasuna dagokio, eskolan dagoen desberdintasuna jendartean dagoen desberdintasunarekin berrelikatzen da.
- Jardun demokratikoko praktikekin: taldekako eta txandakako zuzendaritzako esperientziak badituzte, ikastetxeen jarduna hobea da, eskolako porrotak behera egiten du eta zoriontasunak gora. LOMCEK eskumenak kentzen dizkie eskola-kontseiluei, eta zuzendariari ematen dizkio. Ikastetxeetan, irakasleek, ikasleek eta familiek boterea partekatu behar dute. Parte-hartze demokratikoko egiturak sustatu behar dira, adibidez, gurasoen eskolak. Hezkuntza itunduaren kritika (ez da oso demokratikoa).
- Curriculum alternatibo baten alde: edukiak, materialak, metodologia, ebaluatzeke moduak, giza eskubideetan oinarrituta.
- Etengabeko aldarrikapenaren beharra eskola publikoa eraikitzeke. Hobekuntzak lortzeke aldarrikapena behar da; hezkuntzazkoa da, zer nahi dugun eta noraino iritsi ahal garen ikasten dugu. Hezkuntza aldatu ezik, mundua ez da aldatuko. Eskolan balioak aldatzeke, jendartean finkatuta dagoen ordena aldatu behar da.

2. Nahi dugun Hezkuntzaren bueltaka

Lan bat egitea proposatu da. Talde txikitan egin behar da, bi galdera hauen inguruan:

- Lortu nahi dugun hezkuntza-ereduari buruzko eztabaidari zein ekarpen egin ahal diogu?
- Zein dira ideal horien alde dauden elementu onak eta txarrak?

1. Taldea

- Eredua praktikan nola jarri erabakitzeko eztabaida: Eskola itundua sar daiteke? Eskola alternatiboen eredua? Curriculum alternatibokoak?
- Murrizketak ez dira oraingo kontua. Hezkuntza-arloan dauden arazoak beste sektore batzuetan ere badaude, adibidez, osasun-arloan.

2. Taldea

- Ikastetxe pribatuetako esperientzia batzuek, itxuraz, ikastetxe publikoek baino hobeto jasotzen dituzten balioetan oinarritutako hezkuntzako zenbait proposamen, Garapenerako Hezkuntzari lotutako horiek.
- Aurre egiteko jarrera izateak ondorio pertsonalak izan ditzake, adibidez, mobbinga, bakardadea...
- Kolonbiako testuingurua: Irakasleek beldurra dutenean edo aurre egiten dutenean, zaila da lan-dinamikak erabiltzea.
- Hezkuntza emozionalaren garrantzia.
- Beste leku batzuetan ez bezala, Espainiako estatuan hezkuntza ez da estatuko kontua, eta hori oztopo da hezkuntza publikoarentzat.

3. Taldea

- Ikasleei arreta egin beharko genieke, irakasleen lan-aldarrikapenetatik harantz joz.
- Barrutik borrokatzea proposatu da, kanpotik sistema aldatzen den bitartean: prozesuan beldurra eta kostu pertsonalak izan arren.
- Balioak berreskuratu, eta hezkuntza emozionalerantz jo behar da.

4. Taldea

- Nabaritzen dute Garapenerako Hezkuntzaren helburuak hezkuntza formalak dituen helburuen antzekoak izan daitezkeela eta GGKEek zeregin garrantzitsua izan dezaketela ikastetxeetan.
- GGKE batzuek (erlijiozkoak direnez) gehiago babesten dute hezkuntza itundua publikoa baino.

- Familiek eta erakundeek ez dute beti hezkuntza publikoan sinesten.
- Nabarmentzen dute irakasleak direla arreta-gunea, alde burokratikoa.
- Hezkuntza publikoa eta estatuko hezkuntza bereizteko beharra aipatzen da.
- Hezkuntza eskolatik harantz doala azpimarratzen dute. Badira hezkuntzako eragile desberdinen arteko sareen esperientziak (Kataluniakoa, administrazioaren, eskolaren eta GGKEen artekoa), ikasleak tartean sartzen dituztenak (parte hartzeko kontseiluak, barne araudiak edo ikasleen ordezkariak dituzten bitartekaritzako kontseiluak erabiliz...).
- Elkarlanean eta parte-hartzean oinarritutako metodologiak ezarri behar dira, eta prestakuntzako ebaluaziotik atera behar da, kontua ez baita ikasleen jakintza-maila kontrolatzea. Irakasleek ondo prestatuta egon behar dute (ez da kontu bera taldeak kudeatzea eta talde-dinamikak egitea).
- Eragin politikoa izateko lan egitea, hezkuntzak herritarrak (ez merkatu-rako eskulana) prestatzeko balio duela dioen ideia berreskuratzea.
- Hezkuntzaren aldeko itun soziala behar da. Noren artean? Alderdien artean? Sindikatuen artean?
- Eraitza onak dituzten hezkuntzako esperientziak eta jardunbide onak mapan jasotzeko eskatu dute.

5. Taldea

- MRPk azaldutako elementuen alde daude, baina alde batera utzi beharko litzateke hezkuntza formal/ez-formalaren arteko dikotomia. Hezkuntza publikoak maila guztiak hartu beharko lituzke barne, pertsonen eta komunitateen garapenean dauden aldi guztiak.
- Behera egin du guraso-elkarteek jendea erakartzeko duten ahalmenak, manifestazioetara gero eta jende gutxiago joaten da.
- Irakasle batzuek oker uste dute ikasleek hezita etorri behar dutela ikas-tetxera.
- Sareko lana eta familiekiko itunak garrantzitsuak dira.
- Gaur egun dauden sareak eta protestak ezagutzera emateko proposamena.

Remix taldea

- Eztabaidaren ardatza hezkuntza formala izan da.
- Galiziako hezkuntza-arloko protestak azaldu dira. Zuzendaritza-talde errebeldeen kontrako salaketak webean argitaratzea izan da Administra-

zioak kasu horiei eman dien erantzun bakarra. Horren ondorioz, irakasle horiek salaketak jaso dituzte hedabideetan.

- Landa-guneetako hezkuntza publikoaren aldeko plataformak egon arren, komunitateak gutxi hartzen du parte, eta hezkuntzaren komunitate-zentzua galdu da.
- Era askotako esperientziak daude: autokudeatutako taldeak, eskola askeak (Compostela, Vigo) eta testuliburuak erabili ordez bestelako materialak erabiltzeko estrategiak.
- Euskal Herrian, erresistentzia-mugimendurik argiena ikasle abertzaleena da.
- Mexikon, borroka sindikalagoa da.
- Irakasleek ez dute autokritika gehiegi egiten, baina beste sektore batzuen kritika asko jasotzen dituzte.
- Irakasleak ez daude oso politizatuta; eredu merkantilista baterantz jotzen da, ikasgelatik kanpora begiratzen ez duen ikuspegirantz.
- Estrategiak: merkantilizazioari aurre egitea, politikaz berriro jabetzea, mugimendu sozialen eta unibertsitatearen arteko lotura sendotzea (curriculumak lotura txikia du hezkuntza sozialarekin eta ingurunearekin; ildo horretan sakontzen duten ikerlanak behar dira).
- Espetxeetan egin den hezkuntza-lanak erakutsi du preso asko analfabetoak direla, eta horrek argi uzten du hezkuntza-sistemaren porrotaren ondorioz bazterketa sozialak gora egiten duela.
- Ikasgelatik harantz jo behar da, arlo globalarekin lotzeko; eskola tradizionalarekin hautsi, eta integratzaileagoa den eskola bat lortu behar da, irakasleen eta mugimendu sozialen arteko harremanak, eta eskola eta jendarteko bestelako instantzien arteko sareak indartuko dituen.

3. Ondorioak

- Oso borroka partzialak izaten ari dira. Ez da baterako frontierik eratzten. Lanbide-sektore guztietako plataformak daude, baina ez dago plataforma guztiek erabiltzeko moduko fororik, funtsezko kontuei arreta egiteko.
- Mareak ez dira azkenean zehazten. Ez dago elkarrizketarik administrazioarekin. Kanean geratzen dira. Ez da negoziatzeko mahairik finkatzen.

- Ikastetxeetan proposamenak egon badaude, baina antolatzeko modurik ez (LOMCEri aurre egiteko eta intsumisioa izateko gidaliburuak badaude, baina ez da antolatzen nola egin; lan hori sindikatuek hartu beharko lukete beren gain).
- Sindikatuak ere zatikatuta daude, eta horrek geldiarazten ditu, ekitea, manifestazioak antolatzea... galarazten die.
- Valentzian sindikatuek deitutako greba bat aipatzen da. Hasieran 7 egunekoa izan behar zuen, baina barneko zatiketak zirela-eta 4 egunetara laburtu zen, gero 3 egunetara, eta azkenean egun batean geratu zen kontua. Sindikatuak bide egokia al dira jendartea hezkuntzaren alde batzeko, eta Administrazioarekin hizketakide izateko?
- Aldarrikapenei dagokienez, berriz aztertu behar da nola antolatu boterearekin ditugun harremanak. Finkatuta dagoenak dagoeneko ez du balio.
- Harantzago jo behar dugu, baina hezkuntza-sisteman gustuko ez dugun hori zorrotz kritikatzera murrizten gara, eta hori kaltegarria da, mahai gainean proposamenak jartzeko.
- Negoziaziorako helburuak zehaztu behar dira, jendarteko indarrek bat egiten duten esparruan, elkarrekin presioa egiteko.

Laburpen gisa. Eztabaidarako ekarpenak hezkuntza emantzipatzaile bati buruz

Gema Celorio¹

1. Garapenerako Hezkuntzaren kontzeptua gainditzea, etorkizun emantzipatzaile batera bidean
2. Subjektu politikoa eraikitzea
3. Eraldatzeko komunikazioa
4. Botere-harremanak zalantzan jartzea
5. Prozesuak analizatzea

¹ Hegoako talde teknikoa.

1. Garapenerako Hezkuntzaren kontzeptua gainditzea, etorkizun emantzipatzaile batera bidean

Testu hau proposatzen dugu Garapenerako Hezkuntzaren IV. Biltzarraren barruan, gai-ildoan inguruan antolatutako laneko taldeetako bakoitzean, parte hartu dutenen ekarpenak modu sintetikoan jasotzeko asmoz; orobat, aipatutako gai-ildoak biltzarrerako deialdian aurkeztu nahi ziren eztabaiden logikan txertatzeko helburuarekin.

Batzorde Antolatzaileak gai-ildo horiek aukeratu zituen, uste osoz sinetsita lagundu ahal izango zigutela askotariko krisi konplexu eta dimentsio anitzekoak -ekologia, zaintzak, ekonomia, politika- dauzkagun egungo testuinguruan hezkuntzako gure praktikak aztertzen. Horrenbestean, izaera emantzipatzaileko hezkuntza baterantz proposamen berri aurreratuagoa izango litzatekeena birbideratzen lagunduko ligukeela ere uste genuen.

Ia 25 urtean zehar, Giza Garapenaren paradigma izan da Garapenerako Hezkuntzaz dugun ikuspuntuaren argudioak eraikitzeko funtsezko erreferentzia, 4. eta 5. belaunaldizat hartzen direnen kasuan bereziki.

Herrialdeen garapen maila neurtzeko garaian, aurrerapauso garrantzitsua eragin zuen bai ikuspuntua pertsonen ongizatean kokatzeko Giza Garapenaren baitako proposamenak, bai eskubide eta gaitasunak zabaltzearen inguruko eztabaidak ekarri duen aberastasunak -Amartya Sen, Martha Nussbaum- eta baita garapena neurtzeko hezkuntza eta bizi-itzaropenari buruzko adierazleak txertatu izanak eragindako erakzteak ere -Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak babestutako planteamenduen arabera erdigunean ikuspuntu ekonomikoa kokatu beharrean-.

Horretaz gain, Giza Garapenaren ikuspuntuak lehentasuna eman zien berdintasuna, askatasunak eta demokraziaren arteko loturari, eta balioztatzeke bestelako sistema batzuk sartu zituen; hala nola, generoen arteko berdintasunik eza. Hori dela eta, ikuspuntu berriak bertara erakarri zuen han justizia soziala lortzera bideratutako eredu berri baten adierazpena ikusten zuten talde, kolektibo, erakunde eta antolakuntza guztien egitekoa.

Hasieratik bertatik, paradigma berriak zekarren funtsezko emaria aitortzen bazen ere, premia bat sortu zen aproposagoa izan zitekeen garapena eskatzen zuten ikuspuntuak zehazteko adjektiboak eransteke. Horrela, "genero ikuspegi duen" Giza Garapena, Giza Garapen "jasangarria" eta abarrez hitz egiten hasi ginen.

Era berean, berriro egin behar izan zen Garapenerako Hezkuntzaren inguruko gogoeta, gero eta konplexuagoa zen testuinguruaren aurrean. Aldi berean, beste jomuga batzuk txertatu beharra ere izan zen. Helburu horiek, pobreziaren aurkako borrokatik haratago -azkeneko hamarkadetan kooperazioa eta hezkuntza gidatu dituen helburua izanda-, pobreziari ez ezik, Hego zein Iparrean hazten ari diren bazterkeria prozesuak borrokatzeko desafioaren aurrean, ekintza hezitzailea baldintza egokiagoetan kokatu ahal izango luketen jomugak ziren.

Hori dela eta, Hiritartasun Globalerako Hezkuntzaz hitz egiten hasi ginen orain urte batzuk. Alde batetik, ikuspegi estu eta tokizaleenak gainditzeko asmoa genuen. Beste alde batetik, jendarte-aldakuntza geldiarazten duten faktoreak gainditu nahi genituen; hala nola, aitortzeko ezintasuna fenomenoaren arteko harremanak, planeta honetako bizitzari dagokion elkarren arteko mendetasuna edo giza eskubideak pertsona guztientzako berme-sistema moduan planteatzeko premia, alde batera utzita pertsonen jatorria, sexua, adina, sinesmenak, administrazio egoera edo aintzat hartu nahiko genukeen beste edozein ezaugarri.

Idea horiekin definitzen ahalegintzen gara ikaste-irakaste prozesuak (arloan formalean, ez-formalean eta informalean) gidatuko lituzketen printzipio pedagogikoak, eta baita gizakiok geure burua "hiritar global" bezala aitortzea ahalbidetuko liguketuen ezaugarriak ere -baloreak, jarrerak, gaitasunak-.

Hiritartasun Globalaren ideiak eztabaida ugari eragin zuen hasieratik. Lehen-lehenik, Hiritartasun kontzeptua mendebaldeko zibilizazioaren baitan agertutako kontzeptua delako, estatu-nazioen garapenari lotutakoa eta horiek euren politikak aplikatzen dituzten lurraldeari dagokiona; horrenbestean, beste herri eta kulturen zibilizazio-tradizioekiko eta antolatze moduekiko arrotza da. Halaber, laburbildu egiten ditu norbanakoei eskubideak eta betebeharrak ematen dizkien ezaugarri batzuk; tradizio liberalek berezkoa dute hori. Alabaina garrantzi gutxiago dauka ongi bizitzeko proposamenak gauzatzeko arlo kolektiboa, komunitatea, azpimarratzen dituzten beste tradizio batzuetan.

Hiritartasun Globalaren kontzeptu barruan, beste ezaugarri nagusienetakoa hiritarrak komunitate global bateko kide moduan bizitzea da. Nolanahi ere, planteamendu horrek baditu konpondu gabeko tentsioak edo eztabaidak. Gurea bezalako jendarte globalizatu batean, aniztasuna ezabatuz daukan homogeneousiorako joerarekin, nola ebatzi dezakegu singularitasunak -identitatekoak eta bestelakoak- errespetatzearen eta guztiontzako eraikitzearen arteko tentsioa?

Eztabaidatzeko horiek bezain aproposak izan daitezkeen beste kontu batzuk alde batera utzita, aitortu beharra dago Hiritartasun Globalaren proposamenak aurrerapauso ukaezina eragin duela zenbait arlotan. Hala nola, Iparra-Hegoa analisi dikotomikoa gainditzeko ikuspuntuak sustatzeko lana nabarmentzen saiatzen diren hezkuntza-proposamenak definitzean, pobreziaaren aurkako borrokarekin lotutako helburuak baino harantzagoko jomugak definitzeko, eta gure tokiko ekintzen dimentsio globala sendotuko duen nazioarteko elkartasun sareak sortzeko.

Dena dela, horrek guztiak ezinbestean egon behar du lotuta nazioarteko agertokiko errealitatearekin eta bizi hobea eta duinagoa eskuratzeko baldintzak sortzea zehazteko balio duten proposamenekin. Eta hortxe aurrez aurre daukagu ikuspegia: Giza Bizitzari² buruz proposamenak eginez 30 urtean ibili ondoren, Ipar-Hegoetan aberastuek txirotu eta baztertutako herritarren sektore askoren arteko etena sakontzen jarraitzen du hedatzen ari den kapitalismo menderatzaileak, globalizazio neoliberalaren ikurraren azpian.

Giza Garapenak eta Hiritartasun Globalerako Hezkuntzak helburu txalogarriak ezarri dituzten arren, ez dira nahikoa izan ongizatea, berdintasuna, ekitatea eta askatasuneko promesak gauzatu ahal izateko aldatu beharreko egitura-baldintzak auzitan jartzeko.

Ez soilik bi proposamenak mendebaldeko modernitatean eraikitako ikuspegi oinordeko direlako -ongizatea ulertzeko beste modu batzuekiko edo beste ikuspegi batzuekiko itsu-, baizik eta bihotz-bihotzean desberdintasuna sortzeko eta birsortzeko ereduak daukan sistema, sistema kapitalista, alegia, humanizatzeko aukeraz fidatu delako -are nabarmenago korporazio transnazionalen, finantza erakunde erraldoien eta espekulazioko kapitalaren esku dauden merkatuen funtzionamenduan arauak hausten dituzten politika neoliberalen testuinguru batean-.

Horrek guztiak agerian uzten digu sistema bat, pobrezia, desberdintasunak eta bazterkeriaren arazoak konpontzeko gauza ez dela erakustez gain, arreta uxatzen ahalegintzen dena eraldatzeko ekintza politikoa eta hezitzailearen jopuntuko gunetik: emantzipazio sozialeko prozesuen bitartez, justizia soziala eta ekitatea lortzea -norbanakoentzat, eta, batik bat, era askotako zapalkuntzak jasaten dituzten kolektiboentzat-.

2 Europar Batasunak 2015.a Garapenaren Europako Urte gisa aldarrikatu izanak egokiera ematen du kontzeptu katramilatsu horren orientazioari buruzko eztabaida zabaltzeko.

Nolanahi ere, beharbada kritikarik egokiena izango da adieraztea ez Giza Garapenaren inguruko eztabaidak, alde batetik, ez eta Hiritartasun Globalari buruzko ekintzak ere bestetik, ez duela lortu gairak esparru instituzionalak, akademikoak eta garapenerako lankidetzari lotutakoak. Ez dira agenda nagusian edo mugimendu sozialen eginkizunetan txertatu diren kontuak izatera iritsi. Ez proposamen bat ez bestea izan da bideratzaile, lankidetzaren arloan ez ezik, era askotako beste arloetan borrokan aritu diren eta jarraitzen duten kolektibo eta mugimendu sozial askok eskatutakoarentzat.

Hala eta guztiz ere, gaur egungo une honek ahalik eta ekintzarik zabalenak, koordinatuenak eta elkartzaileenak eskatzen ditu, indarrak batu eta estrategiak partekatzea ahalbidetuko digutenak. Ekintza horiekin, globalizazioaren garaien kapitalismoak eragindako ondorioei aurre egin ahal izango diegu, sistemaren aurrerakadari eusteko indartuz, eta izan litekeen beste mundu bat sortzeko xedeak gauzatzeko esperientzia alternatiboak eragiteko ahalegin ugari piztuz.

Atzean ikuspegi hori guztia izanik egin genuen Garapenerako Hezkuntzaren IV. Biltzarraren deialdia, eta hemen zertzelada gisa adierazitako gogoeta horiek eragin zuten Batzorde antolatzaileak lau gai-ildo hautatzea. Ondoren, gai-ildo horien gainean egituratu zen topaketa, eta horien inguruan aurkeztu genituen jarraian laneko taldeek adierazitako gako garrantzitsuenetako batzuk.

2. Subjektu politikoa eraikitzea³

Zaila da "subjektu politikoa" zer den definitzea. Kontzeptu konplexua da, dimentsio anitzekoa, dinamikoa, eta testuinguru bakoitzean lurrera ekarri eta gizartea alda dadin eragiteko une bakoitzean ekintzaile politikoak diren eragile sozialekin harremanetan jarri behar da. Rauberrek (2006:140) ederki adierazten duen moduan, "Ez dago subjektu sozialekiko eta subjektu historikoarekiko bereizitako subjektu politiko burujaberik. [...] Ezinbestekoa da gaur eragile sozial eta politikoen artikulazio organikoa eraikitzeko bideak bilatzea, eragileen arteko mendetasun hierarkikorik gabe, goi-argiak jotako abangoardiarik gabe, lehen, bigarren edo hirugarren mailako subjekturik gabe".

Subjektu politikoei buruz hitz egitea botere-harremanei buruz hitz egitea da, mugimendu sozialak, kolektiboak eta antolakuntzak borroketako protagonista

3 Gai-ildoei buruz ondoren adierazita dagoena laneko taldeetako dinamizatzaileentzako iradokitako ideien sintesia eta berrinterpretazioa da, taldeetako bakoitzean parte hartu zuten kideekin partekatuta eta zegokien kontalaritzak lantzeko ardura hartu zutenek bilduta.

eta gizartea aldatzeko estrategien bultzatzaile bihurtzen dituzten ahalduntze prozesuez hitz egitea da. Subjektuak eraldatzeko prozesuan bertan bihurtzen direlako subjektu. Bide horretan identifikatzen dira pertsona eragiten dieten era askotako zapalkuntzak⁴, eta horiek hartu behar dira kontuan modu kolektiboan eraikitzeko, prozesuan bat egiten duten desberdintasunetatik eta identitate eta biografia anitzetatik abiatuta -pertsonala politikoa dela gogorarazten digun esaera feministaren arabera-.

Errealitatea bizitaketik eta sentitutaketik abiatuta, kognitibotik eta emozionaletik hasita analizatzeko, galdetzeko eta zalantzan jartzeko gaitasunak garatzen dituen neurrian, subjektu politikoa indartu egiten da. Etengabe aldatzen ari den prozesu malgua da, esperientziak aurrera egiten duen neurrian, harremanak eraikitzen diren heinean, konpromisoa handitzen den neurrian aurrera egiten duena. Hortxe jaiotzen da "desira militantearen" aukera, ekintzara bultzatzen gaituen indar bezala, aldakuntzetarako substratu ahaltsu bihurtzen dena. Hortxe finkatzen dira eraldatzeko borondatea eta errebeldia, errealitatea harridura eta ezarritako normaltasunarekiko haustura eragiten digunaren ikuspegitik irakurriz.

Babestu nahi dugun hezkuntzak funtsezko eginkizuna du prozesu horietan, izaera emantzipatzaileko subjektu politikoak ahalduntzera bideratuta egoteagatik eta botere-harreman hegemonikoei aurre egiten dieten ikuspuntuak sendotzeko eskaintzen duen aukeragatik. Begirada feministak eta zainketen etikak, partekatuz zerbait egiten hasteko abiapuntua den ezagutza edota jakintza baldintzatzen dutenez, eta baita patriarkatuak eta bere berdintasun ezak eragindakoaren aurka eraikitzen diren botere-harreman motak ere.

"Mugimendu soziala hezkuntzako abiapuntutzat hartzeak (Salette Caldart, 2000:204⁵) eskolaren eta irakaslearen eginkizun tradizionala gainditzea ekarri du: dagoeneko ez dago hezkuntzan espezializatutako espaziorik eta haren ardura duen langilerik; espazio guztiak, ekintza guztiak eta pertsona guztiak espazio-denbora eta subjektu pedagogikoak dira. Beste ondorio askoren artean, baldintza horietan hezkuntzak ez du ez xede ez eta helbururik ere; izan ere, lurraren eta mundu berri baten aldeko borrokako mugimendua birsortzeaz gainera, "gizakiak ekoizten"

4 Pertsona guztiak zapalkuntza berberak jasaten ez badituzte ere, eta zapalkuntza guztiak pertsona guztiengan eragin berberak ez badituzte ere.

5 Salette Caldart, Roseli (2000). *Pedagogia do Movimento Sem Terra*. Petropolis, Vozes.

ditu. Orobat, "eraldatuz norbera eraldatzea" da mugimendua gidatzen duen oinarri pedagogikoa (Salette Caldart, 2000:207).

Hala ere, zer esan nahi du mugimendua subjektu hezitzailea izateak? Hezkuntza mugitzen ari den hezkuntza bat dela. Horrek erronka jotzen die gure kontzepzio oinarrikoenei. Nola hezi daiteke mugimendu bat? Mugimenduarentzat edo mugimenduaren baitan heztea da bat; mugituz heztea da bestea. Hemen, erabakigarriena ez da zer pedagogia erabiltzen den, ezta zer eskola-eredu jarraitu nahi den ere, baizik eta praktika sozialekin lotutako klima eta giza harremanak." (Zibechi, 2006:126)⁶.

Hezkuntza emantzipatzaileak ibiltzeko modu batez ere hitz egiten digu -batera, askotarikoak elkarrekin, elkarrizketan, mugituz ikasiz-; borroka egiteko modu batez ere bai -gorputzez, desiraz, estetika eta alaitasunarekin, hitzarmenak eta artikulatzeak eraginez-; baita aldakuntza askatzaileak sortzeaz ere -bititik, egunerokotik, intelektualetik eta emozionaletik abiatuta-.

3. Eraldatzeko komunikazioa

Harremanetarako sistema da komunikazioa, eta bere baitan ideiak trukutzen dira, mezuak, informazioa, ezagutzak eta jakintzak, kode bateratuak partekatzen dituzten pertsonen artean.

"Komunikazioa, jendarte-harremana den heinean, komunitatean bizitzea ahalbidetzen digun sistema da, eta horrek bihurtzen gaitu elkar zaintzeko eta gure gaitasun guztiak garatzeko gai garen izaki sozial. Hari horretan, komunikazioa eta politika txanpon beraren bi aldeak dira. Komunikazioa modu berean izan daiteke gizartea eraldatzeko tresna eta gizartea birsortzeko eta diziplinan sartzeko lanabes"⁷.

Baina komunikazio eraldatzailea da landu nahi duguna, hezkuntza emantzipatzaileko prozesuei laguntza emateko. Komunikazio horretan, trukean erabiltzen diren bitartekoak eta mezuak garrantzitsuak badira ere -batzuk egokiak izan beharrekoak, eta besteak kritikoak, aipagarriak, aproposak-, bereziki interesgarri zaizkigu eredu hori bultzatzen duten prozesuak.

6 Zibechi, Raul (2006). "La emancipación como producción de vínculos" Ceceñan, Ana Esther: *"Los desafíos de las emancipaciones en un contexto militarizado"*. CLACSO, Gizarte Zientzietako Kontseilu Latinoamerikarra, Buenos Aireseko Hiri Autonomoa, Argentina. 123-149 orr.

7 Garapenerako Hezkuntzaren IV. Biltzarraren baitan (Gasteiz, 2014) Angelesek Diezek dinamizatutako laneko taldean Federico Abreuk egindako kontalaritzaren laburpena.

Baldin eta hezkuntza emantzipatzailearen azken helburua gizartearen eraldaketa bultzatzea eta era guztietako herri eta pertsonak zapaltzen dituzten egituretatik askatzeko eragitea bada, hori prozesu kolektiboen bitartez soilik lor daiteke. Eta funtsezko ezaugarria da hori pentsamendu kritikoa sortzeko eta prozesu emantzipatzaileak bultzatzeko jakintza erabilgarriak eragiteko elkarrizketak sendotu nahi dituen komunikazio eraldatzailearentzat.

Abreuk gogorarazten digun moduan (2013:75-76): "Hori dela eta, ezin da izan komunikaziorik gabeko hezkuntza-praktikarik, eta elkarrekin hizketan jarritako pertsonen arteko komunikazio prozesu oro, aldi berean, hezkuntza-prozesua da".

Koherentziaz, hezkuntza emantzipatzaileak komunikazio eredu parte hartzailearekin egiten du lan. Eredu horrek harreman horizontalak finkatzen ditu elkarrekiko, askotariko konexioen bidez -ez bi noranzkotan soilik-, eta bertako pertsona eta talde guztiek eurei eragiten dieten arazoak identifikatu, definitu eta analizatzen dituzte; hortik abiatuta, errealitatea eraldatzeko. Freireren iritziz, horrexegatik da autokudeatzailea. Subjektuek eurek definitzen dute komunikazioak lortu nahi duen helburua.

Komunikazio eraldatzaileak aintzat hartzea komeni den gako batzuen arabera jokatzeko du:

- Gatazkari ekin behar dio, eta, haren barruan, komunikazio prozesuetan ere badauden botere-harremani erreparatu.
- Hegemoniaren aurkakoa izan behar du, eredu nagusia eta bere eraginak zalantzan jartzeko gai; praktika eta esperientzia alternatiboak sortzeko gauza.
- Patriarkatua eta kapitalismoaren kolonialismo ideologikoari aurre egingo dioten beste balio batzuk indartu behar ditu, berdintasunik eza eta bazterkeria justifikatzen dituen iruditeria kolektiboa pitzatu ahal izateko.

4. Botere-harremanak zalantzan jartzea

Botere-harremanek gure bizitza alderik alde zeharkatzen dute, eta eguneroko esparru guztietan daude, pribatu zein publikoetan, hala pertsonaletan, nola lanekoetan, bai ekoizpenekoetan, bai berrekoizpenekoetan.

Boterea dimentsio ugariako kontzeptua da, eta adjektiboak ezarri beharra du, darabiltzan formen aniztasuna analizatzeko eta haien artean bereizteko ahaldunduz eta eraikitzen dutenak, batetik, eta pertsona batzuk besteak baztertzea, ahultzea eta menderatzea bideratzen dutenak, bestetik.

Horretaz gain, boterea konplexua da, aldakorra, harremanetarakoa; izan ere, eskuarki subjektu partaideen egoerak eta kokalekuak aldi berean alderik alde gurutzatzen ditu hainbat botere motak. Hori horrela gertatzen da, botere-harremanak sortu eta gauzatzeko moduetan eragiten duten faktoreak zinez anitzak direlako: sexua, adina, generoa, etnia, gizarte-maila, hizkuntza, lurraldearekiko loturak, biografiak... Horrekin guztiarekin, multzo konplexua osatuz joaten da, boterearen esperientzia forma guztiak moldatzen dituzten elementu pertsonal eta kolektiboekin. Arrazionala eta emozionala, analitikoa eta sentitutakoa-bizitakoa nahasi egiten dira elkarrekin, bai boterearen pertzepzioan eta baita boterearen aurrean geu kokatzeko forman ere.

Modurik errazenean identifikatzen ditugun botere adierazpenak⁸ gure bizitzetan eragin negatiboa dutenak dira, "zerbaiten gaineko botere" bezala gauzaten direnak, hain zuzen. Botere horri erronka jo ahal izateko eta, menderatzea eta zapaltzea gauzaten eta birsortzen dutenen erabat aurka, izaera emantzipatzaileko beste parametro batzuen arabera errealitatea eraldatzea ahalbidetuko diguten baldintzak sortzeko, beste botere adierazpen batzuk indartzeko beharra dugu⁹.

Feminismoak beste botere kategoria bat iradokitzen digu, "bizi-botere" kontzeptuan biltzen dena, eta arlo pertsonala eta kolektiboari dagozkion azpikategoria batzuk ditu bere baitan: erabakiak hartzeko "zerbaitetarako boterea", nahi den noranzkoan eragiteko, parte hartzeko, gure gaitasunak garatzeko, gure bizi baldintzak zehazteko; "partekatutako boterea", arlo kolektibora, komunitariora, guztiontzakoa dena eraikitzeke bat egiten duten askotariko interesen artean elkarriketa, hitzarmenak eta artikulazioak sortzera garamatzana; "barneko boterea", duintasuna, autoestimua, ahalduntzea, beste orainaldi eta beste etorkizun batzuk irudikatzeke sormenaz ari dena; azken horrek beste adierazpen bat gehiago egitera garamatza: "proposatzeko boterea".

Esparru analitiko horrek ahalmen aberatsa eskaintzen du hezkuntza emantzipatzaile baterako, ekintza hezitzailea "giza taldeak status quo-ari, egitura, arau eta balore zapaltzaile hegemoniko orori erronka jotzeko antolatzen direnean gertatzen den"¹⁰ ahalduntze askatzailera bideratzen duten prozesuen erdian kokatzen duelako.

8 Miller, Valerie; Veneklasen, Lisa eta Clark, Cindy (2008). "Conceptualizando el poder para avanzar la justicia, la igualdad y la paz". *Haciendo que el cambio sea una realidad*, 3. Zb. Justiziak Elkartuak (JASS-Just Associates)/Hivo.

9 Botere mota guztiak espazio publikoan, pribatuan eta intimoan daude aldi berean, eta honako modu hauetan azaltzen dira: ageriko boterea, ezkutuko botere, botere ikusezina.

10 Garapenerako Hezkuntzaren IV. Biltzarraren baitan (Gasteiz, 2014) Jethro Pettitek dinamizatutako laneko taldean Maria Viaderok egindako kontalaritzaren laburpena.

5. Prozesuak analizatzea

Analizatzea komeni zaigun prozesu mota gizartea aldatzeari begira sustatzen dena eta ikuspuntu emantzipatzailearekin koherentea dena da. Ikuspuntu horretatik, taldea eraikitzen duten hezkuntza-prozesuak ditugu hizpide, analisi politikorako daukagun gaitasuna handitzen dutenak, kontzientziazio dinamikak eragiten dituztenak, ezagutza kritikoa eta aipagarria eragiten dutenak, finkatutako sistemari desafio egiten diotenak, izaera estrategikoa duten mugiarazteko ekintzekin batera doazenak, askotariko hitzarmenak sustatzen dituztenak, eta, hori guztia ikuspegi tokiko-globalak elkartzen dituzten ikuspuntuetatik eginez, feminismoak, iraunkortasunak eta zaintzeak partekatzen dituzten desafioei erantzuten dietenak.

Prozesu horiek nola funtzionatzen duten eta emantzipaziora bideratutako esperientzietatik zer ikaskuntza erartortzen diren ezagutzea funtsezko alderdia da erakunde eta mugimendu sozialek eragiten dituzten ekintza pedagogiko eraldatzaileak indartzeko.

Nahi dugun motako ekintzak ekoizteko eta lortzen ditugun emaitzak zehazteko garrantzitsuak diren dinamikien sorta bat dakarte prozesu konplexu horiek, eta, beraz, aintzat hartu beharko ditugu horiek analizatzerakoan:

- Hezkuntza-prozesu guztietan, arlo pertsonalak, kolektiboak eta sozialak, kognitiboak, emozionalak eta gorputzekoak eragina dute haien garapenean. Prozesuak bere horretan partaide diren pertsona eta taldeentzako askatzaile izatea bermatzeko gogoan hartu behar dituzten dimentsioak dira.
- Komeni da jakitea zer mekanismo zabaldu diren guri desikasten laguntzeko, gure pentsamendua eta praktikak gure bizitzan erabiltzen ditugun sozializazio guneen bitartez ikasi eta finkatutako botereak eskura dauzkan moldatze ideologikoko egitura guztiek berrekoizten dituzten arrazoibide kolonizatzaileetatik askatzen laguntzeko.
- Gatazka aldakuntza prozesu guztietan dagoen eragile moduan, eta erabakiak hartzerakoan, botere-harremanetan eta pertsona eta interesen arteko elkarrekintzetan eragiten duen elementu bezala. Nola kudeatu izan den, zer neurritan hartu izan den, edozein hezkuntza-prozesutan beti dagoen faktore gisa ez ezik, baita ikaskuntza eta prozesuaren orientazioa oztopatu edo aberastu dezakeen faktore bezala ere.
- Parte-hartzea demokratizatze mekanismo bezala, eta banaka eta taldeka ahalduentzeko funtsezko estrategia moduan. Baita era askotako begirada

eta interesak ziurtatzeko ere, partekatutako zentzu ona bilatzean, bat egin behar duten bizi-esperientziak eta esperientzia politikoa k uztartzeko.

- Prozesuarekin batera doazen arrazoibide politikoa eta esparru ideologikoa, eta prozesuaren erritmoa ezartzen duten jokatzeko oinarriak, aurreko elementuak bezalaxe, ekintza emantzipatzaileak gidatzeko justizia soziala, elkarrekiko erantzukizuna eta ekitatea lortzeko helburuekiko koherentzia mailaren arabera balioztatu beharreko elementuak dira.

Ez dugu bukatu. Pentsatzen, erronka jotzen,
ekiten, helmuga utopikoetarantz ibiltzen jarraitzen
dugu. Elkarrekin KOMUNIKATUZ, HEZKUNTZA
EMANTZIPATZAILEKO PROZESUEN bitartez
BOTERE HARREMANAK iraultzen dituzten
SUBJEKTU POLITIKOAK gara.

Eranskina. Generoa behatzeko orria

Behatutako esperientzia edo mahaiaren izena

Aurkezlea eta/edo dinamizatzailea: _____

Parte-hartzaileen kopurua:

_____ emakumeak _____ gizonak _____ guztira

Hizkuntza

1. Tailerreko txostengileek hizkuntza inkusiboa erabili dute (jarri X bat):

beti askotan batzuetan inoiz ez

2. Aurkezpenetan, bideoetan, erakutsitako papelografoetan, hizkuntza inklusiboa erabili dute

beti askotan batzuetan inoiz ez

3. Taldean, parte-hartzaileek hizkuntza inklusiboa erabili dute

beti askotan batzuetan inoiz ez

4. Aurkezpenean erabilitako irudietan

a. Era berean agertzen dira emakumeak eta gizonak?

beti askotan batzuetan inoiz ez

b. Sexistak dira/estereotipoak erabiltzen dituzte?

beti askotan batzuetan inoiz ez

5. Txostengileek erabilitako adibideetan

c. Era berean agertzen dira emakumeak eta gizonak?

beti askotan batzuetan inoiz ez

d. Sexistak dira/estereotipoak erabiltzen dituzte?

beti askotan batzuetan inoiz ez

Parte hartzea

6. Parte hartzeko unean, zenbat aldiz hitz egiten dute eta zenbat denbora ematen dute hizketan? Jarri makilatxo bat esku hartu duten bakoitzean, hala dagokion laukian.

Emakumeak			Gizonezkoak		
Laburra	Ertaina	Luzea	Laburra	Ertaina	Luzea

7. Etenik egon bada edo parte-hartzailereren bati hitza kendu bazaio, zehaztu: Zenbat eten izan da? Jarri makilatxoa hala dagokion tokian.

	Emakumezkoa	Gizonezkoa
Nork egin du?		
Noren jarduna eten du?		

8. Parte-hartze aldetik desberdintasuna egonez gero, dinamizatzaileek neurri zuzentzaileak hartu dute? Markatu hala behar den laukia.

beti askotan batzuetan inoiz ez

9. Parte-hartzaileek proposamen edo kebaren bat jarri al dute parte-hartze aldetik egondako desberdintasuna dela-eta? Markatu hala behar den laukia. Hainbat proposamen egonez gero, adierazi makilatxoekin zenbat izan diren hala behar den laukian.

Bai	Ez	Nork?	
	 Emakumeak Gizonak
.....		

Hitik gabeko hizkuntza eta hizkuntza paraberbala esku-hartzeetan:

10. Zure ustez, desberdintasunik egon al da gizon eta emakumeen artean parte hartzean, haien jarreretan, tonuetan, adierazpideetan, keinuetan...?

Besterik gaineratu nahi duzu?
